

# Irulegiko Eskua

Testuaren interpretazioa

Analisi linguistikoa




PDF bertsioa

Joseba Butroe · 2023ko azaroa

# Aurkibidea

Sarrera	3
Posterrak. Sintesiak	4
eus · eng · esp · cat · fra · lat	
Marrazkiak	10
Artikuluak. Sintesiekin	
I Agurtzeko esaldiak	12
II Nola bizi diren	18
Interpretazioaren txostenak. Sintesiekin	
III te.n.e osagaia: <i>dene</i>	29
IV o.T osagaia: <i>hots</i>	41
V e.s.e.a.ka.í.i osagaiak: <i>ez ahakarri</i>	49
VI Adizkiak: <i>ekun · dra · edrauk</i>	55
VII Deklinatuak: <i>kebe · eki · aterpen</i>	65
VIII Sintagmak: <i>zori on · irri · ma</i>	73
Txostenetako oharrak	80
Eskuarekiko problematika	99
Hizkuntzaren problematika	102
Testuaren problematika	108
Barskunera. Gida baterako apunteak	117
Amaierakoa. <i>Desolatio</i>	149
Bibliografia	150
Webgrafia	152



## Sarrera

- [Irulegiko Eskua](#) aurkeztu eta gutxira testua argitzeko lanean murgildu ginen filologo lagun batzuk eta, horrela, 2022ko azaro-abenduan plazaratu genituen interpretazio orokorraren bi txosten, [A/ea](#) aldizkarian, bi artikulutan BEFT talde izenarekin. Poster gisa ere moldatu genuen eskukoa, sintesia eginez.
- Ondoren, 2023 honetan, interpretazio orokor hori atalez atal egiaztatzeko lana etorri da, adierazitakoa datu linguistiko askoz gehiagorekin indartzeko. Denean sakondu dugu: testuaren idazkeran, segmentuetan, egituretan... Horren ondorio dira [Txostenak](#) (sei), gehi [Oharrak](#). Eta eskuaren garaia ilustratzeko, marrazki eder batzuk.
- Baina horrez gain [Problematika](#) atala ere osatu dugu, eskuari buruz izan diren hitzaldien jarraipena eginez.
- Azkenik, ikerketaren emaitza moduan [Barskuner](#)a gida ondu dugu, gure aitzineuskara haren ezaugarriak eta berezitasunak bildurik.

# Posterrak sintesiekin

EUS



Jatorrizko panela: Aranzadi · Testuaren interpretazioa  
Moldapena eta posterra: Butroe

BEFTko kideok Irulegiko Eskuko testuaren ikerketan dihardugu 2022ko udazkenaz geroztik.

Euskara arkaikoan idatzita, gure interpretazioaren arabera testuak bi parte ditu: agurtzeko esaerak diren bi esaldi labur, lehen eta azken lerroan; eta beste bi esaldi, Erdiko lerroak, beraien bizimoduaren deskribapena direnak.

Hamabost elementu segmentatu ditugu:

6 izen: *zori · aterpe · hots · irri · ma · ahakar*

3 aditz: *ekun · dira · eraduk*

2 izord. erakusle: *denak · haiekin*

2 aditzondo: *hemen · ez*

1 izenondo: *on* (bitan)

1 juntagailu: *eta*

Brontzezko esku batean, duela 2.100 urte, soilik 41 zeinurekin, ondu zuten testu bat zoragarria.

ENG



Original panel: Aranzadi · Interpretation of the text  
Modification and poster: Butroe

BEFT members have been working on the investigation of the Hand text since fall 2022.

Written in archaic Basque, according to our interpretation the text is made up of two parts: two short sentences that are greeting formulas, in the first and last line; and two other sentences, the central lines, which are a description of their way of life.

We have segmented fifteen elements:

6 nouns: *zori · aterpe · hots · irri · ma · ahakar*

3 verbs: *ekun · dira · eraduk*

2 demonstratives: *denak · haiekin*

2 adverbs: *hemen · ez*

1 adjective: *on* (twice)

1 conjunction: *eta*

In a bronze hand, 2,100 years ago, with only 41 signs, they composed a wonderful text.

ESP



Panel original: Aranzadi · Interpretación del texto  
Modificación y poster: Butroe

Los miembros de BEFT estamos trabajando en la investigación del texto de la Mano de Irulegi desde el otoño de 2022.

Escrito en euskera arcaico, según nuestra interpretación el texto se compone de dos partes: dos oraciones breves que son fórmulas de saludo, en la primera y última línea; y otras dos frases, las líneas centrales, que son una descripción de su modo de vida.

Hemos segmentado quince elementos:

6 sustantivos: *zori · aterpe · hots · irri · ma · ahakar*

3 verbos: *ekun · dira · eraduk*

2 demostrativos: *denak · haiekin*

2 adverbios: *hemen · ez*

1 adjetivo: *on* (dos veces)

1 conjunción: *eta*

En una mano de bronce, hace 2.100 años, con sólo 41 signos, elaboraron un texto maravilloso.

FR



Panneau original: Aranzadi · Interprétation du texte  
Modification et affiche: Butroe

Nous, les membres de BEFT, travaillons à l'investigation du texte de la Main depuis l'automne 2022.

Rédigé en basque archaïque, selon notre interprétation le texte est composé de deux parties : deux phrases courtes qui sont des formules de salutation, en première et dernière ligne ; et deux autres phrases, les lignes centrales, qui sont une description de leur mode de vie.

Nous avons segmenté quinze éléments :

6 noms: *zori · aterpe · hots · irri · ma · ahakar*

3 verbes: *ekun · dira · eraduk*

2 démonstratifs: *denak · haiekin*

2 adverbes: *hemen · ez*

1 adjectif: *on* (deux fois)

1 conjonction: *eta*

D'une main de bronze, il y a 2 100 ans, avec seulement 41 signes, ils ont composé un texte merveilleux.



Panell original: Aranzadi · Interpretació del text  
 Modificació y pòster: Butroe

Els membres de BEFT estem treballant en la investigació del text de la Mà de Irulegi des de la tardor de 2022.

Escrit en euskera arcaic, segons la nostra interpretació el text es compon de dues parts: dues oracions breus que són fórmules de salutació, a la primera i última línia; i dues frases més, les línies centrals, que són una descripció del seu mode de vida.

Hem segmentat quinze elements:

6 substantius: *zori · aterpe · hots · irri · ma · ahakar*

3 verbs: *ekun · dira · eraduk*

2 demostratius: *denak · haiekin*

2 adverbis: *hemen · ez*

1 adjectiu: *on* (dues vegades)

1 conjunció: *eta*

En una mà de bronze, fa 2.100 anys, amb només 41 signes, van fer un text meravellós.



## LAT



Tabula originalis: Aranzadi · Interpretatio textus  
Modification et poster: Butroe

BEFT membra in investigatione manus textus laboraverunt quia cadunt 2022.

Pervetustis Vasconicis scriptis, secundum nostram interpretationem textus constat ex duabus partibus: duabus brevibus sententiis, quae sunt formulae salutationis, in prima et ultima linea; et aliae duae sententiae, lineae centrales, quae sunt eorum vitae descriptio.

Quindecim elementa divisa sumus:

6 nominibus: *zori · aterpe · hots · irri · ma · ahakar*

3 verba: *ekun · dira · eraduk*

2 demonstrativae: *denak · haiekin*


2 adverbia: *hemen · ez*

1 adiectivum: *on* (bis)

1 conjunctio: *eta*

In manu aenea, abhinc duo milia centum, signis tantum quadraginta uno, textum mirabilem fecerunt.

## Marrazkiak



Marrazkiak: J. A. Ruiz, Jesse · ©

Herrixka irudikatu dugu Irulegiko Eskuko testua hurbilagokoa gertatzeko.



- Herrixka izan zitekeena, ikuspegi orokorra. Harresi batek inguratua, [dene heki aterpen](#).
- Zaldizkoak. Garai hartako txanponetan zaldizkoen irudiak irarri zituzten eta erromatarren artean ere ospea zuten.
- [Zori hon ekhun](#) agur egiten, ziurrenik.
- Beti uste izan da ez zutela idazkera erabiltzen, erromatarrekin harremanean hasi ziren arte. Baina eskuak erakutsi digu idatzizko komunikazioan ere aritzen zirela, idatzi eta irakurri ere egiten zuten. Eskua eskegitzekoa zen, irakurria izateko.

Gai hau gogoko baduzu, *Berria*-k artikulua sorta bat eskaini zuen, Mikel P. Ansak ondua: *Baskoien atzetik azterka*. Molde dibulгатiboan emanak, informazio oso interesgarria dute.

I [Aro bat itzaletan](#)

II [Kultura bat, bertsio asko](#)

III [Zer bizimodu Burdin Aroan](#)



Marrazkiak: J. A. Ruiz, Jesse · ©

Beraien bizimoduko eszena batzuk irudikatu ditugu.

- Horra eskuaren grabatzailea, eta atzean merkataria bat. Eskua brontzezko xafla batean egin da, eta aleaziorako material inportatuak behar ziren.
- *Ez ahakarri*, liskarrik ez, jolastu haserretu gabe. Baina neskato-mutiko txintxoien antza dute.
- Suaren ingururuan, kontu-kontari, ilargia lagun, erronkarieraz *goikoa* deitzen dena.
- Eskuko testuan irakurtzen dugunez, herrixkako giroa alaia eta zoriontsua zen: *hots*, *irri* eta *ma*. Eta baketsua: *ez ahakarri*.

Esan bezala, *Berria*-k artikulu batzuk eskaini zituen, Mikel P. Ansa eginak: *Baskoien atzetik azterka*. Era dibulгатiboan, informazio oso interesgarria dute.

IV [Konkistaren trazak](#)


V [Erromaren gerizpean](#)

VI [Arkeologia da esperantza](#)

## Artikuluak



### I Agurtzeko esaldiak



Artikulu eran *A/ea* aldizkarian argitaratu zen, 2022ko abenduan,  
BEFT taldearen izenean.

Eskuko lehenengo eta laugarren lerroetako testuaren interpretazioa da,  
tankera dibulгатiboan emana.

## I · Laburpena

Hau da *Alea* aldizkarian plazaratu genuen lehen artikulua, 2022ko azaroan.

Eskuko testua osatzen duten lau lerroetatik, lehenengoa eta azkenaren interpretazioa egiten dugu. Hori egiteko arrazoia da ulertzen dugula agurtzeko formulak direla, testua ireki eta ixten dutenak.

Lehenengoa, *Zori on ekun*, agur esaldia da, zorte ona opatzeko. Azken esaldia, *Eraduk on*, agurra itzultzea dela ulertzen dugu, hikan; edo, baita, 'Izan ongi' agur gisa interpreta daiteke.

---

## I · Abstract

It is the first article that we published in November 2022, in *Alea* magazine.

Of the four lines that make up the text of the Hand, we make an interpretation of the first and last. The reason for doing so is that we understand that they correspond to greeting formulas, which open and close the text.

The first, *Zori on ekun*, is a greeting wishing good luck ('Good luck'). The last sentence, *Eraduk on*, is a return of greeting ('Good you have it'), or it can also be interpreted as a farewell.

---

## I · Resumen

Es el primer artículo que publicamos en Noviembre de 2022, en la revista *Alea*.

De las cuatro líneas que componen el texto de la Mano, hacemos una interpretación de la primera y última. La razón de hacerlo así es que entendemos que corresponden a unas fórmulas de saludo, que abren y cierran el texto.

La primera, *Zori on ekun*, es un saludo deseando buena suerte ('Buen auspicio'). La última frase, *Eraduk on*, es una devolución del saludo ('Bueno lo tengas'), o también puede interpretarse como despedida.

---

## I · Resum

És el primer article que publiquem al novembre de 2022, a la revista *Alea*.

De les quatre línies que componen el text de la Mà, en fem una interpretació de la primera i última. La raó de fer-ho així és que entenem que corresponen a unes fórmules de salutació, que obren i tanquen el text.

La primera, *Zori on ekun*, és una salutació desitjant bona sort ("Bon auspici"). La darrera frase, *Eraduk on*, és una devolució de la salutació ("Bé ho tinguis"), o també pot interpretar-se com a comiat.

---

## I · Résumé

C'est le premier article que nous avons publié en novembre 2022, dans le magazine *Alea*.

Des quatre lignes qui composent le texte de la Main, nous faisons une interprétation de la première et de la dernière. La raison en est que nous comprenons qu'elles correspondent à des formules de salutation, qui ouvrent et ferment le texte.

Le premier, *Zori on ekun*, est une salutation souhaitant bonne chance ("Bonne chance"). La dernière phrase, *Eraduk on*, est un retour de salutation ("Bien vous l'avez"), ou elle peut aussi être interprétée comme un adieu.

## I Agurtzeko esaldiak



Panel originala. Aranzadi, 2022.

∩∩	a ha	∧∧	l	T	-ts
∟	e	∠	r	T	-tz
∩	i	∩	rr rr <sup>dr</sup> rp		
∩∩	o ho	∩	n		
↑	u	∩∩	s z	M	s
	ba	X	ta	∧∧	ka
∩	be	∩∩∩	te de	∠∠	ke
∩	bi	∩∩	ti	∩	ki
∩∩	bo	∩	to	∩	ko
∩	bu	∩	tu	∩∩∩	ku gu

Zeinutegia, 2023. Butroe

Zirrara eragin digu Irulegiko Eskuak, testuak, batez ere. Denok jakin nahi dugu zer dioen antzinateko mezu misterioitsuak, baina zailtasunak handiak dira, adituek ohartarazi dutenez.

Honelako gertakari batek, argitara ekarri ahal izateko, beharrezko ditu jakintza, jakituria, talde lana, denbora, eta gehiago. Bada, horiek guztiak aintzat hartuta dihardugu Bizkai aldean filologo talde batek ikerkuntzan.


Testura hurbiltzeko abiapuntu bat behar da: idazteko erabili zuten grafema-sistema, signarioa (1)\*. Antzinate hartan sistema bat baino gehiago zegoen, baina eskukoaren egileek alboko laukian dagoena zekiten, eta apur bat osatua zuten T karakterearekin. Baskoien sinbolo bereizgarria da, beraien txanponetan agertzen baita; baina ez da jakin ziur zein soinuri dagokion. Eskuan ageri da, 3. lerroan.

Ikus daitekeenez, sistema nahiko mugatua da. Ez du balio soinu edo silaba batzuk transkribatzeko, ez baitzegoen hori beraien *alfabetoan*. Antzekotasun fonetikoan oinarrituta funtzionatzen zuen sistemak: *de* ez dago, baina *te* antzekoa da: balio du. Beraz, lehen faktorea da *alfabeto* mugatuarena (1F).

Horri jarraiki dator beste faktore bat (2F) eta da nola transkribatu silaba konplexuak. Alegia, bok+konts (edo alderantziz) osaera duten fonemak errazak dira idazteko; signarioan horiek daude. Baina nola irudikatu bi kontsonantedun silabak, konplexuak? Digrafoak, alegia. Kasurako, /dra/, /tzu/... tankerako fonemei dagozkien silabak.

Faktore horri lotuta dator, berehala, beste bat (3F). Alfabetatuta gaudenontzat erraz xamarra da hitzetako silabak, zatiak, bereiztea. Eta askoz errazagoa hitzak bata bestetik bereiztea. Baina antzinate hartan ez zuten gaur dugun praktika idatzizko hizkuntzarekin.

Horregatik, testuak dena jarraian idazten zituzten. Horra Botorritako (Zaragoza) lehen brontzea. Hizkuntza zeltikoa da, zeltiberoa, K.a. I. mendekoa, eskukoaren garai bertsukoa:



Iturria: Auñamendi, Eusko Ikaskuntza.

Dena da sinboloen segida bat, zeinetan zaila den hitzak-edo bereiztea, eta are gutxiago silabak. Bada, hiru faktore horiek eragin zuzena dute gure eskuko testuan, baina ez horiek bakarrik, laster azalduko dugunez.

### Lehenengo lerroko testua: **sorione ku · n**

Horrelaxe dago transkribatuta, eman dugun alfabeto-sistemarekin gutziz bat. Berehala interpretatu da *Zorioneko* gisa, azken sinboloa aparte utzita. Eta bai, bi mila urte ukan arren, gaur-gaurko euskara dirudi. Alta, berehala erreparatu zioten arazo bati: *ku* jartzen du, baina eskuko testuaren azken zatian *ko* dago. Zergatik ez zuten idatzi *sorioneko*?

*Zori* hitza oso zaharra da: 'patua' edo 'adurra' zentzua du. Eta *txori* hitza kidea da. Dokumentatuta dago baskoiak aztiak zirela txoriekin, txorien hegaldietan etorkizuna igartzeko artean. Ospea zuten horretan, eta Erromara ere eraman izan zituzten, gerraren bat egin edo erabaki handiren bat hartu behar zutenean, azti baskoien augurioak kontsultatzeko. Geroagokoa da *zorte* hitza, latinetik etorria. Gure *agur* latinezko *augurium* ('zoria, zortea') hitzetik dator. Nolabait esateko, 'adurra (zurekin)'. Eta horixe bera da *sori on*, baina latina gurera etorri baino lehenagokoa. Agurtzeko modu bat da. Santa Ageda kopletan ere oraindik esaten da: *Zori on etxe honetako denoi, oles egitera gatoz...*

Eta *ku*? Hori beste hitz baten zatia da: *ekun* aditza. Nahitz eta *n* aparte egon, taldeko aditu batek proposatu zuen *ekun* izan zitekeela, erronkarieraz *ukan* edo *eduki*. Eta horrelaxe da. Orotarikoan (OEH) edo Estornes Lasaren eta beste biltzaile batzuen materialetan ez da adibiderik falta:

- *Ekun* zazu pazienza
- *Oil beztad erraitra non baratan den, eta karten direkzionia, etzadan ekun sospetxarik galten drela.* Mdg
- *(Ukan) En textos roncaleses hay ekun y –sólo en compuestos verbales– ekuntu.*
- *Biar du ekun bere bekatieuz dolore egiatzko bat.*
- *"Ekunik dur (R-uzt), lo tengo como regalo, me lo han dado"*
- *Ekun baidutzu estaltruk edo altxatruk gaiza kuek sigloko sabiuier ta prudenter eta rebelatu baidutzu txikerrekuer.*
- *Aquí hace falta lluvia con mucha frecuencia. Kében bar diézu éuri ékun egunoro.*
- *Hemos tenido muchos niños. Ekun déugu aur ánitx.*
- *No tengas trato (mujer) con ella. Ez tan tráturik ekun kareki.*
- *Eztakiár nóla erráitan al dein Santa Kara, Méliða y Murillo, zer izenen ekúntan dei erri koriek.*

Horra hor, Irulegiko Eskuko lehenengo mezua. Euskarazko esaldirik zaharrena. Lehenengo aditza. Elementu apotropaiako batean. Eta agurra da: 'Ukan (ezazu) zori on'. Etxeparek gure literatura idatziari egindako sarrera bikaina izan bazen, mezu hau ere, 1.600 urte lehenagokoa, urre gorria da. Zori on opa digu. Zoragarria.

Erronkaria edo nafarrera ekialdeko moldea euskarri funtsezkoa gertatu zaigu eskukoa interpretatzeko. Ez da ustekabea, zeren dokumentatuta baitago (1349, ordenantza bat hizkuntza batzuk debekatuz) Huesca inguruko basquenç ere erronkariaren tankerakoa omen zela. Bada, erronkariaren laguntzarekin, [Zori on ekun](#) argituta geratu da, baina testu gehiago dago eskuan, biziki interesgarria, deszifraezina ematen badu ere.

Aurrera egiteko, ikerketa segidan egin ohi da, baina ez dugu horrela jokatu, zeren mezuko azken elementua sarrerarekin erlazioan dagoela deritzogu-eta.

### Laugarren lerroko testua: e f a u k o n

Hor ageri da *ko*. Eta **ř** berezi bat. Zeinutegiaren arabera, hori /rr/ izan liteke. Baina gorago zehaztu dugun 2F faktorea ere kontuan izan behar dugu; alegia, silaba konposatu edo konplexu bat izan daiteke, esaterako *rd* edo *dr*. Aditz bat izan al daiteke? Zer dugu erronkarietaz edo nafarrera ekialdekoan horren antzekoa? OEH:

- [eraduki](#). Tener, mantener. Cf. *hitzeraduki* 'obligé envers quelqu'un' (O Po 51), relacionado seguramente tbn. con itzeradoki de Leizarraga. Harriet da s.v. [eradukitzea](#) ejs. de [erauki](#).
  - Enezala [eraduki](#) batere haiduru. RolTrag 45 (ap. DRA).
  - *Oi, krüdela, erierazi naizü, / Ütsüerazi naizü, / Ülhünpian **eradükiten** naizü!*  
ChantP 116.

Ezin da /rr/ izan, ez baita dokumentatzen *\*errauki* aditzik. Baina euskara molde haren fonetismoen arabera, oso probablea da /edrauk/ izatea, soinuen metatesi bat gertatuta (fonemen transposizioa): *\*erdauk* > *edrauk*. Silaben metatesiak usu gertatzen diren bezala (adib.: *iradoki* edo *idaroki*). Gainera, erronkariak ere gogoko ditu /dra/ tankerako fonemak:

- ek [dra](#) - gu [gra](#) - zu [zra](#)
- *Almadieroak negu gorrian xoaitan [dra](#) egoatxetik*
- *Xoan fite neskatoa matto bero matto andi uskarari [emoitra](#).*

Beraz, aginterazko adizki bat dugu, *edrauk*, hots, 'ukan' ('ezazu / ezak/n') eta *on*, hasieran ikusi duguna. Horrelako aginterak arruntak dira atsotitz zaharretan; Oihenarten bilduman adibidez: *errak egia · emak orari hezurra · egik ongi · onetsak adiskidea...*

Eta zergatik etorri garen azken elementu honetara? Bada, azter dezagun apur bat zer gertatzen den agurtzeko esaerekin. Erromatarrek etorreran *Salve (/salue/)* esaten zuten, eta joatean, *Vale*. Gure gaurko Kaixo eta Agur, labor esateko. Edo hartu-emanen harian: Agur t'erdi - Izan ongi.

Baina izan lezake beste adiera bat ere, eta da agurrari erantzuna emateko formula gisa: *Egun on - Baita zuri ere. Eskerrik asko - Ez horregatik*, eta abar. Imajinatu ditzakegu garai hartako baskoiak honela agurtzen: *Zori on ekun - Edrauk on*. Izan ere, ohartzekoa da *ekun* eta *eraduki* kide direla: *egin - eragin, ikusi - erakutsi...* bezala. Nolabait: *eduki - eraduki*. Beraz, esango bagenu bezala: *Eukik zori on - Eraukik on*. (2)




Izan ere, agurraren parte independente bat izatea, posibilitate hori, ez dator oso bat aditz faktitibo bat erabiltzearekin. Alegia, zergatik erabili eraduki > edrauk? Aski izango zuten *ekun* aditza: *Ekun on*. Gehiago dirudi erantzuna.

Nolanahi ere, agurra dela indartuta geratzen da beste ezaugarri estralinguistiko bati erreparatuta ere, eta da testuaren distribuzioa eskuan. Hirugarren lerroko testua konprimituta dago, estu-estu, ia sartu ezinik; baina azken elementua (*edraukon*) bera bakarrik ageri da, jarraian espazioa soberan duelarik. Bestela esanda, 3. eta azken lerroetako elementuen banaketa orekatuago bat egin zezaketen. Baina ez zuten egin. Azkenak solte joan behar zuen bakarrik, agurra baita.

Horra hor, ba, mezuaren hasieraren eta amaieraren interpretazio linguistikoa, logikoa eta apur bat dokumentatua. Mamia geratzen da, muina.



## II Nola bizi diren



Artikulu eran *A/ea* aldizkarian argitaratu zen, 2022ko abenduan,  
BEFT taldearen izenean.

Eskuko bigarren eta hirugarren lerroetako testuaren interpretazioa da,  
tankera dibulгатiboan emana.

## II · Laburpena

Hau da plazaratu genuen bigarren artikulua, 2022ko abenduan, *Alea* aldizkarian.

Artikulu honetan Eskuko testuaren bigarren eta hirugarren lerroen interpretazioa egiten dugu, mezu nagusia dutenak. Bi lerro horiek nola bizi diren deskribatzen dute: denak elkarrekin, aterpean edo babesean, eta pozik, giro zoriontsuan, liskarrik gabe.

Testua ustekabe oso handia gertatzen da. Ez dugu aurkitu pareko testurik antzinatean. Bi lerroek duela 2.100 urteko herrixka bateko bizimodua deskribatzen dute eta, gainera, sintesi perfektuan eta poetikoan.

---

## II · Abstract

It is the second article that we published in December 2022, in *Alea* magazine.

In this article we make an interpretation of lines two and three of the text of the Hand, which contain the main message. In these two lines they describe how they live: everyone in company, protected and in a happy environment, without disputes.

The text is a big surprise. We have not found parallel texts in antiquity. The two lines describe the way of life in a settlement 2,100 years ago, and also making a perfect and poetic synthesis.

---

## II · Resumen

Es el segundo artículo que publicamos en Diciembre de 2022, en la revista *Alea*.

En este artículo hacemos una interpretación de las líneas dos y tres del texto de la Mano, que contienen el mensaje principal. En esas dos líneas describen cómo viven: todos en compañía, protegidos y en un ambiente feliz, sin disputas.

El texto es una gran sorpresa. No hemos encontrado textos paralelos en la antigüedad. Las dos líneas describen el modo de vida de un poblado de hace 2.100 años, y además haciendo una síntesis perfecta y poética.

---

## II · Resum

És el segon article que publiquem al desembre de 2022, a la revista *Alea*.

En aquest article fem una interpretació de les línies dues i tres del text de la Mà, que contenen el missatge principal. En aquestes dues línies descriuen com viuen: tots a companyia, protegits i en un ambient feliç, sense disputas.

El text és una gran sorpresa. No hem trobat textos paral·lels a l'antiguitat. Les dues línies descriuen el mode de vida en un assentament de fa 2.100 anys, ja més fent una síntesi perfecta i poètica.

---

## II · Résumé

C'est le deuxième article que nous avons publié en décembre 2022, dans le magazine *Alea*.

Dans cet article, nous faisons une interprétation des lignes deux et trois du texte de la Main, qui contiennent le message principal. Dans ces deux lignes ils décrivent comment ils vivent : chacun en compagnie, protégé et dans un environnement heureux, sans disputes.

Le texte est une grande surprise. Nous n'avons pas trouvé de textes parallèles dans l'Antiquité. Les deux lignes décrivent le mode de vie d'une ville il y a 2 100 ans, et font également une synthèse parfaite et poétique.

## II Nola bizi diren


Gure ikerketaren lehen partean eskuko testuaren sarrerari eta amaierari interpretazio bat eman diegu, 1. eta 4. lerroetakoa, koherentea eta dokumentatua. Geratzen zaizkigu tarteko mezuak, muina, lehenago esan dugunez. Aurrerapen gisa, iragarriko dugu bi lerro horietan adierazten dena harrigarria dela, eta hunkigarria, aldi berean. Esku hau altxor handi bat da, ez hizkuntzaren ikuspegitik soilik, ezpada alderdi humanistikotik ere.

Haria berriz hartuz, zer espero dezakegu? Zer ote dago idatzita? Sarrera eta amaiera hain dotore horien barnean zer-nolako mezuarekin egin dezakegu topo? Gure irudimena lanean jarri eta senak, adimenak, jakituriak..., horiek guztiek askotariko interpretazioetara eramán gaitzakete, hitzak sortzeko jolas batean bageunde bezala –jada ikusita dugu–. Leku-izenak agertuko ote dira? Norbaiten aipamena? Gatazkaren bat kontatuko ote du? Gertaeraren baten erreferentzia? Sinesmenak edo mitologia kontuak? Hitz solteak dira? Aditzik badago? Esaldiren bat? Eta abar. Ekin diezaiogun, ba, misterioa argitzeari.

Mezuak esan dugu, baitirudi ezen marka batek bi zati (gutxienez) bereizten dituela. Goitik beherako marka bat da inskripzioan (/), lehenengo marraztua eta, ondoren, sei puntutxo grabatua, tatuaje baten antzera, testu guztia dagoen bezala. Bide batez esanda, artelan bat da, zaila baita tamaina horretako azalera batean hainbeste puntutxo grabatzea.

Ordea, hasieran berean *istripu* birekin egin dugu topo. *Irregulartasun* edo *anomalía* ere deitu diezaikegu. Baina horiek geroago argituko ditugu.

Hasteko, gure prozedura erakutsiko dugu. Horretarako, adibide gisa, ekar dezagun berriz Botorritako lehen brontzea, 1992an aurkitutakoa. Adituen arabera, alfabeto iberikoan idatzita dago, baina hizkuntza ezezagunekoa da, generikoki zeltibero izendatua (1).



Transliterazioa, 1. lerroa: *Tikeiga(n)kum barkunekeguem tikeitiskue sarniekue sua kumbales nelitim*

Itzulpena-edo: *Hemos pactado con los de las alturas (los del norte, Vascos) y entregado a los guerreros de su pueblo, ni guerra*

Transliterazioan sartu gabe, edo hitz-elementuen zatiketan, nabarmena da interpretazioa edo itzulpena oso ausarta dela. Testuan *barkune* elementua ezaguna egiten zaigu: ‘barkune’, hots, baskoiak. Baina, guk ez dugu ausardia horrekin jokatu. Ahal den argien justifikatzen saiatuko gara, linguistikaren ikuspegitik, dokumentazioan oinarrituta; baina xehetasun teknikoetan nahaspilatu gabe, txosten honen helburua

dibulгатiboa baita. Noski, puntu batzuetan *posibilitateak* eman beharko ditugu, duela bi mila urteko hizkuntza bat aztertzean, dena xehe-xehe ezin baita frogatu. Teorizazio bat egin dugu. Kasurako, latinezko testuak edukiko ez bagenitu zail-zaila izango litzateke gaurko erromantzeetatik (gaztelera, frantsesa...), hots, latinaren eboluzioa diren hizkuntzetatik, latinaren berreraikuntza egitea, nolakoa zen zehatz jakitea. Ataka horretan gaude: gaurko talaiatik arakatzen ari gara antzinateko euskara, haren sekretuak azaleratu nahian. Aitzineuskara, protoeuskara, euskara arkaikoa... izendatu dezakeguna, horra gure zelakantoa.

Beraz, Irulegiko Eskuan horrela emanda daude muineko osagaiak:



Bigarren lerroan: **te n e ke be e ki r a te r e** [n]

Hirugarren lerroan: **o T i r t a n · e s e a k a r i**

Hor, ikus daitekeenez, zeinu bat dago, kako artean, zerbait adierazteko. Eta horrez gain, gure iritzian, beste gorabehera bat ere badago, garrantzi handikoa. *Istripu* deituko diegula esan dugu.

- **Lehenengo *istripua*: {n} edo [n] galdua**

Idazkunaren transliterazioan bi *n* jarri dira zeinu artean: bata, lehenengo lerroan, *sorioneku*-ren ondoan {}; bestea, bigarren lerroan, *e*-ren ondoan [ ]. Izatez *n* bakarra da, eskuan grabatuta ageri dena, baina begiratu batean ezin da ziur jakin ala lehenengo lerroari dagokion –guk hor ere hartu dugu: *ekun-*, ala bigarren lerroaren amaieran kokatu behar den; alegia, leku faltagatik gainean, gorago, *txertatu* ote zuten: e[n]. Edo igual bi lerroen amaieretan baliatu daiteke, bietan.



Grafikoa: Butroe

Iturria: Aranzadi. Bideo klip fotograma.

- **Bigarren *istripua*: hirugarren lerroko / zeinua**

Antzinateko inskripzio batzuetan, noizbehinka, zatiak-edo bereizteko marka moduko batzuk ageri dira. Gure eskuan ere badaudela interpretatu dute: lehenengo lerroan (hiru puntu) eta amaieran (bi puntu).



Baina hirugarren bat ere ikusi da: **ř t a n** eta **e s e a k a ř i** tartean. Eta ondorioztatzen da bi zati daudela, bereizita. Beste teoria batzuk ere eman dira horretaz. Baina ekar dezagun Andeloko (Lizarra ingurua, Mendigorria) mosaikoko idazkuna, adibide moduan:

Horretan, argiago nabari da banaketa markak zeinuak baino puntu gutxiagokoak direla; ez daude hain trinkotuta eta, ondorioz, tartea adierazteko markatzat hartzen dira. Botorritakoan ere nabari dira. Eskuan, ordea, sei puntuk osatzen duten marka uste dugu ez dela bereizketa adierazteko. Batetik, azkena baino indartsuagoa da (sei puntu, esan bezala), eta azpian marradura bat dagoela somatzen da, eskuko gainerako zeinuetan gertatzen den legez. Marradura bat nabari da amaierako markan ere –eta bi puntu, hiru?–.

Baina, gure ikerketarako *istripu* hori, **t.a.n** eta **e.s.e**-ren arteko marka, garrantzi handikoa da. Zeren eta barra (ez guztiz) bertikal hori zeinu batena izan baitaiteke: /ba/ fonema, edo silaba (ikus zeinutegia). Eta horrek asko aldatzen du testua.

Bada, gure iritzian, ez dago banaketa markarik, eta hirugarren lerroa honela da: **o T i ř t a n b a e s e a k a ř i**



Orain aurrera baino lehen, gogoratu ditzagun lehenago aipatutako faktoreak, testuaren ulermenean eta interpretazioan kontuan izan behar ditugunak:

- 1F Alfabeto mugatua. Ez daude *letra* guztiak, fonemak edo soinuak idazteko.
- 2F Silaba konplexuak (*dra, tzu...*), bi kontsonantedun fonemak, ezin idatzi. Beraz, antzekotasun fonetikoan oinarritutako idazkera. Ikusi dugunez, kasu **ř** ez da beti /rr/.
- 3F Praktika ez oso handia hizkuntza idatziarekin, silabak eta hitzak zatitzeko.

Eta murgilduko garen testua konplexua denez, elementu edo osagai askokoa, gehitu dezagun beste faktore bat (4F): aitzineuskara dela. Euskara oso arkaikoa. Baina ez denbora zentzuan bakarrik ulertuta, baizik eta hizkuntzaren garapen fase goiztiarra dela. Hizkuntzak, dakigunez, komunikazio sistema aldakorrak dira, eboluzio etengabearen daudenak, faktore askok eraginda. Adibidez, gure gaurko euskara eta duela laurohun urtekoa badakigu desberdinak direla. Hizkuntza guztietan gertatzen den fenomeno da. Bada, jar dezagun burua duela bi mila urte baino gehiagoko hizkuntza sisteman. Nolakoa izango zen? Ezinezkoa da froga askorekin erantzutea, baina aurrean dugun testuak arrasto batzuk utziko dizkigu. Horregatik, ez dugu espero sistema sofistikatu bat:

- Ez komuntadurarik (mugagabeak, ergatiboa...).
- Ez deklinabide atzizki konplexurik (mgg...); sinpleak, gehienez ere.
- Ez artikulurik (sinpleak, edo plural hurbila...)
- Ez lexiko konplexurik (hitz eratorriak, elkartuak...)

Beraz, komunikazio sistema basiko bat espero dugu: izenak - izenondoak - aditzak - adizki sinpleak (errazak) - aditzondoak - oinarrizko juntagailuren bat - lexikoan hitz sinpleak, gehienbat.

Eta azken faktorea (5F), aurreko 3Frekin lotua: hitz baten amaiera eta hurrengoaren hasiera berdina-edo badira (adib.: bokal berbera), zeinu bakarrean biltzen direla idaztean, fusionatuta.

Goazen, ba, zatiketarekin, eta elementuen azalpena eta interpretazioarekin.

**Bigarren lerroko testua: te n e / ke be / e ki / í a / te í e[n]**

**te n e** Zeinuaren irudiari begiratu gero, ikus dezakegu /te/ fonema izan arren, barneko marratxo diagonalak ez dela hurrengo /te/ bezalakoxea. Alfabetoan badakigu ez dagoela /de/ zeinurik (1F faktorea: antzekotasun fonetikoaren baliabidea). Hortaz, /tene/ edo /dene/ izan daiteke. Teoria batzuen arabera lehenengoa /te/ gogorra izango litzateke, eta biguna bigarrena: /de/ posiblea. Ordea, guk bigarrean *ate* osagaia interpretatzen dugu, eta badakigu testu zaharretan (*athe*) edo toponimoetan beti izan dela /te/. Alegia, toponimo asko dago *-ate* osagaiarekin, eta bat ere ez da aldatu *-ade* izatera. Hortaz, lehenengoari /de/ izaera emango diogu, /te/ biguna: /dene/.

Gaurko: *DENAK / denek / denok*. Ez du mugatzailerik edo artikulurik, ez komuntzadurarik; duela bi mila urteko sisteman murgildu gara.

**ke be** Erronkariara hurbilenean /kében/ ugari topa ditzakegu, ikusten denez deklinabide marka gehituta (*-n*, forma berriagoa); baina baita beste euskalki batzuetan ere, edota dokumentu zaharretan, forma desberdinetan:

- Aquí hace falta lluvia con mucha frecuencia. **Kében** bar diézu éuri ékun egunoro.
- *Gitxika-gitxika Maria Ruizen axoar hori beteko dogu hebeko (ebeco) gauzakaz* (Durango, 1537)
- OHE. *heben* (BN, S; Lcc, VocS, Gèze, Dv, H), *amen* (V, G-azp), *keben* (R), *kemen* (Sal, R), *gen* (Ae), *hebe*. *Hebe* se documenta en unos pocos textos suletinos (Tt Arima XI, Etch 524, Xarlem 781).

Gaurko: *HEMEN*

**e ki í a** Interpretatzen dugu bi osagai daudela hor. Erronkariara modernoan bezala /ek/ erakuslea (*haiek*) + norekin marka. Alegia: **ek dra** 'haiek dira' eta **eki dra** 'haiekin dira'. Horra hor lehenengo erakuslea (norekin, *haiekin*, *-n* marka falta duelarik), eta lehenengo adizki jokatu sinplea, *dira*.

Gaurko: *HAIEKIN DIRA*.

**te í e[n]** Batetik, interpretatzen dugu osagai honen hasiera fusionatuta dagoela aurreko hitzaren amaierarekin (*-a a-*). Gorago aipatu dugun 5F faktorea. Hortaz, /a/ gehitu eta **a t e** izango genuke. Bestetik, /í/ dugu. Gogorra /rr/ dela kontsideratzen badugu \**aterre* forma izango genuke. Baina jada ikusita dugunez (*edrauk on*), sekuentzia fonetiko trabatu bat izan daiteke, /rp/: *aterpe*. Azkenik, kako artean txertatutako /n/ dugu, benetan horkoa ote den ez dakiguna. Horrek deklinabide atzizki bat dagoela onartzea dakar, Non kasuan, eta esan dugunez, hizkuntzaren fase goiztiar hartan ez dugu espero deklinabide marka askorik. Horregatik /n/ zeinua *Zori on ekun*-i esleitu diogu. Baina, baliteke *-n* atzizkia izatea, ez dugu baztertzen. Nolanahi ere den, ez da erabakiorra elementua eta esaldiaren zentzua interpretatzeko, **a.te.rp.e** soila ere nahiko da.

Gaurko: *ATERPE(n)*.

Egin dezagun lerroaren konpendio bat:

- **te n e / ke be / e ki / í a / te í e[n]**
- **denak hemen haiekin dira aterpe(n)**

Gure iritzian *denak* + *haiekin* elementuen zentzua zera da: 'elkarrekin'. Garai edo fase hartan ezin dugu espero *elkarrekin* elementua topatzea. Hori oso sofistikatua da. Ikustea besterik ez dago horren osaketari buruz dauden azalpen linguistikoak. Forma oso garatua da, konplexua. Modernoa.

Bestetik, *dira* adizkia 'daude' zentzuan ulertzeko ez dugu arazorik, gaur egun ere horrela baita. Eta, azkenik, *aterpe*. Ikus ditzagun adierak, Euskaltzaindiaren Hiztegiari, edo OEHn.

- **aterpe 1** iz. **Euritik begiratzeko babeslekua**. *Aterpe bila. Aterperantz joan zen. 2 iz. Babesa. Bideko etxe batean eskatu zuten gau hartako aterpea. Hirian gelditu behar izan dut, ahaide baten ostatuan aterpe harturik. Ogia bezain beharrezkoa da aterpea.*
- v. **estalpe**. Tr. *Aterbe* es empleado por los autores septentrionales y navarros. 1. **Lugar cubierto, sotechado, cobertizo, soportal; albergue, casa, alojamiento, cobijo, refugio.**

Horrenbestez, esaldiaren bertsio modernoagoa, gugandik hurbilagokoa, emateko moduan gara: *denak hemen elkarrekin daude babesean*

Ez dakigu etxeari egiten dion erreferentzia (atariko hornigarria), ala herrixka-guneari. Berdin dio, zentzuak bietarako balio baitu.

Bada, agurraren ondoko lehenengo mezu hori harrigarria bada, zelan kalifikatu hurrengo! Hasieran iragarri dugu esku hau altxor handi bat dela, baita ikuspuntu humanistiko batetik begiratuta ere. Jarrai dezagun gure interpretazioarekin.

### Hirugarren lerroko harribitxia

Lerro hau izan da gure buruhausterik handiena. Hainbat bidetatik saiatu gara heltzen; ikerkuntza, teoria eta dokumentu asko arakatu ditugu. Laborategietan bezala, "saiatu-erratu" jardueran aritu gara. Izan ere, ez genion zentzurik ikusten lerroko mezuari, osotasunean. Zatiren bat edo beste ulergarri eta posible egiten zitzaigun eta, noski, dena "argudiatu" daiteke. Baina lerroak jarraitzen zuen iluna izaten, inkoherentea.

Bilaketa etengabe horretan iritsi ginen /ba/ elementua deskubritzera ere, zerbait falta ote zen zalantza baikenuen. Horregatik, gure iritziz, sekuentzia ez da [ **o T i í ta n** · ] (testu bat + banaketa adierazteko zeinu bat), baizik eta [ **o T i í ta n ba** ]. Hala ere, hori ez zen erremedioa izan, hasiera batean jarraitzen baikenuen argia ikusi gabe; ez zigun laguntzen. Gaizki enfokatzen ari ginen.

### Hirugarren lerroa: **o T / i í / ta / n ba / e s e / a ka í i**

Goazen, ba, gure azalpenekin eta interpretazioarekin. Oraingoan ez gara ordenan joango, didaktikoagoa egitearren.

**e s e** Lehen begiratuan, elementurik argiena: *etxe*. Baina ez, ez da *etxe*. Gure atsotitz zaharretara jo (bizkaierazkoak) eta horra, adibide pare bat (RS):

- *Idi zarrari, ze egiok alaunerik sorotsi* ('A buey viejo **no** le cates majada')
- *Iraunik ze emak inori* ('**No** des baldón a nayde')

Horregatik, ez modernoa eta ze forma zahar horiek azaltzeko, Mitxelenak \*eze formulatu zuen: hortik bai ze zaharra eta gure ez sortuko ziren. Bada, gure iritzian, eze



horri izartxo (teorikoa) kentzeko moduan gara, eskuari esker. Jada ez da hipotesi bat, dokumentatuta dago.

**a ka r i** Berriz ere, itxura batean, aditza izan liteke: ez + aditza. Agian, \**akarri* aditz zaharren bat? *Ekarri*? Ala izan ote liteke gure *ahakar* ('liskar'). Lerroko gainerako testuak lagunduko digu.

Jo dezagun aurreko zatira, enigmatikoena. Hor dagoen **ta.n** sekuentziak deklinabide atzizki bat dakarkigu burura baina, esan dugunez, garai hartako hizkuntza sisteman ez dugu espero horrelakorik. Gainera, gure iritzian, hau da sekuentzia osoa: **o T i r ta n ba**

**ta** Juntagailua dela interpretatzen dugu, gure 'eta / ta'. Horrela balitz, juntagailu baten lehenengo dokumentatzea izango litzateke.

**n ba** Fonetikoki *nb* multzoa /m/ soinu gisa hartzen da. Kasurako, asko ikertu den *uTanbaate* idazkuna (baskoien txanpon batekoa, E. Orduña): *Utzama* Ate.

Beraz, 'eta ama' interpretatzen genuen *-ama* hitzaren lehenengo aipamena!-. Baina, gaizki, *-a + a-* sekuentzia osatzen baikenuen. Eta lerroko mezuak segitzen zuen zentzurik izan gabe. Etsi gabe, beste aukera baten bidetik jo genuen: *ma* hitza.

Lehenengo txostenean jarritako adibide bat, erronkarierazkoa, eta hiztegiko azalpena:

- *Xoan fite neskatoa matto bero matto andi uskarari emoitra* ('musutxo')
- **ma** iz. Haur. *Musua, maitasuna erakusteko norbait edo zerbait ezpainez ukitzea*. Ik. **pa; pot**. Maitetxo, pa niri eta ma horri.

Lar ederra, ezta, erreala izateko! Baina, eta aurretik dagoen mezuak argia ematen badigu?

**oT** Ikertzaileek **T** hori zein soinuri ote dagokion saio asko eginak dituzte. Txanpoi baskoietan agertzen da, ez iberierazko *alfabetoan*. Baina ez da jakin ziur soinua. Teorien artean, bada bat proposatzen duena soinu afrikari bat, ikusi dugun adibidean (*uTanbaate*), esaterako: /tz/ (**Utzama**; berriagoa *Utzama* izango litzateke). Beraz, afrikaria izanik, gure interpretazioan /ts/ edo /tx/ ere izan daiteke. Hortaz: /otz - ots - otx/, horietako bat izan behar.

**Hots** dela ulertzen dugu. Forma ugari ditu: izen egituran ('zarata, soinu...'), hitz elkarketan (*ahots, oinots, harrabots...*), bai lokailu moduan (*hots, 'alegia'*) eta bai aditz gisa ere: *hots egin, hots eman*. Aldaera asko ditu, eta esanahaia ere apur bat anitza. OEHn adibide multzo luzea dago, baina errepara diezaiogun aukera honi, Euskaltzaindiaren Hiztegitik: **hots egin** 3 **Oihu egin; esan**.

Horrela, interpretatzen dugu *hots* horren zentzua '(gauzen) zarata' baino gehiago pertsonen hotsak, oihuak, esanak... izan daitekeela. Silaba bakarreko hitza da, ziurrenik oso zaharra; eta hitz askoren osagaia, esan dugunez. *Ahots* hitza ere hortik dator.

Eta zer geratzen zaigu?: **i r**

**i r** Zeinu hori, printzipioz, /rr/ da. Ez beti, interpretatu dugunez. Baina oraingoan bai, /rr/ gogortzat hartuko dugu. Itxuraz ez da ezer, zerbait falta zaiola ematen du. Bokal bat amaieran?: **irri**. Hurrengo hitzarekin ahoskatzean, desagertu egin daitekeena: *irr(i) ta ma*. Hitz eratorrietan edo elkarketan bezala, adib.: *ekarri > ekarpen, iturri > iturburu*. Edo *itzarri / itzartu* bikotean bezala: *itzar(ri)tu*, aldaketa fonetikoa.

**a ka r i** Bukatzeko, goragoko *akarri*-ren azalpena osatzearen hona aukerak:

1) \**ahakarri* aditz zaharren baten hipotesia, *ahakartu*-ren baliokidea. Aditzetan badakigu *-i* amaierakoak zaharragoak direla *-tu* amaieradunak baino: *estali/estaldu, sinetsi/sinestu, atzarri/atzartu*... Baina ez da dokumentatzen \**a(ha)karri* erako aditzik.

Aditz eran soilik dugu *ahakartu*; adib.: *Batak* [erraiten du] *liskartzea, bertzeak ahakartzea*. Ax 17; A puñetazos. *Bi adixkidiak ahakartu, eta hasi zituzun muxikunka* H.

2) Beste aukera bat da, hipotesi moduan, planteatzea *ahakarri* zaharra aditz bihurtzean (*ahakartu*), prozesu horretan *-i* galtzea: *a(ha)karri > \*a(ha)karritu > a(ha)kartu*. Eta aditz gisa erabiltzearen poderioz, *> a(ha)kar* formara aldatzea; forma modernoagoa. Nolabait *bihurri* hitzean gertatu dena: *bihurri / bihur*, biak ditugu, zentzuz ere desberdinak. OEHn, *Bihur: Aize-biorra* (V-ger-m), 'viento arremolinado'; *Aize-biur* (V-gip-ple), 'remolino, ciclón, torbellino de viento', *Haize bihurren artean*. AB AmaE 468. Aditz bikotea ere badugu, esanahiz bereziak: *bihurritu / bihurtu*. Eta jakingarri gisa, hona eskualdean jasotako igarkizun bat: *Bi ahizpa beti 'akarrian' (ahakarrean) eta sekula ez odolik egiten. Zer da?* --Gardara. Garral EEs 1915, 92 y 111.

3) Hitz horretan deklinabide marka bat falta izatea, *a(ha)karrik, zegaiti, etxeti...* formatan bezala. Ederki letorkiguke; gainera, ezeztapen baten ondoren dator; baina ez dugu argi ikusten aukera hori. Oraingoz gure hipotesian izena da, *a(ha)karri*. Mezuaren zentzuak ere horren alde egiten du.

- **ahakar** (AN, L, Sal, R /**akar**/; SP, Aq 733). Ref.: Bon-Ond 158; A(*ahakar, akar*). [Riña, disputa, reprensión](#).

Hori horrela balitz, hau da sekuentzia:

- [hots irri eta ma ez ahakarri](#)
- [hots irri eta musu ez liskar](#)

Eta, azkenik, bertsio irekiagoa: [ahots, irri eta musu, liskarrik gabe](#)

Bi lerroetako testuaren interpretazioa garatuta, egin diezaiogun mezuari azterketa labur bat. Sintesi bikaina egin zuten bi lerrotan. Lehenengoan, kontatzen dute beraiek **nola** bizi diren: elkarrekin eta babestuta; hurrengoan, **nolakoa** den beraien bizimodua edo gizarte bizitza: ahotsak, irriak eta musuak, giro baketsuan. Etxekoa edo herrixka-gunekoa, biak izan daitezke.

Eta analisi hori aintzat hartuta, bi sentipenek hunkitzen gaituzte.

Bata da, susmatzen genuela eskua idatzi zutenak ez zirela irudikatu litekeen basati talde bat, gauza inkoherenteak edo zentzu handirik gabeko mezuak grabatzen zituzten pertsona batzuk; horregatik, testu arrazionalen bat espero genuen, menturaz zerbait interesgarria kontatuko zuena, edo deskribatu edo erreferentzia egin. Eta, bai, horrela izan da, testu oso koherente bat azalatu dugu.

Beste sentipena izan da, dena argitzean, mezua lar dela ederra, poetikoa izateraino. Hain hitz gutxitan zaila da gehiago adieraztea. Pentsatzen bazen garai hartako baskoiek ez zekitela ez idazten ez irakurtzen, logikoa zelako hori pentsatzea, eskuak erakusten digu engainatuak ginela –Etxepare, profetikoa: *Bertze jendek uste zuten...*–. Alfabetatuak ziren hainbestean, idatzizko komunikazioan ere abiatuak ziren; baina, gehiago dena, abstrakziorako, sintesirako, ahalmen ezezaguna eta sentiberatasun miresgarria deskubritu ditugu.

Txosten honi *Post Scriptum* atalarekin emango diogu amaiera, gogoeta eta zertzelada batzuk gehitzeko, lana argiago uzteko. Eta egindakoaren korolario gisa, poster moldean laburbildu dugu, sintesian, orain arte interpretatu duguna.

## Post Scriptum

### Egiletza

*Irulegiko Eskua. Aurkikuntzak eta posibilitateak* bi txosten hauek Bizkaiko Euskal Filologo Talde batek eginak dira. Bost izen aipatuko ditugu, ikerketan, ekarpenak egiten eta erredakzioan aritu direnak: Joseba Butroe, Jokin De Pedro, Juan Manuel Etxebarria, Alberto Mardones eta Pilare Baraiazarra. Beste kide batzuk ere badira, baina ez dira hain inplikaturik aritu –libre daude kritika guztietatik–.

### Abiapuntua

Jakinmina edo interes filologikoaz gain, beste faktore batek ere bultzatu gintuen proiektu honetan murgiltzera, eta izan zen kezka bat. Sentitzen genuen gertakari handi baten aurrean geundela, euskarari –euskaldunen komunitatea– ustekabean agertu zaion aukera historiko ezin ederrago baten aurrean. Historikoki jasan behar izan ditugun aurreiritzi eta kontakizun galgarri batzuk ezabatzeko edo aldatzeko ere abagune ezin hobea.

Eta kezka genuen aukera ez ote zen galduko geroke geroetan, bulegoetan eta eztabaida eta lan hiper teknikoetan. Bestela esanda, Eskua bai, altxor arkeologiko bikaina, baina hizkuntzarena eztabaidagai geratzen da, hor nonbait txoko espezializatuetan, gauza oso konplexua delako, eta metodo zorrotzekin ikertu behar delako. Edo okerrago dena: Eskukoa euskara ote den ere eztabaidan jarduteko arriskua urte luzez, iberiera, edo akitaniera, edo zeltiberoaren arrastoak, edo latina... Hizkuntza paleohispaniko (sic) batean dagoenez...

Hortaz, interes filologikoa lehena, baina kezka horrek ere zirikatuta erabaki genuen ezin ginela alboan geratu, itxaroten eta ikusten zer gertatzen zen. Jakina, badago talde zientifiko serio bat proiektu arkeologiko honen gidari. Baina gu hizkuntzaren arloan geunden interesatuta. Euskarari eragiten zion guztian, edo euskara inplikaturik zegoen neurrian. Aditu batek ere bota zuen honakoa: «Ahora los lingüistas tienen que trabajar duro, e intentar ver las posibilidades del texto». Eta erronkari eutsi diogu, gu hizkuntzalariak baikara denok ere, formazioz eta debozioz.

### Txostenen helburua

Txostenak ez daude erreferentziaz beteta edo xehetasun tekniko askorekin hornituak, gure helburua ez baita izan txosten akademiko-zientifikoak egitea, berriz esanda. Gure helburua dibulgazioa izan da. Uste dugulako euskal komunitateak premia eta eskubidea duela, batetik jakiteko Irulegiko Eskuan agertu den testua, 2.000 urte edo gehiagokoa, euskaraz dagoela, hots, euskara dela, zalantzarik gabe –oraindik ez dago baieztapen ‘ofizialik’–; eta, bestetik, ahal den neurrian, jakiteko zer dioen. Txostenak bete genitzakeen zitaz, teoriak, formulazio konplexuz, eta abar. Baina sinplifikatu egin ditugu, irakurgarriagoak egitearren.

### Interpretazio lanen arriskuak

Gauza jakina da denok dugula berezko ahalmen bat edozer interpretatzeko, antzinatik garatu duguna. Hor dago mitologia, kontakizunak, asmatu ditugun pertsonaiak... Hain zuzen ere, pertsona bilakatu ginen geure mundua, fantasiakoa, sortzen eta transmititzen hasi ginenean: marrazkiak leizeetan, eta istorioak, eta izaki

asmatuak..., belaunaldiz belaunaldi. Eta gaur ere berdin: literatura, zinema, arteak... Horrek bereizten gaitu animalietatik, guk geure mundua, geure unibertsoa edukitzeak. Ez gintuen pertsona bihurtu ez sua deskubritzeak, ez hildakoei omen egiteak, ez teknologiak, ez..., geure irudimenezko mundua eraikitzeak baizik.

## Txostenen izaera

Bizkaiko Euskal Filologo Talde (BEFT) moduan plazaratu ditugun txostenak interpretazio bat dira, Irulegiko Eskuan agertu den testuarena. Ahalegindu gara zorrotz jokatzeko, gure jakituriaren eta ahalmenen mugetan. Ez gara lerratu elukubrazioetara, ez dugu eraiki interpretazio fantasiotsurik, ez dugu jo etimologia xelebreetara. Ez dugu jolastu hitzak eta esaldiak asmatzera. Ez dugu jo geure buruak ederrestera, pilo bat teoria edo formulazio zailekin. Deskubritu uste dugunaren azken emaitza jartzera mugatu gara, eta hori apur bat hornitzera dokumentazio eta argudio linguistikoekin. Serio jokatu dugu, baina zer deskubrimendu egin dugun ikusita, iruditu lezake asmakeria bat eraiki dugula, haluzinazio batek jota.


Txostenen azpigitulu jarrita dugu *Aurkikuntzak eta posibilitateak*, adierazteko ezen gure interpretazioa direla. Etorriko dira beste batzuk –espero dugu–, eta arretaz irakurriko ditugu. Edo kritikak iritsiko zaizkigu eta horiei ere arreta egingo diegu.

Duda gabe, puntu batzuk oker adierazita geratuko zitzaizkigun, esaterako, erronkarierarena. Jada helarazi zaigu zehaztapena eta bai, horrela da: agian inpresioa eman dugu antzinate hartan erronkaria hitz egiten zutela, hots, euskalkien kontua, modernoagoa dena, antzinatea proiektatu dugu, garai hartan euskalkiak baleude bezala. Gaizki adierazita.

Gainerakoan, helburua bete dugulakoan gaude eta, esan bezala, orain irrikaz itxarongo diegu beste lan tekniko batzuei. Geuk ere gehiago jakin nahi baitugu. Eta gure interpretazioa irudimentsua gertatu bada, bertsio errealistagoen zain geratzen gara. Izan ere, gerta liteke guk *Zori on ekun* ikusi dugun lekuan, ba, igual genitibo akitanar bat egotea, edo izaera ergatiboa duen elementuren bat, edo beste zerbait.

Aita Barandiaranek ikerkuntza baten berri ematean esan ohi zuenez, «Hau da daukaguna. Honaino heldu gara. Jarraituko dugu ikertzen».

Bukatzeko, Arabako *Alea* aldizkarikoei eskerrik beroenak gurekin hain abegikorrek izateagatik, eta txostenak plazaratzeko aukera eman eta egindako lan prestuagatik.



### III te.n.e

Txosten honetan **te.n.e** segmentua ikertuko dugu.



---

Egile Joseba Butroe, hutsegiteen edota kritika kasuetarako.

### III · Laburpena

Lehenengo, egiaztatu dugu **de.n.e** dela beraren forma. Sistema duala zen, zeinuan aldaera txiki bat zuena.

Bigarren, gure interpretazioan *dene* –mugatzailerik gabe, artean mugatzaileak garatu gabe zeuden– *dena* (pl. *denak*) izenordain modernoaren baliokidea da. Arraroa da testu zaharretan, baina jada oso arrunta da, sing. eta pl.ean.

Arazo handia planteatzen du. Kontsideratu izan da jatorria erlatibozko adizkian duela (*den-a*); hortaz, Eskukoa baino berriagoa. Esanahia adizkiarenari hurbiltzen zaio eta forma deklinatuak singularrean berdinak dira. Hala ere, teoria horrek ezin azal ditzake izenordainaren pl.eko formak, izan beharko lirakekeenak adizkiaren pl. formak. Baina ez da horrela.

Gure ondorioan *dene* da jatorrizko elementua.

---

### III · Abstract

First, we have verified that its form is **de.n.e**. It was a dual system, with a small variation in the sign.

Second, in our interpretation *dene*—no article, since articles had not yet been developed—corresponds to modern pron. demonstrative *dena* (pl. *denak*). Is rare in ancient texts, but it is already very common, in sing. and in pl.

It presents a big problem. It has been considered to have its origin in a relative verb form (*den-a*), which would be more modern than the Hand. Its meaning is very close to the verb and its declined forms in the singular are identical. However, this theory cannot explain the pl. forms of the demonstrative, which should be the pl. forms of the verb. But it's not like that.

Our conclusion is that *dene* is the original element.

---

### III · Resumen

Primero, hemos verificado que su forma es **de.n.e**. Era un sistema dual, con una pequeña variante en el signo.

Segundo, en nuestra interpretación *dene* –sin artículo, ya que los artículos no se habían desarrollado todavía– corresponde al pron. demostrativo moderno *dena* (pl. *denak*). Es raro en los textos antiguos, pero ya es muy común, en sing. y en pl.

Presenta un gran problema. Se ha considerado que tiene su origen en una forma verbal de relativo (*den-a*), la cual sería más moderna que la Mano. Su significado está muy próximo al verbo y sus formas declinadas en singular son idénticas. Sin embargo, esta teoría no puede explicar las formas pl. del demostrativo, que deberían ser las formas pl. del verbo. Pero no es así.

Nuestra conclusión es que *dene* es el elemento original.

---

### III · Resum

Primer, hem verificat que la seva forma és **de.n.e**. Era un sistema dual, amb una petita variant al signe.

Segon, en la nostra interpretació *dene* –sense article, ja que els articles no s'havien desenvolupat encara– correspon al pron. demostratiu modern *dena* (pl. *denak*). És rar als textos antics, però ja és molt comú, en sing. i en pl.

Té un gran problema. S'ha considerat que té l'origen en una forma verbal de relatiu (*den-a*), la qual seria més moderna que la M<sup>a</sup>. El seu significat és molt proper al verb i les seves formes declinades en singular són idèntiques. Tot i això, aquesta teoria no pot explicar les formes pl. del demostratiu, que haurien de ser les formes pl. del verb. Però no és així.

La nostra conclusió és que *dene* és l'element original.

---

### III · Résumé

Nous avons d'abord vérifié que sa forme est **de.n.e**. C'était un système dual, avec une petite variation dans le signe.

Dans notre interprétation *dene* — pas d'article, puisque les articles n'avaient pas encore été élaborés — correspond à pron. *dena* démonstratif moderne (pl. *denak*). C'est rare dans les textes anciens, mais c'est déjà très courant, dans le sing. et au pl.

Cela pose un gros problème. On a considéré qu'il avait pour origine une forme verbale relative (*den-a*), qui serait plus moderne que la M<sup>a</sup>. Son sens est très proche du verbe et ses déclinaisons au singulier sont identiques. Cependant, cette théorie ne peut pas expliquer les formes pl. du démonstratif, qui devraient être les formes pl. du verbe. Mais ce n'est pas comme ça.

Notre conclusion est que *dene* est l'élément d'origine.

### III te.n.e osagaia: *dene*

Bigarren lerroan segmentatu dugun lehenengo elementua da. Berori da elementurik problematikoena ikuspuntu linguistikotik eta, hala ere, horretatik abiatuko gara egiaztapen prozesuan.

Bi alderditatik konprobatuko dugu: batetik, *te.n.e* transkribatu dena *dene* dela, /de/ fonema ahostuna duela; bestetik, argitu behar dugu segmentu edo elementu hori gaurko *denak* ('guztiak') dela, baliokidea. Eskuko testuak planteatzen dituen erronken artean hau da zailenetako bat zeren, teorikoki, *denak* ezin izan liteke.

#### 1 *te.n.e* *dene* dela egiaztatzen

Gogoratu behar dugu barskuneran edo aitzineuskaran erabiltzen zuten grafema-sistema, zeinutegia, edo *alfabetoa* nahiko mugatua zela (1F faktorea), ez zuela balio gaur idazten ditugun silaba batzuk zehatz islatzeko; gabeziak zituen, baina antzekotasun fonetikoan oinarrituta baliagarria zen. Gainera, zeinu batzuetan aldaerak zituzten, hots, ez zituzten beti berdin-berdin idazten.

Letra batzuk zeinu bakarrarekin idazten ziren, bokal guztiak esaterako. Eta horien ondoan, silaben *zutabeak* zituzten, konts. + bok. osaerakoak, baina ez konplexuak edo digrafoak idaztekoak (2F faktorea).

Bada, *te.n.e* elementura etorriaz, ikus dezakegu kontsonante herskariak + bok. zutabeak nolabait osatuak zituztela: batetik, /ba-be-bi-bo-bu/ ahostunak; bestetik, /ta-te-ti-to-tu/ eta /ka-ke-ki-ko-ku/ ahoskabeak. Falta diren ahostunak (d, g) eta /p/ ahoskabea antzekotasun fonetikoaren arabera ulertzen ziren (1). Ordea, kasu batzuetan, zeinuan bariazio txiki batekin irudikatzen zuten soinu bereizketa, sistema duala deitu dena. Eta hori da *te.n.e*-n gertatzen dena: lerro berean ageri dira teorikoki /te/ fonemari dagozkion zeinuak, baina erdiko marratxoak bereizita. Lerroko bestea ezkerrean erortzen da; gure honetakoa eskuinera.

∩∩	a ha	∧∧	l	T	-ts
∟	e	◁	r		-tz
∩	i	◇	rr	∩	dr
∩∩	o ho	∩	n		rp
↑	u	∩∩	s z	M	s
	ba	X	ta	∩∩	ka
◇	be	◇◇◇	te de	◁◁	ke
∩	bi	∩∩	ti	∩	ki
X	bo	∩	to	∩	ko
∩	bu	∩	tu	◇∩◇	ku gu

Zeinutegia, 2023. Butroe

Horrek plantetatzen duen lehenengo arazoa da, esan bezala, ea sistema duala den, berariazkoa soinu ahoskabea edota ahostuna (t/ d) zehazteko. Eta bai, gure iritzian erdiko marratxo bereizgarria da. Bigarren arazoa da ea zein den /d/ eta zein /t/. Esana dugunez, teoria baten arabera lehenengoa izango litzateke ahoskabea /t/ eta bigarrena /d/. Baina gure erreferentzia nagusia lerro amaierako *ate(r)* elementua da. Badakigu testu zaharretan *athe(r)* forma indartua sarri duela. Toponimian ere *ate* beti izan da /te/; alegia, toponimo asko dira *-ate/ ata-* osagaikoak, eta bat ere ez da aldatu *-ade/ ada-* izatera, hots, bat ere ez da ahostun bilakatu edo leundu.



Horregatik, ba, hasierako zeinuari /d/ balioa emango diogu: **de.n.e**.



ahostun	ahoskabe
de 	 te
ga 	 ka

Eskuan badago beste zeinu dual bat hirugarren lerroan, *ka* silabari dagokiona. Horretan ere erdiko marratxoak, ezkerrera erorita, soinu ahoskabea dela zehazten duela deritzogu, /akarri/. Zeinutegian badugu silaba ahostunari dagokion zeinua jasota (marratxoa eskuinerantz erorita), *ga* silabarena, baina eskuan ez dago. Bada, /ka/ ahoskabearen zeinuak ere erakutsiko luke *dene* irakurketa zuzena dela.

Eta eskutik at, Caminrealeko mosaikoko idazkunean bi bider ikusten dugu *te* ahoskabeari dagokion zeinua: batean, l.i.ki.n.e.te interpretatzen dugu 'liki/gin**etxe**' izan daitekeela (2F faktorea), eta horrela bada ezin da /de/ izan; bigarrena, u.s.e.ke.r.te segmentua toponimoa da, txanponak ere jaulki zituen hurrengo mendean-edo, USECERDE OSI idazkun latinizatuarekin,  $t > d$ , eta Osicerda herrixka izan zen Augusto edo Tiberioren garaian. Ezin izan da jakin non kokatzen zen, baina baliteke idazkunak berak ematea argia (2).

L i k i n e t e · e k i a r · U s e k e r t e k u



## 2 **dene** 'denak' dela egiaztatzen

Eskuan de.n.e segmentatu duguna gaurko *denak* pluraleko izenordainaren baliokidea dela interpretatzen dugu, *guztiak*-en parekoa; baina horrek arazo handi bat planteatzen du zeren, teorikoki, ikuspuntu historiko batetik, hori ezinezkoa baita. Izan ere, orain arteko teoria linguistikoen arabera (OEHN bilduta), *dena* elementua *den* erlatibozko adizki batetik sortua da, eta horrelako adizkiak geroagoko garai batean sortu behar izan ziren, erromatarkuntza giroarekin erlazioan ziurrenik, hizkuntzan adizki horiek eboluzio handia suposatzen dutelako.

Alegia, eskuko aitzineuskararen ez dago artikuluen (-a/-ak) aztarnarik, artean garatu gabe baitzeuden (3); bai ikusten ditugu deklinabide desinentziak, *heki* eta *aterpen*, eta oinarritzko erakusle bat, *heki*. Beraz, hizkuntzaren fase hartan nekez izan zitekeen *den* bezalako erlatibozko desinentziadun adizkirik eta, ondorioz, gure *dene* ('denak') ezin izan daiteke bere sorburua baino lehenagokoa.

Hortaz, dilema baten aurrean gara: edo *dene* elementua ez da *dena(k)* izenordaina, edo *dena*-ren sorburua ez da erlatibozko adizki bat (*den*), orain arte teorizatu izan den bezala. Bada, arazoa ikertu beharrean gara, *dene* 'denak' dela interpretazioari eutsi ahal izateko.

## 2.1 Aditzetiko teoria: *dena*

Hasteko, esan beharra dago *dena*-ri buruzko teorizazioetan *den* adizkia izan dela antzinatek iturri logikoa, *dene*-rik ez baita egon dokumentatuta. Adib.: «Ce qui est; *tout*. Participe tiré de *da*, il est, souvent employé dans le sens de *tout*», Duvoisin, XIX. Izan ere, *dena* izenordainaren esanahia eta *den* adizkiarena hur-hur daude, kasu askotan kontzeptu bera dira: *dena*: *d(ago)ena*, *existitzen dena*; edo: *dan guztia*, *dana*, Añ. EL, 1802. Beraz, formaz ez ezik zentzuari erreparatuta ere logikoa da adizkia jotzea izenordainaren sorburu. Identifikazio horrek gero arazoak eragiten ditu baina, esan dugunez, ez da egon elementu alternatiborik. Orain arte.

Orotariko Hiztegian (OEH) azalpen teorikoari sarrera ematen dion baieztapenak markatzen du norabidea: «Las documentaciones más antiguas, pocas y dispersas, dan testimonio de *dena* todavía muy ligado a su condición verbal, de la que muchas veces es difícil separarlo». Dio ezen dokumentazioa oso urria dela: RS 1596ko zalantzazko bat, eta lehena, XVII.ean, Oihenarten *Zeren dena guztia / baita ber-zuhurtzia / eta iakintarzunetz / orozaz gainti utzia*; 1664ko Pouvrearen *Filotea*-n: *Aitzitik hartaz dena garbiki erraiten dudala*; Argaiñaratz, 1665: *Denetik erraten dio*. Harriet-ek bere hiztegian (1741) jasotzen duela: *dena* ‘tout’. Ondorengo garaietan askoz ugariagoak dira *dena* eta *denak* formen lekukotasunak.

Hortaz, OEHko azalpen teorikoa hasierako tesiaren arabera garatzen da, *aditz izaera duela*. Adizkien (*dena/dana*) banaketa geografikoa ere bat datorrela –nahiz eta hori ezaugarri fonetiko hutsa den, euskalkiena, beste elementu batzuetan ere islatzen dena–. Baina berehala agertzen da arazo handia: *denak* plurala. Egon zen teoria hedatua ere aipatzen da, *dena* (izord.) plurala aberrazioa zela zioena, «Dena da eta direnak dira» axiomatikoki bilduta. «Le pluriel de *dena* est *direnak*». «Es sumamente incorrecto el uso de *danak* en significación de ‘todos’. *Dana* es ‘lo que es’, *danak* significa ‘los que es’».

Esanahia	adizkia	izord.
Den guztia	dena	dena
Diren guztiak	<b>direnak</b>	denak

Arazoak ‘plural concordante’ bat eskatzen du, alegia: *direnak* elementua, ‘guztiak’ esanahiarekin, nom. ez ezik baita gainerako dekl. kasu guztietan. Eta adibideak jaso dira, baina egitura bereziak dira, edo zalantzazkoak. Hona batzuk: (Pl. concordante). *Ala beitira plazer hurak, direnak oro, llabür falsü gaixto eta ahalkeizün*. Mst III 12; *Deus ere utzi gabe, direnak erraiten ditu*. Dv LEd 197; *obispo ta apaiz guziyak, / pobre aberats dianak berdiñ* Xe 385. Baina pl. concord. horren aurkakoak ere badira: *Denak diren bezala erraiteko...* JE *Bur*. Dena dela, idazle batzuk teoria betetzen ausartu ziren: *Dirianok igaroko dogu gau ederra*. Mg *PAb* 153; Añibarrok komuntadura iraganera ere eraman zuen: *Kolera bizian sarturik, zirianai esan eutsen* Añ MisE.

Sintesian, aditzetiko teoriak ondoko laukiko Ad2 zutabeko formak eskatzen ditu ‘guzti’ esanahiarekin (iraganekoak ere gehituta, agian):

	Iz1	Ad1	Ad2	Iz2
Dekl.	<i>dena</i> izord.	<i>den</i> adizkitik	<i>diren</i> adizkitik	<i>denak</i> izord.
	sing.	sing.	pl.	pl.
Nom.	dena	dena	direnak	denak
Erg.	denak	denak	direnek	denek
Dat.	denari	denari	direnei	deneri
Gen.	denaren	denaren	direnen	denoren
Soz.	denarekin	denarekin	direnekin	denorekin
Ines.	denean	denean	direnetan	denetan
Adl.	denera	denera	direnetara	denetara
Dest.	denerako	denerako	direnetarako	denetarako
Abl.	denetik·rik	denetik	direnetatik	denetatik·rik
ind.		denik	direnik	*or hipot.

Berriz esanda, *dena* izord. *den* adizkitik sortua bada *denak* pl. forma ez da koherentea, *direnak* espero baita –eta gainerako kasu deklinatuak–, baina hori ez da gertatu hizkuntzan. Esan dugunez, *dena* izenordaina eta *den-a* adizkia esanahiaren aldetik oso hurbil daude, baina *denak* izord. pl.aren existentzia traba handia da teoriarentzat, *dena*-ren fosilizazio hipotetikoak bakarrik azaldu dezakeena. Laburki esanda, *dena*: 1 *den* adizkia du sorburu, 2 *dena* forman fosilizatu zen, pl. forma (*direnak*) garatu gabe 3 pl. bilakatu zen: *denak*.

Nolanahi dela, deigarria da ikustea hizkuntzaren garai modernoan zein hedapen handia lortu duen, antzina ez bezala balioanitza bilakatu baita: izord. zehaztugabea izatetik, izond. edo zenbtz. zehaztugabea ere bada, *guzti*-ren parekoa ia. Horregatik Euskaltzaindiaren Hiztegian erabilera gehiago onartu zaizkio, dokumentatzeetan oinarrituta, eta aurrerantzean *guzti*-ren ia parekoa izan ahalko da, *debeku* gabe (4).

Eta aditzetiko teoriaren azalpen hau itxi aurretik *-danik* elementuaren kasua ekarriko dugu: *jadanik*, *betidanik*, *oraidanik*, *atzodanik*, *aitzindanik*, *urrundanik*, *ordudanik*, *haur danik* ('txikitatik'), *lehendanik*, e.a. Van Eys-en garaitik (XIX. m.) jatorria aditzean duela kontsideratu izan da, batik bat *da(n)* elementu horrek ere baduelako aditzarekin esanahizko halako lotura bat. Harik eta Rudolf de Rijk (1937-2003) holandar hizkuntzalari euskaltzale handiak txostena aurkeztu zuen arte (1992), aditz jatorria ezinezkoa dela erakusteko. Txostena konplexua da, baina funtsean, bost galderatan oinarritzen da: 1) Zergatik *-danik* eta ez *-danetik*? 2) Zergatik ez iraganeko *-zanik* formarik? 3) Zergatik beti 3. perts.? 4) Adib., nola azaldu *neure aitzinekoak danik*, Leizarragarena (XVI)? 5) Zergatik garai eta toki orotan beti *-danik*, eta ez *-denik*? (5)

## 2.2 Dene-ren ibilbide historikoaren teorizazioa

Bada, eskuko *dene* garuko *denak* dela interpretatzen dugu, hizkuntzaren garurko estadioan plurala behar baitu, esaldian behar bezala egokituko bada. Baina eskuan beraren hustasun garbian kontenpla dezakegu, erlikia baten moduan. Aitzineuskaran gaude (4F faktorea), hizkuntzaren fase goiztiarrean, mugatzaileen sistema (*-a/-ak*) garatu gabeko estadioan, hizkuntzalariek (Lafon, Tovar, Mitxelena...) planteatutako hipotesia baiesten duena, hots, antzinako euskararen izenek ez zutela izango sing./pl. numero espresiorik.

Eskuko testuan ikusten dugu erakusleak badirela (*heki*) –mosaiko garaikideetan ere (Andelo, Caminreal) ageri dira–, eta ikuspuntu linguistikotik badakigu determinatzaileetan lehenengo urratsa erakusleena izan zela (*hau · hori · hura...*, modu sinplean esanda, gaia askoz konplexuagoa baita). Horiek gero izenei-eta atxiki zitzaizkien eta ezagutzen ditugun mugatzaile arruntak izatera etorri ziren: *-a · -ak*; baina prozesu horrek denbora behar izan zuen, hurrengo mendeetako Akitania aldeko euskarazko hitz edo izen aztarnetan ez baita oraindik mugatzaile ageri, adib. *sahar, andere, cison, belex...* Beraz, denboraren joanean, ezarian, mugatzaileen zurrumbiloan, *dene* > \**denea* bihurtuko zen, eta gutxira > *dena*. Eta horrela, sing.ean, iraungo zuen luzaroan, izenordain eran; baina ez zen elementu funtzionala, sintagmekin-eta elkartzekoa, horretarako hizkuntzak beste bi elementu zituen izond. eta zenbtz. funtzioan: *guzti* eta *oro*.

*Oro* zenbtz. funtzioan espezializatu zen (*Pertsona orok*), baita izenordain gisa ere, *dena* bezala (*Orok dakite*), adb. ere bai (*Egun oroz*). Ezaugarri garrantzitsu bat du: ez du onartzen mugatzailerik, deklinabide atzizkiak era mugagabean atxikitzen zaizkio; baina betetzen zituen funtzioen ondorioz *dena* baino erabiliagoa gertatu zen, horregatik sarriago agertzen da testu zaharretan.

*Dena* dela, hizkuntzan *guzti*-k eskuratu zuen erabateko protagonismoa, baita egun ere, polibalentea izateagatik. 1 Sing.ean (*guztia*) *dena*-ren zentzu ia berbera du; 2 izord. sing. izan daiteke, *dena* bezala (*Guztia nahi dut*), baita pl. ere; 3 zenbtz. izaera du, batik bat pluralean (*Toki guztietan*); 4 denbora-izenekin *oso* bezalakoa da (*Urte guztian*); 5 aposizioan joan daiteke, *-dena* ez beti– (*Bide hartan guztian*); 6 gen. desinentziaren ondoan ere koka daiteke *-dena*, ez– (*Ibili diren guztiak*). Ezaugarri horiekin nagusitasun absolutua erdietsi zuen. Eta *guzti* eta *oro*-ren ondoan *dena* zokoratua geratu zen, zentzu orokorreko izord. hutsa baitzen, erabilera posibilitate gutxirekin. Hori dela-eta logikotzat jo daiteke agerpen askoz ere gutxiago izatea testu zaharretan.

Gorago esan dugunez, *dena* batez ere sing.eko forman geratu zen luzaroan *-ez gaur egun–*. Lehenengo dokumentatzeetan ikusten denez, XVI-XVIII. mendeetan gehienbat singularrean ageri da: *dana, danon* (Lazarg.); *dena* (Oih.); *dena* (Pouv.); *denak* (erg.), *denetik* (Arg.); Harrieten hizt.: *dena*. Ordea, pentsa liteke *guzti* hastapenetan hobeki moldatuko zela pluralean, zenbakarri ezaugarria izanik, ez baitu *oro* edo *dena* elementuen multzo zentzu zenbakaitza; nolana ere, dokumentatzeek erakusten dutenez antzinatik da nagusi sing. zein pl. erabileretan.

Baina egoera horretatik kanpo, bestelako gertakari bitxi bat suertatu zen. Mugatzailea hartu ondoko garairen batean, *dena*-ri ustekabeko kide bat suertatu zitzaion: *den* adizkia. Latinaren interakzio indartsuaren testuinguruan aditz sistema ere moldatzen eta garatzen ari zen, eta sintaxi konplexuagoa: erlatibozko adizkiak, gen. desinentziarekin (*-en*) eta horien artean, hara non, oinarritzko aditzaren (*izan*) 3. pertsonako adizki oinarritzkoena (*da*), gen. edo erlatibozko desinentziarekin *da + en* > *den*, zeinaren gainean deklinabideko atzizki guztiak koka daitezkeen: *den-a, den-e-tik...* Horra gure *dena* izenordaina eta *den-a* oinarritzko adizki desinentziaduna topo egin eta talka egiten, formaz berdinduta eta esanahiaren aldetik ere hur-hur geratu baitziren, kalkoak bailiran. Hurbiltasun hori ilustratzeko, hona Harb, Deb. 1635: *kofesa ezazu gauza hastetik eta den den bezala; deus berretu edo gutitu gabe dena den bezala*. Adizkia da bi adibideetan. Edo beste honetan: *Errazu dena den bezala, [...] direnak diren bezala erran behar dire Dv. 'tal cual'*.

OEHTik goian emandako dokumentatzeei beste hauek gehituko dizkiegu. Lehenengo agerpena Larrazagaren obran dago (1589~): *Oi noxbait galduko dozu / fortunea kurela dana*. Lazarg. Kop 7; *Danon korrua leku askotaik* Ib, Kop 50. Lazarragaren obran *guzti* askotan agertzen da. Bestetik, Argaiñaraten obran (1665) beste bat ere badago: *Ordean denak penatzen / Duke salbamendua*. Idazle honek *den guzia* maiz erabiltzen du.

### 2.3 Dene identifikatzen

Ibilbide historikoaren zertzelada nagusi batzuk emanda, geratzen zaigun puntu garrantzitsua identifikazioarena da. Alegia, nola atzeman dezakegun *dena* izenordain gisa *dene-tik* etorria, bereiztuta adizkiko formatik (*den-e*). Adizkiak badakigu *-e* epenetiko bat duela (1 laukian, Ad1 zut. gorriz) dekl. atzizkiekin lotura egiteko; *dene-k* ez du behar *-e-rik*. Baina horrek ez du askorik laguntzen bata eta bestea bereizterakoan. Gorago esan dugunez, kalkoak bezalakoak dira, edo klonikoak; orain, identifikatzeko orduan, esan dezakegu ezen adizkia *falsifikazio* oso ona dela, eta oso zaila gertatuko zaigula *dene* jatorrizkoa detektatzea.

Deklinabide desinentziena izan liteke bide bat, baina ez da oso segurua, atzizki batzuk nahiko *dantzariak* direlako, hots, forma bat baino gehiago hartzen dute batik bat izord. direnean, gutxiago adizki direnean. Esaterako, abl. kasuan, adizkia: *joan den-e-tik / diren-e-tik* (noiztik) / *diren-etatik / diren-etarik* (multzoa). Baina izord. denean: sing. *dene-tik / dene-rik* / pl. *dene-tatik / dene-tarik*. *Denerik* erabiltzen den eremuan oso ongi bereizten dira *dene**tik*** (nondik) eta *dene**rik***: *Denet**tik** ibili da hori, mundu guztitik*; eta *dener**rik***, nolabait partitibo zentzua duena: *Gure umeak daner**rik** jaten dau* Lab hizt; *Nik daner**rik** kantaten neban*, Amur. *Vulk*, 26; *berari daner**rik** gustetan ei jako* Ib, 27; *Dendan daner**rik** saltzen zan*. Baina baliteke abl. zaharra izatea, erabilera aldetik espezializatu dena. Antzekoa gertatzen zaio *guzti-ri* ere: sing. *guzti-tik / guzti-rik* / pl. *guzti-etatik / guzti-etarik*. Bet, 1596: *baia libradu gaigizuz/gatx gust**irik***; A Ezale 1899, 170n: *guzt**irik** pizka bat iaten dabenagaitik esaten da piltxika dabil ori*; *Guzia odoletan odola gorputz guz**irik** zeritzula*. Harb 295s.

Abl. zaharra ez dela onartuz gero, *denerik* forman *dene* elementua identifikatu dezakegu, adizkiak *denik* forma baitu *-ik* atzizkia hartzen duenean (Ad1 zut.). Baina ezin dugu erabili froga gisa, eztabaidagarria suertatu daitekeelako.

Beste bide bat izan liteke izond. superlatibozko (*-en*) egituretako: *danik ederre**nak*** ere Erkiag Arran 100; *An da Buztin, dantzari zen**ik** ederre**na***. Or *Eus* 374; *Edozein aldaketak, zen**ik** txiki**ena*** ere MEIG VI 39. Eskuarki izen bat tartean izaten da, baina desager daiteke. Bada, adizkiaren pareko erabilera topa dezakegu *guzti* elementuarekin: *Jaungoiko bortitza, guzt**irik** haltu**ena***, Arti MaldanB 196; *Hura baitzen gizon guzt**irik** atzipetu**ena**, enganatu**ena***. Arti Tobera 285. Beraz, adizkiak *denik* forma, *guzti-k guzt**irik***, *dene-k dener**rik*** egin beharko luke egitura mota horretan; tamalez, dokumentatu dezakegun hurbilena honako hau da: *Mendi orretara joaten dira dener**rik** errukior, miragillerik andien ta sendatzallerik on**ena**ren jauregira bezela*. Ag G 177. Ez da pareparekoa.

Bestetik, datu moduan, ez baitu froga balio indartsurik, ekar dezagun dat. kasuko *deneri / danori* egitura. Erlatibozko desinentziaren gainean adizkiek *-ei* atzizkia hartzen dute: *doazen-ei, dabilzan-ei, duten-ei...* Egia da atzizki hori *-eri* formakoa ere badela batzuetan, aldaera. Baina bitxia da *deneri/danori* (*dene* oinarria?) formen tradizio hedatua *Gau on deneri, Egun on danori, Agur denori* ahozko esakeretan, garai eta eremu desberdinetan. Eta dokumentazio idatziari dagokionez, bestelako egituretan, OEHko

adibideak arakatuta *denei* forma baino bi bider aipamen gehiago dira *deneri/daneri* moldekoak, hiru bider idazle gehiagoren lanetan.

Azkenik, hona beste testigantza bat bitxia. Alde batetik *gurasoenak* hitzean gen. atz. modu estandarrean erabilia, baina izenordainarekin...: *Umian ondasunak dirade gurasoenak, eta orregatikan jakiñian egon bitez, nere ondasunak danorenak diradela*. Apaol 122. (Horregatik jarri dugu: 1 lauk, lz2 zut. \* hipotetiko).

## 2.4 Ondorioak dokumentazioaren indusketatik

Saiatu arren, onartu behar dugu dokumentazioan ez dugula aurkitu froga erabakitzailerik izenordaina eta adizkia forma bereiztuan identifikatzeko. OEHn (+16.000 orrialde) bildutako adibidetatik eta obra klasikoan miaketatik (► [klasikoak.armiarma.eus](http://klasikoak.armiarma.eus)) ez dugu lortu identifikazio gardenik, frogatu ahal izateko *dena* elementu bereizia dela *den* adizkitik.

Esan bezala, ditugu batetik *dena* izord., dekl. desinentziekin beraren forma originalera (*dene*) itzultzen dena: *dene-an, dene-tik...*; bestetik, *den* adizkia (*da+en*), dekl. desinentziekin -e- epentetiko hartzen duena: *den-e-an, den-e-tik...* (1 lauk. Ad1 zut.). Ondorioz, klonikoak bilakatzen dira deklinatzean, eta ezinezkoa da bereiztea.

Aurka argudiatu liteke ezen ez direla bi elementu, bat bakarra baizik. Baina ezezkoan gaude. *Den* erlatibozko adizkia ezagutzen genuen eta beraren flexio guztiak, deklinaturik, *den-e-* formaren gainean. Baina Irulegiko Eskuan *dene* elementua irakurtzen dugu, nom. kasuan eta pl. forman *denak* bezala interpretatzen duguna. Koinzidentzia kosmikoak ere gertatzen dira –asteroidea 30 segundo beranduago iritsi izan balitz, dinosauroak ez ziren desagertuko, baina gu ere ez ginatke existituko–, eta *dene* elementuarena halako kasualitate bat da (6). Hobeto esanda, *den-e* adizkiarena da kasualitatea, *dene* lehenagokoa baita. Eskuko testuan *oro* agertu izan balitzaigu lan errazagoa izango genuen.

Ikusi dugu *dena*-ri buruzko teoriak ez duela balio *denak* pl. azaltzeko. Gehienez, erdia azal dezake: forma sing., *dena*. Plurala, *denak* forman, inkoherentea da teoriarekin edo, areago, aberrazioa, kritikoez argudiatzen zuten bezala. Eta inkoherentzia hori justifikatzeko pl. konkordantearen aztarnak oso ahulak dira. Ondorioa: erdia bakarrik azaltzeko balio duen teoria bat zirkunstantziala da, beste bat hobea agertu artekoa. *Dene* elementuak konpondu lezake sing. pl. arazoa, eta teoria osoa izan baina, esan bezala, dokumentazio guztia arakatuta ez dugu aurkitu akats esanguratsurik beraren kopia ia perfektua den adizkian, ezin izan dugu identifikatu argi eta garbi.

## 2.5 Esperimentu linguistikoa: anomalia atzematzen

Bada, akabuko bide bat geratzen zaigu gure *dene* identifikatzen saiatzeko. Zientzialariek zerbait bide zuzenetik deskubritu ezin dutenean, astronomoek kasurako, zeharkako bideak probatzen dituzte, anomaliak detektateko; alegia, espero den portaeratik aldentzen den fenomenoren bat, desadostasunen bat, diferentzia bat, zeinak dedukzioz zerbait frogatzen duen.

Esperimentu linguistiko bat egingo dugu, *dena* izenordaina *den* adizkitik aparte isolatzen saiatzeko. Ea esperimentuak Rosetta harriak bezala argia ematen digun.



Osagaiak:

- Egitura mota: adizki sintetikoak *-en* + izond. superlatiboa *-en*.  
Adib.: *Horrek duen onena...*
- EZ perifrastikoekin.  
(Ez: *etorri diren, hartu duen...*)
- Inesibo eta ablatibo atzizkiekin, 'multzoa, kopurua' zentzuko egiturak lortzeko.
- *On* izond. eredu gisa, baina beste izond. batzuekin ere berdin balio du.
- Leiendak: • *onena* (sing.) • *onenak* (pl.)

Adizki sintetikoekin: <b>-en</b> superlatibo egituran	DEN ●	DIREN ●	DAGOEN ●	DAUDEN ●	DUEN ●	DITUEN ●
	denIK ●	direnIK ●	dagoenIK ●	daudenIK ●	duenIK ●	dituenIK ●
DENA ORO  Zentzua: 'multzo batean, multzo batetik'	deneTAN ● ● oroTAN ● ●	X	X	daudenETAN ●	X	dituenETAN ●
	deneTATIK ● ● oroTATIK ● ●	X	X	daudenETATIK ●	X	dituenETATIK ●
	deneTARIK ● ● oroTARIK ● ●	X	X	daudenETARIK ●	X	dituenETARIK ●
Iz. · izond. elidituta	deneTARIKOAK oroTARIKOA-K	X	X	daudenETARIKOAK	X	dituenETARIKOAK

GUZTI · DENA 'multzotik'	guztiRIK·TIK ● deneRIK·TIK ●	guztiETAN ● ● guztiETATIK ● ●
GUZTI · ORO · DENA zenbatz. Adib.: <i>mota...</i>	oroTAKOAK oroTARIKOAK <i>deneTAKOAK</i> <i>deneTARIKOAK</i>	guztiETAKOAK guztiETARIKOAK

## Ondorioak:

1. Adizki sintetiko guztiek onartzen dituzte *-en* erlatibozko atzizkia + *-en* izond. superlatiboa, perts. sing. eta pl. egiturak: *dakarren onena*, *dabiltzan onenak*... Orainean eta irag.
2. Adizki sintetiko guztiek onartzen dituzte *-en* erl. atzizkia + *-ik* superlatiboa, 3. perts. sing. eta pl. egiturak: *denik onena*, *dituenik onenak*, *zekienik politena*... Orainean eta irag.
3. 'Multzoa, kopurua' zentzuan adizki sintetiko pluralek soilik (3. perts. *haiek*) onartzen dituzte dekl. pl. desinentziak, ez singularrekoak, logikoki: *daudenetatik onenak*. Muga bakarra zentzuaren araberrako egokitasuna da, elementu *traketsak* edo antinaturalak ez sortzeko.
4. Laukian ikus daitekeenez, *anomalía* nabarmena dago *diren* adizkian. Gainontzeko adizki sintetikoak ez bezala, ez da egokitzen 'multzo' edo 'kopuru' zentzuko pl.eko dekl. desinentzidun superlatibozko egiturak osatzeko: *\*direnetan handienak*, *\*direnetatik onenak*... Zergatia: *dena*, *oro* eta *guzti* elementuek okupatzen dute *dira*-ren lekua. Hirurek dute 'multzo' zentzu plurala; hots, *dira*-k adieraz dezakeen 'pluraltasuna' hiru horiek bete dezakete, eta betetzen dute *de facto*. Beraz: ez dago 'pl. concordante'rako aukerarik; forma hipotetiko sing.aren bidez bakarrik eraiki daitezke egitura horiek: *denetan handienak*, *denetatik onenak*.
5. Eta, orduan, zer dugu *den* adizki sing. zutabeen? *Oro*, pl. atzizkiak onartzen dituena, bere esanahi pl. gatik. Eta *dena* elementua, arrazoi beragatik –honek sing. ere bai–. Baina, zer da, *den* adizkia ala *dene*? Dedukzioa: nola izan daiteke *den* adizkia pl. zentzu hain gardenarekin, bere pl. kide *diren* (*dira*) aukerarik gabe uzteko? Horrek ez du zentzurik.
6. Gure iritzian, *oro*-ren balio berbera du *dena* elementuak; hots, izenordain zaharra da 'den guztia' edo 'oro' esanahiarekin. Hain zaharra ezen *diren* erlatibozko adizkiari ez baitio aukerarik ere eman egitura mota horretan garatzeko, beste adizki sintetiko guztiek egin dezaket bezala.
7. Azken ondorioa, beraz, agerikoa iruditzen zaigu. *Diren* adizki sintetikoari aukerarik eman ez badio, *dena* · *denak* ezin izan daiteke adizkitik etorria. Nola hartu ahal izan zuen *den-a* sing. adizkiak 'multzo' zentzu hain osoa? Ez da logikoa. Hortaz, beste *dena* bat zegoen, arteragokoa, izenordaina izan dena antzinatik, *oro* bezala, Irulegiko Eskuan *dene* forman irakurtzen duguna, artikulua (*dena*) hartu aurreko garaikoa.


Bukatzeko, P. Lafitteren hitzak ekarriko ditugu: «Quelques logiciens ayant remarqué que *dena* n'est en somme que le conjonctif de *da*, il est, et qu'il signifie 'ce qui est', pour remplacer *denak* dont la construction leur paraît monstrueuse. Inutile de les suivre; c'est trop tard; *denak* est entré dans la langue. Tout le monde comprend *denak hor ziren*; personne ne comprendrait *direnak hor ziren*.» Lf *Gram* 252. Besteak beste, dio ezen *denak* jada hizkuntzan sartua dela. Horrela uste genuen, baina ondorioztatu ahal izan dugunez, Irulegiko Eskuko segmentuari esker, ez da sartu garai berrietan. Antzina-antzinatik dago hizkuntzan sartuta; *den-e* adizkia baino lehenagotik hor zen: *dene*.





## IV o.T

Txosten honetan **o.T** segmentua ikertuko dugu.



---

Egile Joseba Butro, hutsegiteen edota kritika kasuetarako.

#### IV · Laburpena

Hirugarren lerroan, **o.T** segmentua ikertu dugu. Zeinu berezia du, barskunen idazkeraren ezaugarria dena: beraiek bakarrik erabiltzen zuten zeinu hori, T.

Lehenik, egiaztatu dugu **o.T** osagai autonomoa dela, ez dela lotzen hurrengo bokalarekin. Horretarako, garai hartako bi txanponetako legendetan oinarritu gara, testuan zeinu hori dutenak. Soinu berezia adierazten du, afrikaria: /tz/ edo /ts/. Baina bakarrik amaierako posizioan: –T.

Bigarrenik, gure interpretazioan **o.T** zergatik den *hots*. 'Soinu' du esanahi orokorra; beste adiera asko ere baditu, eta aldaera modernoagoa *ahots* da, 'ahozko hotsak, hitzak'.

---

#### IV · Abstract

In the third line, we analyze the segment **o.T**. It has a sign that is distinctive of the writing of the Basques: only they used this sign, T.

First, we verify that **o.T** is a stand-alone element, not attached to the following vowel. To do this we have relied on the legends of two coins from that time that have that sign. It indicates a special, fricative sound: /tz/ or /ts/. But only in final position: –T.

Second, in our interpretation why **o.T** is *hots*, 'sound' in a general sense, with many meanings, and which has its most modern variant in *ahots*, 'voice, word'.

---

#### IV · Resumen

En la tercera línea, analizamos el segmento **o.T**. Tiene un signo que es distintivo de la escritura de los vascos: únicamente ellos utilizaban este signo, T.

Primeramente, verificamos que **o.T** es un elemento autónomo, que no va unido a la vocal siguiente. Para ello nos hemos basado en las leyendas de dos monedas de aquella época que tienen ese signo. Señala un sonido especial, fricativo: /tz/ o /ts/. Pero sólo en posición final: –T.

Segundo, en nuestra interpretación por qué **o.T** es *hots*, 'sonido' en sentido general, con muchas acepciones, y que tiene su variante más moderna en *ahots*, 'voz, palabra'.

---

#### IV · Resum

A la tercera línia, analitzem el segment **o.T**. Té un signe que és distintiu de l'escriptura dels vascons: únicament ells feien servir aquest signe, T.

Primer, verifiquem que **o.T** és un element autònom, que no va unit a la vocal següent. Per això ens hem basat en les llegendes de dues monedes d'aquella època que tenen aquest signe. Assenyala un so especial, fricatiu: /tz/ o /ts/. Però només en posició final: –T.

Segon, en la nostra interpretació per què **o.T** és *hots*, 'so' en sentit general, amb moltes acepcions, i que té la seva variant més moderna en *ahots*, 'veu, paraula'.

---

#### IV · Résumé

Dans la troisième ligne, nous analysons le segment **o.T**. Il a un signe distinctif de l'écriture des Basques : eux seuls utilisaient ce signe, T.

Premièrement, nous vérifions que **o.T** est un élément autonome, non attaché à la voyelle suivante. Pour cela, nous nous sommes basés sur les légendes de deux pièces de monnaie de cette époque qui ont ce signe. Il indique un son fricatif spécial : /tz/ ou /ts/. Mais seulement en position finale : –T.

Deuxièmement, dans notre interprétation, pourquoi **o.T** est *hots*, « son » dans un sens général, avec de nombreuses significations, et qui a sa variante la plus moderne dans *ahots*, « voix, mot ».

## IV o.T osagaia: *hots*

Eskuko hirugarren lerroan segmentatu dugun lehenengo elementua da.

Bi alderdi ikertu behar ditugu: batetik, erakutsi behar dugu o.T sekuentzia osagai autonomo gisa hartzeko arrazoia, alegia zergatik ez dugun elkartu ondorengo zeinuarekin; bestetik, segmentu hori zergatik interpretatu dugun *hots* edo *ahots* esanahiarekin.

### 1 o.T osagai autonomia dela egiaztatzen

Ikusi dugu (III) barskuneran edo aitzineuskaran erabiltzen zuten zeinutegia edo *alfabetoa*, apurka hornitzen ari garena, egiaztatzen ditugun froga berriekin. Horra **T** zeinua txertatuta, baskunen zeinu bereizgarria, beraien idazkUNETAN bakarrik agertzen dena, ez iberierazkoetan.

Zeinu eztabaidatua da, adituak ez baitatoz bat zein soinu duen zehazterakoan. Teorien arabera, /m/, /n/, /r/, /y/ edo /s/ soinua ere adieraz dezake. Baita soinu afrikatua ere, /ts · tz/ eitekoa.

Gure interpretazioan, egin dugun ikerketaren eta egiaztapenaren ondorioz, soinu afrikatua da, *fortisa*, Mitxelenaren sistemaren arabera. Baina soilik hitz amaierakoa. Horregatik dute marratxoa zeinutegian; fonetikoki ez da lotzen ondoren izan dezakeen bokalarekin. **T** duen hitza edo osagaia, eskuarki monosilaboa, zeinu horretan amaitzen da. Printzipioz, eskuko testuan itxura batean ondoko **i** bokalarekin lotu daiteke, eta horrela /otsi · otzi/ osagaia sortu. Baina, laster erakutsiko dugunez, hitz amaierakoa da, hain zuzen; bestela, /otsi · otzi/ lortzeko ez zuten behar **T** zeinu hori, bazuten *ti* silabako zeinua, /tsi · txi · tzi/ bezala irakur daitekeena: o.ti.

Bada, **T** barskuneraren zeinu bereizgarria da, soinu eksklusibo bat adierazteko eta, horregatik, agerpen gutxi ditu. Eskukoa baino lehenago txanponetan atzeman da. Horietako batzuk ikertuko ditugu atal honetan.

Baina, hasteko, aipa dezagun paralelismo bat: Tau Gallicum zeinua, Ð eta ð grafemekin irudikatzen zena. Galierak hiru *alfabeto* mota erabili zituen: zaharrena, eskukoaren motakoa; geroago, grekerazkoa; azkenik, latindarra. Baina honetan, soinu zehatz bat adierazteko (agian /ts/ edo /dz/), latinezko alfabetoarekin irudikatu ezin zena, zeinu berezi bat gorde zuten; adib.: Ðirona, snleððdic, aððedilll. Bada, T barskunarena antzeko kasua da: erabiltzen ari ziren zeinuek –garai hartako idazkera sistemetakoak– ezin zuten zeinu berezi bat islatu, aparteko grafema bat gehitu zuten: garatu egin zuten zeinutegia.

#### 1.1 Txanponetako iturriak

Hortaz, **T** zeinua txanponen bidez ezagutzen genuen. Txanponak, adituen esanera, erromatarrekiko interakzioetik etorri ziren. K.a.ko 218. urtean sartu ziren iberiar penintsulara Mediterraneo aldetik (Tarraco, Hispania Citerior) eta lurraldea kontrolatzen joan ziren. Testuinguru horretan, barskunen eremuan, besteetan bezala, hainbat hirigunek-edo egin zituzten beraien txanponen jaulkipenak. Uste da gaurko Nafarroan zeudela, esaterako, Arsaos, Olkairun, Utanbaate izenekoak, baina ezin izan da zehaztu kokapena.

Ptol. II, 6, 10:	Οὐασκόνιον	ιε	ς'	με	ιβ'
	Οίασσώ πόλις	ιε	ς'	με	ιβ'
	Οίασσώ ἄκρον Πυρήνης	ιε	ς'	με	ιβ'
Ptol. II, 6, 67:	Μετὰ δὴ τούτους Οὐάσκονες, καὶ πόλεις μετὰ				
	Ἰτούρις (σ) α	ιε	γ'	ιβ'	μβ'
	Πομπηλών	ιε			μβ'
	Βιτουρίς	ιε	ς'		μβ'
	Ἄνδηλος	ιε	ς'		μβ'
	Νεμαντουρίστα	ιε	ιβ'		μβ'
	Κουρνόνιον	ιδ	γ'		μβ'
	Ἰάκκα	ιε	ς'		μβ'
	Γρακουρίς	ιε			μβ'
	Καλαγορίνα	ιδ	γο'		μβ'
	Βάσκοντον ἢ Κάσκοντον	ιε			μβ'
	Ἐργαουία	ιδ	ς'		μβ'
	Τάρραγα	ιδ	ς'		μβ'
	Μουσκαρία	ιδ	γ'		μβ'
	Σέτια	ιδ	γο'		μβ'
	Ἀλαυώνα	ιδ	γο'		μα

Iturria: *Geographia*, Ptolomeo.

Hiriguneak aipatu ditugunez, bi mende geroago, erromatarre giroan, Ptolomeoren *Geographia*-n hiri baskun batzuen berri ematen da, orduko erara transkribatuak edo latinizatuak: Oiasso, Iturissa, Pompaelo, Bituris, Andelos, Nemeturissa, Curnonium, Iacca, Gracurris, Calagurris, Cascantum, Ercavica, Tarraga, Muscaria, Sekia, Allauona.

Bada, txanponak tamainan eta pisuetan bat datoz erromatarren estandarrekin, baina idazkun edo legenda indigenak dituzte askotan; beste batzuetan nabaria da latinaren eragina. Numismatikoen deskribapenetan horien azalpenak ematen dira, jatorria edo esanahia zehaztu nahian, hizkuntzalarien ikerketei jarraiki, baina maiz aldatu behar izaten dute azalpena «...uste zen, baina teoria berri baten arabera...» zehaztapenarekin. Hain zuzen, esan dugunez, eskuko T zeinuari hainbat soinu esleitu zaizkio. Gainera, numismatikoek ematen dituzten ezaugarrietan garrantzitsua da jatorriarena, hots, txanpona non egin zen, ceca zehaztea eta, horregatik, bereziki interesatzen dira txanponaren idazkunean sorlekuaren aztarna ikusten, toponimoren batekin lotzeko, batzuetan idazkunaren interpretazioaren kaltetan doana.

Gure ikerketarako oso baliagarriak gertatuko zaizkigu bi txanponetako idazkunak, txanpon barskunak, eztabaidarik gabe, zeinuari esker: *uTanbaate* eta *oTtikez*. Horrela behar lukete idatzita (1), T-ren transkripziorik gabe. Baina aldatuta ematen dira teoretian eta numismatikoen erreferentzietan. Bi idazkunen ikerketan, E. Orduñak (2018) soinu afrikatua proposatzen du. Gure ikerketaren arabera ere soinu hori da, baina soilik osagai amaierakoa, -T; beraz: /tz/ edo /ts/. Amaieran, /tx/ nekez.



Iturria: numisbids

EX HM  
e t a o n

↑TTPM ΔΔ  
u T a n b a a t e

**u.T.a.n.ba.a.te** Aurrealdea (e.ta o.n) eta atzealdearen bi eredu ipini ditugu, idazkuna hobeki ikusi ahal izateko. Ez ditugu jarriko **T**-ren irakurketa guztiak (*Numismática paleohispánica II*. EHU, 2015), bilduma baitira. Aurrealdeko **e.ta o.n** idazkuna Arsaos txanponean ere badago; **o.n** barskunen eremuko txanpon gehiagotan. Aurrerago iruzkinduko dugu apur bat.

Bada, idazkunera etorrira, **T** hitz amaierakoa dela onarturik, hiru osagai izango genituzke: **uT· anba · ate**. Transkripzio fonetikoa eginda: /Utz· ama· ate/ (nba > ma eta soinu afrikatu posibleetan /tz/). Gorago esan dugunez, toponimoren batekin erlazioa eginez, lehen zatikoa gaurko Ultzama izan daitekeela seinatu dute, Uxama izen zeltiko baten aldakia izango litzatekeena. Mitxelenak: «...nombre que en documentos medievales se escribe Uzama, U(t)çama etc.: por ello es plausible que se trate del ubicuo Uxama (2) con leve disfraz vasco». Erdi Arokoak: Uzama 1057 (3); Utçama 1211; Hutçama 1268; Huçama, Uçama 1366 (NEN). Baina *mozorroa* antzina-antzinatik dator, txanponari erreparatuz gero; ez da Erdi Arokoa.

Hortaz, txanponeko lehen elementu horretan, *utz* eta *ama* bi osagai ikusten ditugu, hurrengo txanponak ere baietsiko digun bezala, zeren hasierako osagaiaren jarraian bokal bat dugu eta, badakigunez, (1F faktorea) antzekotasunaren baliabidea ere erabiltzen zutenez gero, /tza · txa · tsa/ adierazteko /ta/ silabaren zeinua (X) erabiltzea bazuten, aurrealdeko *eta on*-en ikus dezakeguna. Horregatik, idazkun hori /etxaon/ eran irakur daiteke, digrafoak (tx) idazteko ez baitzuten zeinurik (2F faktorea), zeinak gogora ekartzen digun *etxa*-berri > Xabier, –edo Etxahun ere–. Baina u.**T**.a.n.ba.a.te idazkunerako **T** zeinu berezia aukeratu zuten –ez u.ta.n.ba idazkera–, berariaz. Hortaz, bistakoa da osagai baten amaierako soinutzat hartzen zutela, elementu solte horren kontzientzia zutela (4); eta hori ez dakigu nola egokitu daitekeen Utzama izenaren jatorri zeltikoarekin (5).

Amaierako zeinuan, /te/ fonemarena, barneko marratxoa berezia da, bertikala, ez eskuinetik ezkerrera erorita, eskuan ikusi dugun bezala. Baina fonema berbera da, /te/. Idazkunean *ate* elementua bakarrik interpreta dezakegu ziurtasunez, euskal toponimo ezaguna, mendi edo mendixka bateko igarobidea ('mendatea') edo horren inguruko populazio gune bat: Arrasate, Belate, Atauri, Atapuerca, Idoate, Atazabal...

**o.T.ti.ke.z** Txanpon horretan are argiago ikusten da **T** zeinua osagai amaierakoa dela, /ti/ fonemaren zeinua baitago jarraian. Beraz, honetan ere soinu afrikatu horskari bat interpretatu behar dugu, ziurrenik /ots/. Badira /n · r · s/ teoriak, nahiz eta soinu horiek idazteko zeinuak bazituzten zeinutegian; baina ez zituzten erabili.



Iturria: numisbids

HTΨ<>  
o T ti ke z

Beraz, txanpon honen idazkunean ere hiru osagai bereiz ditzakegu: lehenengoa, *ots* interpretatzen duguna (/otz/ baino probableagoa); eta ondorengoetan bi posibilitate ditugu: bata, *tik* eta *ez*, fusionatuta (5F faktorea), bokalen hurbiltasunagatik; bestea, *ti.ke* eta *z*. Hirugarren osagaiaren amaierako *s* itxurakoa ezkerrera iraulita dago (sinistrorsa), *ba(r)skunez* txanponean bezala –horretan, aurreko ese zeinua (ba.r.s.) desberdina da, M tankerakoa, beste *alfabeto* zaharrago batekoa-edo, eta jaulkipen zaharrenak dira *r*-dunak; ondorengoetan *r*-a ez da ageri legendan, soilik ba.s.–.



Iturria: numisbids

𐌲𐌹𐌿𐌹𐌺𐌰𐌺𐌹𐌸  
ba r r s k u n e z

Horregatik *z* bezala interpretatzen da, eta atzizkitzat jotzen da: toponimoetan, *-iz*, *-oz*, *-otz...* (Urrotz, Bertiz...); deituretan, patronimikoa, noren ondorengoa adierazteko, *-(e)z*: Perurena-Pérez, Santxorena-Sanchez... Edo, baita *-(t)ar* desinentzia ezagunaren zentzuan, jatorria seinatzen duena, nongotarra: irulegitar. Horren arabera *ba(r)skunez* txanponekoa ez litzateke interpretatu behar nom. pl. huts gisa ('baskunak'), gaurko ikuspuntuarekin, baizik eta 'barskundarra' edo 'barskunena'. Lakarrak ere seinatzen du *-ez/-etz* desinentziak izenondoak sortzeko balio zuela aitzineuskaran.

Lehenengo segmentazioaren arabera *ti.k(i)e.z* izan daitezke osagaiak, eta iradoki izan da (E. Orduña) *txiki* irakur daitekeela (1F eta 2F faktoreak). Denak jarraian: *ots · txiki · ena* edo *ots · txiki · tar(ra)*. Beste segmentazioan *ti.ke.z* izango genuke, eta horrek *txike(r)z* irakurketa ahalbidetuko liguke. Izan ere, hizkuntzaren ekialdeko edo mendebaldeko ertzetan (erronk., zub., bizk.), zeinetan hitzen forma zahar asko gorde diren, *txiker* da antzinako forma (eta Erdi Aroan *txipi* gehienik). Horrek *-r-* baten galera suposatuko luke, baina *barskunez* idazkuna ere hirugarren jaulkipenerako *-r-* gabe moldatua zen. Edozelan ere, *ots.tik.ez* edo *ots.tike.z* legenda izan, uste dugu zaila dela horrek jaulkipen gune batekin lotura izatea –Ostitz seinlatu izan da, baina nola desagertu da *ke?*–, eta probableagoa dela txanponaren izena izatea. Erromatarrenak ere izenak zituzten, *denarioa* zen txanpon ofiziala, zeinetatik *dirua* hitza mailegatu zaigun euskarara. Edo *barskunez* txanponean bezala, jentilizio bat, jatorria adierazten duena. Azkenik, uTanbaate txanponeko aurkian irakur daitekeen “etxaon” legenda ere txanponaren izena izan zitekeen.

Hortaz, lehenengo txanponean (utz · ama· ate) leku-izen edo toponimo bat izango genuke idazkunean, nongoa zen zehazten zuena; bigarrenean, txanponaren izena izan daitekeela uste dugu. Nolanahi ere, bi izenetako T grafema osagai baten amaierakoa dela egiaztatzen dugu: soinu afrikatua, fortisa.

## 2 o.T 'hots' edo 'ahots' dela egiaztatzen

*Hots* dela interpretatzen dugu. Forma ugari ditu: izen egituran ('zarata, soinu...'), hitz elkarketan (*ahots, oinots, harrabots...*), bai lokailu moduan (*hots, 'alegia'*) eta bai aditz gisa ere: *hots egin, hots eman*. Aldaera asko ditu, eta esanahaia ere apur bat anitza. OEHn adibide multzo luzea dago, baina adiera hau hartuko dugu, Euskaltzaindiaren Hiztegitik: *hots egin* 3 'oihu egin; esan'

Izan ere, testuingurua aintzat hartuta, esaldiko gainerako elementuekin batera, *hots* horren zentzua da 'pertsonek hotsak, oihuak, esanak', '(gauzen) zarata' baino gehiago. Silaba bakarreko hitza da, antzinakoa, eta hitz askoren osagaia. *Ahots* hitza ere hortik dator baina berria bide da, XIX. mendean hasten baita dokumentatzen. Osaera. *aho + hots*. Esanahia: 'boz, mintzo'.

Eta formari dagokionez, idazkunean o.T (*ots*) ikusten dugun arren, pentsatzekoa da /h/ soinua ere bazuela /hots/, baina ezin irudikatu, ez baitzuten horretarako zeinu berezirik artean (6). Geroago, latinaren idazkera baliatuta, *h*-dun hainbat idazkun ditugu Akitanian eta Erdi Aroko dokumentuetan. Aitzineuskararen /h/ bazen, ez iberierak ez zeltiberierak ez zuten soinua.

### 2.1 *Hots · ahots eta uskara*

Segmentua 'mintzoak' zentzuarekin interpretatu dugunez, 'ahotsak', baliatu dezagun aukera *euskara / uskara* terminoak apur bat iruzkintzeko. Eskuaren eremu geografikoan, *hots*, EHren ekialdean, *uskara* da forma orokorra, *-eu* diptongoaren arrastorik gabe. Horregatik, Mitxelenak zehaztuta eman zuen (FHV, 100):

- **Occid.** *euskara (-era)* 'lengua vasca' (y euskaldun, Euskalherri, etc.) de acuerdo con los testimonios más antiguos del país vasco-francés (Dech. *heuskara*, Lei~. *heuskara*, *heuskaldun*, *Heuskal-herri*, Ax. *euskara*, *euskaldun*, *Euskal-herri*, etc.) : aezc. a.-nav. sal. *uskara*, **ronc.** *uskára*, vizc. Orozco *uskera*, sul. *üská(r)a*: a.-nav. *eskara*, mer. *eskera* (escrito *ezquera*), acaso de una variante metatizada como b.-nav. lab. *eskuara*.

EHHEn (hizt. etimologikoa) forma desberdinen azalpen linguistikoa ematen da. Zati batzuk: «Bigarren osagaia *ara* '-(r)en modura, bezala', 'modu, era' hitzarekin lotu behar da; elkartuetan, cf. *gogoara* 'gustoz', *jakiara* 'jakinaren gainean' eta *azkarrara* 'indarrez', balio adberbialarekin.»

«Formaz eta esanahiz, hitzaren kide egokiak izan daitezke *hizkera* eta, agian, *mintzaira* ere, nahiz eta geroagokoak izan.» Horra, *euskara* hitza 'mintzaira' zentzuan har daiteke. Irigoiaren teoria ere azaltzen da: «...*dino* 'esaten du', *dinost* 'esaten dit' moduko adizkiekin lotu behar da lehen osagaia (< \**enau(t)si*, haren ustez), eta horren kausatiboa den *irauntsi* 'hitz egin'-ekin.». Alegia *esan*-en forma sintetikoak (*di(n)ot...*) *-sa-* erro desinentziaren faltan daude, sorburuan \**enotsi* (<-i(n)o- erroa) zahar bat dagoelako, 'esan' adiera zuena. Berez, *euskara* 'esateko edo mintzatzeko era' izango litzateke jatorrian (7).

Baina beste hipotesi bat da erromatarrek jaso zuten *Ausci* leinu izenarekin lotzea – jatorrizkoa *Eusci* izan zitekeena– (FHV 100, 19. oh.). Horren arabera, Euski etnonimotik letorke *euskara*, eta esanahia: 'Euski leinuko mintzaira'.

Aurrekoa *euskara* formari dagokionez, alegia, mendebaldeko forma. Ekialde guztian ez dago *eu-* diptongoa duen formarik: *uskara, üskara, hüskara...* Eta, kuriosoa, *Marzuq ibn Uskara* pertsona izena dateke lehenengo aipamena; *Uskara* izeneko norbaiten seme zen Marzuq, VIII. mendeko buruzagi musulmana, EHHEn jasotzen denez (8).

Bada, arazo linguistiko bat planteatzen du ekialdeko molde horrek. Erronkarieraz badaude *eu-* diptondun hitzak (*huri*, *deuri* ‘diru’, *zeuri* ‘zeru’...); baina *uskára*-n ez dago diptongoaren aztarnarik; ezta ekialdeko gainerako moldeetan. Zubererazko *üskara* (Egiategi, 1785: *hüskara*) *au-* diptongotik (*au-* > *u* > *ü*) bakarrik azal daiteke, ez *eu-* diptongotik. Fonetikoki hurbilago litzateke *uskara*-tik zuzenean. Zeren, bestela, zaila da zubererazko *uste* baina *üskara* azaltzea. Mitxelena (FHV, 493):

- «En todo caso, la reducción de \**eu* a *u* fue más antigua en *uste*, cuya *u* común es también suletina, que en *uskara*, sul. *üská(r)a*, etcétera» (FHV, 493).

Bestela esanda, *uste* forma orokorra da hizkuntzan; *uskara*, ez.

Eta bukatzeko, deigarria Mitxelenaren beste iruzkin hau ere, hitz hasierako *h-* hasperendunaren galerak aztertzean:

- «Es también muy frecuente el tipo *aski* ‘bastante’, *aste* ‘semana’, *azpi* ‘muslo’, *azkar* ‘fuerte, vigoroso’, *aztal* ‘talón’, etc. Probaría la pérdida de la aspiración inicial *ospe* ‘fama’, que Oih. escribe con *h-*, si es como parece un compuesto de *hots* ‘ruido, sonido’. Podría, por tanto, ser originaria la aspiración de Dech. Leiz. *heuskara* ‘lengua vasca’, después *euskara*, etc.» (FHV, 215).

Batetik, *ospe* < *hots* hitzetik datorrela seinalatzen duelako. Bestetik, *ospe* hitzaren adiera ‘esaten dena’ ideian oinarrituta dagoelako, norbaitez-edo, ona edo txarra izan daitekeena. Azkenik, deigarria egiten zaigulako *hots* hasperenduna aipatuaz *heuskara* hitzarena ere jatorrizkoa izan daitekeela seinalatzea, bien artean zubi bat marraztuz bezala (9).





## V e.s.e.a.ka.ř.i

Txosten honetan **e.s.e.a.ka.ř.i** multzoa ikertuko dugu.



---

Egile Joseba Butroe, hutsegiteen edota kritika kasuetarako.

#### V · Laburpena

Hirugarren lerroan, **e.s.e** · **a.ka.r'i** segmentua ikertzen dugu. Bi elementu horiek multzoa osatzen dute.

Interpretatzen dugu lehenengoa, **e.s.e**, ezeztapen aditzondoa dela ('ez'), eta egiaztatzen dugu K. Mitxelena proposatu zuen \*eze forma arkaikoa dela.

Bigarren elementua, **a.ka.r'i** izan liteke *a(ha)kar* ('liskar, errieta') modernoaren forma arkaikoa, amaierako -i gabe. Amaierako -i galerako pareko adibideak ikertu ditugu.

Edo izan liteke *a(ha)kar + rik*, dekl. atzizkiduna. Ezin zuten idatzi -k bat amaierako posizioan, ez baitzuten zeinu independente hori.

---

#### V · Abstract

In the third line, we analyze the segment **e.s.e** and **a.ka.r'i**. These two elements form a unit.

We interpret that the first one, **e.s.e**, is an adverb of negation ('no'), and we verify that it corresponds to the archaic form that was proposed by K. Mitxelena, \*eze.

The second element, **a.ka.r'i**, could be the archaic form of modern *a(ha)kar* ('quarrel, dispute'), without the final -i. We have investigated parallel examples of final -i vowel loss.

Or maybe it could be *a(ha)kar + rik* (declension morpheme). They could not write a -k in final position, they did not have that independent sign.

---

#### V · Resumen

En la tercera línea, analizamos el segmento **e.s.e** y **a.ka.r'i**. Estos dos elementos forman una unidad.

Interpretamos que el primero, **e.s.e**, es un adverbio de negación ('no'), y verificamos que se corresponde a la forma arcaica que fue propuesta por K. Mitxelena, \*eze.

El segundo elemento, **a.ka.r'i**, podría ser la forma arcaica del moderno *a(ha)kar* ('riña, disputa'), sin la -i final. Hemos investigado ejemplos paralelos de pérdida de vocal -i final.

O quizás pudiera ser *a(ha)kar + rik* (morfema de declinación). No podían escribir una -k en posición final, no tenían ese signo independiente.

---

#### V · Resum

A la tercera línia, analitzem el segment **e.s.e** i **a.ka.r'i**. Aquests dos elements formen una unitat.

Interpretem que el primer, **e.s.e**, és un adverbi de negació ('no'), i verifiquem que es correspon a la forma arcaica que va ser proposada per K. Mitxelena, \*eze.

El segon element, **a.ka.r'i**, podria ser la forma arcaica del modern *a(ha)kar* ('riña, disputa'), sense la -i final. Hem investigat exemples paral·lels de pèrdua de vocal -i final.

O potser pogués ser *a(ha)kar + rik* (morfema de declinació). No podien escriure una -k en posició final, no tenien aquest signe independent.

---

#### V · Résumé

Dans la troisième ligne, nous analysons le segment **e.s.e** et **a.ka.r'i**. Ces deux éléments forment une unité.

Nous interprétons que le premier, **e.s.e**, est un adverbe de négation (« non »), et nous vérifions qu'il correspond à la forme archaïque proposée par Mitxelena, \*eze.

Le deuxième élément, **a.ka.r'i**, pourrait être la forme archaïque du *a(ha)kar* moderne («querelle, dispute»), sans le -i. Nous avons étudié des exemples parallèles de perte de voyelle finale en -i.

Ou peut-être que ça pourrait être *a(ha)kar + rik* (morphème de déclinaison). Ils ne pouvaient pas écrire a -k en position finale, ils n'avaient pas ce signe indépendant.

## V e.s.e.a.ka.ř.i osagaiak: ez ahakar

Eskuko hirugarren lerroan segmentatu ditugun azken bi elementuak dira, multzoa edo unitatea osatzen dutenak. Analisi sakonagoa egingo diegu, eskuko testu osoaren azalpena egin genuenean adierazitakoa argiago erakustearren.

### 1 e.s.e ez aditzondoa dela egiaztatzen

Esan genuen bezala, lehen begiratuan, e.s.e hori izan liteke eskuko elementurik errazenetakoa: *etxe*. Baina ez, ez da *etxe*. Batetik, barskunerazko idazkeraren arabera *etxe* e.te moldean agertuko litzaigukeelako –Caminrealeko mosaikoan, l.i.ki.n.e.te–. Badakigunez, digrafoak edo bi konts.+bok erako silabak idazteko ez zuten zeinurik eta, beraz, antzekotasun fonetiko baliatuz *irakurtzen* zituzten: e.te /etxe/ ere izan zitekeen, sistemaren arabera. Lehenago ere ikusi dugu e.ta.o.n /etxaon/ izan daitekeela. Bestetik, hirugarren lerroko testuan *etxe* hitzak ez duelako zentzurik, eta sekuentzia bateko segmentazioaren arrakasta elementu guztiak justifikatzean dago; baten bat interpretatzeak ez du askorik balio, ingurukoak ere argitzen ez badira, zein bere aldetik. Alegia, bi *zaitxo* hartu eta zerbait dela uste izatea ez da baliagarria sekuentzia osoan egokitzen ez bada. Segmentu guztiak justifikatzea lortzen denean, orduan jo daiteke ziurragotzat sekuentziaren interpretazioa.

Bada, esan genuenez, gure atsotitz zaharretara jo behar dugu, *Refranes y Sentencias* (~1596, RS) bilduma baliotsura. Han, euskara arkaikoan, benetako altxor linguistikoak daude, lexikoan, adizkietan, morfologian...; itzulpen eta guzti, XVI. mende hartako gaztelania zaharrea. Den-denak ez dira bizkaierazkoak –Bilbo inguruan-edo jasoak, Txorierrri, Arratia...–, badaude zenbait beste jatorri bat dutenak, ezaugarri desberdinekoak. Bada, batzuk ipiniko ditugu, idazkeraz apur bat gaurkotuta, eta ohartzekoa 36 zenbakikoan bi formak datozela, *çe* eta *ez*, bigarrena adizkiari itsatsita baitoa, eta 501 zenbakikoan bi kasuetan *çe* dagoela:

- 36    *Çe* eyquec maurtuti hoeaneâ ederr **ez**tanic calean  
      *Ez* eikek mortutik hoanean eder **ez** danik kalean  
      ‘No *hagas* quando fueras por el desierto lo que **no** fuere hermoso en la calle’
- 73    *Çeguiç* ezer Hendorea ençun artean bestea  
      *Ez* egik ezer, endorea, entzun artean bestea  
      ‘No *hagas nada* Alcalde, hasta oyr al otro’
- 336    *Galdu çe* eguiç aldia ta ydoro dayc naya  
      *Galdu ez* egik aldia eta idoro daik nahia  
      ‘No *pierdas* la sazón y hallarás el deseo’
- 490    *Emongo badeustaçu luzatu çe* eguidaçu  
      *Emongo badeustazu luzatu ez* egidazu  
      ‘Si me lo aveys de dar **no** me lo alargueys’

501 Çe eguic gachic ta çe euc bildurric  
 Ez egik gaitzik eta ez eduk bildurrik  
 ‘No hagas daño, y no tengas miedo’

Horregatik, idatzi genuen, ez modernoa eta ze forma zahar horiek azaltzeko (1), Mitxelena \*eze formulatu zuela (FHV, 422): hortik bai ze zaharra eta ez arrunta sortuko ziren. Ondorioz, gure interpretazioan, eze horri izartxo (‘teorikoa’) kentzeko moduan garela genioen, jada ez baita hipotesi bat, dokumentatuta dugu eskuko testuan: eze. Idazkerari dagokionez, badakigu aitzineuskarak bi txistukari (s / s’) eta bi dardarkari mota (r / r’) bereizten zituela. Baina txistukariak ez ziren grafikoki beti islatzen, zori hitzean ere ikus dezakegun bezalaxe (sori). Hala ere, txanpon batzuetako idazkunak ikertu ditugunean (o.T.ti.ke.z eta ba.r.s.ku.n.e.z) azkeneko zeinua desberdina dela ikusi dugu, ezkerrean iraulia (sinistrorsa); alegia, interpretatu dezakegu kontziente zirela fonema edo soinu desberdin horietaz eta batzuetan txistukari edo igurzkar horiek grafikoki bereizten saiatu zirela.



Iturria: numisbids

HTΨ<>  
 o T ti ke z

Eta Mitxelena (1915-1987) askotan aipatzen dugunez, esan dezagun hizkuntzalari gorenetakoa izateagatik haren lanen erreferentziak saihestezinak direla. Berarena da aitzineuskararen berreraiketa teorikoaren eredia. Ziur Irulegiko Eskuarekin izugarri gozatuko zukeela eta zientifikoki zehatz argitu zeren, horrekin lotuta, hona zer idatzi zuen bere artikulu batean (*En torno a la lengua ibérica*, 1961):

- «En otras palabras, si dispusiéramos de documentos escritos en vasco prehistórico del siglo primero antes de nuestra era –o en alguna lengua estrechamente emparentada con él–, cuesta admitir que no fuéramos capaces de penetrar el sentido general de textos sencillos [...] y de reconocer bastantes de sus componentes. Esto, por desgracia, no es más que una convicción que no puede ser adecuadamente comprobada mientras la suerte –bastante improbable por otra parte– no nos depare alguna sorpresa. (20)».



K. Mitxelena (1915-1987). Euskaltzaindia.

Baina, harrigarria, patua lagun izan dugu Irulegin, *zori on ekun* dugu. Hain justu, K.a. I. mende inguruko dokumentua. Eta gainera, ikusten dugunaren arabera, testu xumea da, herritarra, beste idazkun batzuen aldean (mosaikoak, xafla handiagoak...) konplexutasun gutxiagokoa eta interferentzia gabekoa: Irulegiko Eskuko testua beraientzat egina dela somatzen dugu, beraien bizimodu giroan kokatzen dela, ez dela *tesera* eiteko bat – nonbait horrela jo arren, *probable-*, beste leinu batzuekiko itun gisakoa-edo. Eta, beraren izaera apalean testu bikaina da, ezin ederragoa.

## 2 a.ka.í.i *ahakar* dela egiaztatzen

Eskuko testu guztiaren interpretazioa eman genuenean adierazi genuen bezala, elementu honetan ere itxurak laguntzen digu, eta iradokitzen aditza izan litekeela, ez + aditza egitura arrunt bat. Agian, *\*akarri* aditz zaharren bat, *ekarri*-rekin erlazionatua? Baina, testuinguruari erreparatuta ez ote da izango gaurko *ahakar* ('liskar, errieta')? Zeren eta aukera hori hobeki uztartzen da esaldiaren zentzuarekin, aditzaren aldean: *Egiten diren liskarrak, ahakarrak, mehatxuak eta erantzuteak ere*. Ax 3, 103.

Hiru posibilitate planteatu genituen, orain are sakonago ikertuko ditugunak:

**2.1** *\*ahakarri* aditz zaharren baten hipotesia, *ahakartu*-ren baliokidea. Aditzetan badakigu *-i* amaieradunak zaharragoak direla *-tu* amaieradunak baino: *estali/estaldu, sinetsi/sinestu, atzarri/atzartu...* Baina ez da dokumentatzen *\*ãkarri* erako aditzik. Aditz eran soilik dugu *ahakartu*; adib.: *Batak* [erraiten du] *liskartzea, bertzeak ahakartzea*. Ax 17; A puñetazos. *Bi adixkidiak ahakartu, eta hasi zituzun muxikunka* H.

Beraz, aditza izatearenak arazoak planteatzen ditu. Batetik, ez delako dokumentatzen *\*ãkarri* formako aditzik, alderdi garrantzitsua. Baina, areago, esaldi osoaren zentzuan ez delako egoki uztartzen; izan ere, ez + aditza egitura balitz, adizki horrek agintera zentzua izango luke eta hori ez dator bat lerroan ulertzen dugun adierazpenaren ildoarekin.

**2.2** Beste aukera bat, hipotesi moduan planteatu genuen *ãkarri* zaharra (*ã* luzea) aditz bihurtzean (*ahakartu*), prozesu horretan *-i* galtzea: *a(ha)karri* > *\*a(ha)karritu* > *a(ha)kartu*. Etimologian atzeranzko osaera deitzen da bilakaera hori. Eta aditz gisa erabiltzearen poderioz, > *a(ha)kar* formara aldatzea; forma modernoagoa. Nolabait *bihurri* hitzean gertatu dena, azaldu genuen: *bihurri/bihur*, biak ditugula, zentzuz ere desberdinak. OEHn, *Bihur*: *Aize-biorra* (V-ger-m), 'viento arremolinado'; *Aize-biur* (V-gip-ple), 'remolino, ciclón, torbellino de viento', *Haize bihurren artean*. AB AmaE 468. Aditz bikotea ere badugula esan genuen, esanahiz bereziak: *bihurritu/bihurtu*.

Bada, bide honetatik sakondu behar dugu, alegia *ãkarri* hitzean gertatu ahal izan den bezala, *-i* galeraren beste adibide batzuk bilatu behar ditugu, ahalik eta parekoenak. EHHE, hiztegi etimologikoan:

- *garatu* Gure ustez, *garaitu*-rekin lotu behar da; *-i*- bokalaren galerarako, cf. *zemaitu/zematu, garbaitu/garbatu*, zeintzuetan *zema-i*- eta *garba-i*- jo behar diren jatorrizkotzat.
- *garbatu* *Garbaitu*-tik sortua, atzeranzko osaeraz. Ohar bedi Kapanagak berak darabilela *garbaitu* aldaera.
- *garba* *Garbatu*-tik atzeranzko osaeraz sortua: *garbaitu* > *garbatu* > *garba*.

Lehenengo bi kasuetan *-i* galdu egin da hitza aditz bilakatzean: *gari* > *garatu* eta *garba* > *garbatu*. *Zema* > *zematu* kasua ere aipatzen da. Eta gorago jarri dugun *bihurri/bihur* eta *bihurritu/bihurtu* bikoteak bezalakoa izango litzakete *garaitu/garatu* aditz bikotea, esanahi bereizikoak. Edo, beste bikote bat, *zauri*-tik: *zauritu/zaurtu* ('bihotzean

mindu' gisakoak, *zaurgarria*). Ipini ditugun hiruretatik, *garba* adibidea da parekoena, proposatzen dugun *a(ha)kar* formaren eboluzioarekiko.

Azkena, EHHEtik eta, ondoren, beste dokumentatze batzuk:

- **azarri** Mendebaldeko hitza (arab., bizk.); cf., gainera, honekin lotua izan litekeen gnaf. *azarri* 'ganora, arreta, funts'. Gehienbat izenondo moduan erabili da. Esanahi nagusia 'ausart' da. *Edozein da azarri, baia gudura doa gutxi* 'Cada uno es atreuido, empero a la guerra pocos van' (RS, 383). *Azarri izan egituran ere ageri da, 'ausartu' esanahiarekin.*

Eta beste honetan, jada, -i gabe ikus dezakegu, atzizkiagatik: *Azarkunzeak bildurra uza bez...* 'El atrevimiento auyente el miedo' (RS, 165). Lazarragak *azarri* eta *azartu* biak darabiltza: *zagita bat eben daukat /azarri ez nax tiraetan* (Kop 27); *nola azartu zara zaozen lekura etorten* (Artz); *flakezeonen bildur nax baia / oita gura dot azartu* (Kop 5); *Beti begira nago zuregana /ezin azartu nax ezer esaten* (Kop 20). Eta Mogelen: *Zer? Azerijak azartuten dira bildots ta antxumeetara?* (Mog. PAb 110); *arerijuai arpegi azartuba agertu baga.* (Mg PAb 206).

**2.3** Teorikoki beste aukera bat geratuko litzaziguke ikertzeko, eta da ea hitz horretan deklinabide desinentzia bat falta ote den, > *ākarrik, zegaiti, etxeti...* abl. forma zaharretan bezala –egia esan, horietan ez da falta, horrela baitzen abl. zaharra, *-ti-*. Ezeztapen baten ondoren egonik, gaurko ikuspuntuarekin logikoa dirudi, partitibo atzizkia izango litzatekeena. Baina 2.2 puntuan esandakoaren alde egin dugu gehienik, hitz osoa izentzat hartuta. Gainera, esana dugu honezkero, *dene* elementuaren ikerketan, eskuko testuan deklinabide desinentzia gutxi ageri direla: *eki (he-ki, norekin) aterpe-n* (non, inesiboa) *n* galduarekin batera. ke.be. (*hemen*) osagaien ez dago inesibo markarik –ez bada -e bokal sudurkaria izatea eta atzizkia ezkutuan egotea–; baina uste dugu hizkuntzaren eboluzioan *-(r)ik* partitibo marka berriagoa dela eta eskuaren garaiko barskuneran ez zela izango, *salbu eta errakuntza*, Mitxelenak esan ohi zuenez. Izan ere, bestalde, partitiboaren marka hori adierazi nahi izan balute *alfabetoan* ez zuten *-k* zeinu solterik, hitz amaieran jartzeko; nahi izanda ere, izatera, idazkera sistemak ez zien aukera hori eskaintzen. Bada, zalantza horrekin geratuko gara material berriek argia ekarri arte.

Beraz, oraingoz, gure interpretazioan izentzat joko dugu, *a(ha)karri* edo *ākarri* zaharra –azentua lehenengo bokalean duela–, gure egunetara *ahakar* forman iritsi dena, belaunaldi askoren ondoren: *ahakar* (AN, L, Sal, R /*ākar*/; SP, Aq 733). Ref.: Bon-Ond 158; A (*ahakar, akar*). 'Riña, disputa, reprensión'. Hots: 'liskarra, errieta'.

Eta antzinatasunaren kontu horrekin lotuta, hona Mitxelenaren beste iruzkin bat:

- «Lo que podemos saber o imaginar de la forma prehistórica del vasco por aquellas fechas no es tan poco como algunos piensan. Según un cálculo moderado, una mitad por lo menos del léxico básico de entonces ha llegado hasta nosotros en la lengua hablada o en los textos.» (1961, 20)

Bada, gure interpretazioan, ez *akarri* bezala oinarritzko lexikotzat har daitezkeen beste elementu batzuk ere identifikatu ditugu eskuko testuan.

Amaitzeko, jakingarri gisa, eskuaren eremuan jasotako igarkizun bat jarri genuen: *Bi ahizpa beti 'ākarrian' (ahakarrean) eta sekula ez odolik egiten. Zer da? --Gardara. Garral EEs 1915, 92 y 111. Ba al dakizu zer den?*



## VI Adizkiak: *ekun · dra · edrauk*

Txosten honetan testuan interpretatzen ditugun hiru **adizkiak** ikertuko ditugu.



---

Egile Joseba Butro, hutsegiteen edota kritika kasuetarako.

## VI · Laburpena

Eskuko testuan hiru adizki bereizten ditugu: *ekun*, *dira* eta *eraduk*.

Adizkietako bi agurtzeko esaldietan daude: *ekun* lehen lerroan y *eraduk* azkenekoan, hikan. Desiozko zentzua izanik, agintera moldean daude. Interpretatzen dugu *eku-n* dela, nahiz eta ez eduki [n] zeinua atxikia.

Bigarren lerroko *dira* adizkia 3. pers. pluraleko forma sinplea da, aditz oinarritzkoenarena: *izan*. Interpretatzen dugu adizki honek, /dra/, eta azkenak ere, /edrauk/, forma aldatua dutela, [dr] kontsonante taldea osatuz, ipar-ekialdeko testu zaharretan oso dokumentatua.

---

## VI · Abstract

In the text of the Hand we identify three verb forms: *ekun*, *dira* and *eraduk*.

Two verbs are located in the greeting sentences: *ekun* in the first line and *eraduk* in the last. When having desiderative sense they are in the imperative form. We take it to be *eku-n*, although it does not have the [n] attached to it.

The verb form *dira*, in the second line, is the simple 3rd person plural form of the most basic verb: *to be*. We interpret that both this verb form /dra/, as well as the last one /edrauk/, have their form altered, forming a consonant group [dr], widely documented in ancient northeastern texts.

---

## VI · Resumen

En el texto de la Mano identificamos tres formas verbales: *ekun*, *dira* y *eraduk*.

Dos de los verbos se localizan en las oraciones de saludo: *ekun* en la primera línea y *eraduk* en la última. Al tener sentido desiderativo están en forma de imperativo. Interpretamos que es *eku-n*, aunque no tiene la [n] adjunta.

La forma verbal *dira*, en la segunda línea, es la forma simple de 3ª persona del plural del verbo más básico: *ser*. Interpretamos que tanto esta forma verbal /dra/, como la última /edrauk/, tienen su forma alterada, formando un grupo consonántico [dr], muy documentado en textos antiguos nororientales.

---

## VI · Resum

Al text de la Mà identifiquem tres formes verbals: *ekun*, *dira* i *eraduk*.

Dos dels verbs es localitzen a les oracions de salutació: *ekun* a la primera línia i *eraduk* a l'última. Com que tenen sentit desideratiu estan en forma d'imperatiu. Interpretem que és *eku-n*, encara que no té la [n] adjunta.

La forma verbal *dira*, a la segona línia, és la forma simple de 3a persona del plural del verb més bàsic: *ser*. Interpretem que tant aquesta forma verbal /dra/ com l'última /edrauk/ tenen la seva forma alterada, formant un grup consonàntic [dr], molt documentat en textos antics nord-orientals.

---

## VI · Résumé

Dans le texte de la Main, nous identifions trois formes verbales : *ekun*, *dira* et *eraduk*.

Deux des verbes sont situés dans les phrases de salutation: *ekun* au première ligne et *eraduk* au dernier. Comme ils ont un sens désidératif, ils sont à la forme impérative. Nous l'interprétons comme étant *eku-n*, bien qu'il n'ait pas de [n] attaché.

La forme verbale *dira* est la forme simple à la 3ème personne du pluriel du verbe le plus basique : *être*. Nous interprétons que cette forme verbale /dra/, ainsi que la dernière /edrauk/, ont leur forme modifiée, formant un groupe de consonnes [dr], largement documenté dans les textes anciens du nord-est.



## VI Adizkiak: *ekun · dra · edrauk*

Eskuko testuan hiru aditz elementu daudela interpretatu dugu: lehenengo eta azken lerroan agurtzeko esaldiak direnak (on *ekun · edrauk* on), eta bigarren lerroan *dra* adizkia, 3. perts. pl.eko adizki sinplea, *dira*.

### 1 *e.ku.n* (*ukan*) ikertzen


Eskua agertu zenean *zorioneku* hitzaren aurkikuntzaren berri zabaldu zen lau haizeetara. Arraro xamarra gertatzen zen, *zorioneko* hitzaren antz handia baitzuen, baina *ku* amaierarekin. Bitxikeriatzat jo izan zen, baina testu osoari begiratu bat eginez gero nabaria zen ez zela errakuntza, azken lerroan *ko* silabaren zeinua agertzen baita. Ez zitzaionez batere jaramonik egin apur bat eskuinerago, bazterrean zegoen *n* bati, horretan geratu zen: *zorioneku*. Berehala hasi ziren interpretazioak ere, ‘guri’ zentzua ote zuen, ‘zorionekoak gu’, ‘afortunado’, marka gisa erregistratzeko arinetak, eta abar. Ordea, gure I. dokumentuan azaldu genuen bezala, *ekun* aditza interpretatuz gero, agurtzeko formula bateko esaldia da, *zori on ekun*, eta loturik dago testua ixten duen esaldiarekin, *edrauk on*. Bi zatiak *on* izenondoarekin uztartzen dira, eta agerikoa iruditzen zaigu agurtzeko esamoldeak direla, txukun-txukunak. Aldiz, esan dezagun garbi, *sorioneku*, bere literaltasunean, huts-hutsean –*ekun* gabe–, ez da ezer, ezta z-rekin jantzita ere.

II dokumentuan *istripu* deitu genion *n* horren aferari: dirudienez, edo arazo bat edo akats baten konponketa.



Transliterazioa egin denean *n* bakar hori bi lekutan kokatu da, lehenengo lerroan *sorioneku*-ren ondoan {}, eta bigarren lerroan, e-ren ondoan [ ]. Esan izan da idazteko espazio gabe geratu zirela bigarren lerroan (arazoa), eta gaineko hutsunean kokatu zutela; baina hori ez dago argi eta horregatik bi bider txertatu dute. Gure iritzian ere bi lekuetan koka daiteke: batean *ekun* aditzaren amaiera izango litzateke (akatsa konpontzen); baina probableagoa da bigarren lerro amaierakoa izatea, *-n* ines. (non) desinentzia. Galdera zera da, lehenengo lerrokoa ere baldin bada, orduan, zergatik ez zuten idatzi jarraian, *ku*-ren ondoan ere? Lerroa amaitutzat utzi zutelako? Eman zaigun transliterazioaren arabera, *ku*-ren ondoko hiru banaketa puntuek hori adierazten dute: amaiera; zeren, bestela, espazioa soberan zuten lehenengo lerro horretan zeinu bakar bat idazteko.

Baina ikertu dezagun hurbilagotik.



Xaflan, testuko zeinuen azpian marradurak nabari dira, baina ez hiru puntu horien azpian: ez dago markarik (B grafikoa). Agian, beste *istripu* bat gertatu da transliterazioa egitean eta 'nahi gabe' seinatu dira hiru puntutxo horiek? Zeren xaflan asko daude, herdoilagatik (C grafikoa). Bada, puntutxo horiek ez direla testukoak kontsideratuz gero, lerroa ez zuten itxizat edo bukatutzat eman, amaierako e.ġ.a.u.ko.n eta gero, aldiz, argi ikusten dugun bezala (D grafikoa).

Nolanahi ere, *n* bazterrean dago, ez zuten *ku*-ren ondoan idatzi. Fonetikoki, *ekun*-en /n/ soinu sudurkaria oso ahula da posizio horretan, segmentu amaieran; elementuen ordena alderantziz izan balitz (*ekun zori on*) pentsa genezake ez zela *istripurik* edo akatsik gertatuko. Horren harira ekar dezakegu aipamenera bokal sudurkariena, oso litekeena baita aitzineuskararen bokal sudurkariak izatea, *-n* soinua *estaltzen* dutenak, bizkaiera arkaikoan edo erronkarian bezala, *n > Ø*: *arrai*, *azkoi*, *eskoi* ('eskuin'), *artzai*, *ardau*, *karroi*...). Baita *orai* ere (<orain), ekialdeko eremu guztian: *orāiko*, *orāitik*, *orai* (Etxep.)...

Posizio ahulaz esandakoaren aurka argudia liteke ezen azken lerroko *on* ere amaieran dagoela: ordea, *on*-en /n/ soinua zehatz jasota dago, kokaguneak lagunduta, esaterako goian: /o-ne/, ondoko bokalarekin elkartzen baita silaba osatzeko; alegia, jabetuta izango ziren *on* zela elementua, eta monosilaboa izateak ere alde jokatzeko du, horregatik bokal sudurkaria ere ezin izan daiteke; baina garrantzitsua, *on* hori hasperenduna izan zitekeen, /hon/, geroko mendeetan legez. Bestalde, *ekun*-en aldaera batzuek (*ukhen*, *ukhan*) /kh/ soinua dute, eta horrek seinatu lezake azentu intentsitatea *ku* silaban egon zitekeela, /khu/ agian. Baina aditz horietan ez da *-n* galerarik dokumentatzen, alegia, fonetikoki *-n* hori galtzea ez dago justifikatuta. Beraz, diagnostiko gisa esan dezakegu ezen azken posizio ahulean egonik, bi hasperenketa posibleko testuinguruan (*hon · ekhu*) eta agur formula izanik, askotan errepikatua (*zo·ri·ho·ne·khu·n*), amaierako *-n* ahul hori ez zela intentsitatearekin jasotzen, ez ahoskatzen ez aditzen, eta balitekeela *istripua* izatea, hutsegitea; hots, ez zutela idatzi. Kasurako, bada atsotitz zahar bat ulergaitza gertatzen zena, *Haur ola zirola* (Oih, 343); *ola* elementua enigmatikoa zen, batik bat hasperenketa (*olha*, 'lantegia') falta zuelako, atsotitz gisa lehenengo bi elementuak blokean ahoskatzen zirenez, /hau-rro-la/, bigarren hasperenketa aienatua zen. Esanahia: 'Horra hor lantegia, zapataria', 'hor duzu lana'. Eta agur esamolde bat, *zo·ri·ho·ne·khu·n* posiblea, atsotitz bat baino maizago erabiltzen da. Eta amaitzeko, beste kasu bitxi bat, *-n* galerakoa: *jaun* hitza; Erdi Aroko dokumentatze batzuetan *jau* forman ageri da: *lau Orti* (1110), *lau Dommicu* (1247), etab.

Eta, konklusio moduan, honek eramango gintuzke onartzera testuko *n galdua* bigarren lerroko *aterpe·n* elementuari dagokiola, ez dela bi lekutan baliatzenkoa.

*Ekun* dela interpretatu dugunez, horrekin arazo linguistikoak berehala hasten dira. *Ekun* aditza, forma horretan, erronkarietaz bakarrik ezagutu dugu –hainbat adibide eman genituen II. dokumentuan–, ez da izan literatur tradizioko forma, eta agian horregatik ez zaio kasurik egin, eskuko testuan guk beste inork ez du aintzat hartu posibilitate hori. Bestela esanda, gutxietsi egin da *ekun*, nahiz eta egituraren aldetik *e-du-n* bezalakoa izan, guztiz paraleloa. Baina, molde landua, literarioa eta estandartzat duguna *ukan* da. Baditu aldaerak: *ukhen*, *ükhen*, *uketu*, *ikun*...

Baina erronkariarena ez da bitxikeriatzat hartu behar zeren, hizkuntzalari handiek seinatu duten bezala, askotariko arkaismoak gorde baititu hizkuntzaren bazterrean edo ertzean kokatuta egoteagatik (M. Bartolik teorizatua, 1945), zubererak edo bizkaiera arkaikoak bezala (RS).

- «En cuanto al carácter del dialecto roncalés (R), se puede aventurar la afirmación de que presenta claras muestras de su posición marginal. [...] Pero al mismo tiempo su situación le ha permitido conservar un número considerable de arcaísmos de todo orden.» (Mitxelena, 1951)

Adibide bat jarriko dugu, arkaismoekin lotuta (130):

- «Es de interés particular el caso de R *bedratzu* ‘nueve’, *emeretzu* ‘diez y nueve’ (Is. Uzt. *bedrátzu emerétzu*), S *bede(r)átzii*, *heme(r)étzii* en oposicion a *bed(e)ratzi*, (*h*)*emeretzi* de los demas dialectos. Teniendo en cuenta la frecuencia con que los numerales influyen normalmente unos sobre otros, en particular en cuanto a la terminación (lat. *novem* como *decem*, esp. *cinco* como *cuatro*, etc.), entra en lo posible que R *-u*, S *-ü* representen mas fielmente que *-i* a la vocal primitiva. Ya que en ese supuesto se explicaría fácilmente que *u* haya pasado a *-i* por influencia de *zazpi* ‘siete’ y *zortzi* ‘ocho’, formas comunes, mientras que en el otro el cambio parece inmotivado.»

*Ekun*-en inguruan, ikus dezagun EHHEk zer dioen, labur-zur:

- *ukan* (*ukhan* ~1527: Zalgiz; *ukhen* 1545: Etxep; *uketu* ~1596: EspGut; *ikun* 1617: Etxart; *iken* XVIII. m.: MuruzSerm; *ekun* 1869: ErronkDot). ■ Ekialdean erabilia, bereziki bnaf. eta zub. testuetan. [...] Protoforma \**edukan* izango litzateke, eta \**eukan* > *ukan* gertatuko zen gero. [...] Baina goian ikusi bezala, ezin da jatorrirako *-ka-* batez mintzatu, Mitxelenak erakutsi baitzuen *-o/-ko* formatatik heldu direla *-a/-ka* modernoagoak. [...]

Aldaerei dagokionez, ez dago argi nola azal litekeen *uk(h)en* aldaera *uk(h)an*-etik. Bokalen lekualdatzea gertatu bide da *ekun*-en (FHV 84, Lafon 1943: II 18). *Ikun* aldaera *ekun*-etik azaltzen da, lehen bokala itxita.

Bada, lehenengo zatitik interesgarria da «ezin da jatorrirako *-ka-* batez mintzatu» adierazpena, hots, ezin izan liteke; eta bigarren zatian zaila dela *uk(h)en* < *uk(h)an*-etik azaltzea. Amaitzeko, eta guk eskuko testuan ikusten dugunaren arabera, badirudi “bokalen lekualdatzea” ez dagoela *ekun*-en baizik eta *uk(h)en* aldaeran.

Bestalde, Azkuek bere *Particularidades del dialecto roncalés* (1931) obran honakoa idatzi zuen morfologia kapituluan:

- «4.º Los núcleos *ki* y *u*, que son los del verbo *yakin* y *ekun*, reciben como elemento epentético la vocal *o*. En tales casos el núcleo *u* queda convertido en *i*. En muchos de los proverbios roncaleses, que se publicarán en el capítulo cuarto, verá el lector las flexiones *diona* y *dionak* equivalentes a *duena* y *duenak* de varios otros dialectos. Citaremos aquí dos. *Tenprak emoiten diona tenprak gentan du* ‘Lo que da el tiempo lo quita el tiempo’ (1969. 22)».



R. M. Azkue (1864-1951)

Wikipedia

Alegia, gaur \**edun* aditzaren errotzat markatzen dugun desinentzia, berak *ekun* aditzari esleitu zion. Eta horrek gogora dakarzkigu bizkaiera arkaikoan ageri diren *eute* formak. Adib.: *neka adi euterren* ‘trabaja para tener’ (RS, 553), *atsein handia da amore eutea* (kanta zah.), *asko obligadurik euten deboziona* (Bet.). *Edun* aditz zaharraren formatzat jotzen dira. EHHE:

- «D. Inzak (*Euskera* 1922) Dorraoko *egon* baten berri ematen du, ‘euki’ esanahiarekin erabilia; Mitxelenaren arabera (1958b: 44), baliteke *eon* izatea biltzaileak benetan entzundakoa, eta *edun*-ekin zer ikusia izatea. [...] Esan liteke *edun* galduaren lekua *ukan*-ek hartzen duela ekialdean (mendebaldean *izan* iragankorrek eta *eduki*-k); cf. *Etxep amore bat ukhen / bizk. amore eutea*.».

Baina, ustez bizkaiera arkaikoan, hara non dugun *ekun*: 1476an Gernikan egindako Foruen Zin-egitea. Bi margolan daude: bata 1609koa; bestea, 1773koa, kopia bat. Idazkun bat dute, eta ez da guztiz berdina bi kasuetan. Azken esaldian batak dio: *ta eurac bera jauntzat ecutea*; besteak: *ta eurac berari jaunzat edutea*. Eztabaidak izan dira originala zein den. A. Irigoien hizkuntzalariak irmo defendatu zuen *ekutea* duen idazkuna dela jatorrizkoa (1), testuaren ezaugarrien arabera zaharragoa delako, eta bestean dagoen bertsioan kopistak ez zuela originala ulertu.



Azkenik, posibilitate bat planteatuko dugu. IV. atalean txanpon batzuk aztertu genituen, eta horien artean *barskunez* dioena. Legenda horren osagaietako bat *-kun-* izan liteke, eta hori *ekun* aditzarena. Horrela balitz, *ekun*-en aztarnak, itxuraldatuta, hitz askotan barreiatuta egongo lirateke: *vasconice* (lat.), *basquenz* (errom.), *vascuence* (gazt.), *basque*, *baskisch*...

## 2 **dr.a** (*dira*) ikertzen

Adizki hori eskuko testuan espresio minimora ekarrita ageri da, hots, beraren forma laburrenean: alde batetik **ř** zeinua, *dr* kontsonante taldea adierazten duela interpretatzen duguna, eta *a* osagaia, baina hurrengo elementuaren hasierarekin fusionatuta: *dra-atefe(n)*.

Honek, lehenengo eta behin, **ř** zeinuan sakontzera behartzen gaitu. Testuan bost aldiz agertzen da, teorikoki **ř** /rr/ dardarkari gogorra dena, baina horietatik bi kasutan bakarrik ikusi dugu egiazki dardarkari gogor hutsa dela, *irri* eta *akarri* elementuetan. Beste hiru kasuetan *r* osagaia duen kontsonante talde bat adierazteko erabili da: *dr* kontsonante taldea bi aldiz, eta *rp* taldea behin. *Alfabetoan* ez zuten konbinaketa edo talde horiek irudikatzeko zeinurik, eta logikoa dirudi *r* soinu dardarkariari protagonismoa ematea, beste soinuaren gainera nabarmentzen baita: **ř.a** > dr-a · e.**ř**.a.u.ko.n > e-dr-a-u-ko-n · a.te.**ř**.en > a-te-rp-en. Nolabait komodin edo joker gisa erabiltzen zutela pentsa daiteke. Bide batez esanda, susmatzen dugu antzeko zerbait bat ezkutatzeko delako Andeloko mosaikoan (Mendigorria), beste kontsonante talde bat, *Abulořaune* elementuan. Azken elementuan ere badago beste **ř** bat, baina horretan, *bařskunes* legendan bezala, txistukari bat /s/ datorkio jarraian. (Mosaiko horretako idazkuna hurrengo atalean iruzkindu beharko dugu berriz)

L i k i n e · A b u l o ř a u n e · e k i e n · B i l b i l i a r ' s



### 2.1 **dr.a** moldeko kontsonante taldeak

Kontsonante taldeetan aintzat hartzekoak dira leherkari + likidoak osaerakoak: /b · d · g · p · t · k/ + /r · l/. Alegia, lehenengo osagaia leherkari bat da, eta bigarrena kontsonante likido bat, *r* dardarkaria tartean. Hizkuntzetan fonetikaren aldetik garrantzitsuak dira, dituzten inplikazioengatik. Latinez talde horiek *muta cum liquida* deitzen dira.

Bada, aurreko mendeetako iparralde-ekialdeko testuetan begiratu gero osaera molde horretako adizkiak eta kontsonante taldeak gaur egun baino askoz arruntagoak ziren. Tarteko bokal bat desagertu, sinkopa, –edo ez– eta kontsonante talde gogorra sortzen da. Adibidez:

- Leizarraga (1571): *draue* · *drauka* · *baitrauegu* · *drauzkiat* · *abrats* · *oraindrano* · *batre*
- Beriain (1621): *dratzkiogun* · *dra* · *dramatenei* · *atrako* · *draugu* · *dratzokete* · *brazo*
- Tartas (1672): *drauzut* · *draukote* · *drola* · *draino* · *drauizun* · *delibra*

Adibide asko eman daitezke, autore gehiagorenak ere. Gero, hizkuntzaren eboluzioan, kontsonante talde horietako askotan soinu gogorra leunduz joan da bokalak tartekatuz, baita maileguen kasuan ere: *derauko· liburu· ingelesa...* Baina eskuko testuan, interpretatzen dugunaren arabera, fonetismo hori arrunta zen, ekialdeko euskalkietan ezagutu dugunaren modukoa.

- «3.º Es también fenómeno fonético muy roncalés la elisión de una vocal entre la consonante *r* y otra consonante (generalmente explosiva) que le preceda (Azkue, Ronc, 214)». Edo: «En ejemplos como ronc. *krutxe* 'cruz', *aprila* 'el mes de abril' no es fácil saber si el grupo *muta cum liquida* nunca ha estado separado por una vocal o si ésta ha caído después.» (FHV 161/13)

Adibide batzuk:

- *Oren bat obro egunean* 'Una hora más al día' (haboro)
- *Indarrak biltruk obro doke ezik barriatruk*  
'La fuerza unida puede más que dispersada'
- *Ilak eta fanak dra lein anztan drenak*  
'Los muertos y los idos son los que antes se olvidan'
- *Preza: eitz nazak xagitra, as nein lan egitra*  
'Pereza: déjame levantar para que empiece a trabajar'

Eta horri lotuta beste ohar bat ere egiten du Azkuek, /r/ eta /r̄/ (biguna-gogorra) ahoskera dela-eta: «Ante consonantes, esta *r*, de suyo suave, se convierte en fuerte en nuestros labios: *noř da*, *zeřgatik*, *uř garbia*, *plateř bat*, etc. La frase antes citada *Israelen etseko ardi galtruk drenetra* el que la escribió la pronunciaría como la pronuncian hoy en aquel valle: *galtruk drenetra*, y nosotros *galřuk dřenetr̄a* (Ronc, 218)». Horren arabera, /r/ bigunaren ebakera izan zezakeen *dra* elementuak ere.

Gorago aipatutako *muta cum liquida* kontsonante talde horiek latinetik erromantzeetara garapen fonetiko berezia izan dute, lekuan lekuan. Latin vulgar deitutakoan aldaketa jasan zuten eta ondoriozko erromantzeetan fonetismo bereizgarria eragin dute, gaztelaniaz, frantsesez, portugesez, italieraz, eta abar. Hitz askotan bikoteak geratu dira: bata, forma landua, latineko *muta cum liquida* taldea gordetzen duena eta, bestea, erromantzearen ezaugarrietara moldatua; adib.: *integru* > *integro* / *entero* (gazt.). Eta honekin lotuta, aipatu izan da gaztelaniak, euskararekin geografikoki kontaktuan garatu baitzen, badituela eragin fonetikoak, /h/ edo hasperenketa ezagunena. Bada, kontsideratu dezakegu kontsonante talde horiena ere, zeren espero zitekeenaren aurka, gaztelaniazko hitz batzuetan mantendu egin baitira jatorrizkoak. Adibidez: (lat.) *nigru* > *niri* (it.), *noir* (fr.), *negro* (gazt.). Ez dakite zergatia, baina hasiera-hasieratik dokumentatzen da horrela. Bestetik, deigarriak dira adizki irregular batzuk: *deber*, *comer...* > *deberá*, *comerá...*; baina *haber*, *tener...* > *habrá*, *habría*, *tendrá*, *tendría...*

Ondorio gisa, planteatu dezakegu kontsonante talde horiek, latinean arruntak zirenak, arruntak zirela baita aitzineuskaran, eta gaztelaniaren fonetikan ere nolabait eragin zutela. Orobat erronkarieraz bereziki ezagutu dugun kontsonantismo tipiko hori antzinatek etor daitekeela. Azkenik, zehaztu dezagun ipinitako adibideak denak ez direla garai zaharretakoak, kontsonante talde horietako asko berriak izan daitezke denboran, baina adierazi nahi duguna da molde edo estilo batekin uztartzen direla, alegia tradizio baten jarraitzaileak direla. Kasurako, *krutxe*, *aprila*, *libru* e.a., gure iritzian, naturaltasunez koka zitezkeen –eta dira– bokalik tartekatu gabe usadiozko sistema fonetikoan /kr · pr · br/, eskuko testuan antzematen dugunaren ildotik.

### 3 e.dr.a.u.k (eraduk) ikertzen

Agintera zentzuko adizki hori hasierako *ekun*-en ifrentzua da, diosalaria erantzutekoa. I. dokumentuan esan genuen *eraduki* aditza interpretatzen genuela, *eraduk* forman – azken *-k* hori partizipioaren hondartzat hartuta–, baina metatesi bat (fonemen transposizioa) gertatuta: *eraduki* > \**erdauki* > *edrauki*. EHHE:

- **eraduki** (xviii. m.: RolTrag). ■ Zubereraz agertzen da ‘eduki, edukiarazi’ esanahiarekin: RolTrag (ap. *DRA*) *enezala eraduki batere haiduru*, ChantP *oi, krüdela, erierazi naizü, / ütsüerazi naizü, / ülhünpian eradükiten naizü!*

Baina, ikus dezakegunez, dokumentatzea nahiko modernoa da, ez dago adibiderik testu zaharretan. Horregatik, antzinertera joanda \**eradun* hautatu behar dugu. Honek ere, metatesia gertatuta, kontsonante talde berbera izango luke, /*drau*/. Baina garrantzitsuagoa dena, azken *-k* horrek hikako adizkia dela erakutsiko luke. Eta aditz hipotetikoaren izartxoak kendu geniezaioke, *eradun* dela jotzen dugunez gero dokumentatuta bailegoke.

- \***eradun** (derau(t)zut <-auçut> 1536: EzkonBeorb). ■ Adizki hirupertsonadunetan bakarrik gorde den aditza. Erdi-ekialdean ageri da. [...] Ohikoa da autore berarengan formak aldizkatzea: Etxep *daraut/deraut*, Leiz *deraue-*, *zerauen/draue*, etab. [...] Aditz beregain moduan ere, ‘eman’ esanahiarekin ageri da (EzkonEspar *nik draudazut fede*, Leiz *esker draukat neure lainkoari*, Aldaz *jatean drauko bizia*).

Gorago eman ditugun adizkiak ere (Leizarraga, Beriain, Tartas) gehitu daitezke, eta bai autore gehiagorenak ere, oso arruntak baitira testu zaharretan.

Azaldu dugu gorago /*dr*/ soinuen testuingurua, alegia *muta cum liquida* taldeak arruntak izango zirela orduko sisteman. Bestela, *erauki* aditza ere badugu aukeran, formaz hurbilagokoa gertatzen dena; baina testuan ikusi dugunez, dardarkari biguna /*r*/ eta gogorra /*f*/ bereizten bazekiten, eta zeinuari kasu eginez gero \**errauki* izango litzateke, dokumentaturik ez dagoen aditz bat. Horregatik, gure iritzian **ř** zeinuak *dr* kontsonante taldea ordezkatzeko du, goiko *dra* adizkian bezalaxe.

Hasieran ikusi dugun *ekun*-en zentzu bertsuko (‘ukan ezak’) aginterazko adizkia da hau ere, baina forma sintetikoa. *Ekun* partizipio forman dago eta bai *edrauki* ere, *eraduki* balitz, baina honek azken bokala faltako luke, *-i*, *on* izenondoarekin elkartzean gertatutako egokitzapen fonetikoagatik. Baina ez, esan dugunez ez dugu joko *eraduki* dela. Indar gehiago du \**eradun* izatearen posibilitateak, *-k* amaiera horrek –hikakoa– (eraduk > edrauk) aginterazko adizki tankera osoagoa baitu, *Refranes y Sentencias*-eko *euk*-en antzera: *Ze egik gatxik ta ze euk bildurrik* ‘No hasas daño, y no tengas miedo’. Izan ere, horrelako agintera formak arruntak dira atsotitz zaharretan; Oihenarteren bildumako adibide batzuk: *errak egia* · *emak orari hezurra* · *egik ongi* · *onetsak adiskidea*... Ikusten denez, *hi* pertsona adizkiak dira, hikakoak.

Eta eskuan interpretatzen ditugun hiru adizkiei begira, sentsazioa dugu zoria benetan alde izan dugula, adizki ulerterrazak aurkitu ditugulako, harrigarri errazak hobeto esanda. Zeren, aditzen eboluzio historikoari begiratu bat ematea nahikoa da ohartzeko zenbat proba egin dituen hizkuntzak desinentzia anitzekin. Eman ditugun atsotitz batzuetan (RS, 1596) ikusi denez, edo beste batzuetan, adizki zahar asko misterioitsuak dira, gure hurbileko sistematik oso urrun daudenak, beste tipologia batekoak; adib.: *Ikedak ta dikeada* ‘darásme y darte he’ 233, *sendakike* ‘te robustecerás’ 251, *Bazint banikezu* ‘si me dieseys daros eya’ 409. Horietakoak agertu balitzaizkigu, testua deszifratu ezinik ibiliko ginatke. Adibide bat jartzearren, hona Azkueren gogoeta bat:

- «Añadiré, como objeto de curiosidad, que difícilmente se concibe otra lengua que tenga como la nuestra seis vocablos completamente distintos para denotar la idea de 'ven, venga usted'. Son: 1.º *etorri*; 2.º *yaugin* con su probable variante *jin*, *xin*, *dxin*. En R. Uztarroz dicen *nagi*, 'ven' y en Beorlegi (BN) *augi to* 'ven hombre', *augi no* 'ven mujer', *zauri* 'venga usted'; 3.º *ziauri* con sus variantes *xiauri* y *tziauri*, que se usan en (BN) y S; 4.º el bizkaino *erdu* 5.º el roncalés *nazierde* y, 6.º las curiosas flexiones de San Juan de Luz, *tana* 'ven hombre', *nana* 'ven mujer' (Ronc, 237)».


Adizki horietako asko ez dakigu zein sistematakoak diren, zer egituraketa edo zein desinentzia dituzten; baina aurreko kapituluan ere esan dugunez, testu hau xumea iruditzen zaigu, beraientzat egina, herrixkako edonork ulertzeko modukoa. Eta, hala ere, eder-ederra.





## VII Deklinatuak: *kebe · eki · aterpen*

Txosten honetan testuan interpretatzen ditugun elementu [deklinatuak](#) ikertuko ditugu.



---

Egile Joseba Butroe, hutsegiteen edota kritika kasuetarako.

## VII · Laburpena

Hiru elementu deklinatu identifikatu ditugu: *kebe*, *eki* eta *aterpen*.

*Kebe*: interpretatzen dugu *hemen* aditzondoa dela, forma arkaikoan. Ez du -n deklinazio atzizki modernoa.

*Eki* erakuslea (*heki·n* testu zaharretan) deklinatuta dago: hek+ki, eta /h/ soinuaren lehen testigantzat jotzen dugu: kebe-eki, bi bokal berdin, elkartu gabe. Indartu egiten du *dene*-ren zentzua 'elkarrekin'.

Azkenik, *aterpen* adizlaguna inesibo (non) kasuan, baina mugatzailerik gabe. Interpretatzen dugu r' zeinuak [rp] kontsonante taldea adierazten duela.

---

## VII · Abstract

We have identified three declined elements: *kebe*, *eki* and *aterpen*.

*Kebe*: we interpret it to be the adverb *hemen* ('here') in its archaic form. Lacks the modern declension morpheme -n.

The demonstrative *eki* (*heki·n* in archaic texts) with declension form: hek+ki, and we interpret it to be the first evidence of /h/: kebe-eki, two vowels the same, not merged. Reinforces the meaning of *dene*: 'together'.

Finally, *aterpen*, prepositional phrase in the locative case, without article. We interpret that the sign r' represents the group of consonants [rp].

---

## VII · Resumen

Hemos identificado tres elementos declinados: *kebe*, *eki* y *aterpen*.

*Kebe*: interpretamos que es el adverbio *hemen* ('aquí') arcaico. Carece del morfema de declinación moderna -n.

El demostrativo *eki* (*heki·n* en textos antiguos) está en forma declinada: hek+ki, e interpretamos que es el primer testimonio de /h/: kebe-eki, dos vocales iguales, no fusionadas. Refuerza el sentido de *dene*: 'juntos'.

Por último, *aterpen*, sintagma preposicional en caso locatibo, sin determinante. Interpretamos que el signo r' representa el grupo de consonantes [rp].

---

## VII · Resum

Hem identificat tres elements declinats: *kebe*, *eki* i *aterpen*.

*Kebe*: interpretem que és l'adverbi *hemen* ('aquí') en la seva forma arcaica. Manca del morfema de declinació moderna -n.

El demostratiu *eki* (*heki·n* en tests antics) està en forma declinada: hek+ki, i interpretem que és el primer testimoniatge de /h/: kebe-eki, dos vocals iguals, no fusionades. Reforça el sentit de *dene*: 'junts'.

Finalment, *aterpen*, sintagma preposicional en cas locatiu, sense determinant. Interpretem que el signe r' representa el grup de consonants [rp].

---

## VII · Résumé

Nous avons identifié trois éléments déclinés : *kebe*, *eki* et *aterpen*.

*Kebe*: nous l'interprétons comme l'adverbe *hemen* ("ici") dans sa forme archaïque. Il manque le morphème de déclinaison moderne -n.

Le démonstratif *eki* (*heki·n* dans les textes archaïques) est sous la forme déclinée : hek+ki, et nous l'interprétons comme la première évidence de /h/ : kebe-eki, deux voyelles identiques, non fusionnées. Renforce le sens de *dene* : "ensemble".

Enfin, *aterpen*, syntagme prépositionnel au locatif, sans article. Nous interprétons que le signe r' représente le groupe de consonnes [rp].

## VII Deklinatuak: *kebe · eki · aterpen*

Eskuko testuko hiru elementu horiei *deklinatu* deituko diegu, *hemen · hekin · aterpen* direla interpretatzen baitugu, hots, non eta norekin kasuetakoak, nahiz eta denek ez izan desinentziak agerian.

### 1 **e.ki** (*hekin*) ikertzen

Didaktikoagoak izatearren erakusle honetatik hasiko gara, *hekin*.

Lehenik ke.be eta e.ki elementuak zergatik bereizi ditugun azaldu behar dugu. Bigarren eta hirugarren lerroetako testuan, zeinuen kateaketa horretan, ez da erraza jakitea zein elementu independente dauden, baina testua argitzen hasteko funtsezkoa izan da lan hori. Ikusi dugu transliterazioa egitean hirugarren lerroan banaketa bat interpretatu dela ta.n segmentuaren ondoan baina erakutsi dugunez, dauden marradura eta puntuetan oinarrituta, hor ez dago banaketarik, baizik eta *ba* silabari dagokion zeinua, testuaren interpretazioak ere baiesten digunez. Bada, bigarren lerroari gagozkiola, dr.a eta a.te osagaien amaiera-hasiera, bokal berekoa izanik, biak fusionatuta daudela ikusten dugu: -a a- > a, zeinu bakarra bientzat.

Halarik ere, bigarren lerro horretan antzematen dugu elementuen artean testu osoan dagoen banaketa argi bakarra: ke.be eta e.ki teorikoki biak elementu fusionagarriak izan arren –bokal berbera–, modu independentean idatzi dira –lerroan leku faltan geratu arren–. Zergatia erraz azal daitekeela deritzogu: e.ki irakurtzen duguna erakusletzat jotzen dugu (*hekin, haiekin*) eta hasierako bokala ezin da aurreko bokalarekin elkartu elementu honek soinu hasperenduna zuelako hasieran, /h/. Hortaz, ez dira bi bokal e+e bata bestearen ondoan daudenak baizik eta e-*he* osagaiak. Hasperenketa hori adierazteko ez zuten zeinurik, baina esana dugu aitzineuskararen bazegoela ziurtzat jo daitekeela (Mitxelena). Hurrengo mendeetan, latinaren alfabetoa baliatuz eginiko idazkuntan sarri agertuko da *h* zeinua, hasperenketa grafikoki irudikatzen duena. Bada, banaketa hori jo daiteke aitzineuskarako hasperenketa lehene frogatzat. Eskuko testuan beste /h/ garbi bat badagoela susmatzen dugu (*hots*), baina ez da nabaria *heki*-rena bezala. Konklusio gisa: testuan /h/ fonema badago, aitzineuskararako teorizatu izan den bezala.

Jo dezagun orain *-ki* desinentzia aztertzeraz. Norekin kasuak desinentzia bat baino gehiago ditu: *-ki, -kin, -kila(n)* eta bai *-gaz* ere bizkaieraz (nogaz). Esan daiteke *ki* dela soziatibo desinentzia jatorrizkoa, eta *-n* inesibo marka gehitua. Bada, *-ki* molde horretan testu zaharretan anitz dokumentatze konstatatzen dira. Hona batzuk:

- Etxepare (1545): *heki · gureki · huneki · hareki · iaunareki · elgarreki · hoieki · gizoneki*
- Amendux (1564): *beldurreki partiturik · judizion elkarreki · bakea dela guzieki*
- Beriain (1721): *berareki · deseoareki · zuenareki · eneki · guziareki · guzieki*
- Oihenart (1657): *noreki · hireki · eneki · iguzkiareki · zureki* edo *zurekila*
- Tartas (1666): *gizoneki · hanbateki*, edo *ororekin · berekin · lenkoarekin · elgarrekila*

#### 1.1 Erakusleen garapenez

Esana dugunez (*dene*), testuan ez da ageri mugatzailerik (*-a/-ak*) baina bai erakusle bat, *heki*. Hizkuntzak determinatzaileen sistema eraikitzeke lehenengo urratsa erakusleen bidez gauzatu zuen, horiek gero hitzei atxikitzen joan zitzaizkien, formazko aldaketa askorekin, mugatzaile tankera eta funtzioa harturik, deklinabide sistema guztia

moldatzeraino, prozesu jarraian eta amaigabeen. Benetan prozesu konplexua da hori hizkuntzetan, ez euskararen kasuan bakarrik, baita erromantzeen artean ere latinetik eboluzionatzean, edo beste hizkuntza batzuetan.



A. Irigoien (1929-1996). Wikipedia

Hain arlo garrantzitsua izanik, hasierako gramatiketan edo hizkuntzazko tratatuetan ere ikus ditzakegu erakusleekiko saioak eta hizkuntzalari askoren lanak aipa daitezke. Euskara batua finkatzeko ere munta handiko gaia izan zen, joan den mendean, hizkuntzaren eboluzioak sortutako askotariko posibilitateen artean estandarrak finkatu behar izan zirenean. Bada, lan horietako batzuetan oinarrituta emango ditugu azalpen gutxi batzuk eskuan interpretatzen dugun *heki* horrekin erlazioan. Besteak beste, baina bereziki, Alfontso Irigoien (1929-1996) hizkuntzalari handiaren ikerketa lan batzuk izango ditugu oinarri, BEFTko kideok irakasle izan genuena.

Esan dugunez, oso konplexua da erakusle sistemaren eboluzioa. Hizkuntzak askotariko bideak urratu ditu eta guk, hemen, ahalik eta modu ulergarrienean adieraziko dugu, funtsezkoena.

Erakusleetan hiru gradu bereizten dira, *hau · hori · hura*, 1., 2. eta 3. graduak direnak, eta horien pl. formak. Lehenak garatzen 3. graduak izango ziren: (*h*)*ar* sing. eta (*h*)*ek* pl. Ondorioztatzen da (*h*)*ar* izango zela jatorrizkoa *r* hori zeharkako formetan azaleratzen delako (*hari*, *haren*...), kasurako *hiru* eta *lau* zenbatzaileetan bezala (*hiru*retan, *lau*retan...). Lehen graduak arkaikoa ere *r*-duna zen (*haur*), hori ere sarri dokumentatzen delako forma horretan testu zaharretan, edo izenordainen gainean ere ikus dezakegulako: *nihaur* ('neu'), *zuhaur*... Azkenak garatzen 2. graduak izan ziren, 1. gradukotik eratorrita, dat. (nori) desinentziaren bidez, *haur*+i > *hori*. Fenomeno hori izenordainetan ere ikus dezakegu, *neroni* ('ni, neu'), eta forma hori darabiltenek ez dute *nori*-ren aztarnarik somatzen. Izan ere, dagoen edo eraiki den oinarri berriari desinentziak itsasten jarraitzea konstante bat da sistemaren eboluzioan eta, horrela, pl. formak ere 3. graduak gehituta eraiki ziren: *hauek*, *horiek*. *Haiek* forman duplikatuta daude osagaiak, baita *hura* forman ere.

Bada, 3. graduakoa, eskuko testuan *heki* 'haiekin' interpretatzen duguna, esan behar da ezen testu zaharretan forma horretan dat. (nori) ere izan daitekeela, 'haiei'; adib.: *zeren heki emanen zaie* Legaz 53; *Denbora galtzea liteke heki gizona bezala minzatzea* HB Egia 153, hots, *hek+i*. Baina, gehiago dena, fase batzuetan *heki* oinarri bezala geratu zen, forma neutroa (1), eta horren gainean ezartzen ziren gainontzeko desinentziak: *hekiek* (erg.), *hekien*, *hekintzat*, *hekietan*, *hekietarik*, e.a. Jo dezakegu horren ondorioz agertuko zela *hekin* forma, *heki*-k jada galdua izango zuelako *norekin* zentzua; hala ere, jatorrizko moldean eta esanahian gorde zen hitzen amaieretan, mug. izatera iritsi zenean bezala: *guzieki*, *eneki*, e.a.

Badira *he-* oinarriaren gaineko formak ere, *-k* galdua: *hei* 'haiei' (Lç, Ax, EZ, SP, HE) eta ondorioz *heien*, *heiek*, *heieri*, *heietan*...; eta bai *-k* galdu gabe: *heken*, *hekentzat*, *hekenekin*, *hekengana*... Gure testuko erakusle forman kasu gutxiago dokumentatzen dira; Etxeparek: *Heki ezin medra naite*. Belapeyre zuberotarrak (XVII) *hek*, *heki*, *hen*, *her*,

hetara formak ditu: *Heki jan zian, eta elhestatü zen; Bere diszipülieki jan; lüzaz heki minzatü zen* (Kat. 15). Erronkarieraz ere *eki* izan da gure ‘haiekin’.

Amaitzeko, *hek* 3. graduko erakuslea hitzei mugatzaile gisa itsasterakoan batetik hasperenketa galdu zuen –*har* sing.k bezala– eta beste aldaketa fonetiko batzuk ere garatu ziren: *k>g* eta, ondoren *g > ø*: adib.: *hek-i > eg-i > -ei* (nori), e.a. Lizarran (XVIII) *g* galdu gabeko formak ere jasota daude: –*egi, -ogi*...

Eta eskukora etorriaz, formulatu daiteke erakusleetan *heki* (norekin) zela forma arkaikoa, hitzei forma horretan lotu zitzaizela, hasperenketa galduta (*ene-ki, guzi-eki*) eta, beraz, *ki* dela soz. (norekin) desinentzia zaharra (2); geroago –*n* gehituko zitzaion eta gen. desinentzia –*re-* izenetan; eta eboluzioan *kila* forma ere hartu izan du. Testuan ‘haiekin’ adieran interpretatzen dugu, ustez jatorrizko esanahiarekin eta testuinguruarekin ere egoki uztartzen dena, hots, bigarren lerroko esaldiak duen zentzuarekin bat. Baina zentzuarena osatzeko beste zerbait azaldu behar dugu.

## 1.2 e.ki (*hekin*): elementu funtzionala

Eskuan bezala beste idazkun batzuetan ere ageri da *eki* elementua. Izenordain dela ikusten dugu, soziatibo kasuan (*hekin*), baina iberisten artean lexema edo aditz gisa hartzen da, eta aldaerak izango lituzke (*ekien/ekiar*...). Eskukoa argitzeko balio diezagukeen neurrian bi idazkuni erreparatuko diegu, Andeloko eta Caminrealeko mosaikoetakoei, gure analisiaren arabera biak ere barskuneran idatziak (3), eta lehenengoaren azalpena ematera mugatuko gara, zer interpretatzen dugun (4).

Bada, Andeloko idazkunean ageri zaigu *e.ki* osagaia, *eki-en* elementuan. Esan bezala, gure iritzian, erlazioan dago ikertzen ari garen *hekin* erakuslearekin. Azken helburua da ilustratzea eskuko *denak + haiekin* sekuentziaren zentzua.



Bada, lau bloke ditugu: lehenengoa, *likine*, pertsona izentzat hartzen da, mosaiko egilea-edo, artista –baina Caminrealekoan *likinete* eran dago eta bi mosaikoen egikerari begituta agerikoa da ez direla egile berberarenak–. Bigarrenean, *Abulor* (pertsona izena, ustez etxejauna) + *jaune* interpretatzen dugu (5) –aposizioan\*–, antzinako *anaie*-ren parekoa, maiz dokumentatua; esana dugu *í* zeinua kontsonante multzoak irudikatzeko erabiltzen zutela batzuetan, kasu honetan *r+j*, ez baitzuten */j/* soinua adierazteko zeinurik–. Hirugarren blokean, *eki + en* osagaiak, hots, *hekin* erakuslea + *en*, hots, *ni* izenordain arkaikoa (*ene, eni, enetzat*...). Azkenekoan, toponimo bat, *Bilbili* (gaurko Calatayud) + (*h*)*ar* mug. (6) + *s* gentilizioa, ‘tar’.

\**Abulor jaun\_* egitura, azken bokal baten (–e) euskarririk gabe, posizio enklitikoan, orduan ere onargaitza izan zitekeen. Gainera, hitz horren bikotea –e amaieraduna da: *andere, andre*.

Eta azalpen honetatik guztitik benetan interesatzen zaiguna da, interpretatzen dugunaren arabera, nola dauden kokatuta 3. eta 4. blokeetako elementuak; ez daude antolatuta edo egituratuta *gure erara*, guretzat arrunta den sistemaren arabera, baizik eta sakabanatuta bezala edo, nahi bada, modu kaotikoan, uztartu gabe: *haiekin · ni · bilbili · a(k) · tar*; eta, hala ere, helburu komunikatiboa lortzeko nahikoa izan daiteke: ‘ni haiekin bilbilitarra(k)’, edo ‘ni bilbilitar haiekin (haietakoa)’. Hau da: ‘*Abulor jauna (naiz) ni (jatorriz) bilbilitar haietakoa*’. Gaur hizkuntzak modu trinkotuan adierazteko aukera eskainiko liguke, osagaiak uztartuta, batik bat *-ko* desinentziari esker: *bilbili-tar-heki-ko-a* edo *bilbili-tar-heta-ko-a -h* didaktikoa tartekatu dugu-. Sintesian, Bilbilikoa zela edo lotura zuela hangoezin (7).

Horrela bada, zergatik ez zuten baliatu gen. desinentzia, *-ko*? Labur esateko, gure hipotesiaren arabera, artean *-ko* gen. desinentzia, hizkuntzan hain produktiboa edo baliotsua dena, garatu gabe zegoelako (*-en* gen. egon zitekeen izenordainetan). E. Benveniste hizkuntzalariak (1962) formulatu zuen latinean genitiboa erlatibozko aditz sintagma batetik eratorri zela eta Mitxelenak euskararen kasurako ere aplikagarria iritzi zion (LH, 305). Horrela, *urak duen kolorea > uraren kolorea*, edo *zeruan dauden izarrak > (zeruango >) zeruko izarrak*. Baina prozesu hori gertatu ahal izateko oinarrian erlatibozko esaldiak behar dira (ad. + *-en*: *dagoen, duen*, e.a.) eta suposatu dezakegu eskuko testuaren garaian, edo mosaikoak egin zirenean, garaikide xamarrek baitira, erlatibozko egitura horiek garatu gabe edo garatze prozesuan egongo zirela. Horrela, gen. desinentzia horiek gabe esaldiko elementuen egituraketa nahitaez kohesio gutxikoa gertatu behar zela –gure moldearekiko–, eta egoera horretan *eki* elementu oso funtzionala gertatzen zela, balioanitzea, alegia, ez bakarrik guk eman diogun soz. (norekin) adiera zehatzean, agian baita falta ziren *-ko / -en* gen. desinentzien zentzua ordezkatzeko. Susmatzen dugu gauza bera gertatzen dela Caminrealeko idazkunean ere, baina ez gara gehiago luzatuko (8).

Horregatik, eskuko bigarren lerroko *denak + haiekin* interpretatzen dugun sekuentzia ‘*denak elkarrekin*’ eran moldatu genuen, *elkarrekin* ez baita posible aitzineuskara hartan, baina osagaien konbinaketak bai ematen du zentzu hori.

## 2. **ke.be** (hemen) ikertzen

Hizkuntzetan seinalizatzaileak garrantzitsuak dira. Ikusi dugu erakusleetan hiru graduko sistema, urrun-hurbil kontzeptuak seinalatzeko. Baina gradazioa ez da erakusleetara mugatzen: *hau · hori · hura* ditugun bezala, baditugu *honela · horrela · hala* aditzondoak ere, edo *hemen · hor · han*. Eta harrigarria dirudien arren, horiek denak erakusleekin erlazioan dira edo, hobeto esanda, graduatzaileen sistema eraikitzeke zurrumbiloan sortuak dira, ez baita zertan suposatu lehenengo erakusleak zehaztu zirela eta ondoren besteak eratorri zirela. Logikoagoa da suposatzea sistema osatzen joan zela erakusle-aditzondo-mugatzaile eran, ez aldi berean eta ez etapaka ere, baizik eta interakzioan.

Bada, eskuan ‘hemen’ interpretatzen dugun *ke.be* elementua, /gebe/ ere irakur liteke, ez baitzuten *ge* silabarako zeinurik; edo probableagoa da soinu hasperenduna izatea, /kh/. Elementu deklinatuen sortan jarri dugu *ines*. (non) kasukoa delako, baina ez du desinentziarik, *-n*. Lehenagoko atal batean esana dugunez, elementu horretan ere bokal sudurkarien faktorea kontsideratu genezake; edo agian, laster ikusiko dugunez, zuzenagoa da pentsatzea *ki* desinentziaren kasuan bezala *-n* geroagokoa dela, hots, *kebe* dela jatorrizko forma.

Kontsultatu dezagun OEH:

- **hemen** [...] *emen, heben, amen, gen, keben, kemen*. ‘Aquí’. (Forma de inesivo del demostrativo de primer grado). “*Amen*, alterna con *emen*”. [...] La forma *heben* se emplea en textos suletinos (tbn. en el mixano Lopez (AR 412)); hay además *gen* en *CatAe* 34 y *keben* en *CatR* 35. La extensión de *heben* era mayor antes del s. XVII: se encuentra en los bajo-navarros Dechepare y Beltran de Echaux (TAV 3.2.8); también en Garibay y en la crónica de Iburgüen-Cachopín (además de en Landuccio). *Hebe* se documenta en unos pocos textos suletinos (Tt *Arima* XI, Etch 524, *Xarlem* 781).

*Keben* erronkarierazko forma izan da beti. Testu zaharretako adibide batzuk: Tt *Arima*: *hebe pian eskiribaturik*; baita *heben* ere: *zaudete heben ni jin artino*. Etx Amor XII: *Hebetik ioan gabe ene buruia*. Oih *Eztuk hebe hordi ez putarik*. Oñatiko olerkian (9): *andicoz eta ebeticoz*. Gure II atalean hau ere jarri genuen: *Maria Ruizen axoar hori beteko dogu hebeko* (*ebeco*) *gauzakaz* (Durango, 1537). Lazarragak (1589~): *eben bakarrik* (Kop.6), *eben jarria* (16), *eben dago* (36), *ebentxe bizi da ene laztana* (39). Baina *arren betorke ebetik* (Kop.6).

Ikus dezakegunez, *hemen* estandarrak anitz aldaera ditu, gehienak ines. atzizkiarekin (-n), baina baita atzizki gabe ere: *hebe*. Forma horretan, *hebe* oinarria duela, errazago da topatzea -ko edo -tik atzizkiekin, Etxepare, Lazarraga, Oñati edo Durangoko adibideetan bezala (10); baina ines. forman (non) -n gabe sisteman guztiz integratu gabe geratzen da, esaterako ezin izango luke forma indartua gauzatu: *ebentxe* (Lazarraga); eta, garrantzitsuena, galdetzaileak *n*-dunak dira: *non*, *nondik*, *nongo*. Bestela esanda, hizkuntzak *heben* edo *hemen* ines. atzizkidun formen alde jokatu du sistema egokitzeko, berdintzeko, logikoagoa izan dadin. Horregatik, *kebe* (/khe/ agian) edo *hebe* forma atzizki gabeak dirateke zaharrenak.

Bestalde, lehen graduko erakuslearen forma izanik, *amen* aldaera ere guztiz logikoa da, (h)au + n > au e n > amen. Forma horren ondoan badira *ametik*, *amekoa*..., edo hasieran e-rekin. Baina aldaerei erreparatuta garrantzitsuena bigarren e da, lotura funtziokoa izan daitekeelako, -n, -ko edo -tik desinentziarekin lotzeko, eta horrek eragin ahal izan du lehenengoaren aldaketa (a>e). Hortaz, eskuko *kebe*-ren bigarren e hori zaila da azaltzen jarraian zerbait duela suposatu ezean. Agian, soinu sudurkarikoa izango zen (-n estalita) edo, bestela, forma neutroa izan zitekeen, desinentzia gabekoa; gorago eman ditugun *ametik*, *amekoa* formak ere ez daude eraikita estandarrak bezala -n atzizkiaren gainean (*heme-n-dik*, *heme-n-go*), baizik eta *ame* edo *eme* soilaren gainean: *hemen* da arrunta, baina *hemekoa* edo *hemetik* formak esaten dira oraindik.

Azkuek *Particularidades del dialecto roncalés* (1931) obran hau idatzi zuen:

- «El príncipe Bonaparte, en su hermosa obra *Le verbe basque en tableaux*, dice (pág. XI, nota 2.a) que a su parecer el orden cronológico del cambio de consonante en los demostrativos aislados habrá sido: *k, g, h*. De *kau* se habrá formado *gau* y de éste *hau*. Este último, más tarde, habrá dado lugar a *au*.» (Ronc. 221).

Hortaz, Bonaparteren iritzian, *kebe* aldaera, *k*-duna, zaharrenetakoa izango litzateke eta horrela irakur dezakegu baina, esan dugunez, baita /khe/ bezala ere. Ezin dugu egiaztatu.

Eta graduatzaileen zati honen ikuspegi osoagoa ematearren, esan behar da *hemen* ez dela bakarrik lekuzko nozioa adierazteko, baita denbora ere: *hemendik noizko* (Lar.), *hemendik ordurako* (Añ.) eta, horrela, *hemendik aurrera* berdin izan daiteke lekua edo denbora adierakoa; edo *atzorik hona* denbora adierazteko da, tartea.

### 3 a.te.ř.e(n) (aterpen) ikertzen

Elementu hau adizlaguna dugu, IS + erl egiturakoa. Erlazio atzizkia *-n* da (non, ines.), ontzat ematen dugularik lerroaren gainean kokatu behar izan zutela leku faltagatik. IS egiturak determinatzaile batek mugatuta egoten dira eta, horregatik, honek ere *-a* mugatzailea beharko luke, baina ez du. Ez da arrunta baina horrelako egiturak badira testu zaharretan edo hizkuntza mintzatuan ere eta, horregatik, hau da elementu honek planteatzen dituen konplikazioetan leunena.

Hona adibide batzuk. Kanta zaharrea: *zoaz Mairu herrin gora*; edo 1838ko liburu bateko oharra: «*Salduric içateco, [...] Librariaren etchen. Atharratcen Martchantaren etchen*»; edo atsotizetan: RS 64 *Luki kume, azeri*; 229 *Herrik bere lege, etxek bere aztura*; edo 494: *Bertze indar du eleak aberatsak erranik, bertze datorrenean gaixoaganik*. Baita ahozko esamoldeetan: *itaurren* ('idi aurrean lanean'). Leizarragak ere asko ditu: *haragi guziren gainera* (Test, I); *hik manu bezala bizitzeko borondaterekin*. Lç ABC. Goian jarritako *herrin, etxen, itaurren* bezalakoei *inesibo* (non) *arkaikoak* esaten zaie, baina Irulegiko Eskuko testuan dena denez arkaikoa, *aterpen* bere horretan utziko dugu, kalifikatibo barik.

Igaro gaitezen orain beste konplikazio batera, ř zeinuarena. Lehenago ere azaldua dugu gure iritzian *rp* kontsonante taldea adierazteko dela, *pe* silabarako zeinurik ez zutelako; hortaz, irtenbidea: *.r-p.e.n > .ř.e.n* idaztea. Hala ere, elementu horren aldaera bat *aterbe* da, ipar-ekialdeko idazleen artean: *Emak atherbe gaxtaginari, bera dukek salhatari*. O Pr 577; *be* silaba idazteko zeinua bazuten, *kebe* hitzean ikusi duguna, baina honetan ez zuten erabili; horrek ere *rp* bezala interpretatzera eramaten gaitu. Beste alde batetik, ohartzekoa da *-pe* hori atzizki bat dela (*urpe, lurpe, lehorpe, estalpe, zubipe, haizpe, harpe...*) eta kontrastea dela oraindik mugatzailek ez dagoen testu batean horrela osatutako hitz batekin topo egitea, baina bai fonetikoki eta bai txertatuta dagoen esaldiaren zentzuaren arabera ere hori da gure azalpen logikoa. Gainera, testuan *e-ra-duk* aditz faktitiboa ere interpretatu dugu, *-ra-* artizkia duena, izatez *ater-pe* baino sofistikatuagoa.

Baina, agian, beste posibilitate bat ikertu beharko genuke. Kontua da gure sen linguistikoak elementu horretan *ate* osagaia erakutsi digula, nonbait Leizarragari (XVI) gertatu bezala. OEH:

- *Tr. Aterbe* es empleado por los autores septentrionales y navarros [...]. Leizarraga usa la variante *atharbe*: *Ezen eznauk digne ene atharbe pean sar adin*. Lç 7, 6.

Beste bi kasutan ere erabili zuen Leizarragak *atharbe* moldea: *launa eznauk digne ene atharbean sar adin*. Lç 8, 8; *Gog, atharbea* ((Izen zerrendan). Bera da bakarra era horretan erabili duena (11). Uste dugu bere hizkuntzalari senak gidatuta, *atharbe* moldean *konpondu* zuela elementua, teorikoki, *ate* elementua interpretatuz gero (*atari, atalase...*), hori baita atzizkiarekin sortzen den forma. Ohar bedi, gainera, lehen adibidean *atharbe* hitzaren ondoren *pean* gehitu zuela, zentzua bikoiztuaz. Azkenik, baliteke atzizkia *-be* forman beste autore askok imitatu izana.

Hortaz, beste bide batetik barneratu beharko ginatke, *ate* ez den beste oinarri bat aurkitzeko, *aterri* izan daitekeena. Kontsideratu beharko genituzkeenak: *estali, estalpe; lehorrean* ('estalpean'), *lehorpera, aterri, atertu*. Baina luze jo dezake eta oraingoz horretan utziko dugu, Lizardiren sen poetikoarekin gozatuaz: *Euri gori hortaz basoa aterri*. 'Mas de esa lluvia achicharrante está el bosque a salvo'. Ldi BB 122.





## VIII Sintagmak

Txosten honetan testuan interpretatzen ditugun [sintagmak](#) ikertuko ditugu.




---

Egile Joseba Butro, hutsegiteen edota kritika kasuetarako.

## VIII · Laburpena

Testuan dauden lau sintagmetatik, *zori on*, *irri* eta *ma* aztertzen ditugu. *Hots* lehenago tratatu dugu, IV. kapituluan.

Sintagmak izanik ere, denak ageri dira mugatzaile gabe. Esana dugu testuan ez dagoela mugatzailerik, eta horrek baietsiko luke artean garatzeko fasean zeudela.

*Zori on* sintagmak bi osagai ditu, zori+on, biek unitatea osatzen dutelarik. Benetan itzela da gure testu zaharreneko lehen sintagma *zori on* izatea, hain zuzen.

*Irri* eta *ma*, *hots* sintagmarekin batera, esamolde edo lokuzio eran ageri dira, eta juntagailuak elkartuta. Eta nahiz mugatzailerik ez izan, osatzen duten egitura mota gaurko hizkuntzan ere naturaltasunez erabiltzen dugu.

---

## VIII · Abstract

Of the four phrases (syntagm) in the text, we analyse *zori on*, *irri* and *ma*. *Hots* has already treated in Chapter IV.

Although they are phrases, all of them lack an article. We have commented that there are no articles in the text, which would confirm that they were still in development.

*Zori on* is formed by two elements, zori+on, which constitute a unit. It is wonderful that the first word of our oldest text is precisely *zori on*.

*Irri* and *ma*, together with *hots*, form a group, as a locution or set phrase, united by a coordinating conjunction, *eta* ('and'). And although they do not have articles, they form a type of structure that is still used in the current language.

---

## VIII · Resumen

De los cuatro sintagmas del texto, analizamos: *zori on*, *irri* y *ma*. *Hots* ya ha sido tratado en el capítulo IV.

Aunque son sintagmas, todos ellos carecen de artículo. Hemos comentado que en el texto no hay artículos, lo que confirmaría que estaban todavía en fase de desarrollo.

*Zori on* esta formada por dos elementos, zori+on, que constituyen una unidad. Es increíble que la primera palabra de nuestro texto más antiguo sea precisamente *zori on*.

*Irri* y *ma*, junto con *hots*, forman un conjunto, a modo de locución o frase hecha, unidos por una conjunción copulativa, *eta* ('y'). Y aunque no tienen artículos forman un tipo de estructura que se sigue utilizando en la lengua actual.

---

## VIII · Resum

Dels quatre sintagmes del text, analitzem: *zori on*, *irri* i *ma*. *Hots* ja ha estat tractat al capítol IV.

Encara que són sintagmes, tots no tenen article. Hem comentat que al text no hi ha articles, cosa que confirmaria que encara estaven en desenvolupament.

*Zori on* està formada per dos elements, zori+on, que constitueixen una unitat. És increíble que la primera paraula del nostre text més antic sigui precisament *zori on*.

*Irri* i *ma*, juntament amb *hots*, formen un conjunt, a tall de locució o frase feta, units per una conjunció copulativa, *eta* ('i'). I encara que no tenen articles formen un tipus de estructura que se segueix utilitzant en la llengua actual.

Des quatre groupes nominaux du texte, nous analysons *zori on*, *irri* et *ma*. *Hots* a déjà été traité au chapitre IV.

Bien qu'il s'agisse de groupes nominaux il leur manque à toutes un article. Nous avons fait remarquer qu'il n'y a pas d'articles dans le texte, ce qui confirmerait qu'ils étaient encore en développement.

*Zori on* est composé de deux éléments, *zori+on*, qui constituent une unité. Il est merveilleux que le premier mot de notre texte le plus ancien soit justement *zori on*.

*Irri* et *ma*, avec *hots*, forment un groupe, comme une locution ou une phrase fixe, unis par une conjonction copulative, *eta* ('et'). Et bien qu'ils n'aient pas d'articles, ils forment un type de structure qui est encore utilisé dans la langue actuelle.

## VIII Sintagmak: *zori on* · (*hots*) · *irri* · *ma*

Eskuko testuan sintagma horiek interpretatu ditugu: *zori on*, *hots*, IV. atalean aztertu duguna, *irri* eta *ma*. Sintagmak izan arren guztiak ere mugatzaile gabe ageri dira. Lehenengoa agurraren osagaia da, sarreran; hurrengo hirurak eta juntagailuak elkartuta daude, esamolde gisako batasun bat dutelarik.

### 1 s.o.r.i.o.n (*zori on*) ikertzen

Eskuko testua azaltzeko I. atalean iruzkindu genuen gaingiroki *zori on* sintagma, esanez ezen *txori* hitzaren kidea dela, eta 'patua, zortea, adurra' esanahia zuela, *on* edo *gaitz* · *txar* izenondoekin elkartuta. Orobat, dokumentatuta dagoela, latinezko testuetan ere, baskoiak ospetsuak zirela txorien hegaldietan etorkizuna igartzen eta Erromara ere eramaten zituztela lan horretarako. Latinean eta beste hizkuntza batzuetan ere badaude *zori* hitzaren adiera horretako paraleloak: *auersa aui*, *aui sinistra* (lat. 'zori txarra'), *buen auçe* (<avicem) gazt. zah. (LH 364).

EHHEn azalpen luzea du hitz honek. Zati batzuk:

- **zori** Hitz orokorra. Esanahi historikoa ('egokiera, zantzu, zorte...') izan baino lehenago, *zori*-k 'txori' esanahia zukeen. [...] Badirudi hitzaren aurreneko agerraldiak, XVI. mendekoak, *zori onean*, *gaiztoan/gaitzean* erakoak direla, 'egokiera, muga (on edo gaitz)' adierarekin: Etxep *zori honian sortu date*, OihAtsot *zori onari irekok atea*, eta *gaitzari auko beha*, Lazarg *zori onean jaioa*, ibid. *zorigaxtoan jaio nintzan*.

Determinatzaile gabe (-a · -ak) ageri zaigu, kasurako Santa Ageda kopletan oraindik esaten den modu bereberean: *Zori on etxe hontako denoi*, *oles egitera gatoz...* Horretan argi nabari da agurtzeko formula dela, eskuko testuan bezalaxe.

Egin den transliterazioan *s*-rekin idatzita ageri da, soinu txistukarietan (/s · z/) bereizketa adierazteko zeinutegia ez baitzegoen hain zehazturik. Ikusi dugu *s* sinistrorsa bat, ezkerrera iraulia, txanponetan, baina idazkunaren amaieretan. Nolanahi ere, uste izatekoa da /zo/ ahoskera izango zuela hasierako silabak.

*Zori*-rekin multzoa osatuz ageri da *on* izenondoa, eta biek batera unitatea osatuko balute bezala sentitu ohi ditugu, gorago jarri dugun Santa Ageda koplari bezala, agurtzeko formula gisa erabilia; baina, izatez, bi osagai dira eta *on*, gainera, eskuan *h*-duna dateke. Esana dugu aitzineuskararen hasperenketa bazela *-heki*-n antzeman dugu-, Akitaniako idazkunetan ere *h* maiz agertzen da, eta *on* izenondoa *h*-duna da Iparraldeko autore askoren lanetan, batzuetan bi formak (*on/hon*) alternatuz: Etxepare, Oihenart, Tartas... Beraz, eskuko sintagma hori *zori hon* izan zitekeen.

Eta ezin bukatu sintagma horren iruzkina nabarmendu gabe zein *zori* onekoak senti gaitzkeen, gure testuetako *hitz* multzo idatzi zaharrena –oraingoz behintzat, beste batzuk agertu bitartean– *zori on* dela jakinda. Guk dakigula ez du parekorik, ez da agitu beste ezein hizkuntzatan. Gure lehenengo hitz ezaguna ez da jainko edo pertsona izen bat harri batean zizelkatua, ez; *zori on* sintagma da.

## 2 i. **ř** (*irri*) eta **n.ba** (*ma*) ikertzen


*Irri* interpretatzen dugun sintagma ez dago osorik, azken bokala falta zaio, *-i*. Baina kontuan harturik esamolde tankera garbia duen sekuentzia batean dagoela /iřtama/ onar daiteke azken bokal hori soinu ahulekoa dela eta horregatik ez zutela jaso. Kasurako, juntagailuari ere lehenengo bokala falta zaio, osorik egoteko (*eta*), baina ez dago arazorik lotura fonetikoengatik askotan *ta* ahoskatzen dela onartzeko. Edo beste adibide bat jartzearen, *irribarre*; hitz horrek, *irri*-rekin osatua, aldaerak ditu eta batzuetan erraz galtzen du azken bokala: *irripar*, *irrifar*.

Autore klasikoen lanetan ez da *irri* adibiderik falta: *Izterbegiak* ('arerio') eztagidan gibeletik *irria* Etx Mos; *Dohatsu zarete orain nigarrez zaudetenok, zeren irri* eginen baituzue. Lç Lc 6, e.a. Eta EPG (Ereduzko Prosa Gaur) kontsultatuta, milaka *irri* adibide erakusten ditu, ehunka obratan, jatorrizkoak nahiz itzulpenak. Bat aipatzearen, *irri* gehien dituen, J. M. Irigoienen *Lur bat haratago* obra bikaina.

Geratzen zaigun sintagma ezin laburragoa da, *ma* < n.ba segmentutik (1). Mitxelenak seinalatu zuenez (LH 444), euskara zaharrean *m* fonema gisa ez zen existituko, baizik eta aldaera fonetiko gisa, alegia, *nb* taldetik sortua; adib. akitaniar idazkUNETAKO *nb* > *m*: *sembe* ('seme') eta apika *ombe-* ('ume'). *uTanbaate* txanponean ere ikusi dugu: *anba* > *ama* (Utzama). Gure zeinutegian ez dago *m*-rik.

Ez da adiera exaktua, baina *ma* nolabait *musu* hitzaren forma hipokoristikoa dela esan genezake: txikia, maitekorra (2), umeein erabiltzen dena. Hitzegian *ma eman* edo *ma egin* eran ageri da, *haur*. zehaztapenarekin: *Ma egiozu amatxori*; *Ma eman amari!*, *ma, ma, bihotza!* Pa aldaera ere bada: *Ane, bota pa amandreari!*

Testu zaharretan ez da ageri, umeen munduari dagokion hitza izanik. Poesia batzuetan aurki ditzakegu adibideak: *Maitale bateri / alai ma-egijon bekoki ganian*. Laux BBa 36. [Ixarrak] *ma-dagijo mutil aren samiñari*. 'Besa suavemente'. Ib. 36. II. atalean jarri genuen Erronkariko euskaran jasotako adibide bat, Estornes Lasak Idoya Garmendia sopranoari eman zion kanta baten letra: *xoan fite neskatoa / matto bero matto andi / uskarari emoitra*.



Esan dugu *musu* hitzaren senide txikia-edo dela, gainera *musu* hitzak 'aurpegi' esanahia ere badu: *musu-zikin*, *musua okertu* ('mukertu'), *eman musu...* Baina ziurrenik *ma* hitz monosilaboa zaharragoa izango da *musu* baino. Eta beste hizkuntza batzuetakoei erreparatuz gero, harrigarria da forma batzuk zein hurbilak diren.

Eskuko testuaren ikerketan eta interpretazioan hitz hau izan zen argitu ahal izan genuen azkena, **n.ba** segmentua, .ta.n segmentuan

integratuta, baina deskubritu ezinik ibili ginena transliterazioan *ba*-ren lekuan banaketa bat interpretatu zelako. Bada, eskuan *zori on* lehena den bezala gure ikerketan *ma* izan zen azkena: polit-polita.

### 3 Sekuentzia osoa: *hots, irri eta ma*

Sintagma gisa aztertu ditugu hirugarren lerroko elementu horiek, mugatzaile gabeak, baina egin dezagun analisi labur bat egitea denek batera osatzen duten egituraketa agerian jartzeko. Egun ere naturaltasunez erabiltzen dugun egitura mota bat da eta, horregatik agian, oharkabean pasa dakiguke berezitasuna. Testuingurua ilustratzeko ekar dezagun III.ean ere aipatu dugun R. de Rijk hizkuntzalariaren iruzkin bat (*'Nunc' Vasconice*, 1992):

- La lengua vasca dispone de un tipo de compuestos de los que el francés carece por completo, como las lenguas románicas en general. Me refiero a los compuestos llamados “dvandva”, o sea, los copulativos. Ninguno de los componentes determina aquí al otro, sino que contribuyen todos de la misma manera al significado del compuesto, sin que se de diferencia alguna de nivel. Este tipo de composición, que Lazaro Carreter calificaba de raro fuera del sánscrito, es corriente en vasco y sigue siendo productivo para no pocos hablantes. Pensamos en ejemplos, generalmente usados en plural o en indeterminado, como *hortzagin* ‘dientes y muelas’, *burubuztan* ‘pies y cabeza’ y también ‘peripecias’, *gogobihotz* ‘alma y corazón’, y *zerulur* ‘cielo y tierra’.<sup>14</sup> También los hay con adjetivos: *zuribeltz* ‘blanco y negro’, y ‘blanquinegro’, ‘mulato’.

<sup>(14)</sup> Y aun *zeru-lur-iferu* ‘cielo, tierra e infierno’ empleado por Duvoisin en su versión del texto de *Fil.* 2.10: *Jesusen izenera, beheiti ditezen belhaun guziak zeru-lur-iferueta; (ut in nomine Iesu omne genu lectatur caelestium, terrestrium, et infernorum)* ‘A fin de que al nombre de Jesús se doble toda rodilla en el cielo, en la tierra y en el infierno’.

Gure sekuentziara etorrita, eta are gehiago, hirugarren lerroko esaldi osoa, elementuak mugatzaile gabe daudenez, *nola* galdera teoriko baten erantzunari dagokion egituraketa bilakatu da, lerro osoan sintagmak besterik egon ez arren; mugatu gabeak izanik, nolakotasun hori hartzen du egiturak. II. atalean azaldu genuen ezen lerro horretan beraien bizimodua *nolako* den adierazten dela: *ahotsak, irriak eta musuak*; baina mugatzaileak (-ak) geuk jartzen baditugu. Bestela, dagoen-dagoenean, egitura horrek euskaraz sintagma mugatu gabeekin ere eraiki dezakegun baliabide bat erakusten digu: (*Horrela bizi gara:*) *Ahots, irri eta musu, ez ahakar*. Beste hizkuntzetan badakigu *nola* zentzuko egiturak aditzekin (gerundioak) egin daitezkeela edo preposizioekin, baina ez determinatzaile gabeko sintagmekin. Egun ere naturaltasunez egiten ditugu horrelakoak eta soilik azken zatian beharko genuke konponketa bat, *-rik* edo *gabe* elementuekin, baina baita horiek gabe ere: *Afarian ederki, kantu\_, bertso\_ eta barre\_, kezkarik gabe; Karreran? Liburu\_, apunte\_ eta neke\_, horrela bizi ginen*.

Ez genuen bukatu nahi gure ikerketaren bigarren fase hau esaterako ezaugarri hori iruzkindu gabe. Eskuko testuan beste hainbat ere geratuko zitzaizkigun –*eta* juntagailua utzi dugu– eta ez bakarrik linguistikoak, testu honek iruzkin literarioa edo poetikoa ere merezi baitu. Baina hori hurrengo batean, edo beste aditu batzuek ere egin dezakete. Horrela izango ahal da!

## Azken gogoeta

Agerikoa da Irulegiko Eskuko testuaz egin dugun interpretazioa euskaran oinarrituta egon dela oso-osoa, hots, gure ikuspuntutik testua gure hizkuntza arkaikoan, aitzineuskaran adierazita dagoela, zalantzarik gabe, nahi den izena ematen zaiolarik ere (*vascónico*, *barskunera*, *protoeuskara*) eta horregatik, hain zuzen, ulertu ahal izan dugula.

Esan izan da ezinezkoa dela testu hori euskaraz egotea, eta horrela balitz ere ezinezkoa izango litzatekeela bi mila urte geroago ulertzea. Azken baieztapen horretan hizkuntzen aldakortasun edo eboluzio handiari erreparatzen zaio; baina ahaztu egiten da beste ezaugarri bat eta da hizkuntzak, oso aldakorrak izan arren, lerro edo kate historiko batean kokatzen direla, alegia ez zen izan bat eta orain da beste bat, ez; *continuum* bat da, jarraipen bat. Mitxelenak argi eta garbi adierazi zuen bezala (LH 89): «No es que las lenguas románicas [...] sean hijas, nietas o descendientes más remotas del latín: son, desde el punto de vista de la continuidad histórica, latín puro y simple.»

Horren arabera, lasai asko esan dezakegu gure egungo euskara izatez barskunera hutsa dela, baina beste fase batean, noski.

## Txostenetako oharrak

Atal honetan txostenetan zenbakiz markatutako oharrak biltzen ari gara, dokumentazioan eta beste iturri batzuetan aurkitzen ditugun erreferentziak gehituz gure interpretazioaren txostenetan adierazitakoa osatzeko.

Bilaketa eta bilketa lana denez gero atal hau irekita dago, bukatu gabe, erreferentzia berriekin hornitzen doana.

Jartzen ditugun erreferentziak egin dugun interpretazioaren aldekoak edo aurkakoak gertatzen dira, batzuek indartu egiten dute guk adierazitakoa eta beste batzuek, ordea, aurka egiten dute; baina, bestetik, erreferentziak eurak ere eztabaidagarri bilaka daitezke: argudioen eta kontra-argudioen erkaketa honetan ez dago oinarri erabat ziurrik. Baina esan dezakegu hori dela aurrera egiteko bide bakarra, txukuna eta zientifikoa.

Kontsultarako, hona materialen bilduma: ► [materialak](#)

J. Butroe

---

### Oharren aurkibidea

- I-1 Zeinutegiak (BEFT, Ferrer-Moncunill)
- I-2 **eraduk**
  
- II-1 Botorritako Brontzeaz (Mitxelena)
  
- III-1 **dene** formaz (Mitxelena, de Rijk, Lakarra)  
**dene** (Jarraipena)
- III-2 Usekerte herrixkaz (Caminrealeko mosaikoa)
- III-3 Artikuluaren garapen faseaz (Mitxelena)
- III-4 Debekuak, **dena**
- III-5 **danik** (de Rijk, Mitxelena, Oregi, Lakarra)  
**danik** (Jarraipena)
- III-6 **deus** (Schuchardt, Llande, Mitxelena)
  
- IV-1 **uTanbaate** eta **oTtikez** txanponak
- IV-2 **Uxama** (*Barca* eta *Argaela*)
- IV-3 **Uzama** (Mitxelena)
- IV-4 **Uxama**, **Ultzama**, **Osma** toponimoak
- IV-5 **Zegama** jatorri zeltikoaz (Zaldua)
- IV-6 **/h/** fonema edo letra testuan (Gorrochategui, Abaitua)



- IV-7 **Euskara** hitzaren jatorriaz (Irigoien)
- IV-8 **Uskara** (EHHE)
- IV-9 **Uskara** ekialdeko forma
- V-1 **zedeitean** (Azkue)
- VI-1 **ekun** (Sarasola, Irigoien)
  
- VII-1 **hauki** erakuslea
- VII-2 **-reki** (Mitxelena)
- VII-3 Andelo eta Caminrealeko mosaikoak (Núñez)
- VII-4 Andeloko mosaikoko idazkuna (Gorrochategui)
- VII-5 **jaun** (Lakarra)
- VII-6 **-aŕs** (dardarkari gogorra)
- VII-7 Bilbilis nolakoa zen
- VII-8 Caminrealeko idazkuna: gure interpretazioa.
- VII-9 **hebe** (Oihenart)
- VII-10 **kebe** (Mitxelena)
- VII-11 **atharbe** (Leizarraga)
  
- VIII-1 **n.ba** segmentuaz (Gorrochategui)
- VIII-2 Kutuna (zintzilikarioa), eskuaren aurrekaria.

## I-1 Zeinutegiak

Antzinako idazkera iberikoen zeinutegi desberdinak bildu dituzte adituek, bai hizkuntza desberdinei dagozkienak (iberiera, zeltiberiera) edo, baita, hizkuntza berbera izan arren zeinutegi berezituak, aldaerak edo desberdintasunak jasotzen dituztenak. Ez dago, bada, zeinutegi bat bakarra.

*Vascónico* izendatzen dutena iberieraren sistemakoa dela jotzen dute, aldaera gutxi batzuekin, ipar-ekialdeko zeinutegiaren ezaugarri grafikoak dituelarik.

Gure lehen txostenerako (2022ko azaroa) zeinutegi eredu bat eskaini genuen eta, ondoren, osatu egin dugu gure ikerketan egindako aurkikuntzekin: batetik T zeinuari soinua esleitu diogu, afrikatua; bestetik, /ha/ fonema a zeinu forma berezikoari -/ho/ ez dago argi-; xistikariak ere bereiz daitezke txanponetan; *ku* / *gu* zeinu dualak ere aurkitu ditugu; azkenik *rr* zeinuaren erabilera polibalentea.

Horra hor bi zeinutegi. Gurearen egituraketa simplea da, uste baitugu gehiago hurbiltzen dela antzinate hartan edukiko zuten eredura: bokalak alde batetik eta, bestetik, silaba batzuen idazkera, eta beste zeinu solte batzuk; hots, sistema oinarrizkoa baina, aldi berean, nahiko erraza ikasteko edo erabiltzeko. Ferrer-Moncunillena ere zeinutegi bera da funtsean, baina antolaketa oso teknikoa du, antzinakoek horrelako sistema bat kontrolatzen edo gogoan zutela pentsatzeko. Horregatik, bada, zeinutegi eredu xumea egin dugu, gainera aldaerak jasotzen eta gehitzen joateko aukera ematen diguna.

Beltzean dauden zeinuak dauzkagun materialetan jada agertutakoak dira; grisean, agertu gabeak edo posiblea: /ho/.

▷▷	a ha	ΛΛ	l	T	-ts
ℓ	e	◁	r		-tz
ℳ	i	◊	rr	<sup>dr</sup> <sup>rj</sup> <sup>rp</sup>	
HH	o ho	ℳ	n		
↑	u	↗↘	s z	M	s
	ba	X	ta	ΛΛ	ka
⊗	be	⊗⊗	te de	◁◁	ke
ℙ	bi	ΨΨ	ti	↗	ki
⊗⊗	bo	W	to	⊗	ko
□	bu	Δ	tu	⊗⊗	ku gu

Barskunera zeinutegia, 2023: Butroe.

		g/k	b	d/t				
a	▷	Λ		X	s	◁	ś	ℳ
e	ℓ	<	⊗	◊	í	◊	r	◁
i	ℳ	↘	ℙ	Ψ	m	[ℳ]	n	ℳ
o	H	⊗	⊗	W	ś	V	?	T
u	↑	◊	□	Δ	l	Λ		

Zeinutegi iberiko ez-duala, ipar-ekialdekoa  
Iturria: Ferrer-Moncunill, 2019.

## I-2 eraduk

Lehenengo txostenean *eraduki* jo genuen /edrauk/ adizki horren oinarri, baina gehiago ikertu ondoren *eraduki* behin bakarrik aurkitu dugu dokumentatuta, Saroihandyren *La pastorale de Roland* obran. Horregatik, VI. atalean azaltzen dugunez, ez dugu joko *eraduki* dela; probableagoa da *\*eradun* izatea. Izan ere, amaierako -k horrek forma aldetik *eraduki*-ra garamatza, baina testu osoaren ikerketak erakutsi digunez -k hori hikako morfema da, aginterazko adizkia, *eraduk* > *edrauk* (*hi* pertsona). *Refranes y Sentencias*-eko *euk* edo beste adizki batzuen parekoa: *Ze egik gatxik ta ze euk bildurrik*, etab.

Xehetasun gehiago VI. txostenean (adizkiak) eta Barskunera gidan (1.5).

## II-1 Botorritako Brontzeaz (Mitxelena 1978, ELZ):

- Brontze hori, [...] zeharo ulertzen ez bada ere, aski dugu begiratu bat **zeltiberikoaz idatzia dela oharrezko**, gaztelania eta frantsesaren ahaide (urrutikoa bada ere) den hizkuntzaz alegia.

## III-1 *dene* formaz

Transliterazioan te.n.e forma hartu du, erabiltzen zuten zeinutegi silabikoaren arabera hori baita idazkera: *te*. Ez zuten aparteko zeinu bat *de* idazteko, baina zeinu berbera erabiliaz, erdiko marratxoaren bitartez *te-de* bereizten zituztela ikusten dugu, eskuan bertan ere (sistema duala).

Horrekin erlazioan, hona Mitxelenaren aipu bat (1954, LH 441):

- Gómez-Moreno señaló la falta de *d-* inicial en el bronce de Ascoli [...]. **En aquitano no puede decirse que falte**: en las listas de Seymour de Ricci hay 14 nombres con *d-*, número superior al de los casos con *t-*, aunque no puede excluirse, ni mucho menos, que incluso un número crecido de ellos sea debido a influencia gala.

Baina honako hau ere bai (LH 442):

- Limitándonos a la posición inicial [...] **En vascuence se puede afirmar rotundamente que no hay oclusiva apical, sorda o sonora [t edo d], en esa posición en formas nominales**<sup>48</sup>, excepto en préstamos y en palabras de tipo expresivo (*tantai*, *dardar*, *durduri*, etc.): en algunos pocos casos de etimología insegura se puede por tanto afirmar con confianza que, si las palabras no pertenecen a una de estas dos clases, la apical es secundaria.
- 48 En las formas verbales de presente *d-* es, por el contrario, extremadamente abundante como índice personal.

Horretan ez dago erreferentziarik antzinako euskarari buruz, soilik *vascuence*. Bestetik, gure interpretazioan ez da izena, izenordaina baizik, *oro* edo *guzti*-ren parekoa. Baina Mitxelenaren ildotik-edo, Lakarrak (2006, 586) De Rijk-en *dan(ik)* kritikatu, “antzinako hitzetan” adierazi zuen, oro har, salbu eta adizkietan:

- Por lo que toca a la forma, es evidente —y lo era también en 1992, a pesar de que el autor no se refiera al asunto— que algo como \**da(n)* no podía ser muy antiguo en *vasc.*, **dado que sabemos que la \**d-* inicial era imposible en voces antiguas** (i.e., PV recientes y protohistóricas): en los vocablos reunidos bajo la *d-* en los diccionarios vascos no encontramos sino préstamos y, sin duda, fonosimbolismos, fuera, claro está, de las formas verbales conjugadas de presente y sus derivados (futuros-condicionales, etc.).

Horren arabera, *de.n.e* forma ezinezkoa da. Beraz, eskuko testua ez litzateke izango euskara. Ez bada erlatibozko adizki jatorria esleituta; baina anakronikoa da artikulua garatu gabeko fase batean erlatibozko adizkiak egotea.

Hiztegia apur bat arakatu gero agerikoa da *d-* (*t-*) hasieradun izen edo aditz gutxi-gutxi daudela, eta hitz asko adierazkorrek direla (*dardara*, *dinbi-danba*, *dirdira...*) edo, bestela, maileguak; baina batzuk aipatzearen\*: *damu*, *dastatu*, *debekatu* - *debeku*, *dei* - *deiardar* - *deitu*, *deus*, *dilista*, *dina*, *doi*, *doilor-keria*, *dolare...*

(\*Agian maileguren bat itzuri zaigu)

### III-1 *dene* formaz (Jarraipena)

Eskuan identifikatzen dugun *dene* elementua ikertzen jarraituko dugu:

Hasteko, L. Núñez Astrainen obran (214-215) aurkitu daitekeen azalpen simple-ulergarria hartuko dugu. *Protoeuskera* atalean garai hartako (0 urtea artekoa, lauzpabost mende) **aitzineuskara berreraikiaren** deskribapen didaktiko bat egiten duelarik, Mitxelenaren kontsonante corpora honela ematen du:

Fuertes (p) t k tz ts N L R

Débiles b d g z s n l r

- En protoeuskera, sólo las consonantes débiles podían ir al inicio de la palabra y sólo las consonantes fuertes podían finalizarla. [...]. El siguiente cuadro reordena el que hemos dado antes con arreglo al lugar de cada consonante en la palabra [Inicio-Medio-Final de palabra], pero **no debe tomarse como un cuadro rígido** sino, según proponía Mitxelena, como una tendencia, a la que se suele llamar «esquema de rombo»:

Inicio de palabra b- · (d-) · g- / z- · s- / n- · l-

- El cuadro anterior es muy importante para nuestro propósito, puesto que, al decirnos qué letras podemos encontrar en cada sitio de una palabra vasca arcaica, nos dice igualmente qué letras no podemos encontrar en cada sitio. Por ejemplo, una palabra que empiece o termine con *p·t·k* probablemente no es una palabra vasca arcaica (en realidad hay unas pocas palabras arcaicas que empiezan por *k-* o por *t-*). **Tampoco puede una palabra vasca arcaica empezar por *d-*** (lo hacen sólo algunas formas verbales en presente, por influencia de un viejo adverbio) o por *r-*.

Beste alde batetik, M. Martínez Aretaren tesi doktoralaren (2006, Lakarrak zuzendua) laburpen batetik hartuko ditugu apunte batzuk. Sistema kontsonantikoa da ikergaia: AEZn (Aitzin Euskara Zaharra). **Eskukoa AEM** (moderno) izango litzateke. Eta Mitxelenarena, EZ (zaharra), baina aurrekoak baino berriagoa.

Mitxelenaren teoriatik abiatuz (goiko konts. zerrenda), hainbat ikertzailearen proposamenak aztertzen ditu. Zatitxo batzuk hartuko ditugu:

- Hualde (1999): «[...] leherkarietarako dagokienean hitz-hasiera testuinguru egongaitza da. Honi azalpen bat emateko, Hualdek honako hau proposatzen du: **garairik zaharrenean, euskal lexikoan *d-* zein *t-* motako hitzak ager zitezkeen** (hots, ahostun/ahoskabe oposaketa eragilea zen).»
- Lakarraren (1995) eredutik abiatuz (AEZ): «Hurrenkera kronologikoan laburbilduz, honako fase hauek zedarritu ditugu: [1], 2) **AEM**: aipatu lexikalizazioak burutu dira eta [ \_ \_ ] egiturako erro disilabikoak sortu dira, baina oraindik **hitz hasieran** bost leherkari (\* / th , kh , b, **d**, g /) **posible** dira. 3) Euskara Zaharra (EZ): \* / th-, k- h / > / h- / aldaketaren ondorioz, / -b, **d**, g- / baino ez dira posible hitz-hasieran, eta kokaleku horretan hasperendun/ez-hasperendun –edo fortis/lenis– oposaketa ez da bereizgarria.»

#### ▶ [Aitzineuskararen kontsonantismoa](#)

Laburbilduz: EZko sistema kontsonantiko berreraikian (Mitxelena) *d-* hitz hasieran zalantzazkoa da –parentesi artean–, eta *t-* ez dago. M. Martínezen txostenetik ulertzen dugu AEMn (Eskua) posible zela. Nolanahi ere, guretzat garrantzitsua: eskuko testuan *dene* bat dago, hots, ez da hipotetiko.

---

### III-2 Usekerte herrixkaz (► [Xiloka III, 1989](#))

- El yacimiento de "La Caridad" ocupa una plataforma ligeramente elevada sobre el cauce del río Jiloca, con una extensión total de 12,5 Ha., superficie muy superior a la habitual en los yacimientos de época ibérica de esta comarca, y que parece indicar, junto con otros elementos, **el carácter urbano o semiurbano del asentamiento**. La carencia de referencias textuales o epigráficas impiden relacionar esta población con alguna de las conocidas y ubicadas tradicionalmente en esta región.
- La cronología de este motivo es bastante amplia aunque la mayor parte de los investigadores proponen su datación entre el siglo II a.C. e inicios del s. I a.C.

---

### III-3 Artikuluaren garapen faseaz (Mitxelena 1961, LH 455):

- Entre las denominaciones aquitanas y las navarras hay una diferencia importante: el artículo, ausente en aquellas, presente casi siempre en éstas. A lo que se cree, el artículo vasco no se constituyó, a partir de un demostrativo, sino en fecha relativamente reciente, aunque con anterioridad a los primeros testimonios medievales, paralelamente a lo que ocurrió en las lenguas románicas y algo más lejos en las germánicas.

---

### III-4 Debekuak

Lf Gram 252: «*Dena* [...] *n'est jamais adjectif, mais toujours pronom.*». *Dena* erabiltzen den kasuetan *guzia* erabil daiteke. Alderantziz ez. Gte Erd 7. *Dena* zenbatzailea bakarrik doa, izenik gabe. EGLU I 153. Aposizioan *dena* atzean jarraian: *Bidea dena hartu du* Gte Erd 247. Gte Erd 76: Ez da erabiltzen erlatibozko perpausetan. Ez: *Irakurritako dena. Egia da, noski, hori dena*. MEIG VI 102 / erakusle moduan *den hori*, gaizki. Eta gehiago ere badira.

---

### III-5 *danik*

Testuan interpretatzen dugun *dene* osagaiarekin zerikusia duenez, Rudolf P. G. de Rijk-en txostenaren (1992) eta kritiken bertsio laburbildua emango dugu.

Txostenaren dokumentua: ► ['Nunc' Vasconice](#)

–*daino* (De Rijk):

- En su artículo "*Nombre y verbo en la etimología vasca*", FLV, 11-2, 1970), pig. 92, L. Michelena califica *-daino* de una forma finita **verbal** relativada con sufijo terminativo. Pero esta teoría no deja de tropezar con grandes dificultades semánticas y formales.

*danik* (Mitxelena):

- Es también razonablemente segura **la procedencia verbal** del infijo *-dan-* en sintagmas de valor temporal [...] con verbo finito (que no tiene que ser necesariamente *da*) + *-en*, seguido del suf. *-ik* de ablativo.<sup>36</sup>

–De RIJK:

- Parece que el mismo Michelena se dio cuenta de la dificultad, puesto que advirtió entre parentesis que el verbo finito "no tiene que ser necesariamente *da*". [...] En efecto, para que *dan* sea forma relativa en los dialectos orientales, salta a la vista que

necesitamos un verbo de tema *-a-*. Esto nos dejaría como único candidato el verbo *jan* 'comer', que, de toda evidencia, no viene demasiado a cuento.

- Inchauspe, *Eguiazco erreligionia*, 1884: "*hastetic oraidara complitu ičan da*", 'se ha cumplido desde el principio hasta ahora' ('hasta el presente'). [...] Sería un disparate pensar en la forma conjugada *da* 'es' del verbo *izan* 'ser', ya que **ninguna forma conjugada admite la desinencia *-ra* sin relativizarse primero**. A mi modo de ver [...] considerando *oraida* como palabra compuesta según el modelo nominal a partir de dos adverbios: *orai* y *da* o *dan* [...].
- De los tres [*hunadrano*, *noizdrano*], *oraindrano* 'hasta ahora' es, con gran diferencia, el más frecuente en el texto de Leizarraga, [...] equivale al *oraindaraño* de Etcheberri. La misma situación [...] en Oihenart, [...]: *oradrano* 'hasta ahora' (0 20, 0 229) y *bihardrano* (Pr 725).
- *jadan* Si *oraindik* 'todavía' es el elativo de *orain* 'ahora', *danik* lo fue de *dan*. A tal fin, se presentaba **la partícula *ja***, escrita también *ia* o *ya*, obvio préstamo del romance, donde continuaba el adverbio latino *iam*. Con esta observación nada rebuscada se aclara el origen de *jadan*. Se ha producido por lo visto una fosilización de la secuencia *ja dan* 'ya ahora', secuencia harta frecuente si, como afirma la tesis de nuestro estudio, *dan* era el equivalente de *ahora*, anterior a *orain* y luego coexistiendo con él.

–LAKARRA (2006: 586)

- De Rijk (1992: 704) a partir de formas como *oraidara* 'hasta ahora', *oraindanik* 'desde ahora', etc., **reconstruyó contra la opinión de Mitxelena** (1970) —quien prefería ver ahí formas de relativo de *izan*— **57 un adverbio \**dan***. [...] de Rijk **propuso ver ahí no un relativo sino una forma libre** (si bien en tiempos históricos sólo la encontraríamos fosilizada en formas como *jadan* tras perder su anterior autonomía) que, **habiéndose convertido después en pref. verbal, pasó a marcar el presente** (\*). El éxito que esta teoría ha conseguido en trabajos posteriores es conocido [...].

\* De Rijk-ek (722) J. Oregiren lana aipatzen du, "*Euskal aditzaz zenbait gogoeta*":

- El autor del artículo que citamos, [...] concluye sosteniendo que el prefijo *da-* no es ninguna marca de persona gramatical, sino que reviste un claro carácter temporal. Y precisando aun más, afirma que *da-* funciona como indicador de presente [...].  
El lector ya habrá visto el enlace con nuestro tema. Considerando que el prefijo *da-* no es otro que la raíz de la forma inesiva *dan* con la acepción 'ahora' **no extrañara de ningún modo que tal raíz pueda funcionar para marcar el tiempo presente dentro del sistema de la conjugación verbal**. Y asimismo a la inversa: el valor que le reconoce el señor Oregi al prefijo *da-* viene a reforzar nuestras conclusiones sobre el sentido primitivo de *dan* y de sus derivados.

–LAKARRA (2006: 614)

- La regla \**d-* > *l-*, extendida no a unas cuantas formas como hiciera Mitxelena, sino a todas las raíces no reduplicadas y sin prefijos, además de al pref. \**da* cuando se hallaba en inicial absoluta [...]. **La misma** (junto al valor 'continuous' identificado por Trask y el testimonio de Lafon) **resulta crucial para mostrar la inverosimilitud de la hipótesis de de Rijk** —compartida por la mayor parte de los tratadistas (cf. §§ 6.2.-6.3. y 6.5)— **de ver en el *da-* de las modernas formas de presente un adverbio fosilizado y con un sentido inicial de 'ahora', que se agregó a la izquierda del verbo para formar los presentes**. (\*).

- \* De Rijk-ek onargarria deritzo Oregik proposatutakoari aditzetarako, bat datorrelako berak *da-ri* ematen dion balioarekin, 'orain': "Lo cierto es que sus razonamientos parecen harto fundados, y **no veo motivo alguno para dudar de su conclusión cuando afirma que la función primitiva del prefijo *da-* es la de marcar el presente en contraposición a todos los demas tiempos del verbo**".

Baina bera, de Rijk, ez da adizkietako *da* morfemaren hipotesiaren sortzailea.

---

### III-6 *deus*

Koinzidentzien kasuistikan *deus* izenordainarena ekar dezakegu (LH, 276):

- También alude Schuchardt a una curiosa homofonía. **No podía menos de sorprender, dice, la semejanza, la coincidencia mejor, de este *deus* con lat. *Deus***, coincidencia que, según afirma ha dado pie a los predicadores para edificantes juegos de palabras. De cualquier modo, piensa Schuchardt, esa homofonía tenía que ser un tanto embarazosa y esto podría explicar la inicial modificada de la variante *jeus*, no sin influencia acaso del bearn. \**yes*, correlato hipotético del occitano *ges*.
- **Pero de esta homofonía se han sacado otras consecuencias.** El *Dictionnaire basque-français* del padre P. Llande concluye el artículo *deus, jeus* con esta lacónica indicación: «cf. lat. *deus*». Y, si esto quiere decir algo, sin duda expresa la opinión de Llande o de sus colaboradores de que la palabra latina es el origen de la vasca.
- Las observaciones de orden etimológico de ese diccionario, accesorias siempre y tan concisas como ésta, no merecen mayor confianza, pues, cuando no remiten a voces románicas que uno no consigue comprobar, siguen las mejores tradiciones de la etimología del sonsonete [...].

*Deus*-en jatorria argitzeko, Mitxelenak ikerketa konplexua eginik ondorioztatzen du lat. *genus* elementutik etor daitekeela; eta ziurrenik *jeus* dela forma zaharra, eta ez aldaera. Baina inola ere ez lat. *deus* hitzetik, beti uste izan den bezala, nahiz eta koinzidentzia exaktua izan.

---

### IV-1 *uTanbaate* eta *oTtikez* txanponak

(Gorrochategui 2018, EH 247):

- Zentzu honetan oso deigarriak dira [...]; era berean *ontikes* eta *unambaate* txanponetako *n*-a **T itxurako letra berezi baten bidez idatzi da** (Beltrán & Velaza 2009).

Deigarria, nolabait esatearren, adierazpen hori da. Bistan da *n*-a idazten bazekitela, *uTanbaate*, eta *n* bezala idazten zutela, ez *T* itxuran. Logikak dio *T* zeinu hori beste zerbait adierazteko izan behar dela.

---

### IV-2 *Uxama* (*Barca* eta *Argaela*)

Bata Araban (*Ibarca*, agian) eta bestea Sorian. Gaur Osma, biak ere. Ptolomeok aipatzen du *Uxama* bere *Geographia* obran. *Argaela* delakoa gunee zeltiberoa izan zen eta Erromak konkistatu zuen (K.a. 99). Hiriguneak Sertorioren aldean borrokatu zuen eta, horrela, Pompeyok suntsitua gertatu zen (K.a. 72), hori ere.

Bisigotuen garaian (V-VI) Uxama Argaelak Oxoma edo Osoma izena du, nahikoa erromanizatua jada baina azentu zaharra gordetzen du (IV-4 oharra).

---

#### IV-3 **Uzama** Mitxelena (1951,13)

- Si nadie es capaz de dudar de que el *senior Lope Ennconis* del doc. 139 (1057) de S. Juan de la Peña lleve ese patronímico por ser, como se añade a continuación, *filio de senior Enneco Azenariz de Uzama* [...].

---

#### IV-4 **Uxama, Ultzama, Osma** toponimoak

Esan dugunez *uTanbaate* txanponeko legendan lehenengo elementuan bi osagai deduzitzen ditugu, *utz* eta *ama*, eta horregatik erabili zutela T zeinua lehenengo osagaian, bestela nahikoa izango zutela *ta* silabari zegokiona (*u-ta*-ma) jartzea.

Baina, dirudienez, Ptolomeok aipaturiko Uxama izena izan liteke jatorrizkoa, horrela hartu ohi da. Ez dakigu x grafia horrek zein soinu zehatz adierazten zuen.

Ptolomeok II. mendean egin zuen *Geographia* obra (hiru parte, zortzi tomo) eta, hala ere, izen zaharra jaso zuen, zeren erromatarkuntzaren eraginez izenak aldaketa fonetikoak jaso zituen eta aldatuz joan zen. Ikusi dugu, konparaziorako, *Usekerte* izen zaharra ere zenbat aldatu zen: *Usekerte* (mosaikoan) > *Usecerde* (txanponetan), kontsonante bat gutxienez ahostun bilakatuta eta, azkenik > *Osicerda*, hasierako eta azken bokalak irekita eta bigarrena fonetikoki egokituta.

Bada, Uxama Argaela toponimoaren kasuan, bisigotuen garaian jada, V-VI mendeetan, izena aldatuta zegoen: > Oxoma edo Osoma. Eta horrela jarraitu beharko zukeen, ez balitz tartekatu faktore bat, eta da azentua. Izan ere, azentua lehen bokalean izateagatik, hobeto esanda antzinako azentua mantentzearen ondorioz, erromantzean Osma bilakatu da. Osterantzean "Osoma" izango litzateke.

Eta bide horretan, Erdi Aroan-eta Utzama dokumentatzen denera etorriaz, kontsideratu dezakegu azentuaren faktorea. Ez zukeen izango bigarren silaban, gaur egun bezala, baizik eta lehenengoan, Uxama-k bezala eta horrek azal lezake *Ul*-tzama aldaketa. Dena dela, inguruan, Aritzun, badago *Utzamarre* toponimoa.

Edozelan ere, indartuta geratzen dena da osagai izatearena; alegia txanponeko Utzama izenean bi osagai daude, *utz-ama*, eta horrexegatik erabili zuten T zeinua, osagai amaierako soinu afrikatua irudikatzeko: *utz*.

Azkenik, bi izen horien bilakaeran, konstatatzen duguna da fonetikoki zein egonkorra den gure hizkuntza, zein gutxi aldatu den herri izena: hur-hur dago orain hogeitaz mende txanponeko Utzama, eta bere horretan Utzamarre toponimoan. Ostera, Osma-tik urrun geratzen da Uxama, **erromantzearen fonetikak** asko aldatu baitu eta zaila gertatuko litzateke Osma-tik Uxama berreraikitzea.

Eta bitxikeria moduan, hurrengo oharrean (IV-5) Uxama-ren esanahiak-edo.

---

#### IV-5 **Zegama** jatorri zeltikoaz (► [Euskalduntze berantiarraren teoria 2](#))

**Utzama** izenaren lehenengo zatian *utz* osagaia ageri zaigu, eta T hizkiak hori elementu independentea zela erakutsi digu, (*h*)*ama* osagaitik aparte –txanponean *ha* idazkera izan lezake–. Baina hori ez dator bat izenaren ustezko jatorri zeltikoarekin: *-ama* hori morfema superlatibotzat jotzen dute (gure *-en-a*, edo *oso*), eta horren arabera aurreko osagaia izond. litzateke. Baina antzeko beste toponimo batzuk ere baditugu:



Iturrama (iturri-), Arama, Beizama, Zegama, Lezama (leize-; herrian (B) Leze toponimoa badago (255), zulotzar bat), edo Amabizkar, Amaondo... Bada, zaila da horiek guztiak zeltikoak direla linguistikoki frogatzea.

Zegama izenari eta atzizkiari-edo loturik horra Luis M. Zalduaren iruzkin bat:

- (0:20) «...esan baitugu toponimia dela euskalduntze berantiarraren teoria zalantzan jartzen duen iturrietako bat».
- (0:55) «Bat, esate baterako, Zegama toponimoa. Zegama toponimoaren lehenengo zatia, erroa edo oinarria, iberiar penintsulako hainbat tokitan azaltzen da: Segovia, Sekia [...]. Hori badakigu jatorri indoeuroparreko oinarri bat dela, eta **esan nahi du, gainera, "garaitu", "bentzitu"** [...]. Bigarren zatia, **-ama** hori [jatorri indoeuroparreko atzizki] superlatibo bat da, **"oso" esan nahi duena**. Kontua da iberiar penintsula osoan azaltzen den erro hori, hemen EHn, Gipuzkoan, gainerako lekuetan ez bezala, beste modu batera bilakatu dela eta gaur egun ez dugula esaten /Segama/, s-rekin, hemen EHn z-rekin esaten dugu [...].»
- (4:05) «...eta erromatarrak iritsi aurretik, hemen [...] kultura indoeuroparra, nik esango nuke zenbait garaitan kultura zeltiberiarra ere bazela eta euskaldunok kultura horrekin harremana izan genuen, eta hainbat gauza hartu genituen, esate baterako, Zegama toponimoa ere [...].»
- (5:36) «Eta Zegama-rekin ere gauza bera gertatzen da. **Zegama toponimoaren esanahia da "herri garaitzaileena", "garaipen handienak lortu dituen herria"**».
- (7:45) «Hortaz, Gipuzkoan orain dela 2.000 urte edo gehiago euskal jatorrikoak ez diren izenak egoteak [Zegama, kasurako] erakusten diguna da orduko eliteek orduko hizkuntza prestigioa zutenak bazekizkitela eta erabiltzen zituztela».

Ondorioetan-eta sartu gabe, Zegama toponimoko osagaien ustezko esanahia horrela baiestea ausarkeria da –"herri" izena suposatua da, teoriaren arabera literalki "garaitzaileena" da soilik, kuriozoso–. Hipotesi mailan utzi beharko litzateke, ez baitugu ezagutzen adiera horiek esleitzeko argudio linguistikorik ez historikorik. Baina jokabide hori ohikoa da hizkuntzalaritza maila batzuetan: norbaitek botatzen du aburua (burutazioa), eta ondorengoek errepikatu egiten dute, ontzat emanaz, frogatua bailitzan. Eta azkenerako orok *dakite* horrela dela, esamesekin gertatzen den bezalaxe. Baina horrek ez du euskarririk. Hona Interneteko iruzkin bat:

- «Lo general entre las gentes **aficionadas** a la Historia es decir que la mención de Ptolomeo a Uxama Argaela (o Argaela Uxama, según los casos) describe un asentamiento celtíbero y **que su significado es algo así como "la muy elevada", aunque nadie sabe en qué se basan para ello.**» (J. G.)

Ustezko esanahien ikuspegia osatzearren, honakoa ere ekar dezakegu. Soriako Uxaman, 1979an, basurde itxurako tesera txiki bat aurkitu zuten (K. a. I). Hor bide dago Uxama izenaren lehen dokumentatzea, nahiz eta u.s.a.n.a dioen, 3. lerroan; baina mendebaldeko alfabeto zeltiberikoan n = m, omen. Transkripzioan "Uxama" jarri dute, eta azalpenean: «...se refiere indudablemente a la ciudad de Uxama (la actual Osma, en celtíbero "la más ancha")».

► [Grafikoa](#) · [Azalpena P.J.R](#)

---

#### IV-6 /h/ fonema edo letra testuan (Gorrochategui, Abaitua):

Eskuko testuan /h/ bat identifikatu dugu, VII. atalean ikusiko dugunez: *kebe-eki* segmentuak bereizten dituen elementu ikusezin bat, baina -e e- bokal berdinak elkartzen uzten ez duena, *hekin* erakusle gisa interpretatu duguna.

Gai hau orain arte eman diren diren hitzaldietan ere aipatu izan da.

- Abenduko ekitaldia (► [Iruñea, 2022-12-29](#)), Gorrochategui:

(1:09:01): «Si nosotros encontráramos en esta mano un signo que fuera la aspiración yo ya estaba tranquilo, pero ¿qué le pasa al ibérico?, pues que no anota la aspiración».

- Hala ere, J. Abaitua filologoak eskuari buruzko hitzaldian (► [Gasteiz, 2023-03-21](#)) Etxeparek *zori honian h*-rekin idatzi zuela komentatuaz, zera adierazi zuen (25:03): «Lo que desconcierta es que el *sorioneko* (sic) de la Mano de Irulegui (horrela idazten du) no tenga esa *h*, un rasgo tan distintivo del euskera antiguo».

Amaieran, entzule batek planteatutakoari erantzunez (55:01), zehatzago: «En la Mano de Irulegui no hay haches». Entzuleak: «Si las hubiera tampoco se marcarían en signario ibérico». Eta Abaituak: «O sí, con oclusivas, lo que sea, ¿no?».

Hain zuzen, testuari erreparatuz gero hor dago *kebe*.

---

#### IV-7 *Euskara*, hitzaren jatorriaz (Irigoien 1977: 527 eta 1990: 533):

- Eta nondik dator *euskara* hitzaren (*h*)*eus*- lehen elementua? Kontuan hartzen baldin badugu *enus*- forma zaharragoa izan daitekeela Garibairen lekukotasuna ontzat hartuz gero uste dut *\*enau(t)si* partizipio batek argituko lituzkeela zeharo ondorio guztiak.
- Garibaik dakarren *enuskera* itxura zaharreko forma dela pentsatu beharko genuke, *dinotsat* eta direlakoetan gertatzen den bezalatsu. Jakina, *\*enau(t)si* + *-kara* > *heuskara* bihurturik 'hitz egiteko modua' besterik ez litzateke izango jatorriz, *mintzaira* / *mintzaira* den bezalaxe.

---

#### IV-8 *Uskara*, EHHEn

□ Erdi Aroan, zinez aurreratu lezake lehen lekukotasuna *Marzuq ibn Uskara* pertsona izenak; *Uskara* izeneko norbaiten seme da Marzuq, VIII. mendeko buruzagi musulmana; XI. mendeko Al-Udri andalustarraren kroniketan ageri da izen hori (ik. de la Granjaren itzulpena, 1967: 509). *Miguel Erdara* (*SJuan* 1276) izenarekin konparatzen du Peillenek (1995), eta proposatzen du *Uskara* hori ere antzeko izendapena izan daitekeela.

---

#### IV-9 *Uskara* ekialdeko forma

Txostenean adierazi bezala, Mitxelenak ongi zehaztu zuen **Occid.** gisa *euskara* hitza eta horren aldaerak. Eta zalantza sakona dugu *uskara* (edo (*h*)*üskara*) formaren jatorriaz edo osaeraz. Gorago jarri dugun aipuak ez dirudi askorik argitzen duenik: «En todo caso, la reducción de *\*eu* a *u* fue más antigua en *uste*, cuya *u* común es también suletina, que en *uskara*, sul. *üská(r)a*, etcétera» (FHV, 493). Alegia, zubererazko *uste eu* diptongoaren bilakaeraren ondorioa da (*uste ükhen*), eta orokorra da hizkuntzan; baina zubererazko *üskara* / *hüskara* (Egiategi) *eu* > *u* > *ü* bilakaera al da? *Uste* zubereraz ez da aldatu *\*üste*. *Uskara* formak ez ote du beharko bestelako azalpen bat?

---

## V-1 Azkue: *zedeitean*

Kaltzakortak bildutako gutundegian: –Esaldi finalak: (K 46) «Sermoia ezteutsuet nai bialdu kopia bat atara arte *galdu zedeitean be*» ('gal **ez** dadin badaezpada'). Bestetik, egitura berezia *Inor etorri-an ere* moldekoa: 'kasuan, gertatuz gero'.

---

## VI-1 *ekun* (Sarasola 1983: 116)

- La forma mas conflictiva del documento es sin duda el *ecutea* que aparece en las copias de Bilbao y San Sebastian. Para Omaechevarria el copista de 1609\* no entendió *edutea* y lo sustituyó por *ecutea*. Para Irigoyen, sin embargo, *ecutea* es una forma mas arcaica que no entendió el de 1773. Las razones que aporta Irigoyen para la legitimidad de *ecutea* no parecen convincentes. En primer lugar, todo indica que el roncales *ekun*, como indica Michelena FHV 84 es una forma secundaria, moderna, de *uk(h)an* / *uk(h)en*, por metátesis. En efecto, aparte de que los postulados de la geolingüística dan prioridad a *uk(h)an* / *uk(h)en*, el orden tema + sufijo exige la secuencia u-k, siendo k-u solamente posible por inducción\*\*, concretamente por metátesis en este caso. Además, Irigoyen incurre en defecto metodológico al afirmar en el resumen de su trabajo que «el hecho de que aparezca en áreas marginales prueba su antigüedad [de *ecutea*]», ya que al ser la del cuadro la única presunta aparición de *eku-* en áreas marginales occidentales se está aduciendo como prueba justamente aquello que se pretende probar. En áreas occidentales solamente tenemos, en épocas antiguas, *eun-* que supone *edun*, y *euchaiteco*, en Landucci 'fiesta de guardar', *eguçari euchaiteco*, con *euk-> uk-*.

\*Dokumentazioaren arabera, 1609koa ► [bertsio](#) originala da, Mendietak margotu zuena.

\*\*Gure iritzian, *e-ku-n* eta *e-du-n* aditzen egitura oso-oso parekoa da; *ukan-*ena da berezia.

---

## VII-1 *hauki*

*Heki* forma neutroa ere izan zen bezala, hots, oinarria desinentziak gaineratzeko, gauza bera ikus dezakegu *hauki* erakuslearekin ere. Hainbat autoreren adibideak ekar ditzakegu *hauki* oinarri moduan erabilia:

- Eta erranen darotazu ez direla *haukiek* zoragarri diren gauzak? Dv Dial 17
  - Manamendu *haukien* kontra bekhatu egiten dute Brc 66s
  - Gaxo *haukien* ezpaignekin hobeki deskantzarazteko, *hekien* aithorren biltzeko eta azken nahien aditzeko. Ateka 25s (Bi erakusleak)
  - harroka gaitz *haukietan* Arb Igand 38
  - *haukiñgatik* suak berotzen duela, iguzkiak argitzen. Gç 29
  - etzuelarik bizkitartean *haukiekin* elherik batere. JE Bur 11
  - pratika saildu *haukiei* iarraitzen diren JesBih 438
  - *Haukien* larrutik egin ditezke marrokin hautuenak Hb Egia 132
- 

## VII-2 *-ki* eta *reki* desinentziak

*-ki* soziatibo desinentziaz (Lakarra 2018, EH 163):

- Hasteko, gainerako kasu-marka gehienetan legez, ez luke harritzeko izan behar sozietiboaren **oinarrizko marka (-ki)** aditz zahar batetik etortzea (199: *-n*, inesibotik)
 

Soz. atzizkian bi alderdi bereiz daitezke: batetik, amaierako *-n* ines. marka gabeko formak; bestetik, *-re-* genitibo marka. Ines. (*-n*) gabeko forma jotzen dugu zahartzat, genitiboaren kasuan bezala (Mitxelena 1951, 10):
- [Lope iaun **Ortire** Semea ('fi de don Orti')] La desinencia repetida *-re* es del mayor interés ya que, lejos de ser necesariamente una grafía defectuosa, **podría representar un arcaísmo**. En efecto, si *-ren* es en época moderna la única forma del sufijo con nombres, *-re* es general en los posesivos (*gure* 'nuestro', etc.) ( 37 ) y también en la desinencia de comitativo (*-re-kin*, etc.), que es sin duda una antigua posposición ('en compañía de').
 

Izenekin-eta *-(r)eki* adibideak jarri ditugu, forma zahartzat hartuta. Mitxelenak, ordea, dialektaltzat jo zuen eta *-(r)ekiko* formatik eratorria (1972; LH 307):
- También queda aclarado el locus en que *orain* 'ahora', *egun* 'hoy' y sus compuestos (*herenegun*, *laurdenegun*, *\*etzi-biharamun*, *\*etzirik-herenegun*), llegaron a **las formas actuales, con falta dialectal o general de -n**. [...] De ahí el or. *oraiko* 'actual', con deletación de *-n* de inesibo, aezc. *eguko* 'hodiernus', de donde *egu* 'hodie'; de ahí también *erenegu*, *laurdenegu*, *etzidamu*, *etzikaramu*. **No es otra la explicación del dialectal *-(r)eki* 'con'**, de *-(r)ekin*, *-(r)ekien*: de *\*(r)e-kide-n + ko* (v. arriba, § 2 y n. 37) se obtiene normalmente ***-rekiko*, de donde *-(r)eki*, aislado**.

### VII-3 Andelo eta Caminrealeko mosaikoak (Núñez 2003: 132, 244)

Nafarroako idazkunen zerrendan aipatzen ditu mosaikoak.

- En esa misma localidad [Muruzabal de Andion, municipio de Mendigorria] ha aparecido hace unos años el «mosaico de Andelos», con el texto *Likine · Abuloñaune · ekien · bilbiliañs*. Suele considerarse ibérico, aunque también se admite la posibilidad de que sea euskera arcaico, en cuyo caso sería el primer texto conservado en esta lengua. Sin embargo, hay otro mosaico muy similar, con el texto *Likinete · ekiar · usekerteku*, encontrado en Caminreal (Teruel), que en este caso tendría que ser también euskera arcaico, lo que no parece probable porque **se encuentra demasiado lejos de la zona vasca. De manera que lo más probable es que ambos sean ibéricos**.
- Que se atribuya un carácter «vehicular» al mosaico de Andelos y otras inscripciones ibéricas halladas en el centro de Navarra nos parece razonable, ya que quedan muy desplazadas de la zona donde abundan los restos ibéricos. Precisamente, con respecto a los mosaicos de Andelos y Caminreal escribía en 1995 el investigador alemán Untermann una frase que le daría la razón a de Hoz en relación a la preferencia lingüística de los artesanos y a los 140 kilómetros de distancia que separan esas dos localidades:
  - *Tal vez haya que deducir que la lengua ibérica tenía un prestigio especial entre los artesanos con clientela interregional como en otras épocas el francés entre los creadores de moda y el italiano entre los músicos.*

Esan dugunez, gure analiaren arabera biak barskuneraz idatzita daude, nabari diren elementu morfologikoen erakusten digutenez. Baina lehenengo aipamenean faktore geografikoa da erabakiorra: Andelokoa baliteke euskara arkaikoa izatea, baina Caminrealekoa oso antzekoa izan arren baina urrun dagoenez ziurrenik ez da izango; ondorioz, Andelokoa ere ez, bietako bat ere ez.

Hala ere, bestalde, biak urrun daude iberierazko idazkunak arruntak diren eremutik. Eta hortik mosaikoetako *Likine* artisau "ibiltari"aren izena izatearen burutazioa, beraren sinadura mosaikoan –nahiz eta batean *Likinete* agertu–. Analisisian esana dugu artisau berbera izatea erraz baztertu daitekeela bi mosaikoen egikera edo estiloak aztertuta, oso desberdinak baitira (► [materialak](#)); eta pisu handieneko arrazoiak: artisauak nola sinatu dezake bi modutan? Eta horrek sorrarazi ditu (*Likine-te*) -te ustezko morfemari buruzko teoriak. Gure analisisian -te horrek azalpen artzagoa du, idazkeran oinarrituta (Ikus VII-8).

Hesperia datu-baseko azalpenaren amaieran:

- Es muy llamativa la similitud de los textos musivos ibéricos de Caminreal y Andelo, que **sorprendentemente, se sitúan fuera del área ibérica.**

---

#### VII-4 Andeloko mosaikoko idazkuna (Gorrochategui 2018, EH 244-45)

Txostenean egin dugun interpretazioarekin kontrastatzeko, Gorrochateguiaren azalpen batzuk ekarriko ditugu, Irulegiko Eskua agertu aurretikoak.

Arangurenen aurkitutako brontze zati bat ere aipatzen du ("Bigarren lekukoa"), eskuaren garaikoa izan daitekeena, bi aldeetatik idatzia, baina hondatuta dagoela eta adituek ezin izan dutela argitu zein hizkuntzatan dagoen (ikus VIII-2 oharra).

Hirugarren lekuko gisa Andeloko mosaikoko idazkuna tratatzen du. Hona zati batzuk, eta gure iruzkinak:

- Badaude, hala ere, aldaera interesgarriak; esaterako Caminrealeko testuak *ekiar* dakar, gainontzeko iberiar testuetan erruz agertzen den hitza, Andelokoak *ekien* duen bitartean haren orde. Jende gehienak pentsatzen duena onartzen bada, hau da mosaiko hauetan idatzita dagoena **artisauren sinadura** edo dela, orduan ez litzateke eragozpen handirik egongo *ekien* euskarazko 'zegien' bezala ulertzeko, kontuan izanik gainera iberierazko idazkerak ez duela kontsonante ahostun eta ahoskabeen arteko bereiztasunik egiten.

Txostenean adierazi bezala, ez deritzogu onargarria *Likine* egilea izatearen suposizio horri: batetik, Andelokoan *likine* dena Caminrealekoan *likinete* delako; bestetik, bi mosaikoen estilo desberdinak erakusten du ez direla egile berarenak.

- Baina *ekien* aditz forma jokatutzat hartuko bagenu, 'egin zuen' edo esan nahi zuena, ergatibozko egitura beharko genuke **euskararen** ikuspuntutik, testuan agertzen ez dena. Pentsa daiteke ergatibozko egitura **euskarak** beranduago garatu zuela.

Ergatiboaren iruzkina onargarria, baina garai hartan horrelako adizkirik egotea (*egin* adizki sintetikoa irag.) oso zalantzazkoa da. Eta ongi dago euskaratzat jotzea –zeren Irulegiko Eskuan ezin da, antza–, nahiz eta amaieran ustea zapuztu.

- *Likine Abuloraune* hitzek zeltiberierazko *Likinos* eta *Abulu* pertsona izenekin zerikusituzena duten arren, ez dakigu beren arteko erlazio gramatikala zein den. Subjektu bikoitza osatzen dutela uste dutenek *ekien* forman aniztasuna adierazteko modu bat ikusten dute; bata egiletzat eta bestea etxeko nagusitzat hartzen dutenen iritzi, aldiz, *ekien* formaren funtzioa nori pertsona adieraztea izango litzateke.
- Azken hitza, *bilbiliars*, Bilbili hiriaren izenarekin lotu behar da dudarik gabe, baina nola ulertu behar da atzizki itxura duen –ars hori? Azaleko antzekotasunari so eginez euskarazko "bilbiliar"tzat hartuko bagenu, azaldu gabe geldituko litzateke soinu horien bilakaera historikoa euskaraz.

Gure azalpenean *ar-s* osagaiak daudela diogu eta *s* gentiliziotzat hartzen dugula, *barskunes* txanponeko legendan bezala. Eta bukatzeko, honakoa dio:

- Ikusten denez, testuaren ulermenak sortzen dituen problemak ugariak dira, baita iberiar testuen corpusaren barruan ere, baina orokorrean **ez dut uste testu hau euskara zaharreko testutzat har dezakegunik.**

Azkenik, geure aldetik gehitu dezagun mosaiko horretan interferentzia batzuk nabari direla. 1) Abulo-u izena zeltikoa izango da –mosaikoa Abulor–, baina izenak, berez, ez dira izaten erreferentzia linguistiko ziurrak. 2) Bilbilikoa dela edo haiekin lotura duela interpretatzen dugu idazkunean, eta badakigu Bilbili hura gune zeltiberikoa izan zela. 3) Idazkunean, bereziki *a* zeinuen idazkera-diseinua zeltiberikoa da; eskuan, dauden hiruretatik bat da horrelakoa, 2. lerroan. Baina interferentzia horiek azaltzeko hipotesietan ez gara murgilduko. Gure analisiaren arabera idazkuna aitzineuskaraz dago, ez zeltiberieraz, ezta iberieraz.

---

## VII-5 *jaun* (Lakarra, 2006: 575, 577, 570)

Mosaikoa interpretatzen dugun *jaune* elementuarekin erlazioan (575):

- 5.1. *jaun* ‘señor’, *jabe* ‘dueño’
- 5.1.1. Lo menos que puede decirse sobre estos vocablos es que ambos son sendas colecciones de rarezas e irregularidades: para empezar, contienen ese sonido *j-* (con las variantes estudiadas en FHV); a pesar de que no parecen préstamos, **es claro que nada así podía haber en PV ant. ni moderno.**

Horren arabera, idazkunean ulertzen dugun *jaune* hitza ezinezkoa da. Apur bat aurrerago azalpen xeheago eskaintzen du (577).

- 5.1.3. Vayamos con *jaun*. 40b De sus irregularidades mencionadas, la principal sería esa *j-* presente en un sustantivo y no en un verbo, como en el resto de voces patrimoniales. Dado que Mitxelena propuso que también aquí *jV-* provenía del conocido pref. verbal \**e-*, **aceptemos como hipótesis que *jaun* derivaría de un antiguo verbo en \**e-aun*, reconstruido à la Mitxelena** (cf. *jakin* < \**e-akin*, etc.) y que después cambió de categoría como *gorri* ‘rojo’, *zuri* ‘blanco’, *orrazi* ‘peine’ y tantos otros.
- 5.1.4. *jantzi* ‘vestir, ropa’. Antes de proseguir con las preocupaciones reconstructivas, un interludio etimológico: ¿qué pensar de *jantzi*? Por una parte este verbo tiene uso nominal, como ocurre con muchos otros; por otra, a pesar de la *j-* (*y*, por tanto, \**e-*), no documenta formas sintéticas, lo cual tampoco es una particularidad exclusiva. Probablemente sea **interesante señalar la existencia de una variante oriental *jauntzi***, que, por regla general –la excepción más conocida es *handi* > *haundi* ‘grande’ (cf. Lakarra 1996b, contra Vennemann)– debe ser **más arcaica que *jantzi***. Si, como haríamos con todos los verbos antiguos eliminamos la *-i*, nos queda *jauntz*; a este resultado deberíamos aplicarle la restricción radical \*\**-RS* [*R* = sonante, *S* = sibilante], derivada de una formulación estricta de *CVC*;<sup>41</sup> también aquí, por tanto, el input *jauntz* sólo puede ser derivado o préstamo. Como no da la impresión de ser préstamo, conviene atender muchos otros adjetivos similares terminados en *-tz*: *hor* ‘can’ > *hor-tz* ‘can-ino’, \**bor* ‘redondo’ > *bor-tz* ‘cinco’, \**bel* > *bel-tz* ‘negro’, etc., más \**ahan-tz-i* ‘olvidado’. **Si suprimimos ese sufijo *-tz*, voila dónde aparece nuestro *jaun*.**<sup>42</sup>

Apur bat lehenago (570/25), honako hau:

- Por lo demás, **es muy posible que tal fonema [ /j/ ] existiera en el vasco común ant.** que Mitxelena (1981) —más por razones históricas que por otras lingüísticas— fijó en los ss. V-VI y que es el origen de los dialectos modernos **pero no** de los que pudieran corresponder a las tribus vasconas, eúscaras o aquitanas **anteriores a la constitución de dicho v. común.**

Baina Mitxelenak iruzkin hau ere utzi zuen (LH 338):

- El *cognomen* de M. Iunius **Iaurbeles**, en inscripción de Florejacs [Lleida, iberiera], tiene toda la apariencia de uno de los compuestos o derivados de vasc. **jaun** 'señor' (*jaurgehien* 'soberano', etc.).

**Jaune** balizko hitza. Pentsa liteke -a mugatzailearen garapenak -e amaieradun hitz zahar batzuk a-dunak bihurtuko zituela, *dene* > *dena* interpretatu dugun eran. *Anaie* antzinatik dokumentatua, forma zaharrena ziurrenik. *Itaun*-e berriagoa ere hor dago, antzekoa; baita, *esakun*-e. Eta beste batzuetan nabaria da -e/-a alternantzia, hots, -a bokalaren aldeko joera: *aise/a*, *andre/a*, *larre*, *irribarre*, *lore*, *batzarre*, *landare*, *baratze*, *bele*, *hobe*, *labe*, *sarde*, *erpe*, *ahate*...

## VII-6 ar̄s (dardarkari gogorra)

3. graduko erakuslea, mugatzaile bilakatuko zena, *r* bigunekoa da deklinatzean (*har-en*, *har-i*...) baina mosaikoan *ř* gogorrarekin ageri da xistukari (*s*) aurrean: *bilbil*a.ř.*s* (orobat *ba.ř.skunez*). Baina badira *harr*- osagaiko hitzak (*harrezkero*...) eta *harr*-erakusleak testu zaharretan: *harrek*, *harrenganik*, *harren hitzej*, *harren*...

## VII-7 Bilbilis nolakoa zen

I. Morenoren bideoa, ► [La Bilbilis desconocida](#), batez ere uraren ingeniariatzaz.

- Los restos de la ciudad de Bilbilis se encuentran en el término municipal de Calatayud. Fue un asentamiento a orillas del río Jalón denominado Municipium Augusta Bilbilis. Se localiza en un alto lugar estratégico que permitía controlar los accesos al valle del Ebro, Levante y la Meseta.
- De origen celtibérico, a partir del siglo I a.C., se convirtió en un rico asentamiento, de fértiles tierras e importantes talleres. Su decadencia comienza en el siglo II y fue abandonada en el siglo III.

## VII-8 Caminrealeko mosaikoko idazkuna. Gure interpretazioa.

Idazkuna: **l.i.ki.n.e.te · e.ki.a.r · u.s.e.ke.r.te.ku**

Lehenengo osagaia, **Andelokoa berbera**: **l.i.ki.n.e** baina **te** gehituta. Interpreta dezakegu *likinetxe* adierazten duela, *te txe* bezala ere irakur daiteke (2F faktorea). Esana dugu *Likine* artistaren sinadura izatearen teoria baztertu egiten dugula.

Hirugarren blokean, bi osagai: **u.s.e.ke.r.te** eta **ku**. Esan dugunez, lehenengo toponimoa da, *usecerde* txanponetan (t > d) eta *Osicerda* izen latinizatua Augusto edo Tiberioren garaian. Ezin izan da jakin non kokatzen zen. Bigarren osagaia **gu** idazkerakoa da, zeinu duala; eskuan eta kutunean **ku** zeinu ahoskabeak daude.

Beraz, orain arte: *Likinetxe · gu Usekerte*. Falta zaigu idazkunari lotura ematen dion elementua: **e.ki.a.r**, Andelokoan **e.ki.e.n** dena.

Andelokoa *hekin* + *ni* eran interpretatu dugu, erakuslea norekin kasuan, *heki*. Baina esan dugu e.ki horrek beste funtzionaltasun bat izan zezakeela, sisteman ez zegoen *-ko* genitibo desinentziaren zentzua ordezkatzea. Idazkun honetakoari *-ko* zentzua ematen badiogu, + *ar*, artikulutzat jotzen dena, *-koak* osagaia dugu.

Baina zein zatirekin lotzen da *-koak*? Lehenengoari atxikiz gero: *Likinetxe-koak gu Usekerte* lortzen dugu; baina agian bigarrenari atxikita egokiago: *Likinetxe · gu Usekerte-koak*. Horrela balitz, *Usekerte* izan ahal izan zen gaurko Caminreal (III-2).

Bi irakurketa posible horiek, esana dugu, ez datoz bat gure gaurko sistemarekin, baina berriz idazkunari begiratu bat eginez gero nabaria iruditzen zaigu helburu komunikatiboa ederki betetzen zuela, e.ki.a.r **sekuentziaren anbibalentzia lagun**.

*Likinetxe* hori etxetzarra zen, hogeita bat gela-edo zituena, 900 m<sup>2</sup>koa. Pentsa liteke *Likinetarrak* bizi zirela han, handikien sendi bat izan zitekeena, merkatariak agian, aberatsak. Andeloko Abulor *Likine* jauna ere etxe ederraren jabea zen.

Eman dugun interpretazio hori ez dator bat Hesperia paleohispanisten datu-basean jasota dagoen informazioarekin: ► <http://hesperia.ucm.es>. Ezta E. Lujan-ek (2010) mosaiko honi eta Andelokoari eginiko analisi linguistiko sakonarekin, bietako idazkunak erkatuta: ► [Inscripciones ibéricas](#).

Baina behin interpretazio horretara iritsita, agian merezi du beste alderdi batean apur bat sakontzea.

Eta alderdi hori da, hain zuzen, *Likine*-rekin zerikusia duena; izan ere, ezin da ukatu ezagunak ditugun *Legina* eta *Leginetxe* formak oso antzekoak direla, deiturak zein toponimoak.

Txiripa izango da baina nire jaioterrian (Lezama, Txorierrri, Bizkaia) bada *Legina* auzoa, eta *Legina* erreka ere, euskaraz berbaz beti “*Legi·ne*” ahoskatzen dena, azentua azken silaban (*Legi·nen*, *Legi·ne·koa*, etab.) toponimoekin egin ohi denez eta, bestetik, toponimoetan *-e* amaiera egiteko tradizioa erakusten duena: *Iberre*, *Luxarre*, *Olazarre*, *Untzarre*, edo *Gernike*, *Gatike*, eta abar.

Ez gara gehiago luzatuko, ez baita ezagutzen *Legina* (*Leginetxe*) hitzaren jatorria ez esanahia –irudikeria etimologiko batzuk gorabehera–; baina antzinakotzat jo daiteke, eta *Likine*-tik hurbilagokoa berorrekin erlazioan jartzen den *Likinos* izena baino.

---

## VII-9 **hebe** eran, Oihenarten poema aurkitu berrietan (Gidor Bilbao).

*Jorraleen koblak:*

*Neskatoaren inhardespena:*

*Eztuk **hebe** hordi ez putarik.*

Orobat Oñatin aurkitutako olerkian (~1515): **ebeticoz** (► [olerkia](#))

*Çeure escuoz naraçu*

*andicoz eta **ebeticoz***

---

## VII-10 **kebe**

Forma arkaikotzat jo ditugu *kebe*, *hebe* oinarrikoak, *-n* gabeak (*hebeko*, *hebetik*, *ametik*...). Baina hona Mitxelena 1971 (Munibe XXIII, PT):

- [...] *hemendik*, *hemen*-en bizkar hazia da. Forma berria da, beraz, baina, **halaz guztiz ere Euskal Herriaren bi bazterretan agertzen da *-n gabe***: bizk. *emetik*, zu. *hebeti*.



Baita honako hau ere (1972, LH 306):

- No es menos manifiesta la tendencia opuesta. Aún en los adverbios de lugar, *vizc. eme-ko, eme-tik* no representa nada antiguo, sino que sólo pueden resultar de una mutilación: la supresión de *-n* de *emen*, de donde están inconfundiblemente derivados.

Ez dugu iruzkinik egin nahi, baina bi ezaugarri horiek (hizkuntzaren bi ertzetan + autore-testu zaharretan) esanguratsuak dira linguistikoki, berriak izateko.

### VII-11 *atharbe*, Leizarraga (Mitxelena 1954, LH 444)

Leizarragak darabilen formak konposatuetako aldaketa du, kasu honetan bokala: e > a, ate > ata-.

- Del estudio del aquitano podemos además sacar una presunción por vacilante que sea, de que los cambios en la final del primer elemento que caracterizan a los compuestos vascos no existían todavía.

Hots, aldaketa *arau* hori garatu gabe zegoela artean hizkuntzan. Beraz, guk *aterpen* ulertzen duguna bat letorke uste horrekin, baldin eta *ate* balitz. Baina ziurrenik erratu egin dugu oinarria: ez da *ate-* izango, ezpada *at(h)erri*; eta honek ez du aldaketarik onartzen: *aterrune, aterraldi*, etab.

Baina, “vacilante”n utziko dugu, zeren txanponetako e.ta.o.n idazkuna “*etxaon*” bezala ere irakur daiteke eta horrek e > a suposatuko luke: *Etxaberri, Etxahun*... Mitxelenak berak ere aipatzen du (VII-5) *laurbeles* forma (< *jaun-, jauregi*, etab.).


### VIII-1 *n.ba* segmentua

Gure interpretazioaren lehenengo txostenetatik esaten ari garenez, hirugarren lerroan *ba* silaba bat dago, o.T.i.r'.ta.n. sekuentziaren amaieran, aurreko *n*-rekin elkartu eta *ma* hitz monosilaboa sortzen duena, sisteman ez baitzegoen *m*-rik.

Baina, dirudienez, oso zaila da ikusteko.

- San Telmo museoko mahai ingurua (► [Donostia, 2023-02-10](#)):

J. Gorrochateguiaren azalpenean, testuak dituen arazoen artean hirugarrena da o.T.i.r'.ta.n sekuentziaren ondoren datorrena (1:27:41):



- «El tercero, [...] detrás de *otirtan* ¿le damos credibilidad al punteador?, porque estableció una interpunción – banaketa seinalatzekoa– detrás de *otirtan*, pero el esgrafiador –marraduren egilea– no puso ningún tipo de interpunción. Con lo cual, ahí, depende de cómo se entienda [...], si no hay interpunción entonces la cosa se complica definitivamente».

Bada, grafikoari begiratuta 1) *nabaria da marradura bat dagoela* (esgrafiatuta), eta 2) marra horren *gainean puntuka idatzitakoa ba silaba dela*, ez banaketa zeinu bat (*interpunción*), transliterazioan adierazi den bezala.

## VIII-2 Kutuna (zintzilikarioa, zinginarria), eskuaren aurrekaria?

- **kutun:** Aldean eramaten den gauzakia [...]; bereziki, haur txikiek bularrean eramaten duten zorrotxo, barnean gauza bedeinkaturen bat edo idatziren bat duena.

Iturria: L. I. Azcona



Gure ikerketaren jardunean, L. I. Azconaren argazki horrekin egin dugu topo. Ez da Gorrochateguik aipatzen dituen lekukoetako bat (EH 244), eta ez dago Hesperia datu-basean. 2015ean agertu zen –eskuaren aurretik–, *El ibérico lengua uskeika* liburuan: Cascanten bide du jatorria, K.a. II. mendekoa, iberikotzat hartua.

Argazki originala –bakarra– arean argituta erakusten dugu. Xaflak (brontzezkoa) higadura edo uradura batzuk ditu, baina zeinu ia guztiak ongi irakurtzen dira.

Bigarren lerroko azken zeinua ez dago osorik: agerian den zatiak **l** itxura du metalean dauden akatsengatik, baina **n** izan daiteke, lehenengoa bezala. Bestalde, xaflak ezker aldean uradura bat duen arren, baina hiru lerroak zentratuta irarrita daudenez –ongi planifikatuta, lau zeinu lerroko–, pentsa daiteke ezen ez dela zeinurik

falta hirugarren lerroaren hasieran. Pieza honek moldean-edo egina dirudi: beheko sigi-saga erako marrazkia eta euskarrirako zulogune fina.

Deigarria da hasierako: **ma**. Objektu pertsonala izanik (kutuna, zintzilikarioa) iradokitzen digu **ma** hori *musu*-rekin erlazioan egon daitekeela, edo agian kutuna bera izendatzeko hitza. Ondoren **ki** eta lerroko azken zeinuak **a** itxura du, forma berezikoa, eta jarraian **u** bat dagoela ikusita, horrek zer pentsatua ematen digu.

Mitxelena (1976, LH 384), Tovarren *-a, -ar* artikulua posible baten inguruan:

- «Más de uno se inclina a pensar que la existencia de un auténtico artículo en vasco antiguo, y *a fortiori* en ibérico, parece un anacronismo. Cabe suponer, sin embargo, que **el demostrativo**, si se trata efectivamente de uno, no había perdido toda su fuerza propia y no se había reducido a artículo: al fin y al cabo, lat. *ille*, que estaba lejos de ser un artículo, es el antecesor del rom. *el, il, le*, etc., y las relaciones entre el artículo vasco y el demostrativo de 3ª persona son bien conocidas.»

Aurrerago ikertuko dugu gehiago –batez ere testu eder hori azaltzeko– zeren eskuko *vasconic* bada hau ere bada, zalantza barik, ikusten dugunaren arabera.

Baina oraingoz benetan garrantzitsuena zera da, eskuak idazkeraren erabilera frogatzen bazuen kutun honek are gehiago argitzen duela testuingurua, eskaintzen duen informazioa kontuan hartuta: objektu pertsonala da, hornigarria, ez dakigu norentzat zen, emakume, neskato-mutiko, agian umeei jartzekoa... Testuak lagundu diezaguke. Nolanahi ere, gizarte bizitzako elementu bat da –ez da *tesera* bat–, ez bakana erreparatuta zein txukun diseinatuta dagoen eta zeinuak zein egoki dauden kokatuta, etab. Bada, harrietako idazkunak garrantzitsuak badira pieza horri askoz baliotsuagoa deritzogu, harribitxi bat.

Ikerketa eta testuaren interpretazioa: [Barskuner Gida, 117. or.](#)

## Eskuarekiko problematika

### Atariko

Irulegiko Eskuaren agerpena (2022) gertakari itzela izan da, ez bakarrik ikuspuntu arkeologikotik, artefaktua bera, baizik eta batez ere testu bat daukalako. Testu horrek orain bi mila urteko mezu bat duela kontuan hartuta, ulergarria da hasierako zalaparta mediatikoa eta bai jende askoren gogo-bihotzetan eragindako zirrara. Baina gertakariaren albistea lau haizeetara zabaldu ondoren, eta denbora aurrera doalarik, nolabaiteko barealdia etorri da, ez baita gauza berririk esateko eta jada esanda daudenak errepikatzen jarraitzea ez da gertatzen interesgarria. Horrela, oraindik hitzaldiren bat edo beste antolatzen da, baina jarraipen maila apalarekin, ez dago-eta ezer berririk.

Beraz, esan dezagun lehenengo kapitulua bete dela: aurkikuntza pozgarria eta eskuaren berri mundu guztira zabaltzea. Gurea bai zorte handia, a zer nolako altxorra! Orain bigarren parte geratzen da, testua edo mezua deszifratzea. Baina hori, sumatzen denez, arazo gordina da eta ez da ikusten aurrerakuntzarik. Ofizialki testuaren alderdi linguistikoa argitzeko adituak hitzaldietan aitortzen duenez ez du ikusten argi izpirik, askotariko zalantzak eta arazoak baino ez. Eta beste maila batzuetako euskalariak edo adituak itxuraz ausartu ere ez dira egiten hain itzaltsua ageri den eremuan sartzen. Ez dago eztabaida linguistikorik maila akademikoan.

Baina egoera hau ezin eternizatu daiteke. Arriskua dago gure hizkuntzalaritza leku txarrean geratzeko, ez-gaitasun agerikoagatik. Historia luzeko ikerketak, ikertzaileak, bildutako materialak, ondutako teorizazioak..., horiek guztiek ez badute balio eskuko testua argitzeko, hasierako altxor izugarria gure hizkuntzalaritzaren ahuleziaren ikur bilaka daiteke. Euskalarien porrot handia.

Badago beste faktore bat ere, aipatzea komeni ez dena, baina erreala. Eta da artefaktu hori oso deserosoa gertatu dela zirkulu batzuetan. Kasurako, eskuak suntsitu egin dezake urte askoan eraikitzen joan den euskalduntze berantiarraren teorizazioa eta horrek berarekin dakarren desmuntaketa ideologikoa, euskaldunena esan nahi da. Lan asko egin da sektore batzuetatik gure "mito" batzuk desegiteko: euskara hemen nahiko berria dela (gu, alegia), V-VI mendeetakoa, Akitaniatik etorria, eta abar<sup>1\*</sup>. Gure telebistak finantzatu eta hainbat bider errepikatu dizkigu dokumentalak, kapituluka, egitate horietaz jabetu gaitezen. Beraz, badago faktore ideologiko bat ere, gizarteko beste arlo gehienetan bezala. Eta, ondorioz, eskuarekiko lanean denak ez dira –eta ez dira izango– borondate oneko keinuak, ez adierazpenak, ez oztopoak gainditzeko laguntzak, edo eztabaida neutralak, zientifikoak, edo akademiko hutsak.

Bada, eskuko testuaren interpretazioa plazaratu dugun bezala, eskuaren inguruko problematikaren jarraipen bat egitera ere abiatuko gara, iluna omen den egoeran ea argi izpi batzuk kokatu, arazoak-edo identifikatu eta testuingurua bere ikuspegi lausotik ateratzeko balio duen.

J. Butroe, 2023ko udaberrian

---

<sup>1</sup> \* (Mitx. 1961, LH: 450) Lo irónico del caso consiste en que, cuando no hace mucho se trataba de presentar el vasco de Francia como una penetración tardía desde España [...], se ha llegado casi ahora a invertir los términos y a hacer del vasco de España un exiguo apéndice cispirenaico del aquitano.

- **problematika** iz. [Jarduera edo alor jakin bati dagozkion arazo](#)en multzoa.
- **aditua**. Gure adieran: [hizkuntzalaria](#), [ikertzailea](#), [hizkuntzan berezilaria](#).
- [Zenbakizko ordenamendua ez doa lotuta faktoreen garrantzi mailarekin](#).

Problematikan murgildu baino lehen, hona faktore positiboen konpendio bat.

- **Faktore positiboak**

1. **Aztarnategian aurkitua**. Eskua ez da agertu modu ez-kontrolatu baten bidez (merkatu beltza, bildumatzailleak...).
2. **Prozesu zaindua**. Lurpetik nola atera den edota laborategian nola garbitu den (zeinuak agerrarazteko), prozesu guztia bermatu dute Aranzadikoek. Ez da utzi zalantzarako edo erasoetarako zirrikiturik.
3. **Dokumentazio bikaina**. Jendaurrera ateratzeko transliterazioa panel moderno eran jarri dute, zeinu estandar zehatzekin –eskukoak artesanalak dira–, testua modu ahalik eta era fidelenean jarrita.

Baina are gehiago: ikerketan lagungarria izan dadin brontzezko xaflatik bereizita eman dira, modu digitalean, marradurak eta puntuak, zehaztasun handiz, eta horren argazkia eskaini da: eskuaren siluetaren grafikoa, testu soilarekin. Orobat, xafla berdetu baina garbituaren erresoluzio handiko irudia ere. Teknikoki, zalantzak argitu eta ikerkuntzari laguntzeko bitarteko ezin hobekak dira grafiko horiek.

4. **Testua, adituen lana**. Alderdi arkeologikora mugatu dira Aranzadikoak, ez dute intromisiorik egin testuaren alderdi epigrafikoan edo linguistikoan. Hori, funtsean, bi adituen esku utzi dute: J. Velaza (epigrafia) eta J. Gorrochategui (linguistika). Orain arte eman dituzten aurkezpenetan edo hitzaldietan roll horiek bete dituzte. Eta Aranzadik ateratako azalpen-materialetan ia ez dago testuaz edo hizkuntzaz erreferentziarik.
5. **Testua, pieza osoa**. Beste material askotan gertatzen denaren aldean, eskukoa testu osoa dela ez du inork ukatzen. Lau lerro horiek testu oso bati dagozkiola ziurtasunez esan daiteke, horrek duen balio itzelarekin\*.
6. **T zeinua**. Testuko zeinuen artean, itzelezko zortea hori ere, T zeinua dago, ezaugarri identifikatzaile oso baliotsua. Zeinu horrek berak bakarrik balio du eskuko hizkuntza identifikatzeko edota, bestela nahi bada, zein hizkuntza ezin izan daitezkeen zehazteko: ez da zeltiberiera, ez da iberiera. Eta aukera bakarra geratzen da.

---

\* Bada brontzezko beste pieza bat, kutun edo zintzilikario bat, jatorria Cascanten-edo duena, oso baliotsua hori ere. Ikus Oharrak VIII-2 edo ► [materialak](#).

## 1. Faktore problematikoak

**Transliterazioko *istripuak*.** Eskuan badago berezko *istripu* bat, testua grabatu zenekoa, “*n* galdua”ren kontua. Itxura guztien arabera, leku gabe geratu ziren 2. lerroko testua osatzeko eta azken zeinua lerroaren gaineko espazioan kokatu behar izan zuten. Zeinu hori zein lerrori dagokion ziurtasunik ez denez, badaezpada bi tokitan jarri da: kakoekin egoki adierazi dira *n* horren kokagune posibleak.

Arazoak beste bi lekutan daude. Lehenengoa ez da oso garrantzitsua, baina ez du laguntzen, eta da lehen lerroaren amaiera (*interpunción*) markatzen duena. Transliterazioan hori adierazi da, baina grafikoak (irudiak) arretaz aztertuta garbi dago ez dagoela azpian marradurarik, beste kasu guztietan badauden bezala.

Bigarrena bereziki garrantzitsua da: zeinu bat desagerrarazi da, *ba* silabarena, 3. lerroan. Eta silaba horren lekuan banaketa adierazi da, oker. Eskuaz ematen den dokumentazioan 40 zeinu dituela esaten da, baina irudiak argi eta garbi erakusten duenez, *ba* zeinua dago hor; 41 garrena, nahi bada. Gure interpretazioan ezinbestekoa gertatu zaigu, hori gabe lerroa kamuts geratzen baita, zentzu gabe.

Bada, eskura etorrita, faktore problematikoak bi mailatan kokatzen dira: batetik, **hizkuntza**; bestetik, **testua** bera.

## 2. Hizkuntzaren problematika

Hizkuntzaren faktorea funtsezkoa da, zeren euskararekiko lotura zalantzan jartzea lortzen bada, alegia ez dela euskara, orduan alferrik izango da testua argitzen saiatzea eta iberierazko idazkunekin gertatu ohi denez adituen eztabaida amaitezinerako geratuko da: deszifraezina.

2.1 Ezin da esan hizkuntza euskara dela.

2.2 Euskara izatea, ezinezkoa.

2.3 Eskuko hizkuntza, iberiera?

2.4 *H*-aren problematika.

## 3. Testuaren problematika

Hizkuntzarena ebatzi ezean ez dago testuaren interpretazioan murgiltzeko aukerarik. Alegia, hizkuntza ezezaguna dela ebatziz gero, orduan zertarako saiatu ere egin testuan ezer ulertzen? Bada, testua argitzerakoan hizkuntzarena ere gurutzatzen da nola edo hala, ikusiko dugunez.

3.1 Testuko bi egileen faktorea.

3.2 Zeinuetako gorabeheren faktorea.

3.3 *Zorioneko*-rekin katramilatuta.

3.4 Ez da ulertzen e-zer!

## 2. Hizkuntzaren problematika

### 2.1 Ezin da esan hizkuntza euskara dela

Kontu handiz, beldurrez ia, iradokitzen da eskuko testua euskara izan daitekeela, tabua bailitzan. Horren orde, *vascónico* izan litekeela esaten da, lehenagotik erabilitako terminoa eta eskukoa izendatzeko aukeratu dena.

Aditu askok erabili izan dituzte *vascónico* edo *aquitano* terminoak. Bat aipatzearren, Vennemann: *Europa Vasconica-Europa Semitica* tituluko bilduma handia, 2003. Horretaz, hona Lakarraren iruzkina (2020, EH: 57):

- Erteuropako antzinako hidronimia aitzineuskararekin bat datorren hizkuntza stock bati lotua dela erakutsi nahi zuen, euskaldunak ginelarik indoeuroparrera aurreko Europaren oinordeko bakarrak. Haren ustez, K.a.-ko X. milurtekoaren inguruan ba omen zen hedadura erraldoiko hizkuntza-familia bat, izotzetik kanpora zen ia Europa osoa beteaz eta horren ondoko moderno bakarrak (euskarak) Bizkaiko Golkoaren inguruetan iraun omen du; hortik egileak delako familia horri «*Vasconic*» deitu izana.

Mitxelenak *vascónico* terminoa aspaldi erabili zuen (1951), baita *aquitano* ere:

- (4, 10, 16) («Ummesahar, hijo de Narhungen, a su hijo Abisunhar»), pero acepta sin discusión el carácter «*aquitano*», que ahora podemos llamar con todo derecho «*vascónico*», de los nombres... / Si éstos (*au-*, *-u-*, *-u*) son, aunque sólo sea pasivamente, *vascónicos*... / Tenemos, de una parte, un *Andia vascónico*...

Horiek erreferentziatzen hartuta, agerikoa da *vascónico* eta *aquitano* terminoen bidez garai bateko eta toki bateko hizkuntza moldeak izendatu nahi direla: **antzinako garaia + eremu geografikoa**. Izen horiek ez dute beste tasunik, hala nola hizkuntza bereziak izendatzea. Bestela, ez lirateke ulertuko adierazpenok (LH):

- (157) Lo que sí quiero subrayar, porque acaso no se insiste lo bastante sobre ello, es que **en el pasado la lengua vasca**, hasta tiempos muy recientes, no ha conocido más que un momento en que el **riesgo de desaparición fuera inminente: la época romana**. Erromatarren garaiko «euskal hizkuntza», bai Vasconia aldean eta bai Akitania aldean, ez dago zalantza handirik zeini buruz ari den. Hona iruzkin hauek ere:

- (198) Por diferentes que sean entre sí los dialectos vascos, nadie duda de que sean vascos, es decir, en términos historicistas, representantes de **una lengua**.

Zeren Akitania aldekoa izendatzerakoan (LH):

- (204) Este es también el caso, fuera de la Península, de **la Aquitania éuskara**, sólo que aquí no encontramos más que nombres propios en textos latinos.
- (1954, LH: 411) Esta identificación *aquitano = vasco (ant.)*, aceptada en general con más o menos restricciones por los lingüistas que se han interesado por la cuestión, ha tropezado, y quizá tropieza todavía, con la actitud ligéramente escéptica de algunos. [...] Están en el primero los que creen aún que cuanto mayor es la semejanza entre los significantes de dos lenguas, tanto más segura es su identidad originaria<sup>6</sup>, punto de vista que no creo exija más amplia discusión.
- <sup>6</sup>Por ejemplo P. Lafitte\* [...] para quien no basta con que algunos nombres aquitanos “suenen” a vasco para relacionar estrechamente ambas lenguas. Pero nombres como *aquit. Andere, Nescato* no suenan simplemente a vasco, sino que “son” vasco a secas.

---

\*Hitzaldia, 1943.

Baina ikus dezagun zer dioen Gorrochateguik (2020, EH):

- (722) El vascónico y el aquitano son dos variedades lingüísticas regionales [...] **que constituyen las fases previas de la lengua vasca.**

Horren arabera, protoeuskara edo aitzineuskarako adituak, oharkabeen, ez ote dira arituko akitaniera edo baskonikoa ikertzen edo berreraikitzen?

- (724) Con el término *vascónico* (inglés *Vasconic*) queremos identificar la lengua de los antiguos vascones, **diferenciándola del vascuence o vasco histórico** (*Basque*), cuyos testimonios se documentan desde la Edad Media [...].
- Tanto el aquitano como el vascónico presentan unas estrechas y exclusivas relaciones lingüísticas con la lengua vasca histórica, de modo que no hay duda en clasificarlas como lenguas o variedades pertenecientes a la misma familia.

Azken esaldian harrigarria da irakurtzea horiek *familia* bateko hizkuntzak direla, euskarak ahaideak dituela, beti esan izan baita isolatua zegoela. Baina hori jarraian:

- Por otro lado, es ampliamente aceptada la idea de que la lengua vasca es una lengua aislada desde el punto de vista genético, **sin parentesco** probado con ninguna otra lengua del mundo, a pesar de los numerosos intentos habidos en los dos últimos siglos por relacionarla **con diferentes lenguas y familias.**

Adierazpen kontrajarri horietatik zein konklusio atera? “Lenguas o variedades” kontzeptuak ez dira inondik ere parekagarriak; kasurako, bizkaiera edo zuberera ez dira *familia* bereko aldaerak baizik eta *hizkuntza* berekoak. Beharko luke: “no hay duda en clasificarlas como variedades pertenecientes a la **misma lengua**”, baina ez da hori adierazi. Mitxelenak “grupos de lenguas” terminoa erabiltzen zuen, hizkuntza taldeak, zertarako eta zentzu kronologiko-geografikoa zehaztearren.

Zuzenagoa dateke *Akitaniako euskara arkaikoa* eta *baskoien euskara arkaikoa* deitzea –greziera zaharra eta greziera modernoa bereizketa bezala–. Alegia, zer da *vascónico*: baskoien garaiko euskara, hots, euskara arkaikoa, hots, euskara. Guk *barskuner*a terminoa ere erabili dugu, *barskunes* txanponeko legendan oinarrituta, baina ez dugu zalantzarik txikiena ere izan eskuko testua euskara dela.

Baina aditu ofiziala, hitzaldietan ere, indefinizioan mugitzen da. Eskuarekiko azalpen batzuetan “lengua vasca” terminoa erabili beharrean gertatzen da, baina ahal duen oro identifikazioa *baliteke* mailan uzten du, edo saihestu egiten du.

- (► [Iruñea, 2022-12-29](#)) (58:35) «Tenemos una lengua vasca, **si pensamos que esto es vascónico**; yo pongo siempre el condicional, **si** [...]. Es una hipótesis».

Tankera bertsuan bigarren saioan. (► [Donostia, 2023-02-10](#)):

- (1:00:29) «Hay **una posibilidad** de que pueda estar redactado en lengua vascónica.»
- (1:10:58) «La aspiración. Es una característica que sabemos en Aquitania y en Vasconia **caracterizaba a la lengua del lugar** y que no existe en celtibérico, ni existe en galo, por lo que sabemos tampoco existe en ibérico. Esta es una clara característica de **la lengua**».

Zein da *la lengua* edo *la lengua del lugar*? Ezin al da esan euskara dela?

Aldiz, ingelesezko wikipedian ez dute erreparorik zein hizkuntza den argi esateko: *The Hand of Irulegi is the oldest surviving example of the **Basque language**.*

## 2.2 Euskara izatea, ezinezkoa

Eskuko lehenengo hitza “zori on” izan arren –edo agian ez, testuaren azterketan ikusiko dugunez–, badirudi horrek ere ez duela laguntzen hizkuntza identifikatzeko. Izan ere, euskararena misterio handia da, baina ez nondik datorren, baizik eta nola lortu duen irautea gaur arte.

J. Abaitua adituak, bere *Trifinium* blogaren atal bati honako sarrera jarri zion (2022ko azaroa):

- *Lo siento, pero ese texto no está en ‘eusquera’*. Alguien tiene que decirlo. **Si ese texto hubiera estado en euskera, el euskera habría desaparecido**. Habría desaparecido el euskera como desaparecieron las lenguas celtibéricas, o el ibero mismo. Nadie en territorio vascón habría sido capaz de entender ese texto en el siglo II d C. Para entonces esa lengua había desaparecido. [...] **La mano de Irulegui está en otra lengua**, emparentada de una u otra forma, pero desde luego no antecesora directa del euskera histórico.

Gure hizkuntzaren gatazka existenzialaz, askotan egin izan dira aurrikuspenak. Hona Mitxelenak (1982) aipatzen duena, G. de Humboldt-ena (LH 213):

- Sobra subrayar que **la lengua vasca, el euskara** según su propio nombre, **es y ha sido conflictiva**. Su misma longevidad, **su supervivencia** hasta el día de hoy, **supone conflicto**: no olvidemos que ha sido para todos fenómeno sorprendente, ya que según cualquier previsión razonable debía de haber dejado de hablarse hace más de milenio y medio (y me quedo corto en la estimación) [...]. Cito tan sólo un pronóstico reciente, elaborado por persona autorizada [...], ya que lo formuló Guillermo de Humboldt hace más de 150 años: **para 1900**, opinaba, no iba a quedar de la lengua vasca más de lo que se hubiera llegado a fijar por escrito.

Horregatik, dio Abaituak, Irulegiko Eskuko testukoa ezin da izan euskara, beste zerbait baizik. Baina hizkuntzak halako jarraipen historiko bat dira, denboraren joanean aldatuz doazenak; Mitxelenak (1981) hitzaldi batean, Madrilén (LH 89):

- **La lengua** [el latín], esa “lengua histórica” para emplear el término de Coseriu, **ha cambiado**, porque no podía menos de cambiar, dado que no era idéntica al Uno eterno, indivisible e inmutable, sino una apariencia cambiante del mundo de los fenómenos. [...]

Siento tener que desengañar [...] a los bien y mejor intencionados admonitores que nos advierten del peligro de que la lengua vasca siga los pasos del latín que, a pesar de su gloriosa historia, ha desaparecido de la faz de la tierra como lengua normal y diaria. **Lo único que puedo decir** a estos agoreros [...] **es que en este momento estoy hablando**, aunque acaso no debiera, **latín**: un latín un tanto peculiar desde el punto de vista ciceroniano, hablado en 1981 y aquí, en este país que sigue romanizándose, aunque el proceso empezado hace más de dos milenios no acabe de cerrarse.

Orduan, diotenez, euskara ezin bada izan, *vascónico* izango da. Bada, ez dago batere argi. Gure interpretazioaren harira aditu iberista batek honakoa idatzi zigon:

- Las posibilidades de segmentación y de relación con unas u otras palabras vascas se multiplican exponencialmente, y **eso suponiendo que sea vascónico, que creo que ya es mucho suponer**.



### 2.3 Eskuko hizkuntza, iberiera?

Ezaugarriek (*zori on*, T zeinua...) batere laguntzen ez dieten arren, aditu batzuek interes handia erakusten dute eskuko testua iberikoaren eremura eramateko, beste alternatibarik (eusgara) ez dagoela argudiatzen saiatuta.

Gure ikuspuntutik, ordea, beste intentzionalitate bat izan dezake interes horrek eta da testuaren interpretazio posible oro blokeatzea, ezagutzen diren iberierazko beste idazkun asko bezala interpretatu ezinako testu paleohispanikoen inbentarioan geratuko bailitzateke, adituen eztabaida linguistiko amaigabeetarako tresna gisa, eta beste zaletu askoren entretenimendurako.

- Abaitua (► [Gasteiz, 2023-03-21](#)) (26:01): «Tampoco es muy razonable encontrarse con un “zorioneko” (sic) en un texto paleovasco\* de 2.100 años de antigüedad. Hay motivos, por tanto, para dudar de lo que Velaza presentaba como un rasgo probable de vasquidad [...] de vasconidad [...]. Entonces, ¿en qué lengua está la Mano de Irulegui?, ¿qué lengua es el vascónico? [...]. Entonces, **la alternativa que nos queda es el ibérico** [...] pero advierte Gorrochategui, tampoco esta opción está exenta de dificultades...»

Geroago aztertuko dugu *zorioneko*-ren tergibersazioa argudio moduan baliatzeko. Baina adierazpen horretan –eta beste batzuetan– argi ikusten da eskuko hizkuntza iberieraren corpusean jartzeko ahalegina.

B. Urgell aditua ere, interview batean, bide horren aldeko agertu zen: «Besteak beste, iberistekin lan gehiago egin behar dugu, idazkera eurek menderatzen dutelako.»

Egin dezagun iberieraren ikerketa labur bat, egoera zertan den argitzearren.

Euskara-iberieraren aurrekaria "vasco-cantabrisimo" teoria zaharra izan zen; hori ordezkatzera etorri zen, batik bat Humboldt-en eraginez, eta Schuchardt-ek eman zion bultzada. Baina aspalditik dago kolokan:

- (G. Bähr, 1948: EH, 37) Si echamos un vistazo a todo el material aquí tratado, tenemos que llegar a una conclusión negativa: **no hay pruebas para afirmar que el vasco está relacionado con el ibérico** o que incluso continúa una lengua ibérica.

Joan den mendearen erdi aldetik gora, besteak beste A. Tovar hizkuntzalari ospetsua ere murgildu zen "vasco-iberismo" teorian. Eta garai hartako giroan Mitxelenak ere sakontasunez ekin zion iberierazko materiala ikertzeari eta oraindik iberiera-euskara erlazioa frogatu nahian ontzen diren txosten askotako baliabide gertatzen dira beraren analisi mamitsuak. Baina hona zer ondorioztatu zuen:

- (1955, LH 365) Es un hecho, **demostrado** cada día por la imposibilidad de interpretar los textos ibéricos por este medio [método comparativo], **que el ibérico no es la forma antigua del vasco ni una lengua emparentada próximamente con él**. Queda, con todo, la circunstancia de que ciertos elementos que leemos en esos textos nos traen a la memoria otros vascos, y que es perfectamente posible que algunos sean idénticos, **por intercambio entre ambas lenguas, no por parentesco**.

---

\* Lapsusa agian, iberisten terminoa *paleohispánico* izanik, baita Gorrochateguik berak ere. Erabilitako terminoak beti ez dira izaten neutralak, askotan konnotazioak izaten dira tartean (los hombres ≠ las personas...). Beraz, esanguratsua da zer hautatzen den: *Hispanoamérica*, adibidez, ez da kontzeptu geografikoa; era berean, eskukoa ez da *texto paleohispánico* bat.

Tovar (1981):

- El vasco-iberismo fue revisado por varios de nosotros (Bähr, Caro Baroja, Mitxelena, yo mismo) y pareció conveniente negarlo.
- Si el ibérico fuera una forma antigua del vasco, el léxico de unas mil palabras que tenemos del ibérico sería mucho más inteligible, como lo son esos elementos en las inscripciones aquitanas o vasconas.

J. Velaza (1996):

- La evidencia más clara de que el ibérico no es el vasco antiguo reside en el hecho de que aquel no puede traducirse con el apoyo del vasco medieval y moderno.

Lakarra (EH, 41):

- Euskara-iberiera konparaketen historian nabarmena da erkagaiei eskatzen zaien egokitasuna igo ahala [...] ustezko antzekotasunak etengabe urrituaz eta desagertuz doazela. Tovarrek berak 1954an “bastante o muy dudosos” deitzen zituen [...], “probables” ziren harentzat [...]; “seguros”, azkenik, *-tar*, *-en* genit., *seldar*, *lagun*, eta *ld > ll*. De Hozen (2011)-ko bilaketa ezinbestez zehatz eta eguneratuagoan euskara-iberiera kognado segurutzat ez da alerik aurkezten (ezta bakar bat ere) eta eztabaida sakonagorako bigarren aukera bat merezi luketenak ez dira dozenara ere heltzen.

De Hoz (2011, 323):

- El balance de lo que sabemos **del léxico ibérico** es resumible en pocas líneas. Hay algunos términos repetidos con frecuencia suficiente como para que podamos identificarlos como tales, sin que ello nos permita presumir siquiera su significado.

Edo Gorrochateguien beste hau (EH, 724):

- [...] de modo que la **lengua vasca ha resultado de nulo o escaso valor para avanzar en la comprensión del ibérico**, a diferencia de lo que ha ocurrido en el campo celtibérico, cuyas inscripciones han recibido aclaración a partir de la comparación con otras lenguas célticas y de la gramática indoeuropea.

Bigarren partekoa irakurrita iruditu lezake idazkun zeltiberoak deszifratu egiten dituztela, baina ez da horrela inondik ere. Asko daude, eta irakurri (zeinuak) irakurtzen dira (“no presenta problemas de lectura”), baina idazkunek zer adierazten duten, ulertu, ezer gutxi. Botorritakoaz, L. Núñez (112): «Salvo pequeños detalles, el texto no se entiende. [...] Cuanto más largas son las inscripciones celtibéricas, tanto peor se entienden.»

- Mitxelena (LH, 336): En esta últimas [celtibéricas], sin embargo, su adscripción evidente a una familia lingüística bien conocida [indoeuropea] permite **una cierta comprensión** de la dirección general de las frases, **por decirlo así**, con lo que se obtiene por lo menos **una idea del carácter de los textos**.

Ondorioak laburbilduz: eskuko testuak iberierarekin izan dezakeen erlazio bakarra idazkera da, erabilitako zeinutegia. T letraren berezitasuna salbu, signarioa iberieraz ere erabiltzen zena da, baina antzinate hartan sistema hori hedaturik zegoelako, ez dago bestelako loturarik. Zeltiberierazko idazkUNETAKO zeinu sistema ere funtsean hori bera da, hizkuntza arras desberdinak izan arren: zeltiberiera (Iberiaiko zeltikoa) indoeuropar

leinukoa da; iberiera eta *vasconikoa*, aldiz, ez-indoeuropar leinukoak. Beraz, berriz esango dugu: eskukoa ez da zeltiberiera, ziur; iberieraren eremu geografikoa beste bat da, ekialderantz; ezinbestean eskukoa barskunera da.

## 2.4 H-aren problematika

Ikusi dugunez, eskuko testua identifikatzeko arazoak daude hizkuntzarekin edo idazkerarekin lotuak. Orain arteko hitzaldietan balitekeela *vascónico* izatea, baina zalantzak eta zalantzak. Ezaugarri bat behar dela testuko hizkuntza argi eta garbi identifikatzeko, eta hori da aspirazioa, hasperenketa, *h*-a. Baina ez da ageri.

- Gorrochategui: (► [Iruñea, 2022-12-29](#)) (1:08:55) [150 años más tarde hay] «... nombres de persona vascónicos que no tienen duda de que lo son, porque muestran **determinados sonidos que sólo tenía la lengua vasca, entonces, y lo digo por ejemplo, la aspiración**. Si nosotros encontramos en esta mano un signo que fuera la aspiración yo ya estaba tranquilo, pero ¿qué le pasa al sistema ibérico? [zeinutegia], que no anota la aspiración. Para eso el sistema latino, el alfabeto latino nos vale más que el sistema ibérico. Esto [testua] no marca la aspiración.»

Esana dugu oharretan (IV-4) testuan *h* bat identifikatzen dugula, *kebe-eki* segmentuak bereizten dituen elementu ikusezin bat, baina *-e e-* bokal berdinak elkartu daitezten uzten ez duena, *hekin* erakuslea dela ulertzen duguna. Baina begien bistan ez dagoenez, agerian, ezin dute detektatu. Baina hortxe dago.

- (► [Donostia, 2023-02-10](#)) (1:26:56) «La segunda línea es verdaderamente oscura, porque no tenemos un modo de dividir. Un indicio de dividir es que después de *tenekebe*, como la siguiente empieza por *e-*, **ahí mismo hay que hacer un corte**, porque no se puede poner un silabograma que en sí misma lleva la vocal y la siguiente palabra si empieza por vocal, es que ahí hay un corte. Pero, claro, es un lugar problemático [...], porque debajo de esa *be* parece que quizá hay una *ř*. Por lo tanto, otro problema.»

Zeinuen gorabehera hurrengo atalean (3.1) azaltzen dugu, eta ez dugu batere arazorik ikusten *be* zeinua eta silaba dela onartzeko.

Deigarria da testuan agerian ez dagoen ezaugarri batek zer-nolako kezkak eragiten dituen, batik bat testuko hizkuntza identifikatzeko; *zori on*-en arrastoa edo laguntza ez da nahikoa antza, ez bada *zori* elementua ere *-r*-aren arazoagatik– zalantzazkoa izan daitekeelako, gero ikusiko dugunez (3.4).

Nolanahi ere, Abaituak beste enfoketara eman zion *h*-aren aferari. Testuan *h*-ren bat balego markatuta agertu beharko litzateke, nahiz eta zeinutegian ez egon horretarako zeinurik. Beste moduren batean markatuko zuten:

- (► [Gasteiz, 2023-03-21](#)) Etxeparek *zori honian h*-rekin idatzi zuela-eta, zera adierazi zuen (25:03): «Lo que desconcierta es que el *sorioneko* (sic) de la mano de Irulegui (horrela idazten du) no tenga esa *h*, un rasgo tan distintivo del euskera antiguo».

Amaieran, entzule batek planteatutakoari erantzunez (55:01), zehatzago. Abaituak: «En la Mano de Irulegui no hay haches». Entzuleak: «Si las hubiera tampoco se marcarían en signario ibérico». Eta Abaituak: «O sí, con oclusivas, lo que sea, ¿no?».

Hain zuzen, testuari erreparatuz gero hor dago *kebe*.

Beraz, badakigu *h*-a bazela antzinako euskaran, latin alfabetoa erabiltzen hasi zirenean harrietako idazkUNETAKO izenetan *h* ugari azaleratu zirelako, latinak bazuelako zeinu hori. Ostera, ez da ageri *h*-rik ez iberieraz ez zeltiberieraz. Eskuan ere ez dago agerian, nahiz eta *h*-dunak izateko hautagai batzuk badauden; baina gutxienez kokagune batean oso erraz dago antzemateko, bistan ia.

### 3. Testuaren problematika

#### 3.1 Testuko bi egileen faktorea (Gorrochategui)


Oraindik (2023ko maiatza) eskuko testuari buruz Aranzadik ez duenez ikerketarik argitaratu, faktore honen iruzkinerako antolatu izan diren hitzaldietako adierazpenetan oinarritzen gara, Iruñekoa eta Donostiakoa.

Bi hitzaldietan testua ikertzeko funtzioan dagoen J. Gorrochategui “grabatu bikoitza”ren arazoaz aritu da, zailtasunetan hori faktore garrantzitsua dela esanez:

- (► [Donostia, 2023-02-10](#)) (56:15) «...**la doble fase de grabación del texto**, el grafiado y el punteado. Y hay diferencias [...], creo que hay un par o tres de signos no coinciden exactamente entre el que grabó la primera versión y lo que punteó el segundo al final. [...] El segundo ¿cometió un error y por lo tanto hay que dar credibilidad al primer testimonio? [...] No podemos saber quién tiene más autoridad [...].»
- (1:24:45) «Primero tenemos **el problema de las dos fases de redacción** y el *zorioneku* [...] el punteado dice *ku* pero el esgrafiado dice *ke*. Entonces, ¿con qué nos quedamos, con *zorioneku* o con *zorioneke*? Este es un problema. [...] Esto es un silabario, no tenían ninguna posibilidad para escribir una *k* o una *g* en posición final, sólo [...], tenía que escribirse siempre con una vocal. En realidad, ¿pueden estar diciendo lo mismo **el que escribió debajo y el que escribió encima** [...]? Tampoco lo sabemos.»

Aditzera ematen du bi pertsona aritu zirela testuan, eta kontraesanak daudela horregatik: (ustezko) lehenengoak egin zituen marradurak eta (ustezko) bigarren batek puntukatu zuen testua, eta kontraesanak daude; ondorioz, horrek oso problematiko bihurtzen duela testuaren irakurketa eta interpretazioa.

Ordea, gure iritzian Gorrochateguik aipatzen duen arazo hori ez da erreal. Gure ustez, testuaren atzean ez daude bi egile, bata marradurak egin zituen eta bestea puntuen egilea, egile bakar bat baizik prozesu osoa burutu zuena. Xehetasun formalean ikertuz saiatuko gara hori erakusten. Errepara diezaiogun eskuko testuaren grafiko honi, ea zer izan daitezkeen koloreetan seinalatutakoak.



Hiru koloretan nabarmendu ditugu zeinuen marretan dauden gorabeherak.

Lehenengo, **gorriz** seinalatu ditugun marra-hutsuneei erreparatuko diegu. Hots, ikusten dena da puntuen azpiko marradurak falta direla zeinuen osaketaren zatiren batean eta, hala ere, zeinuak behar bezala puntukatu dira, osorik. Bestela esanda, marradura erreferentziarik ez zegoen zeinu zatietan ere puntuak non kokatu behar ziren ongi zekien puntu egileak.

Orain begitu diezaiegun kolore **beilegiko** markatxoei. Horiekin lau zeinutan soberako marratxo horizontal batzuk seinalatu ditugu. Erreferentzia gisa eginda dirudite, ez baitute loturarik zeinuen osaketarekin. Behar ez diren edo soberako marratxo horien zergatia lehen lerroan aurki dezakegu: biribilean seinalatu dugun zeinua. Gaizki diseinatuta edo proportzionatuta dago,  $n$  horren diagonal beheraino iristen baita, luzeegi, trakets xamar; berdintsu laugarren zeinuan ere ( $i$ ), baina ez da hain nabarmena. Trakets " $n$  galdua" ere, bazterrekoa. Alegia, zeinu batzuek ( $n$ ,  $\acute{r}$ ,  $be$ ) bi parte dituzte, erditik gorakoa eta erditik beheakoa eta nabaria iruditzen zaigu hurrengo lerroetako marratxo horizontalen bidez erdi-puntua seinalatu dela, erreferentzia bat jarri da hortik behera ez joateko. Jakina, puntu egileak ongi zekien horietan ez zuela punturik markatu behar, ez baitira zeinuen osagaia. Beste norbaitek eginiko marren jarraitzaile izan balitz hondatuta utziko zituen zeinuak, baina argi dago bazekiela zertan ari zen.

Azkenik, biribil **urdineko** zeinuak aztertuko ditugu. Marraduren arabera zeinu berbera dirudite, baina puntuen bidez bi zeinu ( $be - \acute{r}$ ) bereizi dira, behar bezala. Kasu horretan ere nabari da puntu egileak ongi zekiela zer idatzi behar zuen.

Hortaz, zer erakusten digu horrek guztiak? Bi pertsona aritu zirela? Horrela balitz, argi dago lehenengoa, marren egilea, baldarki aritu zela eta bigarrenak konpondu behar izan zituela haren aldrebeskeriak. Alegia, bigarrena izango litzateke benetan zer grabatzen ari zen zekiena. Baina, eta orduan, honek zertarako behar du beste norbaitek marradurak egitea? Askoz logikoagoa da pentsatzea puntu egileak berak egin zituela erreferentziazko markak eta, ondoren, marrei jarraituz edo ez (beilegi horizontalak), edo marrarik ez zegoen parteetan ere osatuz (gorriz markatuak), zeinuak behar bezala idatzi zituela. Puntu egileak bazekien idazten eta bazekien zer idazten ari zen. Gure iritziz, ez zen aritu beste norbaiten marren gainean: bera izan zen marraduren eta puntuen egilea.

Eta azken ondorioa da testu bakarra dagoela; ez dugu ikusten arrazoirik esan ahal izateko bi bertsio daudela, edo testuaren idazkeran kontraesanak daudela.

### 3.2 Zeinuetako gorabeheren faktorea

Orain arte oharretan-eta ikusi dugunez, eskuko testuaren analisisa egiterakoan zeinuen idazkeraren faktorea tartekatzen da, dela oker interpretatzeagatik ( $ba$ ), dela kasu batzuetan zalantza eragiten dutelako, espero den forma estandarretik aldentuta. Zeinuen forma teoriko bat dute, baina beti ez zuten jarraitzen *estilo* arrunta, batzuetan aldaerak dituzte. Arazoa da jakitea ea aldaera horiek diseinu edo idazkera kontu bat diren ala fonema edo soinu desberdin bat adierazteko ote ziren, hots, **sistema duala**, esaterako fonema ahostuna edo ahoskabea zehazteko.

Eskuko idazkera garai hartako sistemekin interakzioan dagoenez, testuingurua ere kontuan hartu behar da. Bada, antzinate hartako idazkunak hiru motatakoak dira, hizkuntzaren arabera: iberiera, zeltiberiera eta, eskuari esker, barskunera deitzen duguna. Oinarrian idazkera sistema bera izan arren bata bestetik aparteko ezaugarriak dituzte eta, horrela, geografikoki ere sailkatzen dira zeinutegi iberikoak eta zeltiberikoak. Konplexuena-edo iberoena zen eta barskunek haiengandik *ikasi* omen zuten. Baina ikusi

dugu garatu ere egin zutela: T zeinurik ez dago besteetan, eta banaketa zeinua doi erabiltzen zuten; oster, zeltiberikoetan gehiegizkoa dirudi. Gainera, uste izatekoa da idazkera sistemak dinamikoak izango zirela neurri batean, hots, ez guztiz egonkorak, joerak ere tartean izango ziren, aldaketak, berrikuntzak; kasurako, *barskunes* txanponeko s zeinu mota jada ez da ageri eskuan.

Testuinguru horretan kokatzen da barskunen zeinutegia, osatzen ari garena dauzkagun erreferentzietan oinarrituta, alegia txanponak, mosaikoak eta eskua bera. Eta orain beste erreferentzia garrantzitsu bat ere badaukagularik, kutuna edo zintzilarioa (ikus VIII-2 oharra), zeinuen aldaeren ikerketatxo bat egin behar dugu, ea konparaketak informazio berria ematen digun, material gutxi izan arren.

Hasteko, ikerketak erakusten digu **sistema duala** bazutela zeinu batzuetan.



**te - de** Erdiko marrak posizio desberdinetan. Lehenengo biak /te/ bezala hartu ditugu: lehena eskuan; erdiko, txanponean, baina ezohikoa; azkena, /de/ bezala, eskuan. Caminrealeko mosaikoan bi bider dago **te** eta bat dator espero dugunarekin: /te/ (*Usekerte*) edo /txe/ (*Liginetxe*). Azken hau /de/ formakoa izango balitz (ahostuna) ezin izango genuke /txe/ bezala interpretatu.



**ti - ti** Zeinu hori aldaera horiekin aurkitu dugu: ezkerrekoa *oTtikes* txanponean; eskuinekoa, kutunean. Bi kasuetan ahoskabea /ti/ dela interpretatu dugu eta /txi/ bezala ere irakur dezakegula, ematen diogun adierarekin bat. Formazko aldaerak dirudite; baliteke /di/ zeinu dualaren beharrizan handirik ez izatea, maiztasun gutxiko silaba izanik; eta *dira* dr.a eran ikusi dugu.



**ku - gu** Erdiko zeinua *barskunes* txanponekoa da, zeinak s-a ere ezohikoa duen; esan genuen ezen lehenagoko sistema batekoa dirudiela. Ezkerrekoa, erronboa deformatzen duen luzapentxo horrekin eskuan ageri da, Gorrochateguik argi ikusten ez duena, *ke* bat ote den-edo. Kontua da kutunean ere diseinu hori duela. Gure interpretazioan /ku/ da, soinu ahoskabea, *ekun* aditzarena hain zuzen.

Azkena, erronbo itxura betean, Caminrealeko mosaikoan ageri da eta, gure ustez, /gu/ da (ikus VII-7 oharra). Aldaerek erdiko puntua dute beti. Beraz, honetan ere sistema duala dagoela onar genezake.

Leherkari edo herskari horietatik at, beste fonema batzuk irudikatzen zeinuei ere erreparatuko diegu: *r · rr* dardarkariak eta *s · z* xistukariak.



**r - rr** Idazkunetan irakurtzen dugunaren arabera, ongi bereizten zituzten, besterik esan bada ere. Baina *ř* dardarkari gogorraren erabilera berezia egiten zuten, batzuetan kontsonante multzo *idaztezinak* transkribatzeko, /dr/, /rp/, /rj/ edo s-ren aurrean. Esana dugu ezen izaera polibalentea zuela, komodin gisa ia. Faktore garrantzitsua da testuak interpretatzerakoan.

Ikertu dugun Caminrealeko mosaikoan *r* berezi bat dago *useke.r.te* elementuan, zeinutegi zeltiberiko ez-dualekoa, nahiz eta *ekia.r* elementukoa estandarra den, gainerako beste zeinuak bezala.



**s - z** Eskuan ez da xistukarien bereizketa grafikorik antzematen. Lehenengo zeinua, *s.orion* hitzekoa zein e.s.e aditzondokoa, biak ere s tankerakoak dira. Ikertu ditugun *barskune.z* eta *oTtike.z* txanponetan ondorioztatzen dugu *z* soinua irudikatu nahi izan zela alderantzizko *s* zeinu baten bidez. Baina eskuan ez da ageri.


Barskunerak leherkari batzuetan sistema duala izatea normalizat jo behar dugu, beste zeinutegietan bezala. Baina desberdina izan behar zuena, izatekotan, da hasperenketa seinatzeko ezaugarriren bat. Badakigu hasperenketa bazuela, besteek ez zutena; hori du bereizgarri nagusia. Logikoena hV silaba motan bilatzea dirudi, *ha · he · ho* maiztasun handienekoetan. Hau da, *h* zeinurik ez zuten, baina bokalean markatuko ote zuten nolabait? Pena da hain material gutxi edukitzea.



1 *a*-ter-pen · *a*-ka-rri / 2 utz-*a*-ma-*a*te / 3 eki-*a*r / 4 *a*-u

▷▷  
*a ha*

*a - ha* 1: lehenak *a* zeltiberikoaren diseinua du; bigarrena, arrunta. 2: bi aldaerak, hurbil. *a.te*-k badakigu ez duela *h*-rik behar: estandarra da. 3: *e.ki.a.r*, *a* berezia dirudi; alboko *r*-an marra erpinera doa. 4: kutunean, berezia, eta *u* du jarraian.



5 z-*o*-ri-*o*-n · *o*-ts / 6 *e*-ku · den-*e* · *e*-ki · *e*-s-*e* / 7 *e e*-ki-en

HH  
*o ho*  
E↓  
*e he*

*o - ho* 5: *zo* silabaren *o* bokalak erdiko marra oso etzana du; eskuko bi *ho* posibleek marra horizontala dute. Baina, ez da argia.

*e - he* 6: biribil gorrian *he-kin* jotzen duguna; erdiko marra besteetan baino bertikalagoa du, baina ez dirudi bereizgarritzat hartzeko adinakoa.

7: mosaikoan, hiru *e* hurbil; bigarrenak behar luke zerbait berezia: goiko besoa apur bat desberdina da, baina ez da balekoa.

### 3.3 Zorioneko-rekin katramilatuta

Eskua agertu zenetik behin eta berriz egiten da tergibersazio hori, hau da, *zorioneku* jartzen duen lekuan “zorioneko” interpretatzea. Hain da horrela ezen jada mundu guztiak erabiltzen du terminoa Irulegiko Eskuari erreferentzia egitean; popularra egin da, dudarik gabe.

Eskuan bertan dago *ko* silaba, azken lerroan, eta azalduta dugu goiko *ku*-k ez duela zerikusirik *ko*-rekin, interpretazio arin batek jendea horra bideratzen badu ere. Alde batetik dago publikoaren pertzepzioa, baina bestelakoa izan beharko litzateke adituen zorroztasuna. Adituak, hizkuntzalari sena edo maila badute behintzat, ezin eror daitezke erraxkeria –errakuntza– horretan. Baina ez da kasua:

- Abaitua (► [Gasteiz 2023-03-21](#)), (25:03): «Lo que desconcierta es que el *sorioneko* de la Mano de Irulegui no tenga esa *h*, un rasgo tan distintivo del euskera antiguo.»

Analisa ere egiten dio, forma deklinatu hori modernoa (izan behar) dela argudiatuaz, azkenean honako ondorioa ateratzeko (26:05): «[...] pues tampoco es muy razonable encontrarse con un “zorioneko” en un texto paleovasco de 2.100 años de antigüedad. Hay motivos, por tanto, para dudar de lo que Velaza presentaba como un rasgo, probable, de vasquidad [...], de vasconidad».

Ongi dio dioenean ez dela arrazoizkoa *zorioneko* deklinatu bat topatzea hain testu zaharrean. Arazoa da ez dagoela horrelakorik testuan, espejismo hutsa da; edo, okerragoa dena, tergibersazio bat eraiki da, nahi izan dena argudiatu ahal izateko.

Gasteizko hitzaldia 2023ko martxokoa izan zen, prestatua, pentsatua. Lehenago, aurreko abenduan jada, Gorrochateguik Iruñeko ekitaldian, testuaren nondik-norakoak azaltzean argi adierazi zuen (► [Iruñea 2022-12-29](#)) (1:04:12):

- «¿Qué es? Pues nuestra hipótesis es, que, bueno, puede ser vascónico, porque tiene algunos indicios..., *zo-ri-o*... evidentemente suena a /zorion/; pero la parte final en *eku*, en fin, la gente se piensa que es “zorionéko”, pues también con bastante claridad puedo decir que no, *que zorioneku no es zorioneko*, que *zorioneko* es una cosa bastante reciente [...] la *o* se ha mantenido, la *u* se ha mantenido, en fin, no me gusta nada. Será otra cosa; *zorion* puede zer...»

Eta Donostiako ekitaldian ere berriz esan zuen (► [Donostia 2023-02-10](#)) (1:25:50):

- «Hay detalles incómodos, porque este *ku* es difícilmente equiparable al *ko* de *zorioneko* [deklinatua], porque una *u* antigua no tiene por qué haber pasado a *o* en el vasco ya desde el siglo XVI que conocemos...»

Ez dago zalantzarako aukerarik: 1) Eskuan bertan daude *ku* eta *ko* silabak, ongi bereizten zituzten seinale; *ku/ko* zeinuak ere oso desberdinak dira; 2) *zorioneko* elementua, edozein hizkuntzalarik daki forma deklinatua dela (*zori ona duen-a* > *zori oneko-a*, adj.) eta, beraz, pentsatzekoa da nekez existitu zitekeela orain 2.100 urteko sistema batean. Beraz, jendeak nahi duen moduan esaten jarraituko du, azentua ere gaizki jarrita, gaztelaniaz bezala (el *zo-rio-né-ko*), baina adituak ezin dira katramilatuta horretan, aditu kontsiderazioa edukitzekotan.



### 3.4 Ez da ulertzen e-zer!

Orain arte azaldu ditugun faktoreak teknikoak dira gehienbat, hizkuntzari edo idazkerari lotuak. Horiek guztiak, izatez, testuaren ingurua dira nolabait esatearren, baina aintzat hartzekoak azken helburua lortuko bada, eta da eskuko mezua ulertzea. Azaldutako xehetasun guztiek ez baldin badute balio azken finean testuak zer dioen ulertzeko, alferreko lana gertatuko dira. Eta porrota onartu beharko da, erabatekoa. Horregatik, puntu hau da mamitsuena.

#### Enfokearen arazoa

Testuaren ulermenera iristeko iruditzen zaigu funtsean bi enfoke erabil daitezkeela, baina batek bakarrik balio duela.

**Iberieraren bidezkoa.** Metodo konparatiboa erabiliz, enfoke okerra gure iritzian. Azaldu dugu, autore askoren aipamenak ere jarrita, iberiera eta euskara ez direla ahaide, eta orain arteko urte askotako saioak, euskararen bidez iberierazko idazkunak argitzeko ustelak gertatu direla: jarraitzen dute deszifratu gabe; euskarak ez du balio izan. Paleohispanistek milatik gora idazkun dituzte bilduta, baita testu osoak ere, baina alferrik. Orain, ostera, aditu batzuen adierazpenak entzunda, badirudi alderantzizko bidea egin nahi dela: ea eskukoa iberieraren bidetik argitzen den. Horretarako, noski, iberisten laguntza beharko da edo, areago, euren gain utz dezakegu korapiloa.

Jarrera horrek konnotazio latzak ditu: 1) Eskukoa ez da euskaratzat hartzen? Hau da *izan ala ez izan* galdera; 2) *Vascónico* bada –euskararen antzekoa-edo– ez dago konfiantzarik filologo euskaldunen jakitatean?; 3) Euskararen ikerkuntzan metatuta dagoen mendeetako corpus edo material edo teoria guztiek ez dute balio testua argitzeko?; 4) Ez dugu borondaterik altxor zoragarri hori sakonetik ikertzeko?

Gure iritiz, iberieraren bidezko enfokea da idazkun zeltiberikoak euskararen bidez argitu nahi izatea bezala. Ezinezkoa da. Zeltiberiera eta euskara dira bi hizkuntza erabat desberdinak, jatorri-familia desberdinekoak eta, hortaz, egon litezkeen antzekotasun edo koinzidentzia posible bakarrak kasualitate hutsa izango lirarteke, edo truke bakanen baten ondoriozkoak. Kasurako, Botorritako brontzea ezin izango da argitu inoiz euskararen enfokearekin, euskara baliatuta.

Baina, orain arte behintzat, metodo konparatiboa erabiliz enfokatu dute aditu batzuek eskuko testua. Paraleloak topatu nahi dituzte eta horretarako iberiera jotzen dute baliagarriena. Gorrochateguik *ugaritiko*a aipatu izan du: «Cual es nuestro ugarítico? El ibérico». Ugaritera hori izan zen hizkuntza zahar bat, K. a. 2000koa, gure alfabetoen aurrekaria eta oso lagungarria gertatu zena, 1928ko aurkikuntzekin, Testamentu Zaharreko hebraiera hobeto ulertzeko.

Pareko beste bat jarrita, da Rosseta harri baten bila ibiltzea bezala. Honek hiru testu luze ditu hiru alfabetotan: hieroglifiko egiptoarrak (14 lerro), demotikoan (egiptoera arkaikoa, 32 lerro) eta grezieran (54 lerro). Ikerketa luzearen ondoren Young-ek eta Champollion-ek deskubritu zuten testu bakarra zela, hiru bertsiotan emana, eta horrek ahalbidetu zuen grezieraren bitartez demotikoa eta, batez ere, hieroglifikoak deszifratzea, ordura arte suposizio hutsak zirenak. Egiptoko Raxid (Rosetta) hirian frantses armadakoek aurkitua, britainiarrek garaitu eta Londresera eramana izan zen. Egun, British Museum-eko piezarik bisitatuena da.

Baina gu konbentzitu gaude iberiera ez dela eskuko euskara arkaikoa argitzeko Rosetta harria, ezta ugaritera.

Ikus dezagun, ba, iberieraren enfokearekin ikerketa ofizialak nola doazen.

(► [Iruñea, 2022-12-29](#)):

- (58:50) «Y la lengua, **cual es nuestro ugarítico**, en comparación, para poder comparar con este texto y ver si las cosas nos ayudan o no nos ayudan: **el ibérico**. [...] lo leemos pero no entendemos na-da.»
- (1:00:02) «[eíraukon] ¿Qué valor tenía esa erre? ¿Una erre suave como la de *zorion* o una erre fuerte como la nuestra? Hay que leer /erraukon/ por ejemplo, o tenemos otro valor? Es que tampoco sabemos exactamente en ibérico qué valor tenía [...] Pero el ibérico siempre mira al vasco [!], **y el vasco, en este caso de la Mano, para poder ver qué valor podían tener estos signos mira al ibérico** [...]»
- (1:06:38) «Este es un texto que ha cogido el sistema ibérico para escribir\*, pero ¿le da el mismo valor a los sonidos [signos] que le daba el ibérico a su lengua? **Esas dos erres ¿qué valor tienen?** Bueno, pues eso tenemos que investigar [...]»

Laburbilduta, Iruñeko ekitaldiaren ondorioak: iberikoa da erreferentzia, arazoak arazo, eta bide horretatik ikertu behar da Irulegiko Eskuko testua.

---

\* Adierazpen horrek eta ildo bereko beste batzuek berdin (“han aprendido a escribir de”...), halako konnotazio bat dute eta, gainera, ezin da jakin horrela izan zen ala ez. Datu ziur bakarra da alfabeto sistema bertsua erabiltzen zutela garai hartako giza-komunitateek: zeltiberoek, iberok edo baskoiek. Nork ikasi-hartu zuen norengandik, *non pertinent*.

(► [Donostia, 2023-02-10](#))

- (1:14:10) «Y llega la Mano de Irulegi. Y todos leemos “*zorioneko*” y todos nos alegramos muchísimo [...] y Javier, que lo había leído antes. Empezé a preocuparme porque **en las tres líneas siguientes no entendía nada**.»
- (1:18:26) «[...] ...tenía muchos textos. Nosotros tenemos sólo uno y, por lo tanto, no hay paralelos por ahora, porque ya hablaré un poco de los posibles paralelos ibéricos.»
- (1:21:42) «Tenemos un gran problema con el ibérico, porque **no entendemos el ibérico**. Si entendiéramos el ibérico tendríamos más claridad para saber qué es o qué no es.»

Iberiera ez dela ulertzen konstatatu ondoren, jarraian iberierazko idazkUNETAN agertu ohi diren baina eskuan ageri ez diren ezaugarriak-edo zerrendatzen ditu:

- (1:22:05) «A primera vista el texto **tampoco tiene elementos identificativos clásicos de una inscripción ibérica**.»
- (1:22:25) «Seguramente habrá **algún nombre propio de persona**, porque ¿en qué inscripción no hay un nombre propio de persona? [...] Con claridad, claridad, un nombre de persona ibérico o vascón, **pues no aparece**.»
- (1:22:58) «Bien, **sufijos ibéricos clarísimos** que suelen acompañar a los nombres o que van en secuencias conocidas como *ekiar*, *te*, que son *ka*, que son sufijos a los que les damos un cierto valor en ibérico, o un sufijo agente, un sufijo quizá al que se le da, al que se le ofrece algo... **No aparece aquí tampoco**.»
- (1:23:23) «Si la primera palabra es, yo que sé, como una **salutación** o algo así, porque además está aislada [...]. Muchas inscripciones ibéricas tienen una secuencia [...] que los iberistas piensan que es una especie de salutación. **Bien, no aparece nada de esto**.»

Eskuko testuan ageri ez diren ezaugarri iberikoak zerrendatu ondoren, testuak zer-nolako osagaiak eduki litzakeen (agurra, aditza, pertsona izena...) eta, azkenik, paralelo posibleen iruzkina edota analisia dator.

Parte hau argigarria da, ikusteko nora eraman dezakeen testua iberieraren enfokeak.

- (1:24:17) «Ya veremos después, yo sólo he encontrado una palabra que puede, que tiene un paralelo en algunas inscripciones ibéricas. Precisamente es la última palabra de la 3ª línea y no e.s.e sino *akari* [sic, erre bigunarekin ahoskatuta].»

Abaituak ere (► [Gasteiz, 2023-03-21](#)) aipamenera ekarri zuen *akari* hori (26:55):

- «[Gorrochategui] mencionaba una única palabra a la que le ha encontrado un paralelo ibérico, *akari* [r biguna]. Además, apuntaba otro problema y es que en los textos ibéricos aparece con la otra r. [...] Encontré sólo dos registros [...]. El primer testimonio de *akari* [...] es el de Pico de los Ajos\*, un yacimiento valenciano [...] y el segundo aparece en el yacimiento de La Joncosa [Catalunya], una jarra...»

\* ]nkoka:*akari*šalir: / ]tibeleska:*akari*šalir

Maila lexikoko paraleloen auzian barneratuz gero, hurrengo aipuak ekarriko ditugu, bide horren arriskuak apur bat nabarmentzearen:

- Tovar (1958): «Entre un millar de palabras ibéricas, hay apenas cincuenta coincidencias vasco-ibéricas, la mayor parte problemáticas.»
- Núñez (2003: 207) «[...] hay que decir que la probabilidad de parecido entre palabras aleatorias entre dos idiomas es mucho más alta de lo que puede parecer a simple vista, debido principalmente a que el número de sonidos utilizados en el lenguaje humano es muy reducido.

[...] R. L. Trask ha publicado varias aportaciones interesantes sobre este tema de las **probabilidades de parecido casual**. En su citado libro *Historical Linguistics* de 1996 explica los porqués del parecido lingüístico aleatorio entre dos idiomas cualesquiera y en *History of Basque* de 1997 cuenta su experimento de comparar con un par de diccionarios las lenguas húngara y vasca, elegidas éstas sin un motivo especial; en dos horas de búsqueda confiesa haber encontrado 65 parecidos, que naturalmente son fruto de la casualidad; y añade que en unas horas más el resultado podía haber sido espectacular.»

- Mitxelena (LP: 75): «Pisani advierte con razón que las coincidencias que pueden señalarse entre lenguas [...] pueden clasificarse en dos grupos: el de las coincidencias fortuitas y el de las coincidencias históricas. [...]

Forman el primero las coincidencias debidas al azar puro y simple: no es éste el momento oportuno para comentarlas, por lo que baste decir que el brazo de la casualidad es muchísimo más largo de lo que algunos comparatistas que no retroceden ante grandes distancias, en el espacio y en el tiempo, suelen admitir. [...]

El segundo comprende, de un lado, las coincidencias debidas a una **herencia común** y, del otro, **los préstamos**. Ambos, dice Pisani con razón, suponen un motivo histórico, o sea la unidad originaria de dos o más términos [...].»

Jarraian ikusiko dugunez, Gorrochategui azken posibilitate horren bidetik abiatzen da, hots, hizkuntzen arteko maileguak, nahiz eta koinzidentzia oso badaezpadakoa izan, *r* desberdinaren faktoreagatik.

Donostiako ekitaldiko azalpenekin jarraituko dugu.

- (1:30:24) «**akari** [erre biguna ahos.] Es la única palabra a la que he encontrado un paralelo en ibérico [...]. *akari*, esto son tres sílabas y tiene más visos de ser ibérico [...], un préstamo que ha tomado el vasco del ibérico. Además, otra cuestión, **en ibérico aparece con la otra erre, no con esta erre** [r̄ gogorra]. Por lo tanto, tiene un paralelo en ibérico, pero no es exacto. Ahora bien ¿es la misma palabra pero el vasco lo ha adaptado a su lengua y, entonces, el valor que tenía la *r* en ibérico no es el mismo valor [...] que le aplica el redactor de esta Mano a su lengua vascónica? Es otro problema [...] que queda sin resolver, **pero también plantea otro problema.**»

Orain dator zein arazo eragiten duen. Eta inpaktantea da.

- (1:31:50) «Todo son si. Si *eraukon* [erre biguna ahos.] es una forma verbal [...], esa *r* no parece que sea una *rr* fuerte, suena más bien [!] a una *r* suave ¿no? [...], también tendría su cierta coherencia dentro del uso de esta *r* en ibérico. Pero, **entonces, nos lleva a que ese zori-oneko** (sic) **se aleja ya de zorion**. Por lo tanto, un camino me soluciona una cuestión, pero me dificulta un poquito por el otro lado.»

Urrun topatutako bi koinzidentzia horiek, *r* bigunekoak izan arren baina /eraukon/ elementuak ere *r* biguneko *soinua* duela dirudienez, alegia eskuko testua idatzi zutenek *r* zeinua modu ez oso zehatzean erabiltzen zutenez, dedukzio horrek planteatzen duen arazoa da eskuko *zori on* –euskara itxurako sintagma argiena testuan–, zalantzan jar daitekeela. Alegia, *zorri* bezala interpreta daitekeela? Horrek eskuak zer-nolako funtzioa zuen beste ikuspegi bat eman liezaguke.

Azkenik, amaitzeko, beste iruzkin bat. Ez dago hain loturik iberieraren kontuarekin, baina adierazgarria da.

- (1:32:40) «[...] si como dice Orduña esa T larga tiene un valor de palatal y por lo tanto hay que leerlo como /otzirtan/ o /odzirtan/, entonces ese e.s.e, que también se nos puede ocurrir que pueda significar “casa”, ¿por qué no se escribe con esta T, si *etxe* tiene precisamente una africada? Bueno, por lo tanto, es un texto increíble.»

Eskuko testuarekiko jendaurreko ikerketak horrela daudelarik (2023ko martxora arte), gure iritzian egiazki balio duen enfokea azaltzea geratzen da, eskuko testu zoragarria interpretatzeko baliatu izan duguna: **barskuneraren bidezko enfokea**. Baina horrek aitzineuskaran murgiltzea eskatzen du, eta azalpen apur bat konplexua behar da.

Gida gisako bat osatuko dugu, dauzkagun materialetatik ondorioztatu ditugun ikaskizunekin.

Ikus [Barskunera gida](#).

## Barskunera. Gida baterako apunteak

Irulegiko Eskuaren agerpenetik gutxira, testua deszifratzeko lanean murgildu ginenean, berehala jabetu ginen material linguistiko sakabanatuen artean ibili beharko ginela; badaude testu arkaikoen bilduma oso baliagarriak, edota dokumentu solte asko, artikulua gisa, idazkun akitanoak edo iberikoak aztertzen dituztenak, edo morfemen analisiak, edo aldaketa fonetikoak, edo izen zerrendak, edo segmentu solte batzuen analisiak, baita izen baskonikoen ikerketa batzuk ere, etab. Laburbilduz, badago nolabait esateko askotariko materialen unibertso bat. Baina ez dago gidarik edo zerbait generikoa, beste arlo askotan dauden bezala, kasurako, esku-liburuak edo gida sinpleak, gramatika errazak, edo hiztegitxoak, edo horrelakoak... Ordea, alor honetan denak dira adituen mailako material berezituak.

Gure langaia bereziki Irulegiko Eskuko testua izan den arren, bide batez beste idazkun garaikide batzuk ere ikertu ditugu. Halandaze, testu horiek ikertzen eta argitzeko ahaleginean ibilbidea egin dugunez, probetxuzkoa izan liteke gure ikasgai batzuk biltzea modu apur bat ordenatuan, gida baterako apunte gisa.

Gure xedea deskriptiboa izango da gehienbat, aurkitu ditugun elementuak eta ezaugarriak modu didaktikoan azalratzea: sailkatu eta deskribatu. Eta, ahal den neurrian, horietatik deduzitu daitezkeen beste elementu edo ezaugarri batzuk ere proiektatu, ikuspegia osatzeko balio dezaketen neurrian, baina ez da gure asmoa berreraikuntza lan teorikoetan murgiltzea. Horretarako, zorionez, hots, *zori onez*, uste dugu badirela gure artean hizkuntzalari oso prestatuak arlo berezituetan, gai direnak sakonago eta xeheago ikertzeko.

Arloka bilduko ditugu jakingarriak, eta faktore (F) batzuk ondorioztatuko.

Morfologiaren eta sintaxiaren ataletan terminologia generikoa (klasikoa) erabili beharrean izan gara (mug., IS, adlg., erl., etab), mugatzailerik gabeko fase hartarako gaurko termino zehatz asko ez baitira egokitzen (DS, PoS, AdpS, etab.).

## Termino batzuen azalpen arina

· Euskara arkaikoa · Aitzineuskara (AE) · Aitzineuskara zaharra (AEZ) · Barskunerera

### Barskunerazko materialak

#### Idazkera

#### Hizkuntzaren nolakotasunak

### 1 Morfologia

- 1.1 Mugatzaileak
- 1.2 Erakusleak
- 1.3 Izenordainak
- 1.4 Deklinabide atzizkiak
- 1.5 Adizkiak
- 1.6 Atzizki lexikalak
- 1.7 Hitz elkarketa
- 1.8 Juntagailuzko elkarketa: esamoldeak

### 2 Lexikoa

- 2.1 Zerrenda

### 3 Sintaxia

- 3.1 Agindu perpausak
- 3.2 Adierazpen perpausak
- 3.3 Ezaugarri tipologikoa
- 3.4 Barskuneraren gramatikaz
- 3.5 Leku-denborazko genitiboaz

### 4 Gidaren aplikazioa: kutuna ikertzen

- 4.1 Testuingurua
- 4.2 Ezaugarri orokorrak
- 4.3 Testuaren idazkera
- 4.4 Testuaren interpretazioa

## Termino batzuen azalpen arina

- **Euskara arkaikoa.** Eskuarki, ezaugarri zaharrak dituen euskara moldea izendatzeko erabili ohi da: *inesibo arkaikoa*, *forma arkaikoa*, etab.

Baina Lakarrak (1997) proposatutako periodizazioan, 1400-1600 urteen artekoari dagokio. Aurrekoa, IX-XV mendeetako: Erdi Aroko euskara. Ondorengoa, 1600-1745: euskara zaharra.

- **Aitzineuskara.** K.a. bost mendeetan kokatzen da, latinarekin topo egin arteko garaia, edo zehatzago: K.a. V. mendetik gure Aroaren 1. urtera arte. **Eskukoa**, hain zuzen, hor kokatzen da. Zehatzago, Aitzineuskara Modernoa izango litzateke (AEM).

K. Mitxelenaren lanak dira erreferentzia nagusia. V. txostenean jarri dugu beraren aipu bat, 1961ekoa: «...si dispusiéramos de documentos escritos en vasco prehistórico del siglo primero antes de nuestra era...». Ziurrenera imajinatuko zuen latin alfabetoan idatzita agertuko zirela, agertzekotan; eta horregatik lehen mendearen aipamena, jada erromatarrak hemendik ibiltzen hasita zeudenekoa. Baina, aikor Irulegiko Eskuaren ustekabea. Eta beste batzuk.

Orain arte euskara berreraikia zen (*laborategikoa*), hots, ikerketa deduktiboz ondorioztatua, maila teorikoan, ez baitzegoen fase hartako lekukotasunik.

- **Aitzineuskara zaharra.** (AEZ) Hau lehenagoko fase batean kokatzen da, zeltak etorri aurreko garaian, hain zuzen. J. Lakarraren ikerketak hizkuntzaren fase urrun hartan barneratzen dira. Hau ere protoeuskara berreraikia da, maila teorikoan, ezinbestean.
- **Barskunerera.** Horrela izendatu dugu Irulegiko Eskuko euskara, garai hartako *barskunez* ('barskunena, barskundarra') txanpon eredu zaharrenekoaren legendan oinarriturik, horrek halako zehaztapen kronologiko-geografiko argi bat ematen digulako. Baina gorago esan dugunez, eskukoa **aitzineuskara**n kokatzen da (AEM) eta, horrela, gure erabileran parekoak dira *barskunerera* eta *aitzineuskara* terminoak.

Bitarteko lagungarri batzuk.

▶ **Barskunerera** zeinutegia. Osatzen ari garen zeinutegia edo alfabeto sistema.

▶ **Iberiera-zeltiberiera** zeinutegiak. Oinarritzkoak eta dualak.

▶ **Aitzineuskara.** Ezaugarrien sintesia: fonologia, erroa, morfosintaxia, lexikoa.

- **Problematika**ko 3.2 atala ere kontsulta daiteke, idazkerarena osatzeko.

Oraingoz dauzkagun material horietako testuak, idazkunak edo legendak izango ditugu oinarri:


- Irulegiko Eskua
- Andeloko eta Caminrealeko mosaikoak
- Txanponak: *barskunez*, *uTanbaate*, *oTikez*
- Kutuna

Horien idazkeran islatuta utzi nahi izan ditugu ondorioztutako edo izan litezkeen berezitasunak, kolore grisean eta letra etzanez adierazita, denak ezin badira ere, adib.: nba > ma, zeina hirutan azaldu den.

**Barskunerazko materialak**

2023/06 www.atalak.eus/eskua

Grafikoak: Butroe



S H O N H N V E  
z o r i o n e k u

O M E C R E W O P O P E  
d e n e k e b e h e k i d r a t e r p e n

H T N O X M E S E D A P M  
o t s i r r t a n b a e z e a k a r r i

E O D A S N  
e d r a u k o n

L i k i n e · A b u l o r j a u n e · e k i e n · B i l b i l i a r r s



L i k i n e t x e · e k i a r · U s e k e r t e g u



M V P  
n b a k i h a  
↑ W O A  
u t o k u n  
Y D X I  
t x i r t a p a



I P M O M E Z  
b a r r s k u n e z



E X H M  
e t x a o n



↑ T P M I D O  
u t z a n b a a t e



H T Y E Z  
o t s t i k e z



## Idazkera

1 iz. Hizkuntza jakin bateko hitzak idazteko modua.

- 1F Alfabeto edo zeinutegi mugatua zen. Ez zeuden letra guztiak, fonemak edo soinuak idazteko. Eta, horrela, zeinu batzuk polibalenteak ziren.

Faktore horrek ondorio esanguratsuak ditu. Ez gara kontziente orain dugunaren oinarrian dagoen alfabeto grekoa, zeinu sistema hura zein iraultzailea izan zen: 24 zeinu, bokal eta kontsonante bakoitzari zeinu bat. Geniala da sintesi hori; berdin dio zeinuak nola irudikatzen diren, zirilikoa, latinoan edo nahi den bezala. Formak ez du axola, kontzeptua da genialtasuna. Zeinu horiek konbinatuz edozer idatz dezakegu, zenbatnahi hitz. Baina eskukoek erabilitako idazkera sistemak muga larriak zituen puntu batzuetan, xumea zen: bokalak + silaba batzuen zeinuak + letra solte batzuk. Horregatik, zeinu batzuk polibalenteak direla kontuan izan behar da, eta ez bakarrik ahostuna/ahoskabea (adib. *ba/pa*) zeinu bakarrarekin irudikatzeko, esaten den bezala, posibilitateak gehiago baitira; adib., *ta*-ren zeinuak adieraz ditzake: /*ta · da · tsa · tx a · tza*/. Eta horrela *-ti-to-tu* sailean *-te/de* bereiztuta zituzten-. Ondorioz, faktore hori aintzat hartuz gero, esaterako eskuko e.s.e segmentua ezin da interpretatu *etxe* bezala. Sistemaren arabera, *etxe* izena e.te eran agertuko litzateke idatzita, bi zeinurekin (likine.te).

- 2F Silaba konplexuak, bi kontsonantedun fonemak, ezin zituzten idatzi. Beraz, antzekotasun fonetikoan oinarritutako idazkera zen.

Aurreko faktorearen ondorioz, letra edo soinu konbinaketa batzuk ezin zituzten idatzi, silaba guztiak ez baitira CV osaerakoak. Nola idatzi CCV, CVC konbinaketak? Irtenbideak behar zituzten eta, ikusi dugunez, *ř* gertatu zen baliabide bat. Adibidez, a.te.*rp*.e.n interpretatzen duguna. Ez zuten *pe* zeinurik, soilik *e* bat erabilgarri. Sistemaren arabera gehienez a.te.r.e.n idaztera hel zitezkeen, baina *p* soinu bat ere irudikatu behar zutenez, irtenbidea: *ř*, erre gogorra, adierazteko ezen hor beste soinu bat tartekatzen dela. Berdin e.dr.a.u.ko.n elementuko *dr*: *ř*. Testuan interpretatzen dugun *dira* adizkia ti.r.a idatz zezaketen, zeinuak bazituzten; baina kasu horretan, ondorioztatu dugu ezen erronkarietaz ezagutu dugun bezala, ez zutela *i* bokala ahoskatzen eta, horregatik, dr.a forma du. Eskuko beste bi kasutan (*irri*, *ahakari*) *ř* zeinua /*rr*/ da, dardarkari gogorra, berez dagokion soinua.

Esana dugunez *muta cum liquida* taldeak (*p·t·k/b·d·g + r·l*) dira hautagai aproposak *ř* zeinurekin transkribatzeko, baina ez horiek bakarrik, alderantzizko ordenakoak ere suertatzen baitira, ikusi dugun bezala: a.te.*rp*.e.n.

- 3F Hizkuntza idatziaren erabileran ez zuten trebatze gradu handirik, adib. hitzak zatitzeko edota silabak osorik idazteko.

Ikusten dugunez, zeinuen kateaketa bat dira idazkunak, elementuak bereizi gabe. Bakar-bakarrik sekuentzia batzuk amaitutzat emateko markaren bat jartzen zuten. Esaterako, eskuko testuan amaiera seinalatzeko bat dago, besterik ez. Idazkera mota horrek asko zailtzen digu sekuentzia bateko elementuak bereizteko lana, zein diren jakin ahal izatea. Horri gehitu behar zaio, gainera, -VV- berberak, bi hitzetakoak, fusionatu egiten zituztela bokal bakarra idatziz. Eskuan -a a- kasu bat interpretatzen dugu: *dira aterpen*. Bi a horiek bokal bakar batean bildu dira.

Eta silabei dagokienez ere gorabeherak egon daitezke. Eskuan, *ekun* irakurtzen duguna, kausaren batengatik –VI. txostenean azaltzen dugu– *n* gabe utzi zuten. Orobat *i.ř.ta.n.ba* sekuentzian: *irri* hitzaren azken bokala falta da, eta juntagailuan lehenengoa (*irr ta ma*), ahoskatze moduaren transkripzioa bailitzan, jator-jator.

Laburbilduz, idatzizko hizkuntza ongi kontrolatzeko trebakuntza bat behar da, alfabetatzea deitzen dena, prozesu bat; baina, ikusten denez, maila tekniko horretara iritsi gabe zeuden. Adibiderako, edozein hizkuntza hartuta, lehenengo testuak edo idatzi luzeak nahiko kaotikoak izaten dira, teknika findu gabe dagoelako ereduaren faltan; eta horregatik da harrigarria gure lehenengo liburu argitaratua, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), hain perfektua izatea.

- 4F Zeinuak ez ziren beti forma estandarrekoak: estilo desberdinekoak antzeman daitezke idazkuntan.

Gaur egun letra tipoak ditugun bezala, esan daiteke antzinate hartan ere nahasian zebiltzala diseinu batzuk. Txanponetan edo eskuan zeinu mota apur bat desberdinak ikus ditzakegu; eskuko transliterazioan adibidez *a* letraren zeinu estandar bat jarri da, baina originalak denak ez dira berdin-berdinak diseinu aldetik; adib.: *a-terpen* / *a-karri* elementuetan bi *a* mota daude (ikus 3.2). Andeloko mosaikoko *a* zeinuak diseinu berezikoak dira, zeltiberiera tankerakoak.

- 5F Zeinu dual batzuk zeuden, aldaera txiki batekin ezaugarri fonetikoren bat adierazteko.

Ikusi dugu zeinu batzuen diseinu aldaketak funtzionalitate bat zuela, sistema duala, 1F-n aipatu ditugun posibilitateak murrizteko, soinua zehazteko. Zeinuari aplikatutako ezaugarri txiki baten bidez adierazten zuten; adib. *te* / *de* bereizteko. Eta *te* zeinu ahoskabeak bakarrik izan ditzake *tse* · *txe* · *tze* balioak ere; ez *de* moldeko zeinuak. Apur bat murrizten dira horrela irakurketa posibleak.

Berriaz eginiko aldaerak dira, fonema desberdin bat adierazteko; *ku/gu* bereizketa ere antzeman dugu; uste dugu *a/ha* ere bereizten zituztela. Iberoen eta zeltiberoen zeinutegietan ere badira zeinu dualak. Alegia, erabiltzen zuten sistemak mugak zituenez, gehienbat silabikoa zelako, saiatu ziren irtenbideak topatzen, aldaera txiki batzuen bidez (Problematika 3.2 atalean xeheago azalduta).

- 6F Bazekiten idazten.

Idazkeraren atal hau bukatzeko, puntu hau sartu beharrekoa dela uste dugu. Baitirudi ezen dagoena irakurri beharrean batzuetan adituek interpretatu egiten dutela zer idatzi *nahi* izan zuten. Kasu paradigmaticoa deritzogu T zeinua duten txanponen idazkuntzaren tratamendua. Gauza bat da ziur ez jakitea T horrek zein soinua irudikatu nahi zuen, hots, posibilitateak ikertzea eta beste bat oso desberdina adibidez txanponetako legendak zeharo moldatzea, *uTanbaate* dena *unambaate* bihurtzea, idatzi *nahi* izan zutena zuzenduz bezala. Frogatu dugu *uTanbaate*, dagoen-dagoenean, ederki idatzi zutela. Eskura etorrira, esaterako, *r* / *ř* zeinuak logikoki erabilia daudela ikusten dugu. Hortaz, printzipio bezala onartu behar da bazekitela idazten eta, noski, hutsegite batzuk izango zituztela, “*n* galdua” deitu dugun istripua bezalakoak, kasurako; baina gure testuetako erratak ere hor daude –oraindik eman gabe dago erratarik gabeko\* liburuarentzako saria–.

---

\* I. Mujika Iraolak kontatu zigun pasadizoa. Editore argentinar bat tematu zela saria lortzen – existitzen omen da–. Xehe-xehe aztertu zuen liburu bat, behin eta berriz, dena perfektu zegoela ziurtatzeko; letrak, hutsarteak, zeinuak... Harro-harro liburuaren kontrazalean egiaztaturik utzi zuen: «Este libro no contiene **eratas**.»

## Hizkuntzaren nolakotasunak

Hizkuntzan sartuko gara, zer-nolakoa zen edo izan zitekeen azaltzera, ditugun datuek ematen diguten informazioaren arabera, ongi interpretatu baldin baditugu.

Gutxi gorabeherako ikuspegi orokor bat lor dezakegu, aitzineuskara hura nolako fasean zegoen. Lehenengo premisa da onartzea komunikazio sistema bat zela, baliagarria. Ez zen izango guk darabilgunaren parekoa, gure hizkuntza fasea askoz garatuagoa izango da, baina ordukoa ere sistema bat zen, hizkuntza bat, eta ziur funtzionala zela. Konparazio baterako, erromatarrek ez zuten gure zenbaki sistema dezimala eta, hala ere, ingeniari bikainak ziren. Beraz, gure arbasoen euskara hark ziur bazituela baliabideak eta balio zuela komunikaziorako. Nola? Hori da apur bat ikertzen eta ulertzen saia gaitezkeena.

Beraz, ikuspegia antzinate hartara egokitu behar dugu, ezin dugu espero gure sistemaren erreplika bat. Analogia bat eginez, idazkera ere desberdina zuten bezala hizkuntza bera ere izango zen halako sistema bat gurearekiko desberdin xamarra. Uste dugu hau dela gakoa, onartzea ordukoa beste egituraketa bateko sistema zela, ezagunak egiten zaizkigun elementuak zituena baina konfigurazio edo uztarketa desberdinekoa. Analogiarekin jarraituz, *alfabetoa* bazuten, baina gurea beste era batekoa da, garatuagoa; idazten bazekiten, baina guk praktika handia dugu, mendeetakoa, horregatik ditugu letra larriak, xeheak, puntuazio zeinu ugari, etab.; eta berdin, pentsa dezakegu, lexikoaren arloan, morfologian, sintaxi mailan...

Azken batean, azaleratu behar ditugu ezaugarri batzuk –ahal dugun neurrian– baina beti ere ikuspegia antzinate hartan jarrita, fase hartan gaudela ahaztu gabe. Zuri-beltzeko edo sepia koloreko argazki oso zaharretan miaztea bezala da lan hau.

## 1 Morfologia

2 iz. *Hizkl*. **Hitzek esaldietan agertzen dituzten formen azterketa.**

- **1.1 Mugatzaileak.** Txostenetan adierazita dugunez, eskuko testuan ez dago mugatzailearik (-a/-ak), eta ondorioztatzen dugu antzinate hartan determinatzaileen sistema (mugatzaileak + erakusleak) garatze bidean zegoela. Aitzineuskara hartan erakusle batzuk bazeuden jada, eta 3. gradukotik (*har*) eratorriko ziren gerora mugatzaileak, hitzei itsasteko, sintagmak-eta eratzeko, ezagutzen dugun eran.

Eta faktore honek galdera batzuetara garamatza: sintagmak mugatu gabe badaude, nola hartzen zituzten deklinabideko erlazio atzizkiak? Nola eraiki daitezke adizlagunak? 1.4 atalean aztertuko dugu gehixeago.

- **1.2 Erakusleak.** Eskuan erakusle bat antzeman dugu, *hek*, norekin kasuko oinarrizko desinentziarekin: *heki*. Beraz, erakusleen sistema bazela ondorioztatu behar dugu, osoa ez bazen ere. Horregatik, ziurrenik 3. eta 1. gradukoak izango ziren jada sisteman; 2. gradukoa (*hori*), esana dugunez, 1. gradukotik eratorri zen, baina ezin da aurreikusitako garapen hori gertatua zenentz.

1		<i>barskunera</i> erakusleak	
gradua	sing.	pl.	
1.	<b>hau</b>	*	
2.	*	*	
3.	<b>har</b>	<b>hek · har</b>	

Bestalde, ez dakigu sing./pl. banaketa edo funtzionaltasuna nolakoa izango zen. Alde batetik (*h*)*ar* dugu, idazkun askotan agertzen dena, baina ez dirudi soilik sing. zenik, pl. zentzukoetan ere ageri baita; bestetik, *he(k)* ikusi dugu, plurala. Kutunean (*h*)*au* izan daitekeena interpretatzen dugu, 1. gradukoa. Hortaz, mugatzailerik egon ez arren, esan dezakegu erakusleak badaudela, 1. eta 3. gradukoak bederen.

- **1.3 Izenordainak.** Izenordainak zerbait oinarrizkoa dira, baina nolakoak ziren ustekabeak izan ditzakegu. *Ni* izenordain zaharra interpretatu dugu *eki-en* elementuan. Badakigu *en* dela gure gaurko *ni*-ren arbasoa: *neroni ni* den bezala *eni ni* izatera pasatu zen, baina hori ditugu oraindik *en-e* 'nire', *en-etzat* 'niretzat'... *Gu* izenordaina ere interpretatu dugu mosaikoan. Bestetik, *eradu-k* adizkiak *hi* izenordaina eskatzen du. Dedukzioz, *hi* baldin badago *zu* parekoa (2. perts. sing.), ez da beharrezkoa, oinarrizko sistema batean. Baina ziurrenik *zu* zen gure *zuek*, zeren *zuek* izenordainak konponketa baten itxura osoa du. Alegia, *zu* singularrerako erabiltzen hasi zenean –askoz geroago, teorikoki– hutsunea geratuko zen pluralean, sistemak *zu-ek* bidez konpondu ahal izan zuena. *Hi* (sing.) / *zu* (pl.) gorabehera honetaz froga argiena aditz sisteman dugu: *zu* perts. singularizat sentitzen dugun arren, esanahiagatik, berarekin doazen adizkiek pluraleko morfemak dituzte; horregatik, aditz tauletan *ni-hi-hura* ordena erabiltzen dugu, sing. direlako; *zu* pl. sailekoa da aditz sistemaren morfologian.

2		<i>barskunera</i> izenordainak	
pertsona	sing.	pl.	
1.	<b>en</b>	<b>gu</b>	
2.	<b>hi</b>	* <i>zu</i>	
3.	<b>har</b>	<b>hek · har</b>	

3. pertsonetarako *har* eta *hek* erakusleak identifikatuztat ematen ditugu. Hortaz, ondoriozta dezakegu *en*, *hi*, *gu* izenordainak behintzat bazeudela. Erakusleek osatzen dute 3. pertsonena, eta orain arteko idazkuntan ez da ageri *zu*-ren aztarnarik, gaurko *zuek* izenordain pluralaren baliokidea izan zitekeena. Horregatik, izartxoarekin dago.

- **1.4 Deklinabide atzizkiak.** Eskuan bi *erlazio* atzizki ikusten ditugu: *ki* eta *n*. Sozietiboaren (norekin) oinarrizko desinentzia soilik *-ki*, amaierako *-n* gabea, forma zaharrena izan daitekeena; eta inesibo (non) kasuko *-n aterpen* elementuan, inesibo arkaikoa motakoa, ez baitago mugatzaile batekin egituratuta. Erreferentzia horiekin deklinabidea izan zitekeen sistemara hurbilketa teoriko bat egin dezakegu.
- Nahiz eta mugatzailerik ez izan, IS motako egiturak adizlagun bihur zitzaketen, atzizki soilik atxikita (*aterpe-n*). Oinarrizko egituraketa mota izan behar zen, zeren mugatzailerik gabe ezinezkoa baita gaurko *mugagabe* / *mugatu* sing. / *mugatu* pl. erako sistema zehatza edo konplexua. Horregatik, laukietan ez dago bereizketarik.

- Ordea, izenordainen, aditzondoen edo erakusleen kasuan erlazio atzizkiak zuzenean atxiki daitezke (*heki*). Horietan hasiko zen deklinabide sistema osatzen eta, ondoren, IS egituretara hedatzen, mugatzaileak eratutakoan.
- Deklinabidea oinarrizko kasuetara mugatuta egongo zen. Adibidez, *nora* adlatiboa bai, baina *noraino* edo *norantz* kasu eratorriak berriagoak izan daitezke. Bizidunei dagozkienak, *-gan-*, ez dugu uste existituko zirenik. Instrumentala (*zerez*), prolatiboa (*zertzat*, *nortzat*), horiek ere geroagokoak direla suposatzen dugu.

3	<i>barskunera</i> deklinabidea
kasuak	erl. atzizkiak
NOR	*
NORK	* <i>k</i>
NORI	* <i>ri</i>

**Kasu gramatikalak** (nor·nork·nori): absolutiboan, erakusleekin edo zenbatzaileekin eraiki zitezkeen izen sintagma; ergatiboa (nork) ez dakigu jada garatuta izango ote zen; datiboa (nori), funtsezkoa izanik, izenordainekin eta erakusleekin arrunta izango zen (\**eni*, \**hari*, \**hei*...).

4	<i>barskunera</i> deklinabidea
kasuak	erl. atzizkiak
NON	<b>n</b>
NORA	* <i>ra</i>
NONDIK	* <i>ti(ka)</i>

**Leku-denborazko kasuak** (non·nora·nondik): horiek ere oinarrizkoak izanik, sisteman arruntak izango ziren. Baina ez horietatik eratortzen direnak: ez *norengan*, *-gandik*... bizidunekikoak; zalantzezkoa da *noraino* eta ziurrenik ez zen egongo *norantz*, hori berriagotzat jotzen baitugu, latinezko egitura baten imitazioa izan daitekeena.

*Nongo* kasua, leku-denborazkoa izan arren, beste genitiboarekin (*noren*) batera aztertzeke utzi dugu.

5	<i>barskunera</i> deklinabidea
kasuak	erl. atzizkiak
NOREKIN	<b>ki</b>
NORENTZAT	*
ZERIK	* <i>ik</i>

**Gainerako kasuak** (norekin · norentzat / zergatik · zertarako / zeri · zerez · nortzat). Bloke honetako lehenengo biak oinarrizkotzat hartu behar dira; beharrezkoak baita hurrengo biak; eta itxura batean ez hain beharrezkoak azken hirurak. Baina instrumentala eta partitiboa agian egon zitezkeen: eskuko *ahakarri* posibilitate bat da partitiboa izatea, *ahakarri-k*, baina *-k* solte bat idazteko zeinurik ez zutenez *ahakarri* bezala geratu zena.

6	<i>barskunera</i> deklinabidea
kasuak	erl. atzizkiak
NOREN	* <i>re</i>
NONGO	*

**Genitiboak** (noren·nongo). Izenlagunak eraikitzen dira horiekin. Perpauseko elementuen uztarketa lortzeko genitiboak oso funtzionalak dira biak ere. Euskaraz nahi beste genitibo meta ditzakegu *-esaldi* luzearen zentzua lausotzen hasi arte, hori da *muga-*; adibidez: *Aldapeko sagarraren adarraren*...

Lehenengoa, *noren* genitibo edutezkoa, IS + erl. egiturakoa da, baina izenordain bat ere izan daiteke IS: *en·e, gu·re...* Konfigurazio sinpleena izord. + erl. denez, onar dezakegu egitura horiek bazirela. Baina IS baten gainean eraiki ahal izateko, batetik mug. behar da, ez zegoena; eta, bestetik, funtsezkoa, erlatibozko perpaus bat behar da sakoneko egituran (VII. atala): *urak duen kolorea > uraren kolorea*.

Gauza bera gertatzen da *nongo* genitiboarekin, leku-denborazkoa. Honek, galdetzaileak erakusten digunez (*non-go*), oinarrian adizlagun bat du gehienetan; horregatik honelako formak ere dokumentatzen dira: *eguneango (> eguneko)*... Baina garrantzizkoena da nondik eratorri zen. Esaten ari garenez, latinean bezala (Benvenistek formulatua) euskararen ere geniboak erlatibozko egitura baten ondorio direla onartzen da: *zeruan dauden izarrak > (zeruango) > zeruko izarrak*.

Eta ez soilik adlag. (*non*) + erl., hor dugu *zorioneko* adj. izaerako izenlaguna: *zorioneko-a < zori ona duen pertsona*. Hortaz, erlatibozko adizkiak (*-en*) behar dira eta horiek suposatzen duten garapen konplexua latinarekiko interakzioan gertatu zela uste da. Besteak beste, horregatik ere eskukoa ezin da izan *zorioneko*. Ezta proposatu diren beste etimologia ezinezko batzuk, adib.: *txakurra < etxeko hor\**.

Ondorioz, teorizatu dezakegu Irulegiko Eskuaren garaiko aitzineuskararen (K. a. I) izord. + *en* izango zirela genitibozko egitura bakarrak. Ez zegoen *-ko* atzizkirik. Eta horrek sintaxiaren alorrean inplikazio sakonak ditu, geroago ikusiko dugunez.

---

► [Protoeuskera](#). Wikipediako (gazt.) azalpen luzean, Morfologia atalean: «O como ocurre con la palabra *txakur*, que proviene de *etxeko hor...*». Etimologia xelebrea. Gen. atzizkiaz at *hor* (S) / *or(a)* osagaia *r* bakunekoa da: *Ora otsoen lagun* (RS, 347), *Orik ez den herrian ibarjaun da azeria* (349). Eta balizko etimo horren bilakaera fonetikoa, nola azaltzen da?

Hizkuntzaren nolakotasunak azaltzen ari garelarik, ditugun datu apurrek ematen diguten informaziotik ondorioztatzen ditugunak, Mitxelenaren aipamen bat tartekatuko dugu, beste asko bezala gogoeta interesgarria izateaz gain, ondoren datorren adizkien atalerako oso iradokitzailea deritzogulako. (1963, 54)

- «Si queremos adivinar cómo eran en cuanto a sus características generales las lenguas prehistóricas cuyo conocimiento directo nos está vedado, no tenemos que mirar a ninguna reconstrucción, por ingeniosa y relativamente compleja que sea. Lo que debemos contemplar es algo que está mucho más cerca de nosotros: las lenguas que se hablan y que hablamos y, un poco más arriba en el tiempo, las que una larga serie de testimonios históricos ofrece a nuestro estudio. Podemos asegurar, sin mayor temor de errar, que las lenguas prehistóricas no podían ser muy distintas de éstas.»

- **1.5 Adizkiak**. Eskuan hiru aditz elementu antzeman ditugu: *ekun* eta *eraduk* agur esaldietan, eta *dira* adizkia bigarren lerroan. Itxura batean hirurak *dira* desberdinak: lehenengoa, *ekun*, partizipio forman dago, nahiz eta zentzuagatik agintera erakoa den; bigarrena, hizkuntzako adizki oinarritzkoenetakoa da, *izan* aditzaren orainaldiko adizki sinplea; eta, hirugarrena, *eraduk* (/edrauk/) aginterazko adizkia dela argi ikusten dugu, hika moldean. Bada, ezaugarri horrek bideratuko du gure ikerketa.

**Hikako moldea.** Izan ere, aditzek erakusten digutenaren arabera, eskuko testuan bi tratamendu daude. Batetik, agur esaldiak (hasiera-amaiera) hika moldean daude: *ekun*, laguntzailerik eduki ez arren, *eraduk* adizkiaren parekoa denez, tratamendu molde berean kokatu behar da, nahitaez; ez du laguntzailerik, baina izango balu hika moldekoa izango litzateke, *eraduk*-ekin sintonian egoteko. Gaurko hizkerara ekarrita, *Zorion ekun ezak·n / Eraduk on*. Baina, egia esan, *ekun*-ek ez du beharrezko laguntzailea, horrelako aginterak arruntak baitira: *Ongi izan*, *Gogor eutsi*, etab.

Eta horrek hurbil gaitzake barskuneraren aditz sistema izan zitekeena azalertzera, gainetik bada ere. Gure txostenetan hainbat erreferentzia linguistiko jaso ditugu testu arkaikoetatik, esaterako atsotitzen bildumetatik, zeinetan hikako adizki ugari azaltzen diren, gure hizkuntza zaharraren ezaugarri. Are gehiago, gure letretako idazle klasikoan obretan ez da hikaren erabileraren adibiderik falta. Lehena harturik –Lazarragaren baimenarekin–, Etxepare, poema gehienetan molde neutroko adizkiekin azaltzen den arren naturaltasunez konbinatzen ditu tratamenduak, neutroarekin batera hika edo zuka ere (*hasi nuzu*) testuinguruaren arabera: bere buruari mintzo zaionean, *hi* eran, *Mosen Bernat jakin bahu gauza nola jinen zen*; edo euskarari zuzentzen zaionean: *jalgi hadi kanpora*, *lauda ezak Garaziko herria...* Une jakin batzuetan, elkarrizketa eiteko esaldietan hautatzen ditu *hi* adizkiak, baina ahapaldian ez du jarraitzen nahitaez adizki alokutiboekin: *Habil mundu guzira / Bertzeak oro izan dira...*; baina ahapaldiaren hariari jarraipena emanez, alokutiboak ere badarabiltza: *hik badukek... / penak heben fin dik sarri...*

Eskuko testuarekin erkatuz gero molde aldaketan (hika-neutroa) jokabide berbera ikusten dugu: agur esaldiak hikan daude, elkarrizketa mailakoak direlako; baina adierazpen perpausak direnak, tarteko bi esaldiak, batean *dira* ikusten dugu, molde arruntean.

- 1F **Hortaz**, barskunerazko aditzetan lehen faktoretzat jo dezakegu hikaren erabilera, agindu eiteko perpausetan, elkarrizketa mailakoak direnak.

- **Sistema perifrastikorik ez.** Baina, bestalde, ezaugarri horretatik harago joateko testuan daturik ez dugunez, maila teorikoan barneratu behar gara ezinbestean, hipotesian. Hika erabiltzeak hitano tratamendua dakar berarekin, hots, adizki alokutiboak (*egon dituk·n*, *hobe dia·nagu...*). Horrela da gure fasean, mende askoko ibilbidea egin ondoren; baina aitzineuskara hartan baztertu egin behar dugu hitano tratamenduko sistema izatea (*-k/-n* alokutiboak, toka eta noka), besteak beste horrek adizki perifrastikoak garatuta egotea eskatzen duelako. Onartzen da gure adizki perifrastikoak (bi osagai: nagusia + laguntzailea) latinaren edota erromantzeen eredura eraikitzen joan zirela. Eta proba asko egin zituen hizkuntzak, adituen artean onartua baita euskara aditz sistema aberatseko hizkuntza dela; alegia, askotariko adizki motak eraiki ditu bere ibilbide historikoan. Aditz sisteman orain dugun tipologia ez da beti izan horrelakoa, hizkuntzen eboluzioan sakoneko aldaketak ere egoten dira, tipologia edo eredu aldaturainokoak. Adibide baterako, latinak deklinazioak zituen eta haren ondorengo erromantzeek ez dute horrelakorik: tipologia aldatu dute. Bada, aitzineuskarari dagokionez, nahiko ziurtzat jo behar dugu beste ezaugarri tipologiko batzuk izango zituela.

- 2F **Beraz**, bigarren faktoretzat, onar dezakegu barskunerako *hi* adizkiak bazeudela, baina ez alokutiboen sistema garatuta, perifrastikoen faltan eta, ondorioz, ezta *k/n* genero bereizketarik ere.

Horrela, eskuko testuan ikusten dugun *eraduk* bezalakoak izango ziren agintera adizkiak, hots, partizipio formaren gainean eraikiak, *-k* morfema generikoarekin, atsotitz arkaikoetan ikusten dugun bezala: *egik, euk* · (*edukan*), *emak, erakarrak, ikusak, onetsak, utzak, ezarzkik*... Ez daukagunez laginik ez dakigu, baina baliteke datibo morfemadunak ere izatea, atsotitzetako hauen tankerakoak: *emok* · *emaiok, egiok, indak, erradak, errakok*...

- **To bidezko balizko sistema.** Barskuneran hikako adizkiak baziren, eskuan interpretatu dugun bezala, baina kutunean (VIII. oharra) beste baliabide bat antzematen dugu. Testuko erdiko lerroan *to.ku.n* sekuentzia ikusten dugu, azken zeinua *n* dela argi ageri ez bada ere, euskarriko hondatuagatik. Edozelan ere kutuneko testuak duen zentzuarekin bat dator *ku.n* hori *ekun* aditzaren parte izan ahal izatea, hots, *to* + *kun* egitura. Eta iruditzen zaigu egitura hori oraindik ere erabiltzen diren *to* eta *no* elementuekin erlazioan dagoela, are gehiago, uste dugu kutunekoa elementu hori bera dela. Alegia, *hi ta no* tratamenduan –hitanoa, hain zuzen ere–, *to* gizonezkoei dagokie (toka), eta *no* emakumezkoei (noka).

Aurrera baino lehen, gogora dezagun hika tratamendua gure usadioan beti ere *arau* batzuk errespetatuta erabili beharrekoa dela: gazteek ezin dituzte tratatu nagusiak (aita, ama) modu horretan, ezagun berriekin ere ez da erabiltzen, ezta *maila* bateko pertsonen hitz egiteko (apaiz, mediku...); alegia, molde horrek baditu baldintza batzuk: konfiantza, adina, hierarkia... Hori gure hurbileko tratamendu tipologian, nolabait esatearren. Baina ezaugarri horiek ez dute zertan izan parekoak antzinate hartan, besteak beste, zuka sistematik ez zelako izango eta, horrela, ezinezkoa da gure tratamendu bereizketa horiek egitea.

Beraz, barskunera hartan sinplifikaturik izango ziren adizki kontuak, *to* baliabidea existituko zen aginterazkoak egiteko, eta orokorra izan zitekeen, neutroa, ez dakigu *no* ba ote zen. Eta, bestetik, hikako adizkiak gehienbat indikatibokoak izan ohi dira, era sinplekoak, besteen aldean (baldintza, ahalera, subjuntiboa).

Azter ditzagun *to* eta *no* elementuak. Esan dugunez, ez dakigu biak izango ote ziren garai hartan. Testu zaharretan ezin da espero adibide asko aurkitzea, biak ere hizkuntza mintzatukoak direlako, elkarrizketa mailakoak. Esan dezakegu ezen aztarna batzuek iraun dutela. Batetik (1), *to* edo *no* hutsak arreta deitzeko elementuak dira, gizonezkoa edo emakumezkoa seinatzeko, deiki edo bokatibo moduan: *Norat hoa, no?*; *No, hator hona*; *Augi, to / Augi, no* ('hator'), *To, hi baino lo gehiago edin diat* (Eliz, PA), etab. Bestetik (2), aditz zentzua ere izan dezakete, huts-hutsean, adizki osagaia elidituta, hots, aditza ezkutuan: *to* ('har ezak/itzak'); *no, ogi puska bat* ('eutsi, har ezan'); *Nahiago dot to bat eze hamabi emongo deiat*. Azkenik (3), adizki tankerakoak eraikitzen dira osagai horiekin, sing./pl. bereizketa ere eginda: *tori, totzak, to(i)zkik, notzan, no(i)zkin*... Axularren adibide hau ekarriko dugu: *Thotzik bada, har itzak heure zapaten diruak eta utztak niri bakea*. Ax 430 (V 279).

Esan dugunez, kutunean *to.ku.n* sekuentzia aditzat hartzen dugu, eta testuaren barnean 'euk, ukan ezak' zentzua du, garbi-garbia. Baina hortik gora oraingoz ezin dugu jakin nola zegoen antolatuta *to* osagaiarekin adizkien sistema, zelan baliatzen zuten elementu hori agintera zentzuko adizkietan, zeren eta ez dugu ahaztu behar batez ere agintera moldekoak egiteko baliabidea dela. Bide batez esanda, aginteran baditugu aztarna fosilak dei ditzakegunak, ezagunak ditugun aditz sistemetatik aldenduta, beste tipologia batekoak: *erdu* (bizk.), *nazierde* (erronk.), *nagi* (Uztar.), *augi to/no* (BN), *tana/nana* (Donibane Loh.), denak ere 'hator, zatoz' esanahikoak.



- **1.6 Atzizki lexikalak.** Atzizki lexikal deitzen diegu erlazio atzizki ez direnei, hots, deklinabideko desinentziak ez direnei. Eskuan bi hitz aurkitu ditugu morfema lexikal bat dutenak osagai: *ater-pe* eta *e-ra-dun*. Biak ere idazkeraren bidez azaleratu ditugu, *í* zeinuaren erabilera bereziaren ondorioz. Esana dugunez, kontsonante multzo idaztezinak irudikatzen *í* zeinua baliatzen zuten, bi kasu horietan *rp* eta *dr* multzoak, bi kasuetan */r/* dardarkariaren soinua nabarmentzen baita.

*Aterpe* interpretatzen duguna teorikoki *aterbe* ere izan liteke, *behe* elementutik > *be* eratorrita. Baina eskuan *-pe* atzizkia dela ulertu behar da ezinbestean (*rp*), zeren *be* silabarako zeinua bazeukaten eta, hala ere, ez zuten erabili. Gainera, hor ditugu *lehorpe* edo *estalpe* ere, sekula *-be* eduki ez dutenak; edo: *harpe*, *haizpe*, *lurpe*, *urpe*, *izterpe*...

Eskuan morfemadun beste elementua *eradun* aditza da, forma jokatuan dagoena, aginteran. Artizkia ere dei daitekeena dauka, *-ra-*, osagai oso erabilia aitzineuskara zaharreko sisteman ere (AEZ) aditzak sortzeko. Lakarraren berreraikuntza teorikoan protagonismo handia du morfema horrek. Hizkuntzan aditz eratorriak eraikitzen balio berezia du: *ikusi* · *e-ra-kutsi*, *ikasi* · *i-ra-katsi*, *ibili* · *e-ra-bili*, *ikuzi* · *e-ra-kutzi*, *joan* · \**e-ra-oan* > *eroan* / *eraman*, *jasan* · *e-ra-san*, *egotzi* · *e-ra-gotzi*, etab. Beraz, gure *edrauk* adizki horri dagokionez, *edun* · *e-ra-dun* osaera esleitu behar diogu. Eta badakigu biek ere, bai *edun*-ek eta bai *eradun*-ek zein garrantzi handia izan duten adizkien sistemako forma perifrastikoak eratzerakoan, laguntzaileak.

Bestalde, txanponen eta mosaikoen ikerketan beste morfema lexikal bat antzeman dugu: *-z* (edo *-s* sinistrorsa, ezkerrera iraulia), *barskune-z* eta *oTtike-z* txanponen idazkuntan, eta *bilbiliar-s* mosaikokoan. IV. txostenean azaldu dugu ezen toponimoetako *-iz*, *otz*, *-oz* atzizkien parekotzat har daitekeela, deituretan patronimiko gisa edo jatorria seinalatzen duena, nongotarra; VII.ean ere azaldu dugu, Andeloko mosaikoaren interpretazioan. Idazkerari dagokionez, *s* berezi gisa (*z*) txanponetan bakarrik ikus dezakegu, mosaikoan *s* arrunt gisa ageri baita; eta eskuan badakigu ez dagoela *s/z* bereizketa grafikorik.

- **1.7 Hitz elkarketa.** Txanponean interpretatzen dugun e.ta.on sekuentzia *etxa* (*h*)on irakur daitekeela adierazia dugu, eta horrek hitz elkarketako bokal aldaketa jada gauzatzen zela suposatzen du: *etxe on* > *etxa on*. VI.11 oharrean jarri dugu Mitxelenaen aipu bat elkartuetako aldaketa posible horretaz:

- (LH, 444) Del estudio del aquitano podemos además sacar una presunción por vacilante que sea, de que **los cambios en la final del primer elemento** que caracterizan a los compuestos vascos **no** existían todavía.

Baina beste aipu bat ere jarri dugu, iberierazko idazkun bati buruzkoa (LH, 338):

- El *cognomen* de M. Iunius **laurbeles**, en inscripción de Florejacs [Lleida, iberiera], tiene toda la apariencia de uno de los compuestos o derivados de vasc. **jaun** 'señor' (*jaurgehien* 'soberano', etc.).

Akitaniako izenetan *beles*, *bels*, *belex* hori 'beltz' bezala interpretatzen da (*Harbelex*, *Bonbelex*, etab.). Horren arabera, *laurbeles* 'jaun beltz' izango litzateke; baina *Laur* bezala ere irakur daitekeela adierazia du Gorrochateguik (EHHE).

*Etxa-* elkarketako formara etorriaz, Erdi Aroko dokumentazioan jada arrunta da: *etxaberr*i (hortik *Xabier* izena, nafar erromantzearen eraginez), *etxajaun*, etab. Bestalde,

azaldua dugu (VII. txostena, eta aurreko 1.6) eskuan interpretatzen dugun *aterpen* adizlaguna ez dugula kontsideratzen loturik dagoenik Leizarragak berak bakarrik erabilitako *athar*be aldakiarekin.

Beraz, *etxaon* eta *laurbeles* lagin bakanak aintzat hartuz gero, pentsa liteke ezen hitz elkarketako bokal aldaketaren jokabidea indarrean zela jada. Baina oraingoz hipotesi mailan utzi beharko da, ia dena *etxaon* posiblearen menpe geratzen baita, *laurbeles* urruneko iberierazko idazkun bateko izena-edo izanik.

- **1.8 Juntagailuzko elkarketa: esamoldeak.** Eskuko irr.ta.ma sekuentzia, hots, *irri eta ma* sintagma elkarketaz adierazi dugu ezen *hots*-ekin batera egitura berezia osatzen dutela. Bada, kutunean ere pareko bat ageri da: txir.ta.pa jotzen duguna. Bi egitura paralelo horiek aztertuta beste baliabide bat azaleratzen zaigula deritzogu, gure hizkuntza fasean ere erabiltzen duguna: esamoldeak, lokuzioak. Adibidez:

*jo eta ke / jo eta su* ‘eginahalean, gogotsu’ · *zur eta lur / sor eta lor* ‘harrituta’  
*hitz eta pitz* ‘hizketan, eten barik’ · *argi eta garbi* ‘zehatz-mehatz’

Horiek juntagailuarekin josiak, agerian dela, baina elidituta ere egon daiteke:

*zirti-zarta* ‘kolpeka’ · *txipli-txapla* ‘onom. uretan’

Esamolde horietan elementuek zentzu berri bat hartzen dute (adierazkorra batzuetan, onom.), ez literalki osagai bakoitzaren bidez baizik eta denen baturan, egituraketa finko berrian; adib.: *jo* aditzak eta *ke* edo *su* izenek bakoitzak bere aldetik esanahi bat dute, baina biak uztartutako egituran beste adiera bat hartzen dute. Bada, modu berean uler ditzakegu eskukoa eta kutuneko ere. Alegia:

*irri eta ma* ‘pozik, zorioneko giroan’ · *txiri eta pa* ‘gauza politak, zorionekoak’

Eskuko garaian ez dakigu *pozik* hitza (deklinatua: *poz* iz. + *ik* atz.) jada izango ote zen, baina nabaria da irr.ta.ma-rekin hori adierazi zutela. Berdin kutunean: gure faseko *txiripa* hitza aukeratu dugu, idazkun hartan ulertzen dugun mezura gehien hurbiltzen dena, antzekoa eta baliokidea, ez txir.ta.pa haren bilakaera izateagatik.

Laburbilduz, esan dezakegu ezen hitz laburren juntagailuzko elkarketarena, esamoldeak, barskunerazko beste baliabide lexiko bat zela.

## 2 Lexikoa

1 iz. Hizkuntza bateko hiztegia edo hitzen multzoa.

Orain arteko materialetan zer aurkitu dugun deskribatuko dugu.

Alor honetan ere faktore batzuk nabarmendu ditzakegu.

- 1F Aitzineuskarako oinarritzko lexikoa azalduko da materialetan, ez dugu espero aurkitzea deklinabidezko hitz eratorririk (*zorioneko...*), ez hitz elkartu konplexurik.

Mitxelena (1961: 20): «Lo que podemos saber o imaginar de la forma prehistórica del vasco por aquellas fechas no es tan poco como algunos piensan. Según un cálculo moderado, **una mitad por lo menos del léxico básico** de entonces ha llegado hasta nosotros en la lengua hablada o en los textos.»

- 2F Barskunera hartan (0 urtera arte) ez dugu aurkituko latinezko mailegurik, ondorengo mendeetan oso ugariak izango badira ere.

Mitxelena (1972): «No hay nada en los restos latinos conservados en la lengua vasca que obligue a fijar su introducción antes de los primeros siglos de nuestra era.»

- 3F Gehienbat hitz bisilaboak azalduko dira. Silaba batekoak edo hirukoak ere bai, baina ez silaba askoko hitzak.

Núñez (130): «La raíz de palabra más frecuente en euskera arcaico es **bisílaba**, aunque también las hay de una sola sílaba y de tres.»

Lakarra (2011: 17): «Azkuek (1923-25: 40-41) antzinako izenkietako erroa monosilaboa zela suposatzen zuen, –kasu guztietarako frogatuezintzat bazuen ere– eta oinarriak edo enborrak erroa gehi atzizkiaz osaturik zirela uste zuen, jatorrizko euskal hitzetan **hainbat disilabo** aurkitzea horrela azalduaz.»

Mitxelena (PT: 312): «[y palabras] que pueden ser retrotraídas, con certeza o con verosimilitud, a componentes más simples [...]. Tales elementos por ahora últimos no siempre son monosilábicos. [...] hallamos, por lo general, **bases bisilábicas**. Si se prescinde de algunos temas nominales (*su* ‘fuego’, etc.) y de raíces verbales como *-gi* ‘hacer’, *-go* ‘estar, permanecer’, son los sufijos de derivación y de flexión los que suelen ser monosilábicos.»

Alegia, gehienbat hitz laburrak azaleratuko zaizkigula. Eta horren haritik, gure interpretazioaren bi txostenak argitaratu genituenean, aditu iberista batek, beste kritika batzuen artean, lexikoari dagokionez honakoa idatzi zigun:

- «Además, siempre hay que segmentar buscando identificar las secuencias más largas posibles, y ustedes han hecho lo contrario, obteniendo nada menos que quince palabras donde **yo no vería más que seis o siete**, como mucho. Si segmentamos palabras muy breves, y encima las relacionamos con palabras vascas modernas que son más largas (cuando lo lógico sería al revés), es imposible no encontrar lo que uno quiera.»

Horren arabera, *hitz* gehiegi *atera* ditugu eskuan. Baina, aitortu behar dugu ez garea gai testutik sei-zazpi hitz soilik lortzeko: lehen eta azken lerroan lau ikusten ditugunez, orduan bi edo gehienez hiru geratuko litzazkiguke erdiko bi lerroetarako, hitz puska galantak, alajaina. Are gehiago: Aranzadiren webgunean jartzen duenez «“Sorioneku” (zorionekoa), deszifratu ahal izan diren **bost hitzetatik** lehena da...». Ondorioz, esan ohi da bost hitz dituela eskuko testuak, (egindako) zatiak adina, doi.

Bada, zerrenda gisa aurkeztuko ditugu, gaurko moldean eta idazkuntan aurkitu ditugun eran. Adierak, Euskaltzaindiaren hiztegitik jasota.

## • 2.1 Zerrenda

**ahakar** 1 iz. **Errieta, agiraka**. 2 iz. **Liskarra**. Eskuan: *akarri*. Baina deklinatuta egon liteke: *akarri(k)*, (*ahakarrik*), eta *-i* erl. atzizkiaren parte izan.

**ate**<sup>1</sup> 2 iz. **Mendi arteko igarobidea**. Edo horren inguruko gunen bat ere izan daiteke. *uTanbaate* txanponean (Utzama Ate), ifrentzuan: *ate*. Idatzita: *ate*.

**aterpe** 1 iz. **Euritik begiratzeko babeslekua**. 2 iz. **Babesa**. Eskuan, inesiboan: *aterpe-n*. Idatzita: *aterren*.

**denak** 1 izord. pl. **Guztiak**. Eskuan: *dene*. Idatzita: *tene*.

**dira** *Izan* adizkia, 3. perts. pl. Eskuan: *dra*. Idatzita: *rra*.

**ekun** *du* ad. Erronk. **Izan**. Eskuan: *eku*. Kutunean: *kun* (azken zeinua, *n*, ez dago osorik). *Bars-kun-ez* txanponekoa ere izan liteke.

**eraduk** *Eradun* ad. Hika agintera. Eskuan: *edrauk*. Idatzita: *errauk*, *ko* silaban, hurrengo *on* osagaiarekin bateratuta: *.ko.n*.

**eta** 1 junt. **Maila edo izaera bereko perpausak edo osagaiak lotzen dituen hitza, gehitze bat, harreman bat-edo, adierazten duena**. Eskuan: *ta*. Kutunean: *ta*. Bietan sintagma konposatuak eratuz: *irr-ta-ma*, *txir-ta-pa*.

**etxe** 1 iz. **Pertsonak bizitzeko prestatzen den eraikina**. Mosaikoan: *Likinetxe*. Idatzita: *likine-te*. *UTanba ate* txanponeko aurkikoa baliteke *etxe* osagaia izatea: *etxaon*. Idatzita: *eta on* (*hon* idazkera izan liteke).

**ez** 6 (Partikula). (**Adizkirik gabeko esaldietan, aditzoinarekin edo partizipio burutuarekin aginte esaldiak eratuz: Ez beldurrik izan. Ez ikara!**). Eskuan: *eze*. Idatzita: *ese*. Mitxelenak aurreikusitako forman.

**gu** Izord. Pluraleko lehen pertsonako izenordaina. Mosaikoan *gu* izan daitekeela ondorioztatzen dugu: *usekerte-ku*. Idatzita: *gu*.

**haiekin** Erakuslea, 3. pl., soz. Eskuan: *heki* (*h* duela ondorioztatzen da). Mosaikoetan: *eki* (*-ko* genitibo balioa duela ulertzen dugu).

**har** Erakuslea, 3. perts.: **hura**. (Baita pl. zentzuan, *hurak*). Mosaikoetan: *-ar* (*bilbili-ar-s*, *eki-ar*).

**hau** Erakuslea, 1. gradukoa. Kutunean: *hau*. Idatzita: *hau* (*ha* zeinua dela ulertzen dugu, *a* berezia).

**hemen** 1 adb. **Toki honetan, mintzatzen dena dagoen tokian**. Eskuan: *kebe*. Baliteke *k* hasperenduna izatea: /kh/.

**hots** 1 iz. **Soinua, zarata**. *Hots egin*: 3 ad. **oihu egin, esan**. Eskuan: (*h*)*ots*. Duen idazkeran, hasperenduna izan liteke.

**irri** iz. **Barrea, irribarrea**. Eskuan: *irr*, sintagma elkartuko elementua, esamolde erakoa: *irr-ta-ma*.

**jaun** 3 iz. **Zernahi gizon, bereziki gizarteko behe mailetakoa ez dena**. Mosaikoan: *jaune*. Posizio enklitikoan. Idatzita: *rraune*, izenarekin fusionatuta, *r-j*.

**ma** iz. **Haur**. **Musua, maitasuna erakusteko norbait edo zerbait ezpainez ukitzea**. Eskuan: *ma*, sintagma elkartuko elementua, esamoldean: *irr-ta-ma*. Idatzita: *nba*.

iz. 2 Kutunean 'kutun' esanahia izan dezakeela ondorioztatzen dugu. Idatzita: *nba* honetan ere.

**ni** Izord. Singularreko lehen pertsonako izenordaina. Mosaikoko *en ni* izan daitekeela ondorioztatzen dugu, beraren forma arkaikoan: *eki-en*.

**on** 1 adj. *Espero den bezain egokia edo onuragarria dena* 3 adj. *Handia, ederra*. Eskuan: (*h*)*on* bi bider. *Zori on* sintagman hasperenduna izan daiteke. Zeinuagatik *hon* idazkera izan liteke. Txanponean ere *eta hon* izan liteke.

**to**<sup>1</sup> *Lagunarteko bokatiboa*.

**to**<sup>2</sup> *Tori*. Hika moldeko aditz egitura. Kutunean: *to-kun*.

**txiker**. adj. *Bizk. Txikia*. (Baita *Erronk.*). Baliteke *oTtikez* txanponeko *tike* osagaia *txiker* izatea: > *txike\_z*, xistukaria jarraian izateagatik *bars-kunez* > *ba\_s-kunez* txanponean bezala dardarkaria galduta.

**txiripa** baliokidea: iz. *Heg. Zorioneko* (zorte oneko) *halabehar edo ezustea*. Kutunean: *txirtapa*. Sintagma elkartu egitura, esamoldea: *txir-ta-pa*, *r* bakunekoa *txir-i* izan liteke lehenengo osagaia. Idatzita: *tirtaba*.

**zori**. 1 iz. *Gertaera on eta txarren iturburutzat hartzen den kausa zehaztugabea; zenbaiten ustean, etorkizuna ezinbestean gidatzen duen ahalmena*. Ik. [patu](#); [zorte](#).

### 3 Sintaxia

iz. *Hizkl. Hitzen hurrenkera eta perpausen eraketa gauzatzen duten arauen azterketa; arau horien multzoa*. Ik. [joskera](#). 1 iz. *Esaldi bateko hitzen hurrenkera antolatzeke era*. Ik. [sintaxi](#).

#### • Perpausak

Orain arte dauzkagun idazkuntan zazpi esaldi antzematen ditugu –sei ere izan daitezke–. *Esaldi* terminoa hizketa mailan kokatzen da, baina hemen gramatika analisisa egingo diegunez *perpaus* termino gramatikala erabiliko dugu, zelan eraiki diren edo zelako egituraketa duten azaldu behar dugunez gero.

Moldatuta emango ditugu, hizkuntzaren gure faseko sistemaren arabera, analisisan aitzineuskararen ezaugarriek interferentzia gutxiago eragiteko. Txostenetan jada aztertuta ditugu elementuen idazkerazko berezitasunak eta linguistikoak; orain perpaus mailako analisisira joko dugu.

- |              |   |
|--------------|---|
| Eskuan:      | 1 <i>Zori on ekun</i>                                       |
|              | 2 <i>Denak hemen elkarrekin dira (daude) babesean</i>       |
|              | 3 <i>Ahots, irri eta musu, ahakar(rik) gabe</i>             |
|              | 4 <i>Eraduk on</i>  |
| Kutunean:    | 5 <i>Kutun honekin edukik txiripa (zorte oneko ezustea)</i> |
| Mosaikoetan: | 6 <i>Likine Abulor jauna, ni bilbilitar haietako</i>        |
|              | 7 <i>Likinetxe, gu Usekertekoak</i>                         |

Hurrenkera horretan ipini ditugu, mosaikoetakoek sintaxi aldetik konplikazio gehiago dutelako, eta azkenerako utziko ditugu.

- 3.1 Agindu perpausak

Hiru perpaus ditugu agindu egituran (1 · 4 · 5), hirurak adizdunak. Eskuko 3.a, adizkia elidituta duena, ez dugu interpretatzen aginduzko zentzuan; adierazpen perpaus arruntzat hartzen dugu, egoera deskribatzen duena.

Ordenari dagokionez, 1 eta 4 perpaus ez dute ordena bera.

1 *Zori on **ekun***. Lehenak aditza amaieran du, aditz jokatu gabeekin gure fasean (euskara historikoa) ohizkoa dugun eran, alegia partizipio forman dago eta, horregatik, amaierako posizioan kokaturik dago: *Zori on **ekun***. Pareko adibide batzuk jartzearen: *Ongi izan, Ondo ibili, Goiz etorri, Goraintziak eman*, etab. Eskuarki horrela da agindu perpaus mota horien ordena, baina ohituragatik edo egokitasunagatik edo, alderantzizko ordena ere onartzen dute: *Izan ongi, Agurtu amatxi*, etab.

4 ***Eraduk** on*. Laugarrenak adizki jokatua du eta horregatik adizkia hasierako posizioan dago. Gure usadioan ere, batik bat adizki sintetikoekin, hori da ordena: *Zoaz etxera ≠ Etxera zoaz*; bigarrena ez da aginduzkoa, izatez. Aldiz, adizki perifrastikoekin ordena ez da hain markatua izaten: *Joan hadi etxera* edo *Etxera joan hadi*, biak ere naturalak. Atsotizetan, adib.: *Orotan fida hadi, orotarik begira hadi* (379), edo *Uler ezak lehenago, eta hitz egik geroengo* (194). Bada, *Eraduk on* perpausaren esan dezakegu ezen adizki sintetikoekin doakien egitura dagoela, hau da, *eraduk* adizkiak sintetikoekin tratamendua duela. Gure atsotiz zaharretara joz gero, adib. Oihenarten bildumara, hona horren pareko batzuk: *Harraika ahuntzari* (33), *Hauko zori gaitzari ekuru* (54), *Errak egia, urka haite* (148), *Gibel egiek ekaitzari* (192), *Emak horari hezurra* (500), *Egik ungi* (574), etab. Hortaz, elementuen kokapenari dagokionez ez dugu ezer berezirik somatzen 1 eta 4 perpausetan, ezaguna eta naturala egiten zaigun egituraketa dute. Esaldi ederrak, bai horixe.

5 *Kutun honekin **edukik** txiripa*. Kutuneko perpausari dagokionez, esan beharra dago 4.a bezalakoa dela, nahiz eta adizkia ez egon hasierako posizioan, adizlagun batekin bideratzen duelako egitura. Horrelakoak atsotizetan (RS): *Ondo egiek landerrari* (265), *Ilbeheran erein ez egik arean* (558), etab.; baina aditzak seinalatzen duen sintagmaren aurretik dago, hain zuzen *Eraduk on* perpausaren pareko egitura: *Edukik txiripa*. Espero den tokian dago: ezin egon daiteke amaieran, baina perpausaren hasieran, adizlagunaren aurretik, hor ere ez legoke egoki, beraren agindu zentzua eta funtzioa kunplitzeko. Aditza bera da perpauseko elementu enfatikoa eta berarekin batera jarraian datorkion sintagma; hasierako adizlagunak bideratu egiten du perpausa, testuingurua eskaintzen dio mezuari.

Bada, sintaktikoki, elementuen kokapenari erreparatuta, hiru perpausak harrigarri perfektuak dira gure usadioaren ikuspuntutik ere.

Nolanahi ere, 5 perpausaren moldapena eginda jokatu dugu, ordena modu didaktikoan azaldu ahal izateko. Baina zati bat, hasierako adizlaguna (AdpS), oso moldatuta eman dugu: *ma - ki - hau > ma honekin* edo *kutun honekin*. Adlag. horrek azalpen morfologiko-sintaktiko konplexua du. Geroago analizatuko dugu, egituraketari buruzko atalean.

- 1F Agindu perpausetan, adizki sintetikoekin edo perifrastikoekin espero den ordena ageri da egituraketan, elementuak gure sisteman bezala kokatuta.

### • 3.2 Adierazpen perpausak

2 Eskuko bigarren lerrokoan adizki sintetiko bat ageri zaigu, *heki* elementuaren ondoren edo, bestela nahi bada, *dira* (*daude*) adizkiak *heki* du aurrean kokatua. Esana dugu ezen gure interpretazioan hasierako *denak* + *haiekin* sekuentzian *haiekin* horrek 'elkarrekin' zentzua duela, aldi hartan *elkarrekin* ez baitzen existituko; hizkuntzak geroagoko fase batean eraikia dela pentsa daiteke, bi erakusle bat eginda dituenz gero: *hark* + *har* > *elkar*, *alkar*, *arkal*, *erkal*, *elgar*, *algar*...

Bigarren perpaus hori luzea da, aditzaz gain beste lau elementukoa, alegia, aditza non kokatu aukerak ematen dituena:

- a) *Denak* *hemen* *elkarrekin* *daude* *babesean*
- b) *Denak* *hemen* *elkarrekin* *babesean* *daude*
- c) *Denak* *hemen* *daude* *elkarrekin* *babesean*
- d) *Denak* *daude* *hemen* *elkarrekin* *babesean*

Adierazpen perpaus neutro bat da, deskriptiboa, ez dio galdetzaile bati zuzenean erantzuten; beraz, adizkia nahi zuten tokian koka zezaketen, eta ez dugu uste dr.a.te.rp.e.n sekuentzia eginez *a* fusionatzeagatik egingo zutenik, hots, zeinu bat gutxiago idazteko. Mezuaren gizarte tasunak iradokitzen digu berariaz dagoela hor kokatuta, hain zuzen *elkarrekin* (*heki*) elementua indartzeko, aditzaren aurrean kokatuta dagoena, *galdegaiaren araua* jakin izan balute bezala.

Eta horrekin loturik, Trask hizkuntzalari handiaren aipu bat tartekatuko dugu, geroago ere iruzkindu beharko duguna (1998: 320):

- «Word order is used for thematic purposes, with a **focused element placed directly before the verb**. In terms of the familiar classification of Greenberg (1963), Basque is a virtually perfect SOV language.»

Bada, galdegaiaren kontuari dagokionez horrela da, 2. perpausa exaktua da. Baina aipuaren bigarren partea, SOV egiturarena, aditza amaierako kokagunean, ez da betetzen. Gai eztabaidatua da SOV edo SVO ordenarena, adituen artean ez dago kontsentsurik. Trasken berak ere lehenagoko lan batean (1977) SVO motakoa zela adierazia zuen. Baina euskararen tipologia horrelakoa dela esan ohi da, Lakarrak ere konstatatzen duenez (2006: 564):

- «Es probable que si se pidiera a cualquier vascológico que señalara las tres o cuatro características estructurales principales del vascuence, éste contestara haciendo alusión a (1) el carácter aglutinante de la lengua, (2) su morfología ergativa, (3) **su orden de palabras SOV** y, tal vez, a (4) la riqueza sin fin de su flexión verbal...»

Baina Trasken erreferentzia hau ere ematen du, 1977koa, desberdina:

- «...el orden de los afijos —prefijados a la raíz— de la conjugación sintética llevan a Trask (1977) a suponer que **antes el verbo no podía estar en posición final absoluta**.»

3 Eskuko 3. lerrokoa bereiz eman dugu zerrendan. Horrek aditza eliditurik du, eta aparteko lerro bat osatuz dagoenez, perpaus independentetzat har dezakegu. Eliditurik duen adizkia aurreko perpausoko berbera izango litzateke: *dira* (*daude*), zeina bi tokitan koka genezakeen:

- 3 *Ahots*, *irri eta musu* (*daude*), *ahakar(rik)* *gabe*  
*Ahots*, *irri eta musu*, *ahakar(rik)* *gabe* (*daude*)

Baina beste aukera bat da aurrekoaren jarraipen gisa interpretatzea:

- 2 *Denak hemen elkarrekin daude babesean, ahots, irri eta musu, ahakar(rik) gabe*

Hots, 2 eta 3 bezala sailkatu ditugunak bakartzat hartzea. Modu horretan adierazpen esaldi bikaina lortzen da, antzinate hartarako pentsaezina litzatekeen tamaina eta mailakoa.

Bada, 3 perpaus solte gisa kontsideratuz gero, adizkia aurrekoaren parean izango lukeela jo dezakegu, hau da, 2 eta 3 egitura aldetik paraleloak izango lirarteke:

- 2 *Denak hemen elkarrekin daude, babesean*
- 3 *Ahots, irri eta musu (daude), ahakar(rik) gabe*

Eta adizkiaren aurreko elementu indartua edo galdegaia (*focused element*) tankera berekoa: batetik, *elkarrekin* eta bestetik, *ahots, irri eta musu*. Kategoria gramatikal desberdinekoak, adlag. / sintagma multzoa, baina adierazpen hari berberekoak.

Gainera, VIII. txostenean adierazi genuen bezala, sintagma multzo horretako egitura oso berezia da. *Nola* galdetzaile teoriko bati erantzuten dio baina sintagma indeterminatu multzo baten bidez. Eta bitxia izan arren, oharkabean pasa dakiguke berezitasuna, gaur egun ere horrelakoak naturaltasunez eraiki ditzakegulako.

Hurrengo biak ere, 6 eta 7, adierazpen perpausak dira, baina aditza elidituta dute, aditzik gabe ere mezua ederki transmititzen dutelako: idazkunak irakur ditzakeen edonork badaki adierazpen bakoitzari falta zaion aditza zein den, naturaltasunez osa daiteke egitura.

- 6 *Likine Abulor jauna, ni bilbilitar haietakoa*
- 7 *Likinetxe, gu Usekertekoak*

Andelokoan, 6.a, gure *naiz* adizkia dago elidituta –tamala jarrita ez egotea, gure ikerketarako–, baina irakurlearen sen linguistikoak erraz-erraz bi lekutan interpreta dezake: edo lehenengo blokearen ondoren (*Likine Abulor jauna naiz*), edo adierazpenaren amaieran (*bilbilitar haietakoa naiz*). Nabarmentzekoa da *ni* izenordainak estaltzen duela adizkiaren gabetia, berak iradokitzen du adizkia, ordezkapena eginez. Osterantzean, *ni + naiz* sekuentzia gehiegizkoa gertatuko litzateke, erreduntantea.

Usekertekoan, 7.a, horrela interpretatzen dugularik, adizkia amaierako kokagunean legoke: *gara*; baina, esan dugunez, ez da beharrezkoa. Gure usadio modernoan ere zenbatnahi mezu ikus ditzakegu horrela egituratuak.

Azkenik, aurreko atalean bezala, esan beharrean gara analisi honetarako perpausoko osagaien moldapena eginda jokatu dugula, osagaiak jatorrian ez baitaude guk eman bezala uztartuta. Baina hori geroago azalduko dugu.

- 2F Adierazpen perpausetan gure tipologiako egituraketa antzematen dugu elementuen kokapenean, baita galdegaiaren senari dagokionez edota aditzaren elipsia egiterakoan.

### 3.3 Ezaugarri tipologikoa

Hizkuntzek, dituzten ezaugarrien arabera, halako tipologia bat izaten dute eta horien arabera ere egiten dira hizkuntzen sailkapenak, ez bakarrik kidetasunaren arabera.

Euskarari gagozkiola, seinlatu berri dugunez (Trask), bere ezaugarri tipologikoa da *aglutinantea* izatea, hots, **eranskarria**: 1) kategoria morfosintaktiko guztiak atzizkiak dira; 2) forma eta esanahia estuki loturik daude. Beste tipologia batekoak hizkuntza *flexiboak*



dira, adib. grekera edo latina: 1) ez dituzte soilik atzizkiak, baita aurrizkiak; 2) forma eta esanahia ez dira bide bakarrekoak; adib. latinean nom. pl. forma desberdinekoak izan daitezke.

- **eranskari** adj. *Hizkl.* [Hizkuntzez mintzatuz, erlazio gramatikalak aglutinazioaren bidez gauzatzen dituen.](#)

Beraz, euskara oinarrian hizkuntza eranskaria da, baina baditu hizkuntza flexiboen jokabide batzuk; adib. *-ak* mug. pl. edo erg. marka izan daiteke aldi berean, eta erg. sing. edo pl. ere hizketa mailan. Alegia, 2) ezaugarria ez da beti betetzen.

Hizkuntza eranskaria izatearen adibide onenak adizkiak dira; batez ere perifrastikoetan morfema asko egon daitezke erantsita, laguntzailean bereziki, perpauseko elementu desberdinekin lotura zuzena dutenak, nolabait haien ordezeko edo ordezkari gertatzen direlarik.

Baina euskara historikoan ezagutzen dugun tipologia hori ez dakigu beti horrela izan den. Esaterako, aipatu dugun adizki perifrastikoen tipologia eranskaria nahiko 'moderno' izan behar da hizkuntzaren eboluzioan, zeren onartua baita sistema perifrastikoa (aditz nagusia + laguntzailea) latin sistemaren edo erromantzeen tankerara eraikitzen eta moldatzen joan zela. Baina, bestalde, horrek adieraz lezake hizkuntzak jada bazuela eranskari izaera eta horren ildotik garatu zuela sistema perifrastikoa; hots, ez zuela beste tipologia bat sortu, baizik eta betiko ildotik jarraitu. Eta, horrela, nahiz eta sistema perifrastiko aberats bat eraiki, inguruko hizkuntzen tankerakoa, sistema bakarrik imitatu zuen, eta beraren nortasun eranskaria ezarri zion, inguruko hizkuntzetatik bereiz, inguruko hizkuntzak flexiboak baitira, esan dugunez. Alegia, ondorioztatu dezakegu bere betiko ereduarekin jarraitu zuela; bestela bi aldaketa handi egin beharko zituen, aditz sistema berreraiki gehi tipologia aldatu. Ez dirudi logikoa.

Gogoeta eta azalpen honek helburu praktiko bat ukan nahi du, finean barskunera haren gramatika ulertzen laguntzea. Zeren ezaguna dena da konparazioz euskara inguruko hizkuntzak ez bezalako egituraketa duen hizkuntza dela, "oso aldrebesa" elementuen kokapenean. Adibide sinple batekin ilustratuko dugu:

*In<sup>1</sup> the<sup>2</sup> same<sup>3</sup> street<sup>4</sup> · En<sup>1</sup> la<sup>2</sup> misma<sup>3</sup> calle<sup>4</sup> · Kale<sup>4</sup> bere<sup>3</sup> a<sup>2</sup> n<sup>1</sup> > bere·a·n*

Alegia, osagaien kokapena zeharo desberdina da eta, gainera, 3·2·1 osagaiak integratuta daude, elementu bakarrean multzokatuta, erantsita. Hortaz, faktore hau ere kontuan izango dugu, erreferentzia moduan.

- 3F [Jo dezakegu euskara historikoak bezala barskunera ere eranskari izaera zuela, hots, morfema bidezko sintaxia, eta horiek forma eta esanahi zehatzekoak.](#)

Esan bezala, ikuspegi honek lagundu diezaguke sekuentzia batzuen analisisian: *bars·kun·ez, eki·ar, eki·en, Bilbili·ar·s*. Baina gehiago ere beharko dugu, hain zuzen, gramatika; alegia, nola kudeatzen zituen hizkuntzak osagai morfosintaktiko horiek, nola antolatzen zituen, nola eraikitzen zituen perpausak?

### 3.4 Barskuneraren gramatikaz

Gure hurbilketarako, Gramatika Sortzailearen teorizazioa baliatuko dugu, gurean bereziki Patxi Goenagak 1978tik hona garatutako eredu. Oinarrizkoena hartuko dugun arren, uste dugu eredu egokiena izan daitekeela langai honetarako, gramatika deskriptiboen aldean.

Bada, horren arabera hizkuntza bateko perpausak hizkuntza horren gramatikak sortzen edo eraikitzen dituenak dira, erregela batzuen arabera, zeinak hiztunek era inplizituan kontrolatzen dituzten, oharkabean, eta era berean aplikatu ere komunikazioa eraikitzen dutenean, AI edo inteligentzia artifizial baten modura, kolektibo baten barneko interakzioan.

Garrantzitsuena, gure xederako, da gramatika sortzaileak sakoneko egitura teorikoa erakusten digula eta, ondoren, transformazio erregelen bidez azalekora nola igarotzen diren. Esaterako, *mendiko* izenlaguna azaltzeko (*nongo* galdetzailea) gramatika sortzaileak esango digu sakoneko egituran (SE) *mendi - a - n - ko* osagaiak daudela, eta transformazio baten bidez sekuentzia hori > *mendiko* bilakatzen dela azaleko egituran (AE). Hona adibide sinple batzuk, SE > AE:

*lagun · ak · k > lagunek · esku · hau · tik > esku honetatik*  
*ezaugarri · ak · ren · gatik > ezaugarriengatik*

Edo alderantziz ere jar genezakeen AE < SE: azalean ikusten dugun egitura nondik eratorri den, oinarrian zein osagai dituen.

Adibide oso sinpleak ipini ditugu baina, noski, hizkuntza batek (AI) sortu edo eraiki dezakeen egitura kopurua azkengabea da, askotarikoak eta oso konplexuak, muga edo hesi batzuen barruan (sistema) baina beti probak egiten dabilelako. Alfabetoaren bidez idatz dezakegun hitzen kopurua amaigabea den bezala, horrelakoxea da hizkuntza baten gramatika ere perpausak sortzeko ahalmenean.

Eta honek bideratzen gaitu beste analisi batera. Pentsa dezakegu gure fase historikoan edo modernoan estandartzat ditugun egitura asko ez direla beti izan horrelakoak, oinarri batzuekin jokatzuz hizkuntzaren sistemak gaurko estandarretatik aparte daudenak ere eraiki izan ditu. Ez perpausak bakarrik, baita elementu sinpleagoak ere. Gure testu zaharrak, modernoak hizkuntzaren historian, egitura bitxiz beterik daude. Eta ez bakarrik testu zaharretan, hizketa mailako material bildumetan ere, berriki jasoak, era askotako egitura bereziak agertzen dira. Esaterako: *Horrek gizonak zer dino?* Irigoienek aipatzen du gaztetan, Bilboko hizketan, gaztelaniaz "*El hombre ese*" bezalakoak erabiltzen zituztela, euskararen eraginez noski. Izan ere, Bizkai aldean alfabetatzeak ekarri ditu egitura estandarrik, baina bestelako egiturak ere bizirik daude; adibiderako, erakusleekin *etxe horretan, hartan...* ikasitakoak dira askotan, arruntak *horko etxean, hangoan...* erakoak direlako.

*gizon · hori · k > gizon horrek · hori · k · gizon · a · k > horrek gizonak*

SEtik aztertuta, nahiko desberdinak dira, konfigurazio edo uztarketa aldetik. Bigarrena ez da estandartzat hartzen, baina sistemaren posibilitateen barruan dago, eta erabil daiteke, erabiltzen denez, komunikaziorako baliagarria delako.

Testu zaharretan, hona Lakarrak bildutako adibide gutxi batzuk (RS: 193):

- «*Ene veguiacaz vicoeen artean irakurtzen da amodiozko bertso zahar batean* (TAV 122). Egitura «arraro» (Mitxelenaren iruzkineko hitzak» dira) bera («X-ekin Y = X eta Y») agertzen da B zaharreko eta klasikoko testu gehiagotan ere [...]. RS-etan ere badugu bat, edota, agian hobe, bi batean: 246 *Oguiagaz hura, oragaz heroen elicatura*, «Pan con agua, mantenimiento de loco y mastín». [...] Egitura arkaiko honetan ere B ez da bakarra, G-z era horretako hainbat exenplu bildu baitituzt...»

Hortaz, adierazi nahi duguna da estandar edo arrunt jotzen ditugun egituretatik urruntzen direnak ere badirela, gure fase historikoan berean; eta hori horrela izanik, kontsideratu dezakegu antzinate hartako egoeran are bereziagoak izango zirela, gure

ikuspegirako. Alegia, ez zen beste hizkuntza bat, bazituelako gure fasean erabiltzen ditugun osagaiak, baina beste molde bateko uztarketa zuen, beste gramatika mota bat.

- 4F Jo dezakegu barskunerak morfema bidezko sintaxia zuela, eranskaria, baina gramatika desberdinekoa gurearekiko, osagaiak uztartzeko beste molde bat.

Faktore hori aintzat hartuz gero, kutuneko *ma · ki · hau* irakurtzen dugun sekuentzia > *ma honekin* bezala uler dezakegu. Gure eredurako hurbilago legoke *ma · hau · ki* eran idatzi izan balute, soz. desinentzia erakuslearen ondoren, *honekin* posibletik hurbilago; baina ordena horretan idatzi zuten eta gure interpretazioan *ma (kutun) honekin* adiera du.

Uztarketa edo egituraketa alderdi honetarako mosaikoetako idazkunak ere ekar ditzakegu, baina horien kasuan uste dugu genitiboaren problematika azaldu beharra dagoela lehenago.

### 3.5 Leku-denborazko genitiboaz

Morfologia atalean azaldu dugunez (1.4), bi genitiboak oso funtzionalak dira perpauseko elementuak uztartzeko. Genitibo edutezkoa (*noren*) izen sintagmei (IS) lotzen zaie. Eta beste genitiboa, leku-denborazkoa (*nongo*), adizlagun erako egiturei, *no·n-*, oinarriz. Baina perpauseko beste elementu askori eransteko ere balio dute: *-rako*, erlatibozko adizkiei, aditz-izenei, etab. Morfema edo atzizki oso garrantzitsuak dira.

Esana dugu barskunerak edo aitzineuskara hartan noren genitiboak izenordainei erantsitakoak izango zirela, hori baita IS konfigurazio sinpleena, *en·e, gu·re, har·en...* bezalakoak. IS arruntek mugatzailea behar dute, horren ondoren noren genitibo atzizkia hartzeko: *esku·a·ren*. Bada, mugatzaileen faltan uste izatekoa da ez zela izango izenei erantsitako noren genitiborik, IS bihurtu gabeko egituran. Alegia, ez dakigu adibidez *ahots, irri* edo *ma* hitzei nola erants lekiekeen gen. marka lehenago mugatzaile bidez sing. edo pl. zehaztu gabe, IS bihurtu gabe.

Baina arazo larriena leku-denborazko genitibotik dator. Gure premisa da barskuneraren fase hartan ez zela izango *-ko* genitibo morfemarik. Esana dugu Benvenistek latinaren kasuan formulatu bezala, euskaran ere erlatibozko adizkien bidetik sortu zirela genitiboak, eta hizkuntzaren fase hartan ez dugunez aurreikusten adizki erlatibizaturik (*duen, dagoen...*), ondorioztatzen da *-ko* morfema geroagokoa dela. Laburkiro honela azal daiteke arazoa: *mendi·ko* izenlagunaren azpian *mendi·a·n·ko* egitura dago, *non·go* galdetzailearen egituraketa berbera osatuz; baina are barnerago erlatibozko adizki bat dago, adib. *mendiko txabola* sintagmaren azpian *mendian dagoen txabola* sekuentzia ulertzen da. Gauza bera esan dezakegu noren genitiboaren eraketaz ere. Eskema baten bidez:

*hiri·ko·a < hiriko denda < hiri·a·n·ko denda < hiri·a·n dago·en denda*  
*zorion·e·ko·a < zorion·e·ko pertsona < zorion·a du·en pertsona*

Gen. edutezkoaren kasuan *gu·re* bezalako egitura sinpleak posibletzat jotzen ditugun bezala, leku-denborazko genitiboaren kasuan aditzondoak liriteke parekoak: *gaur·ko, hemen·go*, etab. Baina horietan ere, sakonean erlatibozko egitura bat sumatzen da: *bihar·ko·a < bihar izango dena*. Hots, gen. desinentziekin batera kontzeptu bat doa modu inplizituan, *den·a, dagoen·a, duen·a* edo antzeko aditz erlatibizatu bat. Horretan datza arazoa. Eta hor dago, bide batez berriz esanda, zergatik eskuko lehenengo lerrokoa ezin izan daitekeen “*zorione·ko*”; ez da *u* edo *o* baten artean egon daitekeen “hurbiltasun”

kontua, espekulatu den moduan, edo antzinako *u* bat *o* bilakatu ote den. Arazo linguistiko konplexu bat dago horren atzean.

Bada, *-ko* gen. morfemarik ez zegoela premisa horretatik abiatuz gero, horrek problematika serioa dakar berarekin: nola uztartzen zituzten perpauseko elementuak? Zein beste baliabide zuten horren ordeko? Gorago jarri dugu adibide bat, erakuslerik erabili gabe nola ordezkatu daitezkeen egitura: *etxe horretan* = *horko etxean*, edo *orain momentuan* = *momentu honetan*, etab. Gure dedukzioan, material oso gutxi dugun arren, *eki* (edo *heki*) elementua baliatzen zuten euskarri moduan, batik bat mosaikoetan interpretatzen dugunaren arabera, ez eskuan. Hiru *eki* ditugu:

- 1 de.n.e ke.be he.ki
- 2 e.ki.en bilbili.a.r.s
- 3 e.ki.a.r u.s.e.ke.r.te.gu

1 *heki*: 'haiekin' bezala interpretatzen dugu, soz. hutsa (norekin), baina *dene* izenordainaren gehigarria izanik, 'elkarrekin' adierakoa.

2 *eki-en*: *en* izenordaina (*ni*) du jarraian, baina hurrengo elementuko a.r.s osagaiekin du lotura, zehatzago *eki* + *ar*. Adiera: 'haietakoa'. Sekuentzia osoaren adiera: 'ni bilbilitar (*s* desinentzia) haietakoa'. Literalago: 'haiekin ni bilbili a tar'.

3 *eki-ar*: *ar* erakuslea (edo mugatzaile funtzioan) erantsita. Uste dugu Usekerte izenarekin uztartzen dela: 'Usekerte haietakoa(k)' = 'Usekertekoak'. Pl.ean jarri behar dugu, *gu* izenordainak bideratuta. Alegia, *ar* morfemak sing. edo pl. balioa izan zezakeen, nolabait mug. generikoa zela jo dezakegu.

Egiten dugun interpretazioaren arabera, 3 egitura 2 bezala eraiki zezaketen, egitura paraleloan: e.ki.gu u.s.e.ke.r.te.a.r.s. Baina horrela zentzua aldatu egingo litzateke: 'gu usekertetar haietakoak'. Esana dugunez, Andeloko mosaikoko idazkunean Likine jaunak adierazten du bera edo Bilbilikoa dela edo hangoekin lotura sendoa duela; *haiekin* dago edo *haietakoa* da, baina etxea ez dago Bilbilin. Ordea, *gu Usekertekoak* egituran, adierazi dugunez, ulertu behar da Usekerten bertan dagoela Likinetxe, eta bertakoak. 2 bezalako egituraren bidez, 'gu usekertetar haietakoak', Usekerte beste nonbait dagoela adieraziko litzateke. Horregatik esana dugu gaurko Caminreal Usekerte izan zitekeela, oraindik non kokatzen zen argitu gabe dagoena.

Eta galdera teoriko bat planteatu dezakegu. Bigarreanean, eta batez ere hirugarreneko *ekiar* hori *koa(k)* balioarekin interpretatu dugunez, eskuan ke.be he.ki.a.r sekuentzia posible izan al liteke, 'hemengoak' adieran? Beste esaldi bat idatzi zuten, badakigu, eta horregatik 'elkarrekin' zentzua esleitzen diogu. Baina (*h*)*eki* izan zitezkeen *-ko* genitibo morfemaren funtzioak betetzeko baliabidea.

- 5F Jo dezakegu barskunerak (*h*)*eki* elementua baliatzen zuela *-ko* genitibo zentzua adierazteko, eta perpauseko elementuak nolabait uztartzeko ere.

## 4. Gidaren aplikazioa: kutuna ikertzen

**4.1 Testuingurua.** Eskuko testua argitzeko lanak askotariko materialen ikerketa eskatu digu, eta bilaketa horretan kutunaren argazkiarekin egin genuen topo. Luis Ignacio Azcona Ezcurrak 2015ean sarean argitaratu zuen obra batean ageri da: *El ibérico: lengua uskeika*. Obrako azaleko irudia da baina antzinateko idazkunen ikertzaileek ez diote erreparatu, ez baita inongo datu-basetan ez materialen inbentariotan aipatzen. Soilik beste webgune batean, baina liburuaren erreferentzia.

Obrako beste imajina asko bezala hori ere beraren jabetzako dela zehazturik du autoreak. Horrela, berarekin kontaktuan jarrita, azaldu zizkigun bere teoria linguistikoen nondik-norakoak, eta kutuneko argazki bakarra dela, ordenagailuan-edo duela, hor nonbait, eta baimena genuela erabiltzeko, ondoren mezu idatzian baietsi zigunez. Piezari buruz ez dugu informazio gehiago.

Kutunaren beraren testuinguruari dagokionez, Azconak zehazten du K.a. II. mendekoa dela, Cascanten duela jatorria eta testua iberiera dela, euskara senidea delarik teoria tradizionalaren arabera eta gaztelaniaren substratua. Gure iritzian, datu fidagarrien faltan, kutuna K.a. I. mendekoa ere izan liteke, Irulegiko Eskuaren garaikidea, idazkeran eta testuan antzematen ditugun ezaugarrien arabera. Eta hizkuntzari dagokionez, ez dugu zalantzarik barskunera dela.

Azkenik, merezi du iruzkintzea pieza honek zenbaterainoko balioa duen garai hartako giroaren ezagutzan barneratzeko. Eskuaren bidez deskubritu dugu idatzi egiten zutela, eta irakurri, noski; hots, ez ziren gizarte agrafoa, alfabetatuak ziren hein batean. Eskuan idatzita dagoena irakurria izateko zen, eta kutunak are gehiago argitzen du testuingurua: erromatarren etorrera arranditsua gertatu zenerako barskunek bazuten idatzizko zibilizazio maila bat, garai hartako idazkera sisteman gauzatzen zena, ez bakarrik gutxi batzuen esku zegoena baizik eta gizartean hedatua. Kutuna bera da, eta daukan testua, horren frogarik argiena: pieza pertsonala da, zeramanak ziurrenik bazekien idazkunak zer zioen, eta besteek ere irakur zezaketen; alegia idatzizko komunikazioa funtzionala zen, gizartekoa.

**4.2 Ezaugarri orokorrak.** Neurri txikiko pieza bat da, idunean edo lepotik behera zintzilika eramatekoa, kutun bat (zintzilikarioa, zinginarria). Brontzez egina, eskua bezala, diseinu landua du: madari formakoa, simetrikoa, euskarrirako zulogune landua,

Iturria: L. I. Azcona



beheko aldean sigi-sagan eginiko marradura proportzionatua eta ongi zentratua eta, azkenik, testua goian-behean mugarritzeko bezala, bi marradura horizontal paralelo, ongi eginak. Finean, artelan edo bitxi ederra, urre gorritzkoa izan ez arren. Diseinuari eta egikerari erreparatuta uste izatekoa da ez zela pieza bakarra izango, horrelakoak edo antzekoak gehiago izango zirela barskunen artean, agerikoa baita eskarmentua zutela horrelakoak fabrikatzen.

Bestetik, 2000 urte baino gehiago izanik, piezak hondatu batzuk ditu metalean, baina idazkunari ia eragiten ez diotenak, soilik bigarren lerroko azken zeinuari, erdizka ageri dena.

4.3 Testuaren idazkera. Hamabi zeinu irarri zituzten kutunean, hiru lerrotan oso txukun: tamaina berekoak, proportzio zehatzekin, ongi lerrokatuta eta zentratuta, ahapaldi bat egin nahi izan balute bezala.




Lehenengo lerroa aztertuta, berezia da *ki* zeinua, oso etzana baitago; eskuan edo mosaikoetan bertikalago ageri da. Beste berezitasun bat, oso garrantzitsua gure analisiaren arabera, azken zeinua da: *ha*. Idazteko *a* eta *r* zeinu estandarrek triangelu etzanan forman egiten zituzten, erpina ezkerrean <r edo eskuinera a>, baina triangelu osoak, laugarren lerroko bigarren zeinua eredu: <r. Ordea, lehen lerroko azkena ez da triangelu osoa, zeinuaren goiko erdia baino ez du betetzen; eta jarraian *u* zeinua duelarik, gure iritzian soinu hasperenduna adierazteko aldakia da: *ha*. Zeinu dualak zituzten bezala, ondorioztatzen dugu hasperenketa ere markatzen zutela *a* bokalaren kasuan gutxienez. Eskuko *heki*-n *h* soinua dagoela ulertzen dugu sekuentzian bi e.e ageri direlako, jarraian; baina *e*-ren forma apurtxo bat da berezia, erdiko besoa. Ordea, *uTanbaate* idazkuneko txanporean, *utz·ama·ate* osagaiak dituena, bi *a* zeinu desberdin daude: *ate* osagaikoa estandarra da, a>, eta badakigu *ate* izenak ez duela *h*-rik izan historikoki; baina *ama* osagaiko *a* forma berezikoa da, kutuneko bezalakoa (ikus ► [materialak](#)). Kutunean *hau* erakuslea interpretatzen dugularik, hasperenketadun zeinutzat jotzen dugu. Txanporean, aldiz, ez dakigu zer den *hama* izan daitekeen osagaia, zeltiberierazko morfema superlatiboa kontsideratzen dutena, gure (izond. +) *-en* atzikiaren parekoa.

Bigarren lerroan berezia da hirugarren zeinua, *ku*. Zeinu duala dela ulertzen dugu, eskuan bezala (e.ku), erronbo hertsia bat izan beharrean luzapentxo bat duelako behe aldean. Alegia, erronbo estandarra, puntutxoa erdian duela, *gu* silaba da, baina luzapentxoak *ku* ahoskabea seinalatzen du. Horren jarraian dagoen zeinua ez dago osorik, metalak duen hondatuagatik, baina agerian den zatiak *n* erdi baten itxura du, lehenengo zeinua bezalakoa, testuaren analisiak ere baiesten digunez.

Hirugarren lerroan *ba* silabari dagokion zeinua ageri da bigarrenez, baina kasu honetan *pa* ahoskabea dela interpretatzen dugu. Lehenengoa argi dago n.ba sekuentzia izanik *ma* silaba dela.

4.4 Testuaren interpretazioa. Testuko hiru lerroetan hiru zati edo segmentu bereizten ditugu; baina ez doaz lerroka. Lehenengo segmentuak bost zeinu ditu, bigarren lerroko lehena ere hartuta. Azken lerroa osoa da: lau zeinu, segmentu osoa. Gure iritzian segmentazio hori da zentzua edo esanahia duena; bestelako konbinaketek ez garamatzate ezer interpretatzera, ez dugu antzematen mezurik beste lotura batzuk eginda.



Grafikoa: Butroe

1 Lehenengo segmentua. Horretan hiru osagai ikusten ditugu: *ma · ki · hau*. Hasierako *ma*, ezaguna egiten zaigu, eskuan ere agertu baita, '*musu*' esanahiarekin lotzen duguna, baina *irr · ta · ma* esamolde erako egituran, dena batera hartuz gero, '*pozik*' adieran ere uler daitekeena. Baina *ma-k* kasu honetan ez dirudi '*musu*' esanahia duenik, txertatuta dagoen zatiko osagaiekin batera bestelako zentzua nabaritzen diogu, hain zuzen, *ma* '*kutuna*'. *Kutun gauzakia*ren sinonimoak aipatu ditugun bezala (*zinginarria*, *zintzilikarioa*, baita *eskapularioa*), gauzakia ez deneko adiera ere badu, '*norbait*, *pertsona*':

4 iz. *Norbaitentzat guztiz maitea eta begikoa den gauza edo pertsona*.

Bada, testuingurua aintzat hartuta, uste dugu *ma* hitz hori '*gutziz maitea edo begikoa den gauzakia*' adierakoa dela. Alegia, guretzat *kutuna* '*gauza*' edo '*pertsona*' izan daitekeen bezala, *ma* '*musua*' edo '*gauza*' zentzukoa izan zitekeela, *kutuna* hain zuzen.

- Hurrengo osagaia, *ki*, soz. (norekin) kasuko atzizkitzat hartzen dugu. Esana dugunez *ki* atzizkia jotzen dugu barskunerako soz. atzizkia, geroago inesiboko *-n* marka ere jasoko zuena eta, horregatik, gure testu zaharretan, hainbat autoreren idazkietan agertzen da *-ki* formarekin ere, molde arkaikoan. Osagai hau lehenengoari atxikiz gero *ma·ki* izango genuke, nolabait '*kutunarekin*' esanahikoa; baina horrela loka geratuko litzaziguke segmentuko hirugarren osagaia, *hau* dela jotzen duguna, 1. graduko erakuslea, hots, lekuz kanpo legoke testuaren harian, uztartu gabe, gainerako osagaiekin adierazpen logiko bat erdietsi gabe.

- Hortaz, *ki* osagaia, deklinabideko soz. atzizkia jarraian duen *hau* erakuslearekin egituratzen dela ulertzen dugu: *ki · hau* > honekin. Azaldu dugu *Gidako 3.4* atalean, xehetasun gehiagorekin, barskuneraren gramatika ez zela gurearen parekoa. Azaldu dugu gure sisteman adib. *honetatik* sakoneko egituran *hau + tik* dela, gure gramatikaren ikuspuntuarekin kutuneko bi osagai horiek hurbilago leudekeela alderantzizko ordenan (*hau · ki*), baina horrela daude, horrela zen barskuneraz, eta gure interpretazioan, hirurek batera *ma honekin* edo *kutun honekin* adiera dute.

- Baina segmentu honetan, beste puntu garrantzitsu bat da *hau* erakuslearen forma. Pentsa liteke *hau* erakuslea bere ustezko forma zaharrenean agertu beharko litzatekeela, *haur* izan daitekeena. Kasurako, badakigu *bir*, *hirur* edo *laur* formak zaharragoak direla *r* gabeak baino, zeharkako kasuetan azaleratzen direlako molde horrekin (*birramama*, *hiruretan*, *lauretan*, etab.); edo *har* zela antzinako erakuslea (*hark*, *haren*, *hari*, etab.), gero mugatzaile bilakatu zena, mosaikoetan antzeman duguna. Horren arabera, kutunean *haur* forman agertzea espero liteke. Edo, bestela epaituta, kutunean *hau* erakusletzat jotzen duguna ez litzateke erakuslea izango, ez baitu *haur* forma. Bada, merezi du arazoa apur bat ikertzea.

Izan ere, egia da testu zaharretan, hainbat idazleren lanetan *haur* forman agertzen dela 1. graduko erakuslea, bai izenordainen indargarri (*nihaur* / *nihaurek* / *nihaurrek*, *hihaur* / *hihaurek*, *zuhaur*, *zihaurk*, *guhaur*, etab.) eta bai bera hutsean ere: *haur*. Leizarragak erruz erabiltzen zuen: *Ezen noiz-ere ianen baituzue ogi haur eta kopa haur edanen*; *Haur neuror baithan deliberatu ukhan dut*; *Ezen haur ungiz hobeago dut*.

Edo Etxeparek, Oihenartek, Axularrek eta beste idazle batzuek. Adib.: *Gure artian haur dakusat itsutarzun handia*. E 25; *Haur hal'ezten* O Po 4s; *Liburutto haur da emazurtza*. Posthumus. Ax 4 (V 2). *Sakrifizio haur odolstatü gabe da*. Bp I 76.

Edozelan ere ez gara berriz barneratuko erakusleen sistemaren bilakaeraren ikerketan. Eskuko *heki*-ren harira (VII. txostena) xeheago azaldu dugu eta erakutsi zenbat forma saiakera egin dituen hizkuntzak erakusleekin (*heki*, *hauki*, etab.). Bakarrik esango dugu gure autore klasikoan lanetan *haur* forma arkaikoa dugun bezala badugula *neur* (*neurk*) izenordaina ere, edo *neuror*, edo *nerau*: *Neurk egin nuen gizona, neurk deseginen dut*. Ax 121; *Txitxirio onetatik neurk jan izan det*. Izt C 30; *bestek eskainia nik neurk hartu dut ontzat, ez dakit zergatik*. MEIG IV 73. Erakuslearen edo izenordain horien *-r* noiz sortua den edo zein testuingurutan ikertzeak eta azaltzeak luze jo dezake, baina laburkiro hona gogoeta batzuk: batetik, *haur* erakusle *r*-duna balitz forma zaharrena, *har* 3. gradukoak bezala jokatzea espero liteke, zeharkako kasuetan biek egituraketa paraleloak izatea, *r*-dunak, baina ez da horrela gertatzen; adib.: *har* > *harekin* baina *hau·r* > *honekin*, *har* > *hari* baina *hau·r* > *honi*; hots, erakuslea *haur* forman nom. kasuan ageri da, ez du jarraipenik beste kasuetan, eta horrek adieraz dezake *-r* hori ez dela jatorrizkoa, *har*-ena baden bezala. Bestetik, segmentuaren egitura azken posizioan kokatuta agertu arren eta, beraz, *hau·r* forma izateko kokagune aproposa dirudien arren (nom.), ez da horrela *ki* osagaiarekin loturik doala kontuan hartuz gero (*honekin*), hots, ez dago solte, ez da elementu autonomoa, eta horrek bide batez indartu egiten du segmentuko osagaiak josteko egin dugun hautapena, alegia *ma* alde batetik eta *ki·hau* bestetik, nahiz eta gure gramatikarekiko aldrebesa dirudien, baina gorago aipatu dugun *hau + tik* > *honetatik* bezalako adibideak, gure sistemak eragindako transformazio horiek ere, ez al dira bitxiak?

Finean, konstatatzen duguna da kutuneko lehen segmentuan *hau* osagai bat dagoela, *-r* gabea, eta 1. graduko erakusletzat jo dezakegula, soz. markarekin bat eginda adlag. egitura bat osatuaz testuaren hariarekin zentzu osoa duena.



2 **Bigarren segmentua.** Hiru zeinuk osatzen dutela ulertzen dugu, *to.ku.n* sekuentzian. Esana dugu azken zeinua erdizka egon arren itxuragatik eta testuaren harian *n* grafema dela, *ekun* aditzaren azken letra izango litzatekeena.

Hortaz, bigarren segmentu honetan antzematen dugu adizkia eta ondorioztatzen denez, testua ez da SOV egiturakoa baizik eta SVO erakoa, aginterazko adizkia ezin baita egon amaieran.

Interpretazio lanean ari garenez benetan garrantzitsua adizki horrek ematen digun informazioa da. Gidaren 1.5 atalean azaldu dugunez, xeheago, barskunerak hikako sistema ere bazuen, eskuan agurtzeko esaldietan ageri dena, eta sistema neutroarekin konbinatzen zuena, *dira* eskuko 2. lerroan, Etxeparek bezala, kasurako. Eta lehen faktoretzat (1F) seinalatu dugu hikaren erabilera agindu eiteko perpausetan, elkarrizketa mailakoetan. Bada, eskuan bezala kutunean ere hika sistema ageri zaigu.

Teorikoki bi interpretazio egin daitezke sekuentzia horrekin. Alde batetik, *to* eta *kun* osagaiak bereiz kontsideratzea, eta kasu horretan *to* hitano tratamenduan gizonetzko (toka) zuzentzeko **bokatiboa** izango litzateke, emakumezkoen kasuan *noka* dena, hots, *to* eta *no*: *Augi, to / Augi, no*; eta, bide batez esanda, ez dakigu *to* horrek zenbaterainoko lotura duen *txo* bokatibo modernoarekin:

1 Bizk. **Gizonezkoekin, eta bereziki mutikoekin, erabiltzen den lagunarteko bokatiboa.**

Hala ere, iruditzen zaigu *to* osagaia bokatibo gisa erabilia balego aditza osorik agertu beharko litzatekeela, *e-kun* forman, *e*-rekin: *to ekun*. Eskuan ere aginterazko adizkia da, partizipio forman, eta *e* du hasieran, nahiz eta amaierako *-n* faltan izan *-VI*. atalean azaldu ditugu zergati posibleak-. Hortaz, bigarren aukeratik abiatuta *tokun* eran hartuko dugu, bi osagaiak batera: **adizkia**, '*edukik, euk, ukan ezak/n'* esanahiarekin. Jarrita ditugu pareko adibideak: *tori, totzak, to(i)zkik...* Baita Axularren aipua: *Thotzik bada, har itzak heure zapaten diruak eta utztak niri bakea*. Ax 430 (V 279). Esanahien zerrendan '*ukan ezak/n'* ere jarri dugu, hots, sistema perifrastikoaren arabera gizonetzkoa / emakumezkoa bereizketa eginda, baina barskuneran gure tankerako sistema perifrastikorik ez zegoenez, jo dezakegu *tokun* generikoa izango zela, *tori* bezalakoa; ez dugu uste *adizak / adizan* bereizketaren antzera "*no-kun*" forma izango zenik. Gure atsotitz bilduma zaharretako hikako adizkiek *-k* dute, aditz partizipioari atxikita. Eta generikoa izango zela onartuz gero, orduan ez dugu informazio zehatzagorik kutunaren eramaleaz, berdin izan zitekeen emakumezkoa zein gizonetzkoa.

Baina adizkia hikan egoteak mezuaren beste ezaugarri bat azaleratzen digu: elkarrizketa mailako mezua da, hurbiltasunezkoa; ez da idazkun inpersonal bat, harri batean zizelkatuta egon daitekeen esaldi hotz bat. Horrela bihozkorra da, sentimendu bat iradokitzen du: opari eman duena eta jaso duena elkartzen ditu, edo oparia izan ez bada ere, adizki horrek babes gisako hurbiltasuna eskaintzen dio eramaleari. Idazkuneko egituraketa grafikoan, hiru lerro x lau zeinu, *to*-ren lekuan *e* jartzeko aukera zuten, *e.ku.n* arrunt gatzbako bat, diseinua kaltetu gabe; baina ez, *tokun* idaztea erabaki zuten. Zein ederra! Honek ere analisi literario bat mereziko luke, eskuko mezuak bezala. Horretaz, II. txostenean adierazi genuen geure miresmena mezuko maila gizatiarraz, eta gauza bera gertatzen zaigu honetan ere. Apur bat sakonduz gero ezaugarri poetikoak sumatzen ditugu.

**3 Hirugarren segmentua.** Hirugarren lerroa osorik hartzen du, lau zeinuko sekuentzia: ti.r.ta.ba idatzita. Horrela aurkeztuta ez dirudi euskara zaharra denik, edozer izan liteke. Baina gure Gidan azaldu ditugun gakoan bidez argitu eta amaieran agertuko zaigu zer izan daitekeen, aurretiaz jada adierazita dugun arren.

Eskuko aurrekaria dugunez, irr·ta·ma, zeinean *eta* juntagailu batek elkartzen dituen bi sintagma (edo hiruko sekuentzia bat), honetan ere egitura berbera ikusten dugu, eta esan dugu barskunerauko baliabide lexiko berezia dela: esamoldeak (esapideak edo lokuzioak).

Esamoldeetan osagaien elkarketak adiera berri bat sortzen duenez, elementuek banaka ez dutena, adierazi dugu ezen horregatik adib. *jo eta ke* esamoldeak 'eginahalean, gogotsu' esanahia duela. Era berean, esan dugu eskuko *irri eta ma*, esamoldetzat harturik, 'pozik' adierakoa dela.

Beraz, segmentu honetan ere esamolde eiteko egitura bat dugula interpretatzen dugu. Eta zein dira juntagailuak elkartzen dituen osagaiak? Lehenengoa aztertzen hasita, kontuan hartuko ditugu bi faktore: bat, *ti* badakigu *txi* ere izan daitekeela (soinu sabaikaria, bustia), ez zutelako *tx* idazteko modurik (idazkerako 2F fakt.); eta, bestetik, eskuan bezala, elkarketa hauetan lehenengo elementuaren azken bokalaren galera: irr·ta·ma > irr·ta·ma, txir·ta·ba > txir·ta·ba. Arrazoi fonetiko hutsa da, elkarketan juntagailuari gertatzen zaiona bezalakoxea: txir·eta·ba > txir·ta·ba. Goian jarri dugun *jo eta ke* esamoldea ere teorikoki horrela da, baina orok ahoskatzen dute /jotake/, ez da entzuten e-rik.

Hortaz, esamoldeko lehenengo elementua *txiri* dela jotzen dugu. Beraren forma soil horretan ia ez da dokumentatzen ez erabiltzen eta *txirbil* edo *txirlora* hitzen sinonimoa da, horietan ere *txiri*-ren azken bokala elkarketan erori egin delarik; esanahia: era kiribilduan ateratzen den zur edo metal azala. Eta esanahi horri loturik ('biribil, kiribil') *txiri*- osagaidun beste hitz batzuk badira: *txirikorda*(tu) (ilea, hariak...), *txiribuelta·ka* (zilipurdi·ka), *txiribirian* (jolasa), *txirikila* jokoa, *txirimili* (zurrunbiloa, ekaitz eran)...

Baina batez ere beste hitz sorta baten osagaia da *txiri*, zeinetan ez duen esanahi zehatzik; hitza eraikitzeke baliabide gisakoa da, duen forma leunak lagunduta bezala (afrikatu sabaikaria + *i* + *r* biguna + *i* egitura), iradokiorra gertatzen da, onomatopeien edo *txiruliruli*-ren antzera, edo Azkuek jasotako hauek: «*Txiribiri txitxi, gure txakurrak azurrik asko ta mampirik gitxi*» A Morf 677; «*Yaurti notsan / bartzuna, txikolaña / txirikillo morokillo laña*». A EY IV 326.

Eta horien antzera, honakoak: *txiribi* (txori mota); *txiribita* / *txirigita* (lorea), *txiribiri* (tximeleta / belar mota); «*Tinta-txiribiri sendoetan...*» "En densas volutas de tinta". MEIG IX 123; *txirita* edo *txirta* (txori mota); *txiriboga* (taberna, ostatu, benta); *txiribogin* (tabernaria); *antxirinean* (hanka batekin ibili); *txirika*, «*Ain txirika nengoen...*» Gazt Muslx 227 ('zentzumena galduta'); *txirikatu* (Zar. 'blai geratu'); «*txirizkaz zaude*» SP ('oihuz'); *txirimiri* (*txiki-miki*) *bategaiti* JM Zab (txikikeria); *txirin erori* (*lazoan* erori, errendaturik); *txiri-mara* / *txiri-txara* (bizkor, erritmo onean); *txirimizkatu* (hitzak erdi ahoskatu); *txiripin* (liskarra); *txiritxa* (matxinsalto); *txiri-txiri* (apurka-apurka, poliki)... *Okantxiribillu* (basarana); Erronkarin *kartxiri* (ureztatzekoa) eta *baratze* (lehorra) bereizten zituzten: «[Arri erauntsiak] *kartxiri guziuak erraustu baidutu*», Mdg 142. Erronkarin baita, aitabitxiri diru eskea egiteko: «*Txirimiri, marabedi guziak niri*». Marabediak (arab. *murabítí*; Azkuek: *marai-a*) erabiltzen ziren garaitiko esamoldea, *txiri*- osagaiarekin.

Beraz, ikus daitekeenez, gure hitz askoren osagaia da *txiri* elementua, kutuneko esamoldeko egituran ulertzen duguna; alegia, euskararen baliabide oso erabilia, garai eta

eremu desberdinetan. Bigarren elementua *ba* idazkerakoa izan arren –ez zuten *pa* silabarako zeinurik–, *pa* ahoskabetzat hartuko dugu: /txirtapa/. Amaierako kokagune horretan fonetikoki logikoagoa dirudi. Izan ere, hiztegiari begiratuta, senidetasun morfemadunak kenduta (*ize·ba*, *osa·ba*, *ala·ba*, *ilo·ba*, *arre·ba*, *ne·ba...*), oso gutxi dira *-ba* amaieradun euskarazko hitzak.


Goiko zerrendatze horretan aipatu gabe utzi dugu beste hitz bat, kutuneko elementuan sumatzen den adiera baliokidea duena: *txiripa*. Batik bat, hitz horren esanahia da ‘zorte ona, aldekoa’, edo bestela esanda ‘zorioneko ezustea, ustekabe ederra’. G. Garatek ere jaso zuen, esapide jatortzat, ‘*escapada*’ erdarakadaren ordezkoi: «*Txiripa ederra egin dot*» (V-gip) Gte *Erd* 212. Dena dela, esan beharra dago gaztelaniaz edo katalanez ere erabiltzen dela ‘aldeko zortea’ esanahi berberarekin, baita Hegoamerikan (*chiripazo* ere); kasurako, *esquerra* / *izquierda* bezalaxe (eusk. jatorria). Baina cat. *xiripa* edo gazt. *chiripa* (loc. adv. coloq.) horien sorburua zein den ez dakite, eta ustezko etimologiaz hipotesi xeblebre asko emanda daude: persiera («d’origen incert, potser del persa o de l’arab»), hebraiera («*chispa*, *chiripa* o *chiripón*, palabras originalmente hebráicas»), errusiera, eusk. *txiripiztin* (!?), eta abar. Gaztelaniaz, 1809ko obra batean ageri da lehen aldiz: «siendo tal su fortuna [...] que sólo por *chiripa* no se vio manco». RAEn 1832an sartu zuten. Euskaltzaindiaren hiztegian jasota dago, adierazita dugunez: ‘*zorioneko halabehar edo ezustea*’; etimologikoki idatzita, *zori oneko* litzateke.

Arazoa da *txiripa* hitza ez dela ageri gure testu klasiko zaharretan, ezta *txirtapa* lokuzioa ere –salbu eta kutunean, gure interpretazioan–. Aurkitu dugun lehenengo testigantza Udarregi bertsolariarena da, 1862, *Pelota partiduaren bertsoak*, 16: *orren goien barrenak / ongi dira neurri / txiripa asko pasa / ziyoten alkari*. Halaber, garai horretan, Bilintxen bertso batean: *Eta suertatzen bada / txiripa batian / zezen bat txit brabua*. Edo Txirritak ere (*Bertso berriak*, 1930): *Oraingo ortan pasa zaiote / txiripa kuriyosua*. Lehenago M. Soroaren *Urrutiko intxaurrak* obran (1887) hainbat dokumentatzen dira: *Amerikan ondasuna egiten duk txiripa batez; Txiripa bila joan; – Txiripa topatzeko ez duk horrenbeste itsaso beharrik; txiripa bat izango dela hiretzat; txiripa horren usainean joango hintzateke*.

Bestetik, kontuan izan behar dugu izaera desberdineko bi elementu erkatzen ari garela, lokuzio bat (elkarketa) eta hitz bat, eta linguistikoki zaila da azaltzea lokuzio bat nola bilakatu ahal izan den hitz, dokumentazio historikorik ukan gabe. Baina formaren aldetik oso antzekoak dira, *txir(i)·ta·pa · txiripa* eta, batez ere, esanahiaren aldetik estuki loturik daudela nabaritzen dugu, kutuneko testuan ‘zorioneko ezustek’ adiera guztiz logikoa delako. Bestalde, hitzak iraunkorragoak izan daitezke esamoldeak baino, egonkorragoak, eta litekeena da lokuzio eran bi mila urteko aldi galdu izana, beste asko bezala ziurrenik, baina adierak hitz gisa irautea, *txiripa* forman hain zuzen. Beraz, ez dugu uste, inondik ere, mailegu exotiko bat denik; hitz herrikoia da aspalditik, aipaturiko bertsolariak edo antzerki obra lekuko.

Horregatik, gure interpretaziorako *txiripa* hitza hautatu dugu, forman eta esanahiaren aldetik hori delako kutuneko testuaren zentzuarekin ondoen uztartzen dena, hurbil-hurbila, baina bata bestearen bilakaera direla baietsi ezinik, ez baitugu daturik hori egiaztatzeko.

Azkenik, kutuneko testuaren bertsio irekiagoa honako hau izan daiteke: «*Kutun honekin eduki ditzazula zorioneko ezustek*», hots, «*Kutun honekin gauza onak gerta dakizkizula*». Duela bi mila urteko mezu txukuna, gure arbasoek diseinu dotoreko kutun batean irarria. Miresgarria.



---

Honekin bukatutzat ematen dugu oraingoz *Barskunera gida* honen edukia, material berrien esperoan, azaldu duguna osatu edo moldatuko dutenak.

Bitartean, bi mila urtean konpainia itxaroten egon diren mezu eder horiei lagun egiten geratuko gara, Eratostenesek nozitu ahal izan zuen sentsazioarekin edota Alexis Zorba zaharrak.

J. Butroe, 2023ko uztaila

## Amaierakoa: *desolatio*

Uztailean du amaiera data ikerketa linguistikoak, *Barskunera gida* onduta, material berrien zain utzi duguna. Jada urria delarik, ez da ezer agertu, baina baliteke luze gabe albisteak izatea, Aranzadikoen udako kanpainaren ondorioz.

Bitartean, ikerketa konplexu hori burutu dudan honek nozitutakoa azaldu nahi nuke, konstantzia uzteko. Labur-zur esanda, oso latza gertatu da prozesua.

Batetik, txostenetan-eta beti ere plural maiestatikoa erabili arren, bakarrik jardun izanagatik. Plazaratutako lehenengo bi artikulua bost kideren izenean azaldu ziren, batik bat talde gisa arreta erakarri eta eztabaida sustatzeko asmoarekin, linguistiko edo filologikoa; ordea, horrek ez du funtzionatu: basamortuan predikatzea bezala izan da. Eta interpretazioaren argudio linguistikoetan sakontzeko txostenak, bakardadean, interakziorik gabe. Horregatik daude neure izenpean, inor ez konprometitzeko, eta horrela izan delako.

Orobat kanpotik ere. Beste aditu edo euskalari batzuekin izandako interakzio saioak, alferrik; esaterako, hala euskaltzain batekin nola Erronkari aldeko euskalari fin batekin. Berdintsu lana argitaratzeko saiakeretan. Birritan akademiaren Ikerketa Aldizkarira, eta azkenean erantzuna: ez dituela baldintzak betetzen, damurik. Lau argitaletxeri ere liburu formatuan (180 orr.) plazaratzeko interesa jakinarazita, batek bakarrik ihardetsi: lar tekniko edo. Aranzadira ere komunikazioak bidali, eta ezer ez. X-n edo Twitter-en ere jarrita, baina arreta eskasa.

Baina, bestalde, basamortuko ibilaldi etsigarri honetan, aipatzekoak bi pertsona, jokaera txukunagatik: *Alea* aldizkariko Mikel prestua eta bi mezu itzuli dizkigun aditu iberista maila handiko bat, zeinak kritikatzeko izanda ere adeitsuki erantzun baitzituen mezuak. Beste aditu batek, aldiz, isiltasuna erantzun.

Finean, sentsazioa geratzen da egindako interpretazioa fantasiatzat hartua dela, eta uste hori ezabatu eta testua atalez atal egiaztatzeko helburuarekin burututako analisi linguistiko konplexuak alferrik direla, ahalegin hutsala, inor gutxi irakurtzen baitu *letra txikia*; titularra, nahikoa. Eratostenes aipatu dugu, baina Galileo ere jar genezakeen. Beraz, onena gehiago ez saiatzea izango dela, ikerketa gelditu eta itxaroten geratzea; ea halako batean eskukoa aitzineuskara dela deskubritzera iristen diren –zer, bestela?– eta mezua, osoa, argitzen duten, gure filologoen: zerbait sinesgarriagoa. Analisi eta azalpen linguistiko sendoekin, espero dugu. Ea horrela den.

e.d.u.

---

P.D. Honainoko dokumentu osoa [PDF](#) moldean dago eskuragarri *atalak* webgunean.  
2023 azaroa

## Bibliografia

- FHV L. Michelena, *Fonética Histórica Vasca*. 2. arg. zuzendua eta gehitua, 1977. ASJUren Gehigarriak 4, 1990.
- OEH L. Michelena e I. Sarasola, *Orotariko Euskal Hiztegia - Diccionario general vasco*. Bilbo, 1987-2005. Euskaltzaindia.
- LH L. Michelena, *Lengua e historia*. Paraninfo. Madrid, 1985.
- RS J. A. Lakarra, *Refranes y Sentencias 1596. Ikerketak eta Edizioa*. Euskararen lekukoak, 19. Euskaltzaindia, 1996.
- TAV L. Michelena, *Textos Arcaicos Vascos*. Biblioteca vasca VIII. Minotauro. Madrid, 1964.
- 
- AIESTARAN, M. 2022, *Irulegi: Irulegiko Eskua*. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia.
- AZCONA, L. I. 2015, *El ibérico: lengua uskeika*. Iruñea-Pamplona.
- AZKUE, R. M.  
– 1969, *Particularidades de dialecto roncalés. Tratado de Morfología Vasca*. LGEV.  
– 1969, *Diccionario vasco-español-francés*.
- BRETTSCHNEIDER, G. 1981, *Euskara, hizkuntzen tipologia ta hizkuntza unibertsalak*. Euskalarien nazioarteko jardunaldiak. Iker, Euskaltzaindia.
- CAMPION, A. 1880, *Orreaga*. Iruñea-Pamplona.
- ESTORNES-LASA, J. 1982, *Erronkariko uskaraz elestak. Fraseología Roncalesa*. FLV, XIV nº 40, pp. 461-84.
- GARATE, G. 1988, *Erdarakadak*. Mensajero. Bilbao.
- GOENAGA, P.  
– 1978, *Gramatika bideetan*. Donostia. Erein.  
– 2022, *Euskal gramatika. Egiturak eta Osagaiak* (B. Fernándezek editatua. Bilbo: UPV/EHU).
- GORROCHATEGUI, J.  
– 2008 *Antzinateko euskararen nondik norakoak*. Nazioarteko XV. Kongresua. Euskaltzaindia, 361-78.  
– 2009, *Vasco antiguo: algunas cuestiones de geografía e historia lingüística*. Paleohispánica 9, 539-55.  
– 2018, *Euskararen historia*, Gorrochategui, Igartua, Lakarra. EJ-GV.  
– 2020, *Aquitano y Vascónico*. Paleohispánica 20, 2020 (721-48)

HOZ, J. de. 2011, "Las funciones de la lengua ibérica como lengua vehicular", in C. Ruiz Darasse eta E. R. Lujan (arg.). Madril: Casa de Velazquez, 27-64.

IRIGOIEN, A.

- 1971, "Estudio de un texto arcaico del vizcaíno antiguo" in I Semana de Antropología Vasca. LGEV, Bilbo, 455-474.
- 1977, "Gure hizkuntzari euskaldunok deritzagun izenez", Euskera 22, 513-.
- 1978, "Erakusleez". Bergara. Euskera XXIV.
- 1981, "Haur ola ziola. Elementos deícticos en la lengua vasca", Iker 1: Euskalarien nazioarteko jardunaldiak. Bilbo.
- 1982, "Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico", Vitoria en la Edad Media, Congreso de Estudios Históricos, Vitoria-Gasteiz.
- 1990, "Etimología del nombre vasco del vascuence y las vocales nasales descritas por Garibay", FLV 22, 139-47.
- 1996, "Gnomica Biscaiensis. Refranes y Sentencias de 1596, junto a los recopilados por Oihenart". Euskaltzaindiaren lan eta agiriak, 689-718.

IZAGIRRE, K. 1981, *Euskal lokuzioak*. Hordago. Donostia.

KALTZAKORTA, J. 2023, *Azkueren gutundegia: 1904-1906*. Euskera 68, 31-110.

LAFITTE, P. 1944, *Grammaire basque*. Baiona.

LAKARRA, J. A.

- 1996, *Refranes y Sentencias (1596) Ikerketak eta edizioa*. Euskararen lekukoak, 19. Euskaltzaindia.
- 2002, "Etimologiae (proto)vasconicae": Artiagoitia, X., Goenaga, P. eta Lakarra J. A., Erramu Boneta. *Festschrift für Rudolf de Rijk*, 425-42.
- 2006, *Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistórico del verbo vasco*. (ASJU, XL, 561-622)
- 2011, *Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio*. FLV, Separata, 113.
- 2018, *Euskararen historia*, Gorrochategui, Igartua, Lakarra. EJ-GV.

LIZARTZA, R. 2009, *Hitanoa. Mintza hadi, lagun!* Maramara.

LUJAN, E. 2010, *Las inscripciones musivas ibéricas del valle medio del Ebro: una hipótesis lingüística*. Serta Paleohispánica 10, pp 289-301.

MARTÍNEZ ARETA, M. 2006, *Aitzineuskararen kontsonantismoa*. FLV, 451-70.

MICHELENA, L.

- 1951, *Notas a la colección diplomática de Irache*. Univ. Salamanca.
- 1954, *La posición fonética del dialecto vasco del Roncal*. Via Domitia 1, 123-58.
- 1961, *Comentarios en torno a la lengua ibérica*. Zephyrus 12.
- 1963, *Lenguas y protolenguas*. Berrarg. ASJU-ren Griak 20, 1990.
- 1964, *Textos Arcaicos Vascos*. Berrarg. ASJU-ren Griak 11, 1990.
- 1982, *Sobre la historia de la lengua vasca*. ASJU 16, 141-156.
- 1987, *Palabras y textos*. J. Gorrochategui (arg.), UPV/EHU.

MONCUNILL, N.

- 2007, *Lèxic d'inscripcions ibèriques* (1991-2006). T.D. Barcelona.
- 2008, *Butlletí bibliogràfic. L'estudi de la llengua ibèrica*. Institut d'Estudis Catalans, Vol. 27, p. 495-517.

MITXELENA, K., SARASOLA, I., 1983. *Textos arcaicos vascos*.

*Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. GFA&EHU.

MÚÑEZ ASTRAIN, L. 2003, *El Euskera Arcaico*. Txalaparta.

ORDUÑA AZNAR E.

- 2010, *En torno al lexema ibérico eki- y sus variantes*. Serta Palaeohispanica J. de Hoz Palaeohispanica 10, pp. 319-34.
- 2018, *El signo T de las leyendas monetales Vasconas, uTanbaate Y oTtikes*. Palaeohispanica 18, pp. 137-149.

RIJK, R. P. G. de,

- 1981 «*Euskal morfologiaren zenbait gorabehera*» in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-101.
- 1992, '*Nunc' Vasconice*. ASFV. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca, EHU.

SAROÏHANDY J. J. 1927, *La pastorale de Roland. Texte basque établi à l'aide de plusieurs manuscrits*. Avant Propos. (Deustu Uniberts. Liburutegia)

TOVAR, A.

- 1954, *Sobre el planteamiento del problema vasco-ibérico*.
- 1958, *El euskera y sus parientes*. Minotauro.
- 1980, OTTE, E. & MICHELENA, L. "Nuevo y más extenso texto arcaico vasco: de una carta del primer obispo de México, Fray Juan de Zumárraga".
- 1981, *Orígenes del euskera: parentescos, teorías diversas*. In Estudios de tipología lingüística, Itsmo 1997, 135-144.

TRASK, R. L.

- 1997, *The History of Basque*. London. Routledge.
- 1998, *The typological position of Basque: then and now*. Language Sciences 20, 313-24.

.

---

*Lezamako toponimia*. A. BIDART - A. ETXEBARRIA.

Lezamako Udala - Labayru Ikastegia. 2003.



## Webgrafia

ABAITUA, J.: La muy “dichosa” Mano de Irulegui: [Gasteiz, 2023-03-21](#)

ACADEMIA.EDU: <https://academia.edu>

ALVAREZ, P. Gramática histórica: <https://youtu.be/FSVyAubnQQA>

ARANZADI

- [aranzadi.eus](http://aranzadi.eus)
- Mahai ingurua: [Iruñea, 2022-12-29](#)
- Mahai ingurua, San Telmo: [Donostia, 2023-02-10](#)

ARMIARMA-TESTU KLASIKOAK: <https://klasikoak.armiarma.eus>

Klasikoen gordailua: Idazleak eta idazlanak. Testu zaharrak eta epigrafikoak.

BELASKO, M.: <http://mikelbelasko.blogspot.com>

EHU. <https://egeo.ehu.eus>

II. *Numismática Paleohispánica*. Estarán, M. J. & Beltrán, F. 2015:  
<https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/UHPDF151886.pdf>

EUSKALTZAINDIA: <https://www.euskaltzaindia.eus>

- EODA. Toponimia.
- EHHE. Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200). Lakarra-Manterola-Segurola.
- Diccionario Vasco-español-francés. R. M. Azkue. 2006.

HESPERIA: <http://hesperia.ucm.es>

IDAZLEAK.EUS: <https://idazleak.eus> (M. A. Elustondo - G. Bilbao)

- [Jorraleen koblak](#)

TXANPONAK:

- HERRERO, J. A. *Vascones*: <https://www.tauleryfau.com/es/vascones/>
- <https://monedaiberica.org>
- IBAÑEZ, M. *La ceca ibérica de Arsaos*:  
<https://numisarchives.blogspot.com/2016/10>  
<https://www.losviajerosdeltiempo.com>
- MAN (Museo Arqueológico Nacional): <http://www.man.es/man>

WIKIPEDIA: <https://eu.wikipedia.org/wiki/>